EUSKAL HERRI
ENBLEMATIKOA

ETOR - OSTOA

# EUSKAL ANTZERTI ETA ZINEA



**Argitalpenaren Zuzendaritza**
Enrique Ayerbe Echebarria

**Egileak**
Patri Urkizu
Juan Aguirre Sorondo

●

**Argazkiak**
Iñaki Aguirre
Darío Garrido
Artxiboa

●

**Beste hainbat argazki**

**ANTZERKI** saileko argazkiak eta ilustrazioak kapitulu horien egileengandik jaso ditugu. Era askotako artxiboetatik hartuak direnez, sarritan zaila da egilea nor den jakitea; hala ere, ahal izan den bakoitzean adierazi egin da.

**ZINEA** ataleko ilustrazioari dagokionez, hastapenetako argazki eta fotograma gehienak **Jose Maria Unsainek** emanak dira. Aipamen berezia merezi du **Enrique Calvo** eta **Koldo Larrañagaren** «*Lo vasco en el cine*» izeneko CDrom-ak, hortik hartu baititugu zinearekin lotutako kartel eta fotograma ugari, zuzendari, ekoizle, aktore eta zine munduko hainbat jenderen argazkiak bezalaxe. Era berean, **Euskal Filmategia, Kutxaren Fototeka** eta Kutxaren **Gizarte Ekintzaren** materialez ere baliatu gara.

Pertsona eta erakunde horiei guztiei, gure eskerronik beroena.

●

**Maketazioa eta Diseinu Grafikoa**
José León Huarte Ros
Begoña Goikoetxea Amonarraiz

●

**Irudiak**
Ana Jubín Ábalos
Arantxa Merino León

●

**Itzulpena**
Jokin Aiestaran
Luismari Larrañaga
Euxebe Portugal

**Argitaletxea**
© OSTOA S.A.
Pza. del Caddie, 1. Lasarte-Oria

●

**Fotokonposaketa**
OSTOA S.A. Lasarte-Oria

**Inprimaketa eta koadernaketa**
GRAFO S.A. Basauri

ISBN: 84-88960-83-2
Lege gordailua: BI-1527-02

Euskal Herri enblematikoa

ETOR - OSTOA

# Euskal Antzerti eta Zinea

OSTOA

ETOR - OSTOA

ETOR

# Aurkibideak

## Euskal Antzerkia *Patri Urkizu*

### EUSKAL ANTZERKIA


Herri Antzerkia .......... 10
Sorburuak eta paraantzerki formak .......... 10
    Bertsolaria .......... 10
    Errandoak .......... 11
    Bertsolaria .......... 11
    Maskaradak .......... 11
Asto-lasterrak .......... 12
    Maskarada .......... 13
    Asto-lasterra .......... 14
    Asto-lasterra .......... 15
    Galarrotsa .......... 15
    Tobera .......... 15
Pastoralak .......... 17
    Pastorala .......... 18
    Pastorala .......... 19
Inauterietako komediak .......... 21
    Inauteria .......... 21


### XVI-XVII. MENDEAK


XVI. mendea .......... 22
Galdutako piezak .......... 22
Perucho, antzerki gaztelauaren euskal pertsonaia .......... 22
XVII. mendea .......... 23
Jundane Jakobe handiaren trageria .......... 23


### XVIII. MENDEA


Fartsak .......... 28
Pastoralak .......... 29
Pedro Ignacio Barrutiaren Gabonetako Ikuskizuna .......... 29
Peñafloridako Kondearen antzerki lana .......... 30


### XIX. MENDEA


Zuberoako herri antzerkia .......... 34
Antzerki berria .......... 34
    Lapurdiko eskola .......... 35
    Donostiako eskola .......... 35
    Bizkaiko eskola .......... 42


### XX. MENDEA


Zuberoako antzerki herrikoia .......... 44
Pastorala .......... 44
Pastorala .......... 50
    Toribio Alzaga eta Euskal Iztundea (1915-1936) .......... 54
    Euskal antzerkiaren eguna (1934-1936) .......... 60
Errepublika .......... 60
Gerra .......... 61
    Euskal Iztundearen bigarren aldia (1953-1981) .......... 61
    Pierre Lartzabal eta Antonio Labaie .......... 69
    Gabriel Aresti eta Bernardo Atxaga .......... 69
        Antzerkigintza 90eko hamarkada .......... 69
    Bibliografia .......... 93
    Oharrak .......... 93
Aipatutako antzezlanak, izenak eta taldeak .......... 96

# ANTZERKIAREN MUNDUA *Juan Aguirre Sorondo*


## SARRERA

## TALDEAK ETA KONPAINIAK

GIPUZKOA ... 104
Orain ... 104
Ur Teatro ... 104
Tanttaka Teatroa ... 105
Bederen 1 ... 106
Trapu Zaharra ... 106
Agerre Teatroa ... 106
Legaleon -T Teatro ... 106
Txalo ... 107
Taun-taun ... 107
Ados teatro ... 107
Vaivén teatro ... 107
Arteszena ... 110
Teatro estudio ... 110
BIZKAIA ... 110
Karraka ... 110
Geroa ... 111
Maskarada ... 111
Akelarre ... 114
Eolo ... 114
Cobaya ... 114
Eskarmentu handiko beste talde batzuk ... 114
Cómicos de la legua-Kilikilariak ... 114
Tarima ... 114
Markeliñe ... 114
Antzerki harrobia ... 114
ARABA ... 116
Denok kooperatiba ... 116
Bekereke ... 118
Pikor ... 118
Teatro Gasteiz ... 118
Teatro Paraíso ... 118
Porpol ... 118
Traspasos ... 118
NAFARROA ... 120
El lebrel blanco ... 120
Teatro estable de Navarra ... 120
Pinpilinpausa ... 121
IPARRALDE ... 121
Les Chiméres ... 121
Lézards qui bougent ... 121
Théâtre de Versant eta Scaramuccia ... 121

## EGILEAK

Eskarmentu handikoak ... 124
Helduak ... 124
Gazteak ... 124

## ANTZERKI AGENDA

ASKOTARIKO JAIALDIAK ... 126
Antzerkia ... 126
Txotxongiloak ... 126
Kale eta eskola antzerkia ... 126
Azoka bat ... 126
Iparralde ... 126
EUSKAL ANTZERKIA, KOPURUETA ... 126
Euskadiko Antzoki Sarea ... 127
ANTZERKI IKASKETAK ... 127
SARIAK ETA LEHIAKETAK ... 127
Ercilla Sariak ... 127
Arte eszenikoen Max Sariak ... 128
E.A.B. antzerki sariak ... 128
Txema Zubia Saria ... 128
LITERATUR SARIAK ... 128
Donostia Hiria Saria ... 128
Serantes Saria ... 128
IKUSLEEN ELKARTEAK ... 128
Txema Zubia Elkartea (Donostia) ... 128
Amis du Théâtre de la Côte Basque (Biarritz) ... 128
AIPATUTAKO ANTZEZLANAK, IZENAK ETA TALDEAK ... 130

# EUSKAL ZINEMA *Juan Aguirre Sorondo*

ZINEMA ... 135
EUSKALDUNEN ZINEMA, ZINEMAKO EUSKALDUNAK ... 136
Euskal zinema? Euskaldunen zinema ... 136
AITZINDARIAK ... 138
Hasiera. Eroak eta dirudunak. Hispania Film. Estudios Azcona. Hogeita hamarreko urteak ... 138
AMA LUR ... 144
Kultur garrantzia. Produkzioa eta zentsura. Egiturazko osagaiak. Edukia. Mezu kulturaleta sentikorra ... 144
ZINEMA DOKUMENTALA ... 146
Esperientzia berritzaileak. Erbestea eta urte ilunak. Ikuska. Izadia eta Politika. Azken ordua ... 146
ZINEMA POLITIKO ETA HISTORIKOA ... 150
Toque de queda ... 150
El proceso de Burgos ... 150
La fuga de Segovia ... 150
La conquista de Albania ... 150
Akelarre ... 151
Erreporteroak-Los reporteros ... 151
La monja alferez ... 151
A los cuatro vientos. Lauaxeta ... 151
Ander eta Yul ... 151
Crónica de la Guerra Carlista ... 154
Kearteko egunak-Días de humo ... 154
Santa Cruz, el cura guerrillero ... 154
El rey pasmado ... 155
Yoyes ... 155
Silencio roto ... 155
Visionarios ... 155
ZINEMA DRAMATIKOA ... 158
Fuego eterno ... 158
Otra vuelta de tuerca ... 158
Adiós, pequeña ... 158
Las cartas de Alou ... 158
Alas de mariposa ... 159
Vacas ... 159
La madre muerta ... 159
La ardilla roja ... 159
Historias del Kronen ... 159
Bwana ... 160
Todo está oscuro ... 160
Asfalto ... 160
Los amantes del Círculo Polar ... 160
La novena puerta ... 160
Plenilunio ... 160
Lucía y el sexo ... 161
Algunas chicas doblan la piernas cuando hablan ... 161
EUSKAL HERRIA PANTAILAN ... 162
Euskal Herri-Musika ... 162
Siete calles ... 162
El pico ... 162
La muerte de Mikel ... 162
Tasio ... 163
Golfo de Vizcaya ... 163
27 ordu / 27 horas ... 163
Kareletik-Por la borda ... 163
Gran Sol ... 163
Offeko maitasunaAmor en off ... 163
Urte ilunak-Los años oscuros ... 164
Días contados ... 164
Salto al vacío ... 164
Secretos del corazón ... 164
Lo mejor de cada casa ... 164
KOMEDIA ... 166
Tu novia está loca ... 166
Todo por la pasta ... 166
Como levantar 1.000 kilos ... 166
Acción mutante ... 166
Sálvate si puedes ... 167
Maité ... 167
Justino, un asesino de la tercera edad ... 167
El día de la bestia ... 167
Sólo se muere dos veces ... 167
Calor y celos ... 167
Airbag ... 168
Perdita Durango ... 168
Pecata Minuta ... 168
Mamá es boba ... 168
Sí, quiero ... 168
Muertos de risa ... 168
Sabotage ... 169
La comunidad ... 169
Ione, sube al cielo ... 169
Carretera y manta ... 169
Año Mariano ... 169
Marujas asesinas ... 169
ANIMAZIOA ... 170
Genero lehiakorra ... 170
Juanba eta beste ... 170
Hamarkada animatua ... 171
"Megasónicos", 3D formatuan ... 171
Teknika mistoak ... 171
Balantzea eta etorkizuna ... 171
LABURMETRAIA ... 172
Dokumental laburra ... 172
Ikasleak eta esperimentalak ... 172
Periferiako sortzaileak ... 173
Kimuak ... 173
ZINEMA ESPERIMENTALA ... 174
Sobrevila eta beste abangoardista batzuk ... 174
Oteizaren inguruan ... 174
Plastika zeluloidearen gainean ... 175
Zabala, Zulueta eta Etxegaraiko ... 175
BIDEO SORKUNTZA ... 176
Bideoa Euskal Herrian:Lehen Hartualdia ... 176
Hiru jaialdiak ... 176
ZUZENDARIAK ... 178
Harry D'Abbadie D'Arrast ... 178
Nemesio Manuel Sobrevila ... 178
Mauro Azkona ... 178
Javier Agirre ... 178

Antonio Mercero ... 179
Pedro Olea ... 179
Antxon Ezeiza ... 179
Victor Erice ... 179
Iván Zulueta ... 179
Eloy de la Iglesia ... 179
Imanol Uribe ... 180
Juan Marino Ortuoste eta Francisco Javier Rebollo ... 180
Montxo Armendáriz ... 180
Juanba Berasategi ... 181
José Mª Tuduri ... 181
Ana Díez ... 181
Julio Medem ... 181
Ernesto del Río ... 181
Alex de la Iglesia ... 184
Juanma Bajo Ulloa ... 184
Enrique Urbizu ... 184
Ernesto Tellería ... 185
Helena Taberna ... 185
Daniel Kalparsoro ... 185
Eneko Olasagasti eta Carlos Zabala ... 185
ANTZEZLEAK ... 186
Juan de Landa. ... 186
Conchita Montenegro ... 186
Pierre Richard ... 186
Martine Carol ... 186
Alfredo Landa ... 187
Tomás Blanco ... 187
Imanol Arias ... 187
Luis Mariano ... 187
Xabier Elorriaga ... 188
Mariví Bilbao ... 188
Paco Sagarzazu ... 188
Patxi Bisquert ... 188
Klara Badiola ... 188
Ramón Barea ... 188
Javier Gurruchaga ... 189
Karra Elejalde ... 189
Saturnino García ... 189
Mikel Garmendia ... 189
Alex Angulo ... 189
Najwa Nimri ... 189
Ramón Agirre ... 189
EKOIZLEAK ... 190
Elías Querejeta ... 190
Angel Amigo ... 190
Iñaki Nuñez ... 191
Edouard, Bernard, François eta Michel Harispuru ... 191
Iñigo Silva ... 191
Jose María Lara ... 191
Luis Goya ... 191
ZINEMA MUNDUKO JENDEA ... 192
Javier Agirresarobe Fotografia zuzendaria ... 192
Arri eta Biaffra Zuzendari artistikoak ... 192
Carmelo Bernaola Musikagilea ... 192
Luis de Pablo Musikagilea ... 193
Jesús García Leoz Musikagilea ... 193
Jorge Gerrikaetxeberria Gidoilaria ... 193
Juan Miguel Gutiérrez Ikerlari eta zinemagilea ... 193
Satur Idarreta Zuzendari artistikoa ... 193
Alberto Iglesias Musikagilea ... 193
Angel Illarramendi Musikagilea ... 193
Luis Iriondo Musikaria, antzezlea, koordinatzailea ... 193
Koldo Larrañaga Zinemazalea ... 194
Josune Lasa Jantzien diseinugilea ... 194
Francis López Musikagilea ... 194
Luis MaríasGidoilaria ... 194
José Angel Rebolledo Zuzendari, gidoilari eta aditua ... 194
Juan A. Ruiz Anchía Fotografia zuzendaria ... 194
José Mª Unsáin. Historialaria ... 194
Manuel Villegas Gidoilari eta teorialaria ... 194
Santos ZunzunegiAditu eta kritikaria ... 194
EUSKARA ZINEMAN ... 195
ZINEMALDIA ... 196
60ko hamarkadatik 80ko hamarkadako krisialdira. Jaialdi eraberritua. Euskal zinema Jaialdian ... 202
JAIALDIAK ETA LEHIAKETAK ... 206
Zinebi, Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Laburmetraien Nazioarteko Jaialdia ... 206
Donostiako Urpeko Nazioarteko Zikloa ... 207
Biarritzeko Nazioarteko Jaialdia, Topalekua ... 207
Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bilera (EZBB) ... 207
Gasteizko Euskal Zinemaren Astea ... 207
Gasteizko Ikus-entzunezkoeta BideoJaialdia ... 207
Tuterako Zinema Espainiarraren Erakustaldia eta Opera Prima Jaialdia ... 207
Le Festival International de Programmes Audiovisuels, FIPA ... 208
Donostiako Fantasia eta Beldurrezko Zinemaren Astea ... 208
Gasteizko Fantasiazko Zinemaren Astea ... 208
Nafarroako ikusentzunezkoen sorkuntza / Festival de creación audiovisual de Navarra ... 208
“Gaztebideo” gazteen bideo jaialdia ... 208
Irungo Zinema eta Bideo Gaztearen Lehiaketa ... 209
Bidasoako Herrialdeko Laburmetraien Nazioarteko Lehiaketa ... 209
Nazioarteko Zinema Jaialdia. Zuzendari berriak. Gasteiz ... 209
SARIAK ... 212
ZINEKLUBAK ... 214
ZINEMA ARETOAK ... 218
Baiona eta Miarritzeko zinemak ... 218
Bilboko zinemak ... 219
Arriaga Antzokia .Olimpia eta Gran Vía zinemak. Vizcaya Aretoa. Trueba Antzokia .Campos Eliseos Antzokia. Gayarre Aretoa. Coliseo Albia. Buenos Aires Antzokia. Ideal Cinema eta Ideales. Actualidades. Izaro eta Mikeldi Zinemak. Consulado. Capitol y Cines Capitol. Carlton. Canciller eta Avenida Zinemak. Urrutia. Astoria. Multicines
Donostiako zinemak ... 223
Principal Antzokia. Victoria Eugenia Antzokia. Novedades Aretoa. Miramar Aretoa. Bellas Artes Antzokia. Príncipe. Kursaal. Trueba. Pequeño Casino. Astoria. Ahaztuak. “Munduko zinemarik handiena”. Kontzeptu berri bat
Iruñeko zinemak ... 226
Aretotik Frontoira. Zinema erregezalea. Príncipe eta Olite. Golem zinemak
Gasteizko zinemak ... 229
Azul Zinemak. Florida-Guridi Zinemak. Guridi Zinemak. Mikeldi Multiplex Zinemak. Ster Zinemak. Yelmo Cineplex Gorbeia. Desagertutakoak
EUSKADIKO FILMATEGIA ... 232
ERAKUNDEAK ETA ZINEMA ... 233
AIPATUTAKO FILMAK ETA IZENAK ... 234

# Euskal Antzerkia

*Patri Urkizu*




ALE·
ENT

# Herri Antzerkia





*Nafarroako Erregeen Jauregiko kapitel bateko xehetasuna. Lizarra, XII. mendea.*

*Tillacen ilustrazioa pastoralari buruz.*

SORBURUA ETA PARAANTZERKI FORMAK: Bertsolaria, Errandoak, Maskaradak. ASTO-LASTERRAK, PASTORALAK, INAUTERIETAKO KOMEDIAK.

## ■ Sorburuak eta paraantzerki formak

Hasiera batean antzerki ikuskizuna erritoari lotuta zegoen, eta ongi dakigu herri bakoitzak bere errito formak dituela, bere modu propioak alegia, sagaratuarekin eta ezezagunarekin hartu-emanetan jartzeko. Beraz, mimo, mozorro, dantza, kantu eta abarren bidezko harreman hori espazio berri bat sortzeko modu magiko bat zen. Aktoreek alteritate bat sortzen zuten, norbanakoaren kanporakoitasun joerari erantzuna emanez, eta honek berekin dibertimendua zekarren, aktorearen eta ikusle zein komunitatearen arteko harreman bat, horrenbestez festa sortaraziz.

Ohitura eta festa horiek, hau da, suaren inguruko dantzak, prozesioak, simulazioak, mimoak, mozorroak eta beste zenbait, fenomeno parateatral edo antzerkiaren aurrekotzat har ditzakegu, bere baitan antzerkiaren halako hozi bat baitaramate, historian zehar eta nazio bakoitzean bide batean barna garatuko zen hozia hain zuzen ere.

Euskal Herrian baditugu horrelako erritoen aztarnak harpeetako pinturetan, eta halako antzerki ukitu bat duten folkloreko elementuak ere ugari dira, esaterako bertsolaritza, errandoak eta maskaradak. Hurrengo lerrootan aurkeztuko ditugun fenomeno hauen guztien jatorria oso aspaldiko garaietan dago.

Aurretik, alabaina, Julio Caro Barojak San Amandori eta honek VII. mendeko baskoien artean burutu predikazio lanari buruz hitz egitean aipatzen digun lehenbiziko datu historikoa ekarri



*Zuberoako Santa-Graziko kapitel baten xehetasuna, XI. mendea.*



*Zuberoako Santa-Graziko kapitel baten xehetasuna, XI. mendea.*

*Oizko murala. Nafarroa, c. 1550.*



nahi dugu hona. San Amandoren bizitzaren berriemaile zen Baudemundo monjeak zioenez, ez dirudi arrakasta handirik izan zuenik baskoiak kristautzeko ahaleginetan, hauek, "mimologus" delako batek zirikatzen zituelako hau keinu eta hitzezko imitatzaile edo karikaturagile bat zen, mimo edo komediante trufari bat, keinuak eta akto lizunak egiten zituena eta ikusleak distraitzen zituena, eta predikatzaileari barre egiten diona. Honakoa idatzi zuen historialariak:

*Dum autem eis verbum paredicaret Divinum, atque Evangelium annuntiaret salutis, unus a ministris assurgens, levis ac lubricus, nec non et superbus, atque apta cachinnans risui verba, quem vulgus mimilogum vocat, servum Christi detrahere coepit.* [1]

Jakina denez, Mimoa dagoeneko bazen greziar mundu klasikoaren aurrekoan, eta ezaugarri nagusiak pertsonaia komikoen tipifikazioa eta inprobisazio, zirkoko akrobazia, eta animalia eta eszena sarritan lizunen imitazioaren nahasketa ziren. Forma literarioak K.a. V. mendearen inguruan agertu ziren, eta garai inperialean jo zuten goia, drama kultua bigarren maila batean utziz. Elizak aurka egin zion V. mendean, eta aktoreak eskumikatu eta antzokiak ixtea lortu zuen VI. mendean. Egiaz ez dakigu VII. mendeko Baskonian horrelakorik izan ote zen, edo hagiografoaren asmakizun hutsa izan ziren.

### ● Bertsolaria

Gaur egun modako pertsonaia da Euskal Herrian. Bertso inprobisatzailea da, dagoeneko definituta dauden melodia batzuen gainean hainbat gairen inguruan kantatzen duena. Egiaz jolas bat da, herri dibertimendu bat, hainbat kantore lehian aritzen direna zenbait nortasun hartuz beregan, eta horien bidez borroka dialekto bat antolatuz, umorea izanik betiere oinarrizko elementu.

Garibayk dioskunez, umetan Arrasateko bikario Juan Abadi entzun omen zizkion emakume eresiak, hau da, XV. mendeko emakume inprobisatzaileenak; horrelakoen lehenbiziko idatzizko adierazpentzat har dezakegu Milla Lasturkoaren heriotza zela-eta honen ahizpak eta Martin Bañez de Artazubiagaren alargun Santxa Otxoa de Ozaetak izandako elkarrizketa. Kasu honetan, hildakoak jasandako irainen gainean emakume biak eztabaidatzen eta kantatzen hasi zirenean sortuko ziren, noski,

koplak edo inprobisatutako “eresiak”.[2]

Bertsolaritza batez ere XIX. mendean garatu zen, plegu solteekin batera, eta XX. mendearen amaiera inguruan erdietsi du bere mailarik gorena, urte horietan Gabriel Lertchundik[3] aipatutako *turba magna* neurriz kanpokoa baita. Halaz, esate baterako gerra zibilean zehar, hirukote bat elkartuz gero bardo herritarrek pentsatzen eta Mussolini, Hitler eta Francoren ezpainetan jartzen zutena entzun genezakeen; gaur egun, berriz, ematen zaien gaiak gaurkotasun handiagoa izanez gero, Mitterrand, Gonzalez eta Arzalluzen ezpainetan jarriko dute, edo bikotea izanez gero, bi maitaleen arteko amodiozko agurra, amak alabari emandako kontseiluak, edo beste zenbait.

Hau guztia ahozko forma biziz hornituta dago, eta antzerki aurreko itxura nabarmena hartzen du horrenbestez. Gaur egun fenomeno hori jende multzo izugarrien aurrean gertatzen da, batzuetan milaka pertsona inguratzen baititu, edo telebista aurrean, txapelketaren finalean izaten den antzera sei ordu baino gehiagoz, eta halaz “arte herrikoi” baten estilizazioa etorri da, onarpen maila handiaz gainera, ezen astero-astero bertsolariei buruzko programaren telebistako ikusle kopurua oso handia da.

## ● ERRANDOAK

Fartsa edo fartsa itxurako zerbait da, Lesaka eta Oiartzun inguruan, hau da, Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko muga inguruan errando esaten zaiona. Ataunen *Zelemin ta Zelemon* esaten diete. Neguko lanetan zehar errepresentatzen zituzten, *artazuriketan* alegia, eta baita *linarien* lanetan zehar ere.

Manuel Lekuonak[4] jasoa du Oiartzunen entzundako errando hauetako bat, ezkontza-kontratu bati buruzkoa bera, ezartzen dituen baldintza zentzugabeak direla-eta barrea eragiten duena. Halaz, bilera hauek, nekazarien gau-jai gisakoak, baserriko ganbarako espazio zabalean egiten zituztelarik bertan auzokoak bilduz, entremes motako bat izaten zuten amaiera gisa, edo tarteetarako; kantuak eta dantzak ere izaten ziren horrelakoetan, nahiz hauek hartzen zuten zatia txikia izan, eta guztion eginkizuna neguko arratsalde luzeak hobeto pasatu ahal izatea zen.

Hona hemen Nikolas Ormaetxearen *Euskaldunak* olerkitik ateratako lehenbiziko lau ahapaldiak:[5]

417- “Fernando” Erranddo
egitekoan langilleai
laister danbolin-atxoak die
eraiñen par eder.
Alabarekin komeri bitxi au
dula ager,
batzuek bildur dina egin
dezaten lér.

425- «Aurten ba diñagu arto,
alaba Katalin;
ekarko jaki goxo ta
ttantta bizia arekin».

429- «Ama, nere soiñekoa
aipatzea âztu zaizu;
ainbat aldiz agindu ta
zarpil beharko nauzu».

## ● MASKARADAK

Askoz fenomeno konplexuagoa da, oraindik ere bizirik irauena Frantzia aldeko Zuberoa herrialdean. Hauei buruzko lehenbiziko deskripzio xehekatua Agustin Xaho zuberotar erromantikoaren *Voyage en Navarre pendant L’insurrection des basques (1830-1835)* obran aurkituko dugu; honetan kontatzen digunez, berak ere parte hartu zuen gaztetan horrelako antzezpenetan. Honakoa dio:

*“Ez ditut zuen inauteriko maskaradak ahantzi,* ***txerreroak*** *dantza hasten du bere zurdazko erratzaz, kanpaitxo-gerrikoaz, galtzerdiez, zuria baitu bata eta gorria bestea, buruko lumadunaz eta mila koloreko jakaz;* ***artzainak****, aizkora handia duela, bere arkumeak daramatza, eta hauen atzetik korrika dator otsoa.* ***Kukulleroak*** *saltoka datoz hurrena, zetaz jantzirik, zintaz beterik, eskuan daramaten makila astinduz, eta paregabeko dantzaria dugun* ***zamaltzaina*** *dutela gidari; honek bere gezurrezko zaldiari itzulinguruak eragiten dizkio grazia, trebezia eta ziurtasun handiz;* ***jaunak****, ezpata eskuan, besoa eskaintzen dio bere damari;* ***laboraria*** *lerroan doa* ***etxeko anderearekin*** *batean, ziria esku batean eta mugitzen duen bandera bat bestean. Hauen atzean gizon eta emakume zurrunbiloa,* ***buhame*** *zalapartariek motxila daramatela eta zurezko sableak astintzen dituztela. Azkenean lanbide-multzo bakoitzeko dantzariak ageri dira, taldeka: Auverniako* ***galdaragileak*** *dira. Gero* ***apezpikua*** *dator, asto baten gainean, eta bi* ***eskale zaharrek*** *ixten dute martxa. Maskaradak, behin herriko plazan dela, bertakoekin farandula alai bat eskaintzen du, eta ikusleek biribil handi bat egiten dute berehala, maskarek beren dantzak miretsaraz ditzaten; gero dantza orokor bat izaten da, danborren musikaz lagundua. Festa amaitzeko, gaua iritsi arteko orrits eta dantzak izaten dira”.*[6]

Azken urteotan ikusi ahal izan ditugun maskaradetan aldaketa txikiak izan dira Xahok egindako deskripzioarekiko, noski, haren azalpena 1830ekoa baita gutxi gorabehera, baina funtsean oinarrizko ezaugarriak goitik behera mantentzen dira, eta inauteri zeremoniak eta erritoak ia-ia osorik iraun du aldaketarik gabe.

Zuberoako maskarada lehen aldiz ikusten duenak jasotzen duen inpresioa aspaldiko mundu basati eta birjin batera eraman duten

### BERTSOLARIA



*Txirrita, Olegario eta Gaztelu Arraten. 1915. Arg. Ojanguren.*



*Akilino Izagirre “Zapai” eta Eusebio Eizmendi “Txapel” Elgoibarren. 1919. Arg. Ojanguren.*



*Kantuan Pierre Salaber koplari eta pastoralista. 1936.*

*Bertsolari txapelketa 60ko urteetan.*



batena da; ondorioz, gai honen inguruan ez da ikerlaririk falta izan. Hortxe aritu dira, Xaho, Michel, Badé, Hérelle, Alford, Caro Baroja, Guilcher, Fourquet, Mozos eta Garamendi, beste askorekin batera aritu ere, azterketak eginez eta bakoitzak bere ikuspegi eta interpretazioa eskainiz, historikoa batzuetan, edo erlijiosoa, soziologikoa, semiotikoa, besteak beste.

François Fourqueten[7] *La Mascarade d'Ordiarp* obran aurki dezakegu maskarada gorriaren eta maskarada beltzaren arteko bereizketa klasikoa, Hérelleren ustez etxekoak ordezkatzen zituena bata (zuberotarrak alegia, ordena) eta kanpotarrak bestea (buhameak, desordena). Gorrietan hiru estatuen irudia ere ikus genezake: *Jauna eta Anderea* lehenekoak izango genituzke, bigarrenekoak *kukuileroak*, hau da, zinta eta gandor distiratsuz apaindutako makilak daramatzatenak, eta hirugarrenekoak, berriz, *laborariak*.

Pertsonaiei buruzko xehetasun gehiago izateko kontsulta dezakegu Maria Arene Garamendiren[8] *El teatro popular vasco. Semiótica de la representación* lana. Garamendik, pertsonaien eta antzezten dituzten ekintzen analisi zehatz bat egin ostean (esate baterako, uste du hasierako barrikada zaldun-jokoen parodiekin bat datorrela, "ohorezko pauso" espainiarrekin bat, herritik kanpo hasten baita, landan alegia), ez du bat egiten Hérelleren interpretazioarekin, honek uste baitu maskarada endo-taldearen gorespen bat dela (zuberotarrena), *gorriak beltzen* aurka aritzea alegia. Garamendiren ustez, maskaradak ez du gizarte-taldeen arteko oposiziorik antzezten, baizik eta gizarte osoa, eta bertan sartzen ditu, horrenbestez, gizakiak eta abereak, hainbat lanbide kategoriarekin, ohorezko estamenturekin eta ohoregalduko eta madarikatu zenbaitekin batera; halaz, eginkizun bikoitza du: a) taxonomikoa, gizarte ez-jarraitua antolatzea eta sailkatzea hain zuzen, eta b) axiologikoa, balio sistema bat ezartzea alegia, borroka atabikoak positiboki santzionatuz errito-testuinguru batean. Borroka hauek, jeneralean, funtsezko hiru antzerki-ekintzatan labur ditzakegu, honakoak baitira:

1) Artzainaren eta Otsoaren arteko borroka. Artzainak otsoa akabatzen du.
2) *Zamaltzaina* irentzea –hauxe da dantzari nagusia–, baina errito honen ostean atzera pizten da, eta indartsuago egiten du jauzi, Alforden eta Frazerren eskolaren iritziz udaberriaren garaipenaren sinbolo gisa.
3) Galdaragile, errementari, kedar-garbiltzaile eta beste hainbat lanbidetako jendearen ekintza sinbolikoak eta



"Gaita-jolea". J. Oliverren freskoa. Iruñeko katedrala, XIV. mendea.



"Zaldiko-maldiko". Privilegio de la Unión-en marrazkia. Iruñeko Udal Agiritegia, XV. mendea.

Turista ingelesa eta zamaltzaina. Jacques le Tanneur.



maskarada beltzaren taldea osatzen duten gizon zein emakumezko ijitoenak.

*Zamaltzainaren* pertsonaiak, zaldi-armazoi batean sartutako pertsonaia bera, Iruñeko Udal Agiritegian gordetako 'Privilegio de la Unión' delakoan dagoeneko XV. mendean ikusten dugun *zaldiko-maldikoaren* antza du. Aragoiko *montato*-aren antza ere badu, eta Atenasko inauterietako zalditxoarena ere bai; hau da, europar herri askotako folklorean antzeko figurak aurkitzen ditugu.

Van Gennepek[9] *zamaltzainari* buruz hitz egitean ematen digun interpretazioaren arabera, dagoeneko musulman arabiar eta pertsiarrek ezagutzen zuten pertsonaia Erdi Aroan, eta hipotesirik zuhurrena izango genuke pentsatzea zamaltzainarekin herriak parodiatu egin nahi izan dituela zaldun-torneoetako zaldi babesdunak.

Gaur egun, beltzak gero eta garrantzitsuagoak dira, gizarte-klase gabetuenak sinbolizatzen dituzte eta, eta agertzen diren lanbideetako maisu eta ikasleen arteko liskarren bat edo beste izan arren, hauen egiazko klase-etsaiak handikiak dira; hauen kontra zuzentzen dituzte diskurtsoak, tradizionalki errepikatzen ari diren testuetan hainbat moldaketa eginez horretarako.

Halaz, esate baterako Maulen 1982an eginiko maskaradan, letani otoitzean inguruko fabrikatzaile bat inbokatzen zuten, Txinako apreta-inportatzailea hura, eta Santa Etxandi Xarles deitzen zioten, bere behargінez gupida zedin.

Honek guztiak, nagusiki, barrea eragitea du helburu, eta kontsakratutako balioen alderanztea, eta ondorioz sagaratuaren aurkakoa izugarri sagaratu bihurtzen da. Horrela, galtzear den hizkuntza bat baliatuz adierazitako antzerki-elementuen bidez, gizarte batek (zuberotarra ez baita hamabost mila biztanlera heltzen) bere kohesio eta iraupen gune nagusia topatzen du bere folklore-adierazpenetan, hots, hurrengo lerrootan aurkeztu eta aztertuko dugun maskarada eta pastoralean.

## ■ Asto-lasterrak

Frantsesez *charivari*, gaztelaniaz *cencerrada*, katalanez *esquellotada*, okzitanieraz *calhabari*, eta euskaraz *asto-lasterrak*. Europan eta munduan zehar izen hauek eta beste batzuk erabiltzen dituzte, bigarren aldiko ezkontza santzionatzeko eta ospatzeko zeremonia eta erritoetako batzuk izendatzeko.

Albert Dauzatek[10] dioenez, *charivari* hitza XIV. mendean agertu zen dagoeneko, eta berant latinetik dator; dirudienez,

## Maskarada



*Maskarada Larrañen. 1919.*



*Maskarada bidean.*



*Maskaradako pertsonaiak: Txerrero, Gathuzain, Entseinari, Kantiniersa, Zamaltzain eta Txirulari.*



*Maskarada Atharratzen. 1922.*



*Maskarada. Zamaltzainen jauzia. Jakes Larrondo. Maule, 1949.*

*Maskarada. Barrikadaren eszena. (Pitxu 2.a ezkerretik hasita).*



*Galdaragileen eszena.*



gainera, grezierazko *karebaria* hitzarekin dago lotuta, honek "buruko min" esan nahi baitu. Hitz beraren aldaerak aurkituko ditugu Erdi Aroko eta Errenazimendu garaiko beste lekukotasun askotan, esaterako *La Farce du Maître Pathelin* eta *Gargantua et Pantagruel*-en. Hala ere, Henry Rey-Flaudek[11] uste du hitz hau antzinako ehizarekin lotuta dagoela, eta bere jatorria onomatopeikoa dela.

Euskaraz horrelakoei ematen zaizkien izenak ere asko dira. Zuberoan, esaterako, *asto-lasterrak* eta *asto-lasterkak* esaten diete, izen hau erabiltzen baita Olhaibin 1788an antzeztutako *Juanik, Hobe eta Arlaita* izeneko fartsa batean. Asto-laster hitza ikuskizunaren zati bat adieraztetik festa multzo osoa adieraztera igaro zen metonimia bidez. Fartsa horiei, dena den, beste izen batzuk ematen dizkiete, esate baterako Galarrotsak, dagoeneko Nafarroa Beherean gaudela. Erritoaren eta festaren beste izen batzuk ditugu, aipatuez gain, *zintzarrotsak, karrosak, toberak, tobera-mostrak, tupina, thupina-itsu, turutak, tutak* eta *trajeriak*.

Jose Maria Iribarren[12] folklorista, etnologo, historialari eta lexikografo nafarrak, bere Vocabulario Navarro lanean, hitz interesgarri pila izugarri baten artean *galarrosa* hitza jaso zuen, honako definizio hau emanez hitzez hitz:

*«GALARROSA, nombre vasco, contracción de gare o gale (campana o esquila) y arhots (ruido o alboroto), con el que designan en Valcarlos a los vituperios públicos llamados cencerradas. La galarrosa no es una cencerrada con batahola de esquilones y estruendo de cacharrería. Lo fue antiguamente. Hoy se reduce a un diálogo que mantienen, de noche y a distancia, dos cuadrillas de mozos, y en el que sacan a relucir los líos y trapos sucios del "homenajeado"».*

Gutxi dira euskal literaturako kritikoen artean fartsa hauen sorburua aztertzen aritutakoak eta, esate baterako, Ithurriaguek[13] nahiko iritzi dio azal-azalean geratzeari, esan duenean asto-lasterren sorburua hain dela iragan urrunekoa ezen ezinezkoa baita horrelakoen agerpenaren gutxi gorabeherako datarik ere ematea.

Jon Juaristik[14] zehaztasun gehixeagoz jardun du, eta hark dioskunez "seguruenik Zuberoako antzerki tradizioa XVI. eta XVII. mendeetakoa izango da, baina XVIII. mendearen amaiera arte ez dugu horren inolako berririk". Baina hau guztia adieraztean garbi erakusten digu ez duela arretaz irakurri berak aipatzen duen bibliografia ere, zeren eta Charles Desplatek[15] asto-lasterrei eskainitako obraren lehenbiziko orrietan bertan testu bat ematen baitigu, Jacques de Belarena



*"Isiltasuna". Euskal Herriko eszena.*

ASTO-LASTERRA




*Ch. Desplatek Gaskoniako asto-lasterrei buruz egin obraren azala.*



*Jupiter eta Merkurio Anfitrión eta Alcmeno irudikatzen, K.a. IV. mendeko kratera batean.*

*Julio Caro Barojaren ilustrazioa, asto-lasterrei buruzko bere lanerako.*




(1586-1667) berau, zeinean abokatu protestante mauletar honek salatzen duen Donapaleun ospatutako asto-laster bat. Izan ere, horrelako ekitaldiek jujeen zigorra jaso behar zuten, ohitura paganoa eta moralaren kontrakoa zelako.

XVII. mendearen hasieran, 1610ean hain justu, Bordeleko Parlamentuko epaile eta oso oroitzapen txarra utzitako inkisidore Pierre de L'Ancrek[16] –idazle bikain eta argitsua ere bai inondik ere– esaten digu gazte lapurtarrek edozein aukera baliatzen zutela bere jolasetan Apezpiku edo Maogouver-ko Abadearena egiteko: *il ne manquent jamais de faire un Evêque, et en leurs jeux un autre Abbé de Maugouver. Or tout cela n'est que prendre le nom et rendre ridicule le mystère.* [Sekula ez diote uzten apezpikuarena egiteari, eta bere jolasetan Maogouverko abade batena ere egiten dute beti. Hau guztia izena hartu eta misterioa barregarri uztea besterik ez da.]

*Maugouver* Mauvais Gouveernement-en –gobernu txarra– laburdura besterik ez da. Izan ere, Frantziako hegoalde osoan izen hori ematen zieten herriko festak antolatzeko ardura hartzen zuten elkarte alai guztiei. Georges Hérelle[17] hispanista eta euskalariak, euskal herri antzerkia sakon-sakonetik ezagutzen duenak, Petit de Julleville aipatuz esaten digu horrelako elkarteak bostehundik gora izan zirela hiri handietan, eta bere estatutuak zeuzkatela, eta intsigniak, festarako materiala eta abar, baina herrixketan ere izaten zirela, batez ere Frantziako hegoaldean, eta *abbas juvenum* titulua ematen ziotela elkarte alai horien presidenteari. Hérellek dioenez, Erdi Aroan zehar baziren horrelako elkarteak Euskal Herrian, eta hemengo gizartean ohitura horrek oso-oso sustrai sakonak zituela; halaz, XX. mendean oraindik ere izugarrizko bizitasunez ageri zaigu.

Fartsa horiek, alabaina, betiko aurkari bat izan zuten, eliz zein herri agintariak alegia. Gauzak horrela, Juan Cruz Labeagak,[18] Nafarroako antzerkiari buruz ari denean, Kalagorriko 1539 eta 1545eko Konstituzio Sinodalak aipatzen ditu, eta Iruñeko 1590ekoak ere bai, honakoetan baitiote hurrena:

*"...que las vigilias que se celebren en las yglesias y ermitas no dancen ni baylen dentro dellas, ni representen farsas sino fueren conformes a las festividades que se celebran* (1539)...

*...ordenamos a los curas y clérigos que no hagan ni permitan hacer tales representaciones...* (1545)...

*...ni hagan representaciones so pena de un ducado en la que incurrirá también el clérigo que lo consintiera...* (1590)".

Nafarroako Parlamentuak XVIII. mende osoan zehar behin eta

berriz ezarritako galarazpenak aipatzen dizkigu Caro Barojak,[19] garbi utziz, bide batez, horrelako fartsen indarra. Lebrunek,[20] bere aldetik, Elizak XIV. mendetik (Lyon, 1321) XIX. mendera arte ezarritako zigorrak aipatu dizkigu.

Galarazpenak galarazpen, asto-lasterrak *droit de pilote* haren hondartzat hartzen zituzten; eskubide hori gizonezko alargun orok ordaindu behar zuen bigarren ezkontzan. Santzio herrikoi hau Rosellon 1300en debekatu zuen Jaime I.ak, eta Frantzia osoan galarazi zuten Frantziar Iraultzan zehar, baina hain indar handiko ohitura izanik, oso zaila zen beti-beti festa hori ukatzea; honen lekuko dugu, esate baterako, Louis Napoleon Bonapartek 1848an Heletako gazteei emandako baimena, "omenduen" kontura diberti eta barre egin zezaten nahi adina.[21]

Herri agintariek asto-lasterrekiko erakusten duten onarpen honek Erdi Aroan ditu sustraiak. Halaz, Ives Renouardek[22] argitaratutako *Rôles Gascons*-etan irakur dezakegu Analrico Credomiokoak, Baskoniako Dukerriko seneskala bera 1315ean, agindu zuela norbait adulterioan topatuz gero *currant villam secundum quod est fieri consuetud...*, falta horretan aurkitutakoei asto-laster bat sufriaraztea, edo bestela hamar librako isun bat ordaindu beharko zutela; diru hau erregearen eta herriko jujeen artean banatuko zen.

Rey-Flaudek uste du asto-lasterra pairatzen dutenen leihopean hasten den zeremonia gizon basatien aspaldi-aspaldiko ekintzen berritzea besterik ez dela, basoko jaun haiek herrixka inguratu eta bertako gizonezkoak irendu ondoren bertako emakumezkoak bortxatu eta bahitzen zituztenekoa alegia. Asto-lasterren erritoa, beraz, historiatik haratago dagoen lege baten aztarna bat izango litzateke, gizonezko ehiztariek mugagabeko askatasuna zuten garai baten oroitzapena alegia.

Egiaztatzen zaila den eta susmoetan murgiltzeko oso bide aproposa dugun iragan horretaraino atzera egin gabe, egokiagoa izango litzateke asto-lasterrak arautzat hartzea, hau da, emakumeen mugimendua murrizten eta leinuen jarraipena ziurtatzen duen arautzat.

Halaz Caro Barojak, irudimenaren gehiegikeriatan aritzeko zaletasun gutxikoa izaki, uste du asto-lasterrak eliz erritoen alderanzketa bat direla, hildakoen oroitzapenari eskainitako irain-orde bat izateaz gainera inondik ere.

Desplat eta Rey-Flaud bat datoz, asto-lasterrak idatzi gabeko legetzat interpretatzen dituztenean, herri instituziotzat, akordio tazitu baten emaitza gisa; idatzi gabeko lege honek, antzeko beste arau batzuekin batera, garaian garaiko

## Asto-lasterra




*Asto-lasterra eginiko senar-emazteak, asto gainean atzera begira.*



*Eguneko asto-lasterra. Gabarden ilustrazioa.*

## Galarrotsa



*Iruñeko katedraleko freskoa, XIV. mendea.*

*Tillac. (1880- 1969)*



## Tobera

*Amikuzeko Toberako eszena. 1991.*



gizarteari portaera eredu bat eta moraltasun publikoaren babes bat eskaintzen zion. Aspaldi-aspaldian sortuak izaki, eta mendeetan zehar eraldatzen joan direla, euskal nazio eta estatuen beste arautegi, ohitura, foru eta legeekin batera nahikoa osatutako corpus legala osatzen zuten.

Beraz, bigarren aldiko ezkontzek, botere ofizialek halako tolerantzia bat ematen bazieten ere, zigor gisako erantzuna jasotzen zuten fartsa horien bidez. Dena den, fartsak gozatuz joan ziren denbora igaro ahala. Ezkongaiak, eskandalua zein beronen ondorengo zigorra eragiten zutenak, nahiz ezin erosi moral publikoaren juje bihurtutako gazteen isiltasuna aurrez finkatutako zehapen bat ordainduz, dagoeneko ez ziren fartsaren aktoreak, eta ez zituzten kaleetan barrena korritzen, jendaurrean lotsagarri jartzen atzera begira eta astoen buztanei lotuta, edo astoek zeramaten karroza batean bestela, eta herritik kanporatu eta gero, liturgia garbitzaile batean, egindako aztarnak lastoz ezabatu ere ez zieten egiten; horrelakoa bai, egin omen zioten Fernando erregeari Iruñean 1477an, Nenthwort Webster[23] folkloristak dioenez. Dagoeneko aktore batzuk ziren, horretan arituak, eskandalua eragiten zuten ezkontza-harremanen parodia egiten zutenak.

Kontuan hartuz gero fartsa hauek salaketak eta auzitegi aurreko epaiketak eragin zituztela, eta baita hainbat mendeku odoltsu ere, ez da harritzekoa horrelakoen egileek ezkutuan mantendu nahi izatea, are gehiago, errepresentazioen oinarri izan ziren eskuizkribuak ere –inprobisazio zati handia zeukaten arren– sutara bota izana. Hala eta guztiz ere, autore batzuen izenak eta hainbat pieza heldu zaizkigu; hurrengo lerrootan laburki azalduko ditugu horien argudioak, eskuizkribuen kokapen, antzezpen data eta beste zenbait xehetasunekin batera.

Jaso dugun lehen izenetako bat karrosa bateko partaide batena da, Oxamendi Arrosakoarena hain zuzen, 1766an Ortzaize herrian parte hartu baitzuen antzezpen batean, eta antzezpenaren beraren zazpina bertsoko hamaika ahapaldiko kantu bat ere iritsi zaigu. Alabaina, Nafarroa Behereko pieza honek ez du antzik gorde diren fartsa edo fartsa hozi zuberotarren, hauek ondorengoak baitira:

1. *Agardentegilea eta bere emaztea.*
2. *Ardeatina eta Ludobina.*
3. *Bala eta Bilota.*
4. *Bubane eta Xiloberde.*
5. *Juanik Hobe eta Arlaita.*
6. *Kabalzar eta bere familia.*
7. *Kaniko eta Beltxitina.*
8. *Malkus eta Malkulina.*

9. *Mehaltzu eta Benus.*
10. *Petit-Jean eta Sebadina.*
11. *Petitun eta Petik-hun.*
12. *Pierris eta Katixa.*
13. *Pierrot eta Xarrot.*
14. *Planta eta Eleonora.*
15. *Rekokilart eta Arieder.*
16. *Saturno eta Benus.*
17. *Xiberua eta Marzeline.*

Kontserbatu diren hamazazpi antzerki pieza zuberotar hauekin batera bada beste zenbaiten berri, esate baterako Pierre Topet Etchahunen (1766-1862) hiru kantu gordeak, honakoak baitira: *Eihartxe eta Miñau, Maria Solt eta Kastero*, eta *Ahargo eta Kanbilu*. Hauek fartsa hastapenak baizik ez dira. Beraz, fartsa horiek aurkezten zituzten hitzaurreen melodia ezagut dezakegu, fartsetan garatuko ziren gaien halako zirriborro batekin batera.

XIX. eta XX. mendeetan Nafarroa Beherean zein Lapurdin antzeztutako toberetako bertsoak ere baditugu, besteak beste Jean Etxamendi «Bordel», Joanes Oxalde, Manex Etxamendi eta Bazil Agerrek eginikoenak, baina hauek ez dute zuberotarrek garatutako antzerkiaren ukiturik. Pio Baroja,[24] bere *El amor, el dandismo y la intriga* lanean, hain zuzen hauetako bati buruz ari da honako komentario hau egiten duenean:

*"Yo me reí mucho con aquella farsa. Encontré a la gente de Añoa de muy buen humor, y el sacristán, Dominique Elissalde de Elissagaray, y su colaborador, Juan Pedro de Irumberry me parecieron dos Plautos campesinos".*

Fartsetako plauto eta aktore hauek, hau da, gazteriak, ez du soilik balore moralen kritika egiten, baizik eta baita finkatuta dauden botereen kritika ere, Eliza eta Botere Zibila baitira, eta horretarako kalea eta plaza erabiltzen dituzte, antzerkirako espazio bihurturik, betidanik eta bereziki Erdi Aroan zehar toki horietan egon delako aipatu botereen kontraboterea. Taulatua, sarritan Eliza eta Udaletxe parean kokatzen zutena, *herria* juje eta parte bihurtzen zen tokia izaten zen.

Antzerkiaren eragile bihurtzen den gazteriak oso garbi du bere dibertsiorako gaietan ez direla kontatzen errege eta erreginen, printze eta printzesen, santuen historia zaharrak, hagiografia edo historia liburuetatik ateratakoak, baizik eta eguneroko bizimoduan sortutakoak. Eguneroko kontuak, behar, liskar, haserre eta desleialtasunez beteak, liburuetako kontuak baino egiazko eta gordinagoak inolaz ere, eta ezer ez da, inor ez da geratuko kritika latz, gogor eta batzuetan anker horretatik libre, ezta apaizak ere. Aberats zein behartsu, denak izango dira fartsaren gai, eta unean uneko aktoreak berak ere badaki, ederki asko jakin ere, idatzi gabe baina indarrean dagoen lege horrek ezarritako morala hausten badu, etorkizunean beste fartsa baten gai izan daitekeela, usadio sagaratuaren eta Barre jainkosaren indarrez.

Asto-lasterren aldagai bat, elementu nagusi eta ia-ia bakarra dantza duena, Nafarroa Behereko parada eta kabalgatak dira. Jean Michel Guilcherek[25] xehetasun guztiz deskribatu ditu. Biarnoko eta Euskal Herriko dantza tradizionalen ikertzaile honek kontatzen digunez, Irisarri




Baigorriko toberen kartela. 1985.

herrixkan B. Larraburuk asto-laster paradak antolatzen zituen, eta batzuetan berrehun partaide izatera heltzen ziren. Fartsaren aurretik izaten ziren dantzei buruz hitz egiten digu, dantza horien artean baitzen, besteak beste, *kaskarot* edo *moresque* deitua, gutxienez XVI. mendekoa berau, ezen Eleonor Austriakoaren aurrean dantzatu zuten Baionan.

Ondoren irakurriko dugu Hazparnen 1896an ospatutako tobera bati buruzko deskripzio bat, Jean Etxepare mediku eta idazleak egina:[26]

*"Beti bezala lau zaldun zeuden: kapitaina bere neska lagunarekin (honek soinean zeraman dontzeilarik ederrenaren ohiko jantzia) eta ofiziala berearekin; ibiltariak, buru gainean altu bezain itsusi ziren eta etengabe astintzen zituzten panpinak zeramatzatela; emakume basatiak, guraize handi-handiz hornitutako mari-mutilak; gerri estua eta zango luze, arin eta dantzariak zituzten emakume zuriak, begirada samurrak eskaintzen zituztenak; kaxkarotak, zinta eta azpilduraz, lore eta urreztatuz beteak apreta muturretik kokoteraino; bizar luzeko hiru juje liburukote handiak zituztela besapean; lotsagabeko bi giltzari; lau jendarme; bi koplari; bospasei ijito zatarrez beterik, ezkonduak atzera begira jarrita bi astoren gainean; eta, nola ez bada, Donibaneko musika.*

*Gorriak, zuriak, moreak, horiak, berdeak, urdinak, baina batez ere gorriak ziren eguzkitan distiratzen zutenak, plaza inguruan lau ilaratan jarrita zegoen segizio osoaren jantziak apainduz, begiratzeaz ase ezinik zegoen ikuslea liluratzen zutelarik aldi berean.*

*Bat-batean isiltasuna nagusitu zen jendartean, eta koplariek, barrika gainean jarritako oholtza inprobisatu batera igota, kantuari eta historia kontatzeari ekin zioten".*

Sara herrian 1820 inguruan gertatutakoaren deskripzioa, Websterrek jasoa, dakargu hurrena; han Turut-Arrosa agurearen laugarren emaztearen erditze gezurrezkoa antzeztu zuten.[27]

Zuberoako fartsak ez ziren lapurtarrak bezalakoak itxuran, bai ordea gaiari dagokionez, eta pastoralen liturgia segitzen zuten, hau da, Frantziako Erdi Aroko misterioetako dramaturgiaren antzeko bat, parodia gisa ordea.

Eszenifikazioari buruzko testu luze samar bakarra Hardoyk idatzitakoa da (Santa Garazin antzeztu omen zuten 1892 inguruko *Tuduk eta Ratafia* fartsaren egilea da bera; gaur egun galdua da), Hérellek[28] legatua. Dantza zein musika zeharo kodifikatuak funtsezko zatia ziren ikuskizunean, eta ikusleak argi eta garbi itzultzen zuen hainbat esanguraz beteta zeuden. Mugimendu espezifiko bakoitzak bere interpretazioa zuen, eta multzo osoak osotasun berezi bat osatzen zuen.

Pastoralaren eta fartsaren arteko funtsezko aldeak, jatorriak alde batera utzita ezen batzuetan dramaturgian bat egiten zuten, gaiak eta mintzamoldea ziren. Kontuan hartzen badugu Zuberoa jende askoren bidegurutzea dela, ez da harritzekoa bertako antzezkizunetan hainbat hizkuntza agertzea batera, biztanleen isla gisa; horixe ikusten dugu aipatutako Etchahunen *Eihartxe eta Miñau* kantuaren lehenbiziko ahapaldian:

*"Sed libera nos a malo sit nomen Domini;*
*Vamos a cantar un canto para divertir;*

*Jan dügünaz gerozti xahalki huneti*
*Eta edan ardua Juranzunekoti.*

*Chantons mes chers amis,*
*Je suis content pardi,*
*Trinquam d'aquest bun bi*

*Eta dezagün kanta khantore berri".*[29]

Hizkuntza bakoitzaren erabilera argi eta garbi definituta zegoen, pertsonaien beren ezaugarrien arabera.

Horrenbestez, latinezko formulak batez ere apaizek eta abokatuek erabiltzen zituzten. Klerikoen sermoi eta otoitzak parodiatu egiten zituzten –klerikoak kritikatu egiten zituzten, nagusiki andrezale, tripazain, zeken eta latin mordoilo ulertezinen erabiltzaile zirelako–, eta horrela herri literatura komikoa sortu zen, hitz-jokoetan eta eredu jasoaren hondatzean oinarritua.

Frantsesa jendarme, notario eta abokatuei entzuten zaie, hau da, administrazio zibilari.

Gaztelania satanei, agur batzuetan eta garrantzi gutxiko pertsonaietan.

Biarnoera, irain eta madarikazioetan entzuteaz gain, balio kriptikoaz ere erabiltzen da, esaterako Belot apaizak ezkonberriei beren ugaltze eginkizunean bizkor ibil daitezen gomendatuz eskainitako agur-diskurtsoan.

Frantsesa, Urkixok ongi definitu bezala, librea eta baldarra da, baina horrexegatik hain zuzen adierazi zuen Hérellek haren garrantzi paremiologiko eta etnologikoa.

Bitxia da, gainera, apaiz kritiko bat izatea, Piarres Lafitte hain justu, fartsetako mintzamoldea bere neurrian baloratu duena, esan digularik horrelakoetako euskara pastoraletakoa baino hobea, garbiagoa eta kalitate handiagokoa dela. Izan ere, fartsa egileek ez dute itzulpenik egiten, eta ez dira pedantekeria hutsaletan galtzen, hau da, hizketa naturala dute, halako gehiegikeria puntu batez inondik ere Rabelaisen antzera, baina eguneroko altxorretik hartutako hitz argi eta ozenak erabiliz betiere.[30]

## ■ Pastoralak

Zuberoako pastoralen gaira lehen hurbilketa bat egiteko, ematen zaien izen sortari buruzko hainbat kontsiderazio egingo dugu aurrena. Izan ere, euskal esaera zahar batek dioen bezala, izenduna izendatuaren itzala da. Jean Haritschelharrek[31] dioenez, *pastoral* hitza enigma bat da, ez baitu esangura bera euskal literaturan eta frantsesean, hau duelarik sorburu. Biarnon, berriz, *pastourade* esaten zioten Eguberrietako misterio gaskoiari, eta Margarita Nafarroakoak Pabeko gazteluan antzeztarazten zituen eguberrietako dramei ere *pastoral* esaten zieten. Zuberoan terminoak halako bilakaera semantiko bat izan du, eta egun antzerki serioa adierazten du, *trageria* izena ere hartuz, fartsetako antzerki komikoari, *asto-lasterrei* alegia, kontrajarririk.

Drama liturgikoari buruz, Vito Pandolfik[32] dioenez honek bilakaera komuna izan zuen europar nazio guztietan, Eliza literatur modu honen aurka nabarmen agertu bazen ere; adierazpen honen lekuko ditugu teologo eta aita santuek kontzilioetan eta sinodoetan hartutako erabakiak, antzezpen sakroen aurkakoak baitziren argi eta garbi, are aurkakoagoak antzezpen profanoei zegokienez. Horrelakoak nagusiki Eguberrietan, Pazkoan edo herrian herriko zaindariaren egunean izaten ziren.

Beraz, pentsatzekoa da 1345ean Pasio Gaskoi bat antzeztu bazuten, eta Baskonia inguratzen duten herrialdeetan XV. mendeetan misterioak antzezten bazituzten, euskal herria ez zegoela ikuskizun honetatik kanpo; horixe aipatzen du Emile Ducéré historialariak, ezen euskal tragedia edo pastoralak *les survivants des mystères et des drames du moyen âge, qu'on jouait autrefois presque partout en Europe*[33] dira, hau da, Erdi Aroan ia-ia Europa osoan zehar antzezten ziren misterio eta drametatik orain arte iraun duena.

Antzerkiak Baskonian izandako presentziari buruzko zehaztasun gehiago bilatuz gero, Joan Albretekoa eta Katalina Foixkoa koroatzeko festen erreferentzia dugu; 1494an izan ziren, Iruñean, eta aita Moretek hitz egiten digu horiei buruz. Festa hauetan hainbat komedia antzeztu zituzten, eta horietako batean interludio edo entremes bat izan zen, zeinean honako kopla hauek kantatu zituzten euskaraz:

> *Labrit eta errege*
> *Aita seme dirade.*
> *Kondestable jauna*
> *Ar bizate anaie.*

Honek komedia osoa euskaraz izan zela esan nahi al du? Mitxelenak[34] bere zalantzak ditu, baina ziurtatzen du badirela XVI. mendean antzerki liturgiko bat izan zela egiaztatzen duten aztarnak, eta beharbada Trentoko Kontzilioaren ondotik Elizak erakutsitako zorroztasun eta soiltasun handiagoaren eraginez desagertu zela antzerki mota hori.




*Tillacen ilustrazioa. Xehetasuna.*

Dena den, erlijio antzerki bati buruzko lehenbiziko berria, antzerki mota honetan sarturik pastoralak ere, Jean-Alexandre Buchon artxibozain ospetsuak emandakoa da; Buchon, 1839an, Les Trois Martyrs obraren antzezpenean izan zen, Santa Garazin. Hark *Le Capitole de Toulouse*-n[35] horri buruz emandako berrian dioskunez, antzezpena zela eta Saffores pastoralistari bisita egin zion Atharratzen, eta honi, 60-70 inguru pastoralez osatutako bilduma batetik, *Clovis, qui était certainement un manuscrit de 1500* delako bat erosi zion. Zaila denez zalantzan jartzea *La collection de chroniques nationales et françaises du XVe et XVIème siècle* (1824-1829) argitaratu zuen Frantziako Artxibo eta Liburutegietako ikuskatzaile nagusiaren gaitasun paleografikoa, eskuizkribuaren galeragatiko pena sentitu besterik ezin egin.

Gainontzean, Petit de Jullevillek[36] diosku Baionan, Eléonore erregina sartu zelarik bertan 1530eko uztailaren 2an, honek agindua eman zuela 50 libra emateko pastoral baten antzezpenak eragin zituen gastuetarako, *le jeu dune bergerie, jouée hersoir en cette ville pour la bonne venue de la Royne,* eta etorrera hau zela eta, *parmy les rues on joua comedies, farces et fainctes,* hau da, komediak, fartsak eta fantasiak antzeztu zirela, burges paristar batek bere egunkarian kontatutakoaren arabera.

*Pastorale* terminoa 1665ean aipatzen du dagoeneko Oihenart[37] historialari eta olerkariak, ezen bere *Art Poétique* lanean, urte berekoa berau, Jean d'Etchegarayk ehun urte lehenago idatzi eta Nafarroa Behereko Donibane Garazin behin baino gehiagotan antzeztutako obrari buruz ari dela, honakoa baitio hitzez hitz:

*"Un autre prestre, natif de St jean de Pied de Port, nommé Mr. jean d'Etchegaray qui s'adonna aussy à la poésie basque cest lautheur de la pastorale intitulée* arzain gorria *qui a esté jouée plusieurs fois en cette ville. Il escrivoit il a cent ans".*

[Beste abade bat, Donibane Garazikoa bera, Jean d'Etchegaray izenekoa, euskal olerkigintzan murgildu zena, *arzain gorria* izeneko pastoralaren egilea da, eta hau behin baino gehiagotan antzeztu dute hiri honetan. Duela ehun urte idatzi zuen.]

Beraz, 1565 inguruko obra eta autore bati buruzko lekukotasun baten aurrean gaude, biok zoritxarrez galduta badaude ere.

Pirinioen alde honetan, berriz, 1566an, *Auto de la Pasión de Nuestro Señor Jesucristo* antzeztu zuten Lesakan, eta Urquijoren beraren ustez, Diego de San Pedroren *La Pasión Trovada* lanaren egokitzapen bat besterik ez zen. Pentsatzekoa da inguru horretako ikusle posibleak zein ziren ikusita euskaratu egingo zutela lana, Esparzak[38] dioen moduan.

Lope Martinez de Isasti historialariaren arabera, Joanes de Larrunbide organo-joleak hainbat antzerki-lan konposatu eta antzeztu zituen Oiartzunen XVI. mendearen amaiera aldean, besteak beste *Abraham, Job, Judith* eta *Josefina.* Hona hemen Isastiren aipamena, hitzez hitz:

*"Joanes de Larrumbide, organista, famoso por sus habilidades fue vecino de Oyarzun, á donde vivió muchos años. Fue gran poeta de bascuence, que compuso muchas comedias á lo divino, la del sacrificio de Abraham, de Job, de Judith, la Josefina y otras, que se representaron con grande fiesta, y con particular ingenio, que este hombre tenía: y compuso muchas prosas, canciones é historias en verso: y fue maestro de cantoría que enseñó a muchos".*[39]

Mitxelenak berak diosku 1599an Errenterian *La conversión y penitencia de la Magdalena* antzeztu zutela, eta hurrengo urtean *Vida y loas de San Juan.* 1602ko Aste Santuan, halaber, Hondarribian eskaini zuten *La Pasión y remembranza de nuestro Señor Jesucristo*, horrelaxe jasota baitago urte bereko martxoaren 6an udalak hartu zuen akordioan. Jakin badakigu, era berean, XVII. mendearen hasiera inguruan Pedro Garcia izeneko bat Donostiara joan zela, Corpus eguneko festetan bi komedia eta bi auto antzezteko, eta Lurruztia batek ere Madalena egunean Lesakan antzeztarazi zuela berak idatzitako obra bat, eta 1623an ere egile beraren beste obra bat antzeztu zutela Corpus egunean, prozesioaren unean.

Baina antzezlanak ez ziren Nafarroa edo Gipuzkoara mugatzen. Jakin badakigu Bizkaian, Durangon hain justu, Corpus Christi egunean eta hurrengoan dantzak, komediak eta auto sakramentalak egitea dekretatu eta agindu zutela, Erregimentuaren 1643ko apirilaren 24ko saioak horixe diosku behintzat, eta Capanaga lizentziatua sartuta zegoela komedia horietan. M.B.A.k, berriz, dio Martin Ochoa de Capanaga dela, halaber, 1656an argitaratu zen kristau dotrina ele biko baten autorea, eta Mañarian zendu zela 1661ean.[40]

Datu hauek guztiek berretsi egiten dute Urquijoren tesia, eta bide batez Albert Leonek[41] aurkeztuaren kontra doaz, hark hurrena baitzioen *Helena de Constantinopla* pastoralari buruzko tesi bikainean:

*“... rien dans l’histoire ecclésiastique des provinces basques, en particular de ce côté-ci des Pyrénées et de la Bidassoa, et notamment en Soule, n’indique ni même ne donne à pressentir que le drame liturgique ait jamais pris pied sur ce sol”.*

[... euskal probintzien eliz historian, bereziki Pirinioen eta Bidasoaren alde honetan, eta bereziki Zuberoan, ezerk ez du adierazten, ezta sumarazten ere, drama liturgikoak presentzia aipagarririk izan duenik inguru honetan.]

Hérellek, osterantzean, Julleville aipatzen du, gogoraztearren Baionako Kolegioan tragediak eta pastoralak antzeztu zituztela 1593, 1597 eta 1598an. Hain zuzen 1598ko ekainean eskolaumeek egun batean pastoral bat antzeztu zuten, eta hurrengoan tragedia bat; lan hauen ondorioz zuzendari nagusiak, Alexandre Cothereau jaunak, 935 soldata jaso zituen.

Erreferentzia multzo oso honek pentsarazten digu pastoralak zein Pirinioetako alde honetako antzerki erlijiosoak jatorri bat eta bera zutela, hau da, drama liturgikoa. Honen lehenbiziko berriak, Euskal Herrian, XVI. mendekoak dira.

Autore batzuek, Beñat Oyharzabalek[42] esate baterako, ukatu egin dute data horiek baino lehenagoko euskal pastoralik izana, ezagutzen ditugun lehen eskuizkribuen kopiak hemezortzigarren mendearen erdialdekoak direlako, baina nik uste dut lekukotasun hauek, ondoren aipatuko ditugun argudioekin batera, hankaz gora jartzen dutela uste edo ideia hori.

Lehen argudioa. Saint Jacques pastoralean 1634ko data argi eta garbi agertzea. Bigarren argudioa. Moliéreren garaiko frantziar antzerkigileak –Victor Fourelek jaso zituen–, esate baterako Hugues de Picou, *Le Poête Basque. Le Déluge Universel* (1663) obraren egilea bera, ukitu komikoaz aritzen dira euskal pastoralgile bati buruz; eta izen bereko Poissonen obran, 1668koan –Hôtel de Bourgogneko antzokian antzeztu zuten–, euskal poetaren kontura barre egiten dute, André-Dominique Jouanchaye batxillerrak haren obretatik hamahiru eskaintzen dizkionean baroi paristar bati obra hauetako batzuen tituluak bat datoz Testamentu Zaharreko zikloko batzuekin, esaterako *La Création du Monde*, edo *L’Arche de Noé*.

Lekukotasun hauek, diot berriro ere, sendotu egiten dute XVI. eta XVII. mendeetan zehar euskal antzerki bat bazen ideia, nahiz eta, zoritxarrez, obra horien testuak ezezagun zaizkigun, *Vida y Milagros de Santiago El Mayor* delakoarena izan ezik.

*Saint Jacques*-en pastoralaren ondoren, hurrenkera kronologikoari jarraiki *Jeanne d’Arc*-ena dator (Baionako Euskal Museoko 25. MS), ezen, Georges

## PASTORALA



*Pastoraleko kabalgata abiatzeko prest.*



*Pastoraleko kabalgata Barkoxen sartzen.*



*Turko bat.*



*Kristau bat.*

*Tillacen ilustrazioa.*



Lacombek 1712an eginiko oharraren arabera, *le plus ancien connu* baita, hau da, ezagunetan zaharrena. Nahikoa hondatuta dago papera, 1723ko filigrana daramana, eta idatzitakoa ere garai bertsukoa da. Orri asko eta asko falta bazaizkio ere, 1.963 ahapaldi ditu.

Santa Elisabeteri buruzko pastoraletik aurrera –Gauliberrek egokitu zuen, eta Eskiulan antzeztu zuten 1750eko urtarrilaren 3an–, horrelakoei buruzko eskuizkriburik eta daturik ez zaigu falta, baina Guillermo Humboldt[43] izango da era honetako antzezpenak zehatzago azalduko dizkiguna:

*“Zuberoa da oraindik ere euskal antzerkiko piezak modu jarraituan antzezten diren toki bakarra. Hemen pastoral deitzen diete, baina ez dira beti eglogak izaten, baizik eta Estatu ekintzak, erregeak eta enperadoreak ere eszenak agertzen baitira. Errolanen ekintzek sarritan eginkizun funtsezkoa izaten dute pieza hauetan. Aktoreak sexu bietako gazteak izan ohi dira, eta gehienek ez dakite irakurtzen;* Instituteurs des acteurs des Pastorales *esaten dieten pertsona batzuek erakusten diete, baina hauek ere, normalean, nekazariak dira. Erakuslea, ohitura klasikoaren bidetik, gehienetan piezaren egilea ere bada. Antzezpena kanpoan izaten da, Maulen, barruti-buruan alegia, herriko paseo plazan normalean, ezki altuen itzalpeko etorbidea baita, eta esatariek zati batzuek kantatu egiten dituzte; sarrera dohain izan ohi da, eta kanpotarrak, zuberotarrek adeitsu hartzen baitituzte, aurreneko tokietan jartzen dira.*

Deskribapen hau, ia-ia bi mende igaro badira ere, funtsean berdin-berdin mantentzen da. Humboldten ondotik Xahok, pastoralaren fenomenoa barne-barnetik ezagutzen zuela, hainbat atal eskainiko zizkion bere obretan.[44] Xahok honako titulu hauek aipatzen ditu:

*“Abraham, Moyse, Nabucodonosor, Bacus, Alexandre, Saint Pierre, Saint Jacques, Saint Alexis, Saint Roch, Sainte Agnès, Sainte Catherine, Sainte Hélène, Sainte Geneviève, Sainte Engrâce, Jean de Calais, Jean de Paris, Clovis, Les quatre fils d’Aymon, Thibaut, Godefroy de Bouillon, Richard duc de Normandie, Mustapha, Les douze Pairs de France, Charlemagne* eta *Napoléon”.*

Hogeita bost pastoraleko errepertorioa, goitik behera bat datorrena Hérellek inbentariatu zuenarekin. Xahok pastoral zuzendari ospetsu bati buruz hitz egiten digu, bera bezala Atharratzekoa zen Saffores *errejentari* buruz alegia. Esaten digu klerikoak ez zirela antzezpen hauetara joaten, eszena zantarrak asko zirelako eta satanen mintzamoldea ere lohia zelako, eta bere ustez, hasiera batean idatzia

bazuen ere obra horiek milurteko bat besterik ez zutela, hitzaurrea aztertuta ikusten zela melopea greziarraren tonu eta gustu berberaz deklamatuta zegoela, eta horrenbestez jotzen zuen zuberotarrek bere tragedietarako lehen ideia Erromako hirian antzeko antzezpen greziar eta latinoak ikustean izan zutela.

Michelek,[45] dagoeneko aipatu dugun obran, pastoralen jatorria aztertzean dio misterioetan eta gesta-kantetan bilatu behar dela, herri literaturaren *Bibliothèque Bleue* ospetsuan bezalaxe. Lehenbiziko emanaldiak zehatz datatzerik ez dagoela uste du, eta halako xehetasun batzuei erreparatuz gero –ez ditu ordea zehazten– ba omen dirudi misterioen imitazio hutsa baino gehiago kreazio indigena bat direla.

Vinsonek[46] uste du antzerki mota hori Erdi Aroan sortu zela, eta eskuizkribuak behin eta berriz egin eta kopiatu badituzte ere, misterio frantsesen imitazio, itzulpen eta moldaketak besterik ez direla. Gainera, euskal berezitasun bat ez dela dio, baizik eta katalanek, gaskoiek, biarnotarrek eta bretoiek izan dutenaren antzeko fenomeno folkloriko bat.

Euskaltzale eta folklorista ingeles Websterrek,[47] Saran bizi zenak, 1897an egindako Donibane Lohitzuneko Biltzarrean ponentzia bat aurkeztu zuen; honetan bere aurretiko ikerlari zenbaiten lanak aztertu zituen, eta euskal pastoralen zerrenda misterio bretoien zerrendarekin alderatu zuen, kointzidentzia asko eta asko aurkituz gainera. Errepertorioa, bide batez, honako atal eta oinarrizko gaiotan sailkatu zuen:

1. Ziklo Biblikoa.
2. Ziklo Hagiografikoa.
3. Ziklo klasikoa, greko-latinoa.
4. Gesta-kanten, zalduneriako eleberrien eta narrazio folklorikoen zikloa.
5. Fartsak, eta
6. Pastoral berriak.

Antzerki greziarrarekiko antzekotasunak ere aipatzen ditu, biak aire librean egiten zirela, biek hitzaurrea eta epilogoa dutela, bietan bertsoa eta dantza bereiztezinak direla, koruko rola satanek bereganatzen dutela, etab, etab., eta honakoa dio:

*"Bitxia da ikustea antzerkiak, Erdi Aroan, antz handiagoa duela antzerki greziarrarekin frantziar antzerki klasikoarekin baino. Misterioak drama greziarraren antza du, puntu honetan behintzat, jainkoen eta erdi-jainkoen historia ere ospatzen baitu. Tragedia greziar bakoitzaren barrenean bezala, Patuaren irudi erdi ezkutua ikusten dugu, eta Halabeharrarena, eta jainkoak zein hilkorrak, guztiak alegia, mendean hartzen dituen lege gorenaren irudia. Halaz, satanak eta turkoak sarturik, pastoral guztiak Ontasunaren eta Gaitzaren episodio bihurtzen dira, zein den ere kasuan kasuko gaia, Satanen eta Jainko onaren arteko gerraren gorabehera, eta honetan beti-beti ontasuna nagusituko da, baina garaituak sekula ez du amore emango".*

XX. mendearen hasieran judu itsu batek, lehen aipatutako Albert Léonek, Sorbonan doktoretza lortzeko egin tesi osagarrian, azterlan bat aurkeztu zuen *Hélène de Constantinople* pastoralari buruz; 1909an argitaratu zen lan hau. Autore jantzi honek, alabaina, uste du jatorria ez dela drama liturgikoan bilatu behar, Euskal Herrian ez baitu horrelakoen aztarnarik aurkitu, baizik eta kordeleko literaturan eta Pabeko gortean.

Azkenean Georges Hérelle iritsi zen, Haritschelharrek zioen bezala. Hispanista hau, Dannunzioren laguna bera, fenomenoaren deskripzio etnografiko zehatz eta xehetasunez bete bat eman nahi izan zigun hainbat saiakeratan [1923, 1926, 1928], eta bere obra derrigorrezko erreferentzia da pastoralari buruzko azterketa guzti-guztientzat. Bere analisietako batzuk atera eta lerro hauetara ekarriko ditugu, funtsezko irizten baitiegu.

*Errejenta*, frantsesez *instituteur*, aldi berean obraren egilea eta zuzendaria da. Antzerkiko zuzendaritzat baino gehiago orkestra zuzendaritzat har genezake, eszenatokian bertan egoteaz gain aktoreak eta musikariak sartzeko eta irteteko aginduak ematen baititu, bandera sistema baten bidez. Ondarearen kontserbatzailea da, testuak kopiatzeko erabiltzen diren *cahier* ugari horien zaindaria. Eskuizkribu zaharrak atzera kopatzen ditu, eta moldatzen, kasuen arabera. Entsegu guztiak zuzentzen ditu, eta eszenatokiaren prestakuntza, hau da, azken batean benetako antzerki gizona da, estilo zaharrekoa. Nekazariz eta eskulangilez osatutako Zuberoako landa mundukoa da.

Erdi Aroko tradizio nagusiarekiko fidel, pastoralak ez zuen aktoreen arteko sexu nahasketarik onartzen. Emakumezko pertsonaiak antzezteko mutil trabestituak izaten dira, eta salbuespen bakarra Frantziako Iraultzaren garaikoa dukegu, *Clovis* pastoralean, honetan emakumezko hiritar batzuek ere parte hartu baitzuten. Gaur egun, egoera hau aldatu egin da, argi eta garbi.

Pastorala antzeztea erabaki duten gazteek, *errejentarekin* bat, protagonista aukeratzen dute, *sujeta* alegia; hau aukeratzean hainbat ezaugarri izaten dituzten kontuan, eta ahotsa oso-oso elementu garrantzitsua izaten da honetarako. Dantzari onenek satan rola beteko dute, eta turkoena, berriz, itxura basatiena dutenek.

PASTORALA



*Aita Santua eta Napoleon Lakarrin.*

*Napoleon Lakarrin, 1890.*



Aingeruak, berriz, hamar-hamabi urteko mutikoak izango dira.

Aktore gehienak, 14ko gerrara arte, eskolagabeak ziren, baina kasu batzuetan izugarrizko oroimena zuten. Marzeline Heguiaphalek dioskunez, hau dirudienez XVIII. mendeaz geroztik etenik izan ez duen *errejenta* familia baten ondorengoa baita, *Napoleón*-en aktore nagusiak, 1927an, seiehun lauko txikitik gora hartu behar zituen gogoan, eta gero bizitza osoan zehar ezagutu omen zuten antzeztu zuen pertsonaiaren izenaz.

Websterrengan dagoeneko itxuratuta ikusi dugun moduan, beti-beti elkarren aurka jarritako bi mundu daude pastoralean, Ontasunarena eta Gaitzarena. Hérellek, berriz, hiru mundu bereizten ditu: mundu jainkotiarra, mundu satanikoa, eta giza mundua. Sekula ez dira antzeztuta ageri ez Jainkoa, ezta Kristo bera ere. Are gehiago, pentsa liteke halako arbuio suerte bat badela jainkotasunari irudi bat jartzeko. Aingeruak dira jainkoaren mezuak igortzen dituztenak, martiriak kontsolatzen dituztenak, eta justuak zerura daramatzatenak.

Satanek hainbat zerbitzari ditu berekin, eta hauen izenak aldatu egiten dira: *Jupiter, Bulgifer, Belzebuth, Astarot*... Hauek, gainera, deabruak, bufoiak eta dantzariak dira. Gaiztoei laguntzen diete, eta turkoak infernura eramaten dituzte. Urrez apaindutako jaka gorri bat soinean, beti ezkerreko atetik ateratzen dira (ikuslearen eskuinaldetik, hau eszenatoki parean baitago), eta onak, berriz, beti eskuinetik agertzen dira. Dena den, zenbaitek uste du beren eginkizuna koreografiko hutsa dela, eta ez dutela inolako gaiztotasunik, hau da, *satans* baino egokiago *sautants* esan beharko lieketela. Beren mintzaira hain da zorrotz eta lizuna, ezen denbora askoan zehar horixe izan baitzen kleroa pastoraletara ez agertzearen arrazoia. Lafitte, pastoral batera joan zen lehen apaizetako bat, satanen arteko elkarrizketak murriztearen alde agertu zen 1922an, mintzaira lohia zutelako; alabaina, hogeita hamar urte geroago, Heguiaphalek bere *Jeanne d'Arc* zuzendu zuenean (1952), ikusten zuen satanen eginkizuna hankamotz geratu zela, dantzako figura huts bihurtu baitzituzten.

Bada satanei buruzko datu bat, nire ustez pastoralaren ikertzaileek orain arte xehetasunez jaso eta aipatu ez dutena: satanek ez dute kanturik egiten, bakar-bakarrik dantzan eta hizketan aritzen dira. Honen azalpena Francesc Massipek[48] Kataluniako Erdi Aroko antzerkiaren musika errepertorioari buruz aipatutakoan egon liteke; izan ere, Hildegard von Bingenen (1098-1179) *Ordo Virtutum*-en deabruari ukatu egiten zaio musikarako ahalmena, jotzen baitute musika dela Harmoniaren adierazpena, eta beraz, harmonia horretarako aukerarik ezin zaiola eman hain zuzen gizakiari kendu nahi dionari.

Boadella[49] zuzendari eta aktore ezagunak honakoa esan zuen Pastoraleko satanei buruz:

*"Ikusten dugu hemen ere, Katalunian, Pastoraletan edo Pasioetan, deabrua ateratzen denean sortzen dela egiazko antzerkia, eta jendeak disfrutatzen duela, horixeren zain baitago. Zeren eta Gaitza ikusgarriagoa baita Ontasuna baino, honi zerbait falta baitzaio, maritxuagoa baita, eta gozoegia. Hau, nire ustez, antzerki-teoria bat da. Gaitza beti ikusgarriagoa da, kolore gehiago du, eta ezaugarri folkloriko gehiago aldi berean".*

Giza mundua bi alderditan banatuta dago: kristauak (hots, urdinak) eta turkoak (gorriak). Aita Santua, kardinalak, apezpikuak, apaizak, eremutarrak, erregeak, gerlariak eta nobleak lehen kategoriakoak dira, eta turkoak beren erregetxoekin eta soldadu basatiekin bigarrenekoak. Errege turkoek *koha<koroa(m)* lat. daramate buruan, ispilutxo distiratsuz apainduta, eta honexek bereizten ditu, kolore gorriaz gain, errege kristauetatik.

Koloreen sinbolismoaren araua emakumezko pertsonaiei ere aplikatzen zaie. Emakume bat zuriz jantzita baldin badago eta zinta gorri bat badarama, turkoen alderdikoa den seinale garbia dugu. Are gehiago, batzuetan, esaterako *Abraham* pastoralean, eszenatokira igotzen ziren artaldeak zintzilik zeramaten zintaren kolorearen arabera bereizten ziren. Abrahamen artaldeek bereizgarri urdina zeramaten, Lothenek berriz gorria.

Obraren eszena-denbora, antzina hamar ordu izatera heltzen zen, murrizten joan da, eta gaur egun hiru ordu eta erdi inguru irauten du; denbora honetan zehar aktoreen etengabeko kantu monotonoa jasanezina izango litzateke, etengabeko guduengatik eta koro eta satanen partaidetzagatik izango ez balitz.

Hérellek, kontsultatu ahal izan zituen eskuizkribuak katalogatzean –guztira ehun bat kontsultatu zituen liburutegi publikoetan, eta beste hainbeste pribatuetan–, eta izan zitzaketen iturri erromantzeak bilatzeko ahaleginean, honako sailkapen hau eskaini zigun, gaika antolaturik, eta Websterrek eginikoarengandik pixka bat aldenduz:

a) **Testamentu Zaharreko Zikloa**: *Abraham, Jacob, José, Moisés, Josué, Sansón, David, Job, Daniel, Judith eta Holofernes, Jeremías eta Ester.*

b) **Testamentu Berriko eta Lehen Elizako zikloa**: *San Joan Bataiatzailea, Natibitatea, Seme galdua, San Pedro, San Andres, Santo Tomas, Santiago Nagusia, San Esteban, Neron, Santa Verónica, Jerusalemen suntsipena, Judu ibiltaria, San Klemente, eta Virgilio Aita Santua.*

c) **Santuen Bizitzen zikloa**: *San Zosimo, San Eustaquio, Santa Eufemia, San Justín, San Sebastián, Santa Margarita, Hiru martiriak, Santa Agnes, Santa Luzía, Santa Engrazia, San Joan Guerin, Santa Cyr eta Santa Julita, Alejandro edo berrogei martiriak, San Julián Antioquíakoa, Santa Katalina, San Blas, San Antonio, San Abraham eremutarra, Santa Urtsula, San Alexis, San Jeronimo, San Joan Calybita, San Anastasio, San Bertrand de Commings, San Roke, Santa Elisabeth Portugalgoa, San Claudien eta Santa Marsimisa edo Mustafá Turko Handia.*

d) **Antzinate Profanoaren zikloa**: *Edipo, eta Astiage.*

e) **Gesta-kanten zikloa**: *Karlomagno, Aymonen lau semeak, Roland, eta Jerusalem askatua edo Godefroy Bouillongoa.*

f) **Abentura Eleberrien zikloa**: *Roberto etsaia, Helena Konstantinoplakao, Genoveva Bravantekao, Pierre Probentzakoa, Jean Pariskoa, Zelestina Saboiakoa, Jean Calaiskoa, Kaxmirreko printzesa, eta Dorimena eta Osman printzea.*

g) **Legendazko Historiaren zikloa**: *Clovis, Clotario, María Nafarroakoa, Thibaud Champagnekoa, San Luis, San Luisen semeak, Bajazet, Joane Arc-ekoa, Luis XI.a, Francisco I.a, Karlos V.a, Henry IV.a, Cartouche, Kouli-khan, Napoleon*...

Aipatutako ia ehun titulu horietatik bakar-bakarrik berrogeita hemeretzi gorde dira. XVII. mendeko bat. XVIII. mendeko hamahiru pastoral desberdin ditugu, eta hauetatik bakar bat argitaratu da. XIX. mendekoak hogeita hamasei ditugu, eta XX.enekoak, berriz, berrogeita bi. XX. mendean bi aldi bereiz ditzakegu garbi asko. Lehen aldia mendearen erdialderaino iristen da, zehazki bigarren mundu gerraren hasieraraino, eta bigarren aldia 1950ean hasi eta gaur artekoa dugu. Gaietan izandako bilakaera argia eta nabarmena da. Erlijio gaiak hamarretik bira jaitsi dira, Frantziako historia jorratzen dutenak zortzitik bira, eta Euskal Herriko historiari lotuek, berriz, gora egin dute, bitik hamabostera hain zuzen. Bakarrik emakumez antzeztutako obra bat ere izan da, 1979an, *Ximena* alegia, Ciden emaztearen bizitzari buruzkoa,



*Lehengo ikusleek txapela eraman ohi zuten.*

Pierre Corneilleren obrari Pierre Bordazarre "Etchahurrek" eginiko moldaketa batean oinarritua. *Matalas, Berterretche, Etchahun, Sancho Azkarra, Chiquito de Cambo, Pette Bereter, Maitena Basaburu, Iparraguirre, Oihenart, Xaho, Zumalakarregi, Abbadie, Harizpe, Xalbador...* dira orain pastoraletako gaiak, hau da, euskal historiako heroiak, santu kristauen eta heroi frantsesen tokia hartu dutenak.

Honek pastorala hila dela esan nahi al du, Garamendik dioen bezala?

Nahiago dut Haritschelharrekin bat etorri, eta pentsatu herri antzerkia, jatorritik beretik –izan ere herriak antzeztu du, eta herriarentzat– antzerki nazional bihurtu dela historia zein legendazko iragana gogoratzean. Lehen herriaren eskola bazen erlijioaren ikuspegitik, orain herriak bere Herrialdearen historia ikasten duen eskola da, bere pertsonaiarik ospetsuenak ezagutzen dituen tokia, eta Zuberoko herriak bikain eta dotore gorde duen hizkuntza eta literatura maitatzen ikasten duen gunea. Beraz, asto-lasterrak –gaiak aldatu arren bere kritika eta dibertsio gaitasuna mantentzen baitute– eta pastoralak –garai berriei egokiturik– egoera eta koiuntura berriei aurre egiten jakin duen herri baten sendotasunaren eta bizitasunaren adierazleak dira. Eta Garamendirekin bat gatoz, hala ere, testu-kritika lana premia-premiazkoa dela esateko, horrela finkatuko baititugu eskuizkribuen arteko harreman genetikoak, autore eta bateratzaile edo moldatzaileen identifikazioa –posible den kasuetan–, testuak argitaratzeko jarraibide ortografiko egokienak, etab. Izan ere, bakar-bakarrik aurrez azpiegitura lan hori eginez gero heldu ahal izango diogu behar dugun azterlan kritikoari.

INAUTERIA




*Sauveur Harrugueten "Inauteriko hileta-otoitzak" (1936) obraren azala.*

## ■ INAUTERIETAKO KOMEDIAK

Komedia hauekin Hérellek atal berezi bat egiten du. Komediak honakoak dira: *Bakus, Phantzart* eta *Juicio y Condena del Carnaval.* Azken honi dagokionez *Lehen pheredikia* besterik ez dugu, "hitzaurrea" esan dezagun. Alabaina, Xahok uste du *Bakus* pastoral bat dela, besterik gabe, eta Websterrek *Bakus* ziklo greko-latindarrean sartzen du, *Phantzart* fartsa rabelesiartzat hartzen duen bitartean.

Iñaki Mozosek, *Ihauteria Euskal literaturan*[50] izenburupean hainbat obra argitaratu dituela, zuzen-zuzenean lotzen ditu fartsa eta maskaradekin.

Ezagutzen dugun Phantzarten lehenbiziko emanaldia, Hérelleren ustez, 1787koa da, Olhaibin, eta jakin badakigu beste lau emanaldi izan zirela XIX. mendean. Aretten, Thomas Cassou errejentaren zuzendaritzapean, Donapaleun ... Bakus Larrañen eskaini zuten, eta *El juicio y Condena del Carnaval* delakoa ere bai *Malkus eta Makulina* asto-lasterrarekin batera.

Gaia, hiru tragikomedietan berdina dena, hiru fabula desberdinen inguruan antolatzen da: a) Phantzart, Inauteriko printze eta Sabelaren sinboloaren eta adiskide duen Bakus edariaren printzearen arteko borroka; b) Bakusen pozoitzea, emazteak burutua edateko ura emanez; eta c) Phantzarten prozesua.

Badirudi Erdi Aroko joko dramatiko batetik, Toursen behintzat 1485ean eskaini batetik etorriak direla; hark *La dure et cruelle bataille et paix du glorieux Sainct Pansart à l'encontre de Caresme* izenburua zuen, eta J.C. Aubaillyk[51] editatu zuen.

Pertsonaia hau Rabelaisen *Pantagruel et Gargantua* obran ageri da, santu gisa, eta parodia moduan atxikitzen diote halako *ventrem omnipotentem* bat izatea. Halaber, geroxeago, Joana Albretekoa nafar erregina protestanteak 1571n galarazi egin zituen inauterietako festak, *erromatar superstizio eta idolatriak zirelako, Pansart izeneko santu baten ohorez zertuak.*

Euskaldunen artean Saint Pansarten ospea deduzitzeko, ikusi besterik ez izen hori izen arrunt bihurtu dela egun, *zanpantzar* alegia, Nafarroako Arizkun herriko joaldunei esaten dieten moduan; izan ere, pertsonai hauek beti-beti izaten dira inauterietan.

Garamendik[52] zorrozki adierazi bezala, Garizumaren apologia eta Inauteriaren kondena baino gehiago Phantzart Inauteriaren goreste moduko bat da, festaren eta gehiegikeriaren goraipatze bat. Beraz, moraltasun eredu izatetik oso urrun dago. Halaz, Lapurdiko betiko ohituraz oso bestela –hartan Phantzarten irudia erre egiten dute eta Hausterre Egunean herriko plazan, eta gero errautsak Atturri ibaira botatzen dituzte Baionan–, Zuberoako tragikomedian, epaiketa eta zigorraren ostean, Phantzartek kartzelatik ihes egiten du bere iloba Florirekin batera, eta emaztearekin Orthezen babestu aurretik irain sorta izugarria botatzen du zuberotarren aurka, errautsen edo Garizumaren sinbolo den Hausterreren tiraniaren pean geratu izanagatik. *Bakus*, aitzitik, moralitate eredu bat da, zeren eta herriak onartu egin beharko baitu Garizumako abstinentzia eta baraua, inauterietako gehiegikeriak bide batez alde batera lagata.

Bi pieza hauek, batera harturik, Hérelleren ustez pastoral tragikoen parodia badira ere, ez dira parodia, baizik eta Inauterietako komedia besterik gabe, eta pastoralek dituzten eszena-baliabide berberak erabiltzen dituzte, satanak eta are asto-lasterrak ere jasotzen baitituzte.

INAUTERIA





*Tillac. San Phantzart erretzeko uneko eszenak.*

# XVI-XVII. MENDEAK





*Bruegelen grabatua, XVI. mendea.*

*Holandan "Peru gurea Londresen" kantuaren fartsa bat antzezten XVI. mendean.*

XVI. MENDEA: Galdutako piezak. Perucho, antzerki gaztelauaren euskal pertsonaia.
XVII. MENDEA. Jundane Jakobe handiaren trageria (1634)

## ■ XVI. MENDEA

### ■ GALDUTAKO PIEZAK

Pastoralei buruz hitz egitean, dagoeneko adierazi dugu Jean de Etchegaray apaiz eta olerkariak, Donibane Garazikoak, hiri horretan 1565 inguruan hainbat aldiz antzeztarazi zuela *Arzain gorria* izeneko pastorala. Seguruenik Lesakako bikarioa izan zela Diego de San Pedroren *La Pasión Trovada* piezaren itzultzailea, pieza hori 1566an antzeztu baitzuten aipatu herrian, eta Joanes Larrunbide organista olerkariak Oiartzunen antzeztarazi zituela, arrakasta handia lortuz gainera, dibinoaren hainbat komedia, hala nola *El sacrificio de Abraham, Job, Judith, la Josefina* eta beste batzuk. Pieza hauek guztiak ezagunak dira Testamentu Zahar eta Berriko gaia jorratzen duten komedia erlijiosoen errepertorio espainiarrean. Eta adierazi dugu, halaber, Errenterian 1599an antzeztu zutela *La conversión y penitencia de la Magdalena*, eta 1600en *Vida y Loas de San Juan*, etab. Eta Jean-Alexandre Buchon artxibozain frantziarrak pastoral bat erosi zuela, *Clovis, qui était certainement un manuscrit de 1500* izenburukoa.

Zoritxarrez pieza hauek guztiak, noizbait agertuko diren itxaropena galdu ez arren, oraingoz ez dugu non diren berririk, baina argi eta garbi adierazten digute bazela euskal antzerkia XVI. mendean, Kalagorriko eta Iruñeko sinodaletan behin eta berriz aipatzen zuten moduan.



Pabro. Dama. Cauallero. Perucho. Alguazil.

Comedia llamada Rosa bella. Nueuamente cōpuesta por Martin de Santander. En la qual se introduzen vn cauallero llamado Jasminio / y dos criados: el vno vn Vizcayno / y el otro vn Negro. y vna dama llamada Rosabella y su padre de la dama llamado Libeo / y vn hijo suyo / y vn Alguazil con sus criados. y vn pastor llamado Pabro. En la qual tracta de como el Cauallero por amores se desposo con ella / y la saco de casa de su padre. Es muy graciosa y apazible.

M, D, L.

AVE MARIA GRACIA PLENA

*"Perucho", "Rosabella" komediaren euskal pertsonaia (1550).*

### ■ PERUCHO, ANTZERKI GAZTELAUAREN EUSKAL PERTSONAIA

Euskaldunek antzerki espainolean eta frantziarrean zeukaten presentziari buruzko artikulu batean aipatzen nuenez,[53] euskaraz esandako esaldi solteetatik hasi, Torres Naharroren *Tinelaria*-n (1571) honelakoak ikusten baititugu, eta *Perucho* izeneko pertsonaia bateraino hel gaitezke. Pertsonaia hau Gaspar Gómezen *Tercera parte de la tragicomedia de la Celestina* (1536) obran behintzat ageri da, eta baita Martín de Santanderren *Comedia Rosabella*-n ere (1550), ezen Menéndez Pelayok bere *Orígenes...* lanean zioen moduan aurkitu ez bazuen ere, José María Fernández Catónek[54] aurkitu zuen Modenako Estense bibliotekan, eta duela gutxi argitaratu du, gainera, *Archivos Leoneses*-en. Santanderrek ezagutu eta xehetasun guztiz deskribatzen ditu XVI. mendeko espainiar gizartean gero eta kementsuago garatzen diren pertsonaia pikaroak, eta hauetako bat izango da, hain zuzen, Perucho izenekoa, solasaldietako batean honakoa baitio:

*Ago, ixilik, juduori,*
*judu txakurrori.*

Pertsonaia honen paraleloan izango dugu Molièreren garaikideen frantziar antzerkian, XVII. mendean, ageri den euskal olerkariaren pertsonaia, hain zuzen Hugues Picouren *Le Poète Basque*-n (1663) eta Raimond Poissonen[55] obra homonimoan, 1668an argitaratuan, zeinean barre egiten duen olerkari eta obra

dramatikoen autore honen kontura, Parisen arrakasta lortu nahi duelarik bere errepertorio zaharraz.

## ■ XVII. MENDEA

### ■ JUNDANE JAKOBE HANDIAREN TRAGERIA (1634)[56]

*Jundane Jakobe handiaren trageria*-ren iturriak eta bilakaera aztertu nahi baditugu, Santiagoren bizitzaz ari diren legenda tradizionalak aztertzeari ekin behar diogu. Legenda horietan, Millán Bravok[57] dioen moduan, oinarrizko hiru gai ikusten ditugu:

a) Santiagoren Espainiako egonaldia ebanjelizazio bidai gisa, eta Jerusalemera itzultzea; han moztu zioten lepoa K.o. 44. urtean.

b) Santiagoren gorpuzkinak Espainiara eramatea itsasoz; han bere dizipuluek lur eman zioten Galiziako Finisterren, eta

c) Santiagoren gorpuzkinak Iria Flavian aurkitu izana Teodomirok, IX. mendearen hasieran.

Gauean zehar suzko argiak aurkitu zituzten tokiari, Santiagoren gorpuzkinak zeuden tokiari alegia, *Campus Stellae* deitu zioten, eta denborak aurrera egin ahala Compostela bihurtu zen.

**CODEX CALIXTINUS**. Donejakue, beraz, Jerusalem eta Erromarekin batera munduko kristau pelegrinazioaren gune nagusietako bat izango zen, eta horrenbestez logikoa izango da turismo-gida informatibo bat sortzea, edo laguntzako eta santuaren propagandarako eskuliburu bat. Liburu hau, funtsean, XII. mendean egin zuten, 1140 eta 1173 bitarteko epean hain zuzen, eta autore nagusia, edo biltzailea behintzat, Kalisto II.a aita santuaren kantziler Aimeric Picaud izan zen, Clunyko ordenako kleriko frantsesa berau, Parthenay-le Vieuxen jaioa. Bere obra *Codex Calixtinus* da, eta guztira 225 orri ditu, honako bost liburuotan banaturik:

**I. liburua:** Santiagoren ohorezko liturgi piezen antologia. Sermoi, Ofizio eta Himno sorta (1.-139. aur.).

**II. liburua:** Santiagoren Mirarien liburua. XI. eta XII. mendeetan agertutako estilo bereko beste batzuen oso antzekoa (139. aur.-155. aur. orr.).

**III. liburua:** Santiagoren Trasladoaren eta Festen liburua. Santiagok Espainian eginiko ebanjelizazio lanaren, bere martirioaren eta legendaren historia (155. aur.-162. aur.).

**IV. liburua:** Pseudo-Turpinaren Kronika edo Karlomagnok Espainia konkistatzea (163. atz.-191. aur.).

**V. liburua:** Donejakueko erromesaren gida. Erromesentzako aholku praktikoen bilduma, dauzkaten geralekuak, gurtu behar dituzten erlikiak, eta bidean bisitatu behar dituzten santutegiak ere jasotzen dituena (192. atz-213. aur.).



*Done Jakue Handiaren irudia Nafarroa Behereko Altzietako elizan.*



*Raimond Poisson. "Le Poète Basque" obraren aktorea eta autorea. 1668.*

*J.B. Safforesen "Jundane Jakobe" lanaren eskuizkribuaren zati bat. Atharratze, 1634.*



Eskuz idatzitako kodize hau Donejakueko Katedralaren Kapituluko Agiritegian gordeta dago, eta bi kopia behintzat egin zituzten. Kopia horietako bat Bartzelonan dagoen Aragoiko Koroaren Agiritegiko Ripoll fondoko MS 99 da, eta bestea Lisboako Biblioteka Nazionaleko Alcobaça fondoko MS.

André Moissanek[58] ere dioen moduan obra honen iturriei buruzko azterketa kritiko eta literarioan, sortzeko unean funtsezkoa izan zen Diego Gelmirez eta Guido Borgoñakoaren arteko adiskidetasuna, azkeneko hau izan baitzen aita santu izateko aukeratu zutena Kalisto II.a izenarekin 1119an; izan ere, Gelmirez Galiziako konde Raimundo Borgoñakoaren, hots, Guidoren anaiaren idazkari eta kantzelari izana zen, eta Raimundo hau Alfontso VI.aren alaba Urracarekin ezkondua zen. Ondo dakigun moduan, Alfontso VI.a bere erresumak kulturalki europartzeko politikan murgildu zen, eta horretarako ezkontza bidezko politika eta Clunyko monjeak izan zituen oinarrizko tresna. Aipatu monje hauek kokatu zituen Carriongo San Zoilo eta Sahagungo San Facundo abatetxe nagusietan. Clunyko monjeek lagundu egin zioten, nahiz hainbat erresistentzia izan horretarako, errito mozarabiarraren ordez, hots, bisigotiko, gotiko, isidoriar edo espainiar ere deituaren ordez errito erromatarra jartzen, hau da, *lex toletana*ren ordez *lex romana* ezartzen.

Halaz, esate baterako, Santiago Handiaren festa, bere martirioarena edo *dies natalis* deituarena, ordura arte abenduaren 30ean ospatzen zutena bere anaia Joanesenarenetik egun batzuetara alegia, egun horiexetan beste jai garrantzitsuago batzuk zirela eta uda partera pasatu zuten, uztailaren 25era hain zuzen ere.

Pentsatzekoa da hain heroi garrantzitsuak literatura ugari eragingo zuela bere bizitza eta mirariei buruz. Literatura honen guztiaren oinarri sendoena aipatutako *Codes Calixtinus* hori izango zen, eta honek, izenak berak dioskun moduan, Kalisto II.a aita santuaren testuak hartuak zituen abiapuntutzat. Vincent de Beauvaisek bere *Speculum Historiale* lanean eta Jacques de Voraginek bere *Legenda Aurea*-n, XIII. mendearen erdialdekoak biak, *Codex*-en zati handi bat bildu eta itzuli egin zuten, eta horrenbestez lan honek izugarrizko eragina izan zuen Erdi Aroko eta Errenazimendu garaiko literaturan, zeren eta genoarraren obra 50 aldiz baino gehiago berrargitaratu zuten XV. eta XVI. mendeetan zehar.

Mende hasieran P. Meyer[59] erromanistak eskuizkribu bat aurkitu zuen Parisko Artsenaleko Liburutegian (3.516 zk.koa), eta beste zenbait santuren bizitzaren artean Santiagorena ageri zen bertan, latinez eta frantsesez idatzia. Badirudi XIII. mendearen hasierakoa dela, baina frantsesezko bertsioak badu berezitasun bat, hain zuzen latinezko testuaren itzulpen literala ez izatea, zeren eta bere prosaren errima begi-bistakoak direla-eta zortzi silabako olerki frantses batean bilatu beharko baikenioke sorburua; olerki hau non den arrastorik ez dugu, ezta oraindik baden ere.

Santuaren inguruko legenda eta mirari hauek XIV. mendeaz geroztik hasi ziren antzerki itxura hartzen. Francesc Massipek[60] dioenez, errepertorioko obrarik zaharrenak dituztenak ditugu 1325 inguruko *Chesterko zikloa* delakoa, Luziferren erortzetik Eguberriraino, Pasiotik Azken Judizioraino kristau historia osoa hartzen duten hogeita bost piezaz osatua, eta *Yorkeko zikloa*, honek berrogeita zortzi *miracle plays* baititu, eta hauetako zaharrenak 1350 ingurukoak baitira.

Michelek,[61] Magninen erakusketa bat hartuz oinarri, uste du Erdi Aroko antzerkiak hainbat fase igaro zituela, misterioetara iritsi arte. Fase horiek, gaingiroki, honakoak izan ziren:

a) Politeismoaren eta kristautasunaren elkarbizitzaren garaia, garai erromatarra ere deitua, IV. mendetik VI.era bitartekoa.

b) Batasun katolikoaren eta sazerdote-botere eta beronen jenio handienaren garaia, VII. mendetik XII.era doana eta garai hieratikoa deitua; honetan kokatu beharko lirateke Ama Birjina Zuhurren eta Ama Birjina Ergelen lehenbiziko misterioak.

c) Ordura arte bakar-bakarrik klerikoek zerturiko arteetan laikoen partaidetza ere ematen den garaia, kofradien garaia deitua, XII. mendean abiatua; honetan, pietatezko jaieraz eta askatasun entusiasmoz beteriko komunitateek hiru menderen buruan gauzatu zuten arteen erabateko sekularizazioa.

Pasioaren kofradiakideak, Jubinalen iritziz, Misterioak kantatzen zituzten juglare haien hurrengo ondorengo hobetuak besterik ez ziren, zeren eta kofradiakideak ahalegintzen baitziren haiek ekintza mimiko bihurtzen, egokiagoak inondik ere ikusleen arreta bereganatzeko. Gai honetan are sakonago joz, Barral i Altetek[62] diosku kofradiak fededunen elkarteak zirela, eta bere xedea karitatezko obrak egitea eta bere santua ohoratzea zela. Estatutuak zeuzkaten, eta janzteko modu partikularra ere bai, nahiz ez ziren komunitatean bizi eta ez zuten botorik egiten.

Saint-Jacquesen kofradiako kide izateko ezinbesteko baldintza Donejakuerako bidaia pertsonalki egina izatea zen.

Bordeleko kofradiak, esate baterako, 1493 baino lehen dagoeneko bazelarik, bizirik zirauen artean XIX. mendean, eta Compiègneren kofradiak urtero-urtero antzeztu zuen 1466 eta 1539 bitartean *La vie et mistere Saint James en personnages selon la legende*; honen autoreak *plusier jeunes compagnos de ceste ville* ziren, hau da, ordaintzen ez zieten herriko gazte batzuk. Izan ere,



*Alfontso X.a Jakitunaren "Cantigas de Santa María" obraren eszenak.*

eskuratzen zuten soldata bakarra oholtzak, jantziak eta abarretarako izaten zen.

Paul Aebischerek[63] dioen moduan, *Histoire de Saint Jacques* izeneko bat antzeztu zuten Suitzako Friburgon 1470ean, eta beste antzezpen batzuk ere izan ziren Béthunen (1491, 1503), Compiègnen (1502, 1530) eta Troyesen (1523), Petit de Jullevillek[64] eskainitako datuen arabera behintzat. XV. mendeko drama italiar batek ere Donejakueko bidean ziren guraso batzuen umearen berpizkundea du antzezpen-gaitzat.[65]

Marseillako auzitegi zibileko epaile Camile Amaudek eskuizkribu bat aurkitu zuen M. Mille de Manosque (Basses-Alpes) notarioaren agiritegian; eskuizkribuaren izenburua *Ludus Sancti Jacobi* da, eta 1496 inguruan antzeztutako misterio proventzal baten 705 bertsoz osatu zati bat da.

Inork ez du uste Parisko Parlamentuak 1548an ezarri debekuak amaiera eman zienik misterioei, zeren eta antzezten eta inprimatzen segitu zuten. Dena den, egia da edizioak desberdin samarrak direla, ez lehen bezain zainduak, eta ale kopuru murritzagokoak. Raymond Lebèguek Frantziako tragedia erlijiosoaren jatorriari buruzko azterketa batean dioen moduan,[66] Saint Jacquesen kofradiak asko ziren, eta indar handikoak gainera, eta denbora luzean zehar jarraitu zuten bere santu zaindariari buruzko obrak antzezten. Halaz, Lilleko kofradia 1562an Béthunera joan zen antzezpen bat eskaintzera. 1567an Saint-Quentinekoak *Mystère de Saint Jacques* antzeztu zuen, eta 1596an Limogeskoak eszenara eraman zuen Bardon abokatuak idatzitako tragedia.

Probintzietan, lege gizonak zein herri xeheak, laiko masa handiak fideltasuna gorde zion misterioen dibertimenduari, eta gerra zibilaren izugarrikeriak amaitu zirenean hiri askotan berritu egin zen tradizio zaharra, nahiz dagoeneko ez zieten misterio deitzen, tragedia baizik. Greziar eta latindarren eragin bikoitzak, protestanteen tragedia bibliko frantsesarekin bat eginik, klasizismoari zabaldu zion atea. Baina Bardonen Saint Jacquesen tragediak, obra orijinal eta burutsua bera, ez du beste horien antzik, aktoen banaketan, koruetan eta hitzaurreetan ez bada; horixe behintzat Koster Loukovich[67] eta Yves Lehirek[68] diotena.

Euskal Herrian ere ez zen Santiagoren kofradiarik falta, ezen jakin badakigu XII. mendean dagoeneko bazela Lizarran hirurogeita hamar kidez osatutako kofradia bat; Iruñeko apezpiku Pedro de Parisek Santa Maria del Puy elizaren dohaintza egin zion kofradiari 1174an. Urruñan ere (Lapurdi) sei kofradia zeuden, eta hauetako bat Saint-Jacquesena zen, eta Baionan ere bazen kofradia bat, 1603ko estatutuak zituena, eta Iraultza garaira arte iraun zuena; honek bezperan, santuaren egunean bertan eta biharamunean zeremonia finkatu bat egiten zuen, Pantxika Bégueriek kontatzen digun moduan.[69]

Baionako elizbarrutian, Saint Jacques le Majeur titularra izan zen 22 elizatan, Daranatzek[70] dioenaren arabera; eliza horien artean zeuden, besteak beste, Arboti-Zahota, Behobia eta Zuraide (Lapurdi), Bidaxune (Nafarroa Behera), eta Larunsekoa (Sohüta, Zuberoa), eta ez litzateke harritzekoa izango santu zaindariaren ohorez kofradiakideek, beste hainbat tokitan bezala, festa eguna antzezpen batez ospatu nahi izatea, santuaren bizitza eta mirariak gogoratzeko.

Saint Jacquesi buruzko euskal eskuizkribuen deskripzioak, Hérellek[71] eginak, orain arteko osatuena izan arren behar du zehaztapenen bat egitea.

Egiaz bi Ex libris ditu. Bata I. aur. orrian dago, eta Jn Bte Safforesena dela dio honek, eta bestea amaieran, 36. aur. orrian, Jean Pierre Saffores jabetzat aipatuz; honetan ageri zaigu 1634ko data. Hérellek dioenez, 1.600 ahapaldi inguru ditu, launa bertsoz osatuak, baina Bordeleko eskuizkribuaren bidez egiaztatu eta gero 15. aur. orriaren ondotik itsuaren kontakizuna falta zela, 670-718. ahapaldien arteko beste hutsune batzuez gain, guztira 1.707ko kopurura iristen gara.

1911ko otsailean Chéraute Jean Héguiaphal[72] pastoralistari erosi ziolarik Hérellek, honek dohaintzan eman zion (4.616 zk.koa da) Parisko Biblioteka Nazionalari. Nahiko egoera

txarrean dago, zeren eta beheko eskuineko ingurua ia-ia ezin baita irakurri, amaiera aldean erdialdeko ingurua bezalaxe. Ahapaldietako askok eta askok hainbat marra dute gainean, kopia lana laburtu nahi izan zuen kopistaren batek –Baionako eskuizkribuaren egileak beharbada– eginak antza.

Toki askotan Christina pertsonaiaren izena ere ezabatuta dago, eta haren ordez Betrina jarrita; Diego / Carlos, Sedan / Sacolan eta beste batzuekin ere gertatzen da, ez ordea hainbeste aldiz.

Bordeleko eskuizkribua,[73] egiaz, 1.695-4 zk.koa da, eta kopistak 1.520 ahapaldi kontatu baditu ere, zehatz esanda 1.600 ditu. Ex librisak honakoa dio: *Fait à Lichune le 5 mai 1842 par Pierre G.* Eta hau ikusita pentsa dezakegu Pierre Gorostibar pastoralista dela, 1818ko uztailaren 19an Barkoxen *Les 4 Fils d'Aymon* pastorala zuzendu zuena. 86. ahapaldiaren ondoren ageri den titulua oso interesgarria da: *Tragedie compossée sur l'arrivée de St Jacques le majeur et sur miracles qui arriverent depuis quil etoit mort.*

Hirugarren eskuizkribua, Baionakoa,[74] modernoena da. Santa Genobebaren pastoralarekin batera koadernatuta dago. Printzesa bat, errege kristau bat eta soldadu kristau bat irudikatzen dituen akuarela bat dauka. Egoera onean dago, eta Parisko Biblioteka Nazionaleko MS-ren kopia bat da, jatorrizko agiri horri hainbat ahapaldi kendu dizkiotena, zeren eta honek 1.460 baititu guztira, zehatz esanda. Hérellek 18. zk.az eta Jondone Jakob izenburuaz aipatzen duen eskuizkribua, egiaz 1695-12 dena, ez da Santiago apostoluaren bizitzaz ari, baizik eta Testamentu Zaharreko Jakob pertsonaiari buruz; Salvador Bartchargaray seminaristak idatzi zuen eta, beraz, pentsatzekoa da Léonek bere tesian aipatzen zituen zalantzek, Otto Stollek emandako tituluari buruzkoak bezalaxe, nahiko oinarri sendoa zutela. Larrieu doktorearen eskuizkribuaren batere berririk ez dugu, ezta inolako daturik ere 3.000 ahapaldi zituen iritzia egiaztatzeko modua eskain dezakeenik.

Ezagutzen ditugun antzezpenak, Parisko MS-ren kopiaren data onartuz gero antzezpen-datatzat, honakoak izango lirateke: 1) 1634ko abuztuaren 29a Atharratzen; 2) 1842ko maiatzaren 5ean Lexantzün; 3) 1847an Phagolan; 4) 1848ko abuztuan Müskildin; 5) 1849ko abuztuan Müskildin; 6) 1860ko azaroaren 2an Atharratzen, eta 7) 1911ko maiatzaren 29an Barkoxen.

Orain haren argudio orokorrari, bat etortzeei eta aldaketei buruz arituko gara.

**A) Hitzaurrea:**

**1-77. bert.** *Le premier prologue* edo lehen hitzaurrea, beste pastoral batzuetan *lehen pherediquia* deitua



*Alfontso X.a Jakitunaren "Cantigas de Santa María" obraren eszenak.*

edo, besterik gabe, "Sarrera". Guztira launa bertsoko 77 ahapaldi ditu, bertso oktosilabiko samarrak dira guztiak, eta bertso bikoitiek egiten dute errima. Bordeleko MS-ek 78 dauzka, nahiz 90 aipatu, eta Baionakoari sarrera hori falta zaio. Ikusleei, *coumpagna ouhouratia,* zuzendutako agurraz hasten da, eta ohartarazten du antzeztuko den gaia Espainiako zaindari Santiago apostoluaren bizitza dela, egiazkoa historia inondik ere. Nahiko tradizio hedatua da honela hastea, zeren eta XV. mendeko lehen martirien misterioen zikloan ere hurrena irakur dezakegu:

> *Laudate Dominum in santis eius*
> *Dieu Pere et Filz et Saint Esperit*
> *Sauve et gart ceste compaignie*

[Ed. G.A.Runnalls, 1976:65].

Eta beste hainbeste *Ludus Sancti Jacobi* proventzalean ere:

> *Salut a tos ebonavio*
> *Ve vos aysi la companio*
> *Per vos autres bonas gens*

[12-14. ber.]

Edota misterio bretoietan ere, ezen *compagnonez son vertuus* (bertutetsu*), enorable (prestu), meulabl* (laudagarri)... Le Brazek[75] dioenez. Antzeko formula-agurrak ere badira, ahozko tradizioarenak, hainbat pastoraletan , esaterako *Jean de París (compagna admirablia), Charlemagne (populu admiragarria), Saint Julien (jaunac eta anderiac),* edota fartsetan, hala nola *Cabalçar eta bere familia (gente hounaq) eta Jouanic Hobe eta Arlaita (compagna ouhouratia)* izenekoetan.

Hitzaurreak gaingiroki laburtzen du protagonistaren jarduera, bai Jesukristoren ondoan bai gero Espainian edo Jerusalemen zertua. Aipatzen du nola izendatu zuen Athanase Zaragozako apezpiku, eta nola Theodose honen apaiz. Nola agertu zitzaion Ama Birjina pilare baten gainean Josephazen lurraldean Ebro ertzean, eta nola agindu zion eliza bat eraikitzea toki hartan bertan eta agindu hau zein arduratsu bete zuen. (Episodio hau guztia ez da ageri Voraginek idatzitako bizitzan).

Nola itzuli zen Jerusalemera juduen artean predikatzera, eta nola hauek haserretu eta Hermogena izeneko azti bat eta beronen dizipulu Filleta bidali eta berak kristautu zituen. Juduek, ikusirik bide hark porrot egin zuela, bi kapitain erromatar bidali zizkioten, iskanbilak eragiteagatik atxilo har zezaten. Herodes Agripak, juizio baten ostean, lepoa mozteko agindua eman zuen. Apostoluaren dizipuluek, honen desira betez, Mediterraneoa zeharkatu, Gibraltarreko itsasartea igaro, Galiziara heldu eta hantxe utzi zuten apostoluaren gorputza. (Zati hau ageri da, hau bai, Voragineren lanean, eta baita Lupa erreginaren historia bat ere, zezenei loturikoa, baina hau kenduta dago pastoraletik).

Santiagok, bere zaldi zuriaren gainetik, lagundu egiten die errege kristauei mairuen aurkako gerretan, zehazki Daramira erregeari Clamvigeako batailan. Antzeko bataila batean lagundu zion, halaber, Isabel erreginari Amerikako gerretan. Ozkabarten gertatutako mirariari buruz ere hitz egiten du; han urkatua berpiztu egin omen zen, eta oiloak kukurruku egin erre ondoren.

**B) Santiagoren bizitza eta heriotza:**

**77-91. bert.** Hitzaurrearen ondotik Satan sartzen da Jupiter inbokatuz (Bo eta Ba-n falta da eszena hau).

**92-165. bert.** Santiago ateratzen da belauniko kantuan (hemen hasten da Ba-ren MS-a), giza berdintasunari eta pobreei zuzendutako karitatearen beharrari buruzko Jesusen dotrina predikatuz. Zehaztasun eta indar handiko bertsoak dira, eta horregatixek ekarri ditut lerrootara:

**115. bert.**

> *Eta ziek aldiz praubiak*
> *dütüzie mesperetxatzen*
> *eta aberatsak aldiz*
> *orotan estimatzen.*

**116. bert.**

> *Persuna diferentzia egiliak*
> *bekhatu du egiten.*
> *repreniturik dutien lekiak*
> *biolatu dielakoz ukhen.*

**166-258. bert.** Fernando eta Pascalina errege-erreginak ageri dira, Seraphisi eta Baali sakrifizioak eskainiz (Seraphis jainko bat da, Ptolomeo I.ak Egipton sartua egiptoar eta greziarrentzako kultu komun bat sortu nahi baitzuen. Hildakoen eta emankortasunaren jainkoa da, eta itsasgizonen babeslea; Baal, berriz, jainko kananear, feniziar edo aramearra da, herrien eta emankortasunaren babeslea). Baina Santiago agertu eta, Jesusekin hitz egin ondoren, esaten die estatuez irudikatutako gezurrezko jainkoak baztertu behar dituztela; eta errege-erreginen seme Philippe sendatu ostean eskuak gainean jarri zizkiolarik, errege-erreginak kristautu egiten dira.

**261-288.** bert. Satanen bigarren ateraldia Jakobe madarikatuz; honek, idoloak erre eta gero, errege-erreginak bataiatzen ditu, eta une horretan Gabriel eta Lien

(Raphael Boren MS-n) aingeruak agertzen dira.

**289-428. bert.** Don Secon, Son Indalega, Isiga, Tesiphon, Athanasa eta Euphrasak Santiagoren irakaskuntzak hartzen dituzte, beraiekin batera iritsia baitzen hau Zaragozara, Aragoiko hiriburura; hemen apezpiku izendatuko du Athanasa, eta apaiz Theodora.

**429-444. bert.** Ama Birjina agertzen da bere basilika eskatuz. Apostoluaren eta Ama Birjinaren arteko solasaldia amaitzeko, *Ave Maristella* kantatzen dute aingeruek.

**445-535. bert.** Santiagok arkitekto batzuei (Ciprien, Carleran eta Georgeri) eta hauen maisu igeltseroei (Solido eta Hortori), gizon kementsuak guztiak, obra hori egiteko agindu zien. Solidok dioenez (486. bert.), Zaragozako pitxerkada bat ardo zuri edan ondoren gai da hogei harri kintal altxatzeko, eta honi Hortok erantzuten dio bera ere gai dela beste hainbesterako. Indar kontuen inguruan bantatzen dira, harri-jasotzaileen arteko apustu bat balitz bezala. Hona hemen bertsoa:

**486. bert.**

*Zarakozeko ardu xuritik*
*pitxerra badut edaten*
*hogei kintale harri*
*nik dit altxaturen.*

Elizako lanak amaiturik 20.000 libra hartzen dituzte, eta hauekin



*Santiago eta erromesak.*
*Troyesko udal agiritegiko grabatua. Frantzia.*

ostatu batera abiatzen dira. Asko edan eta gero borrokan hasten dira, eta une horretan Satan agertzen da hirugarren aldiz.

**536-933. bert.** Santiagoren agurra, Jerusalemera baitoa. Han asko eta asko kristautzen ditu, eta Hermogena aztiarekin eta beronen dizipulu Filletarekin elkartzen da; aztiak Filleta bidali du, izan ere, apostoluarekin eztabaidatzeko. Eta eztabaida hau Santiagok itsu bat sendatzen duenean amaitzen da, hurrena Filleta bera kristautzen baita. Hermogenak, sutan dela, harri bihurtzen du Filleta sorginkeria baten batez, baina Jakobek zapi bat bidaltzen dio eta honen bidez sorginkeria hori desegiten du; ondoren, aztia bera da kristautzen dena.

Oso bitxia da ikustea nolako aldea dagoen Hermógenesek erre nahi dituen magia liburuen perspektibaren inguruan Grebanen *Mystère des actes des apostres*-en eta tragedia zuberotarraren artean. Honakoa dio olerkari frantsesak:

*Sainct Jacques*
*Mieulx vault les gecter en la mer,*
*Affin que le faux sentement*
*Ne puist vexer aucunement*
*Les simples et les ygnorants*

[op. aip., 90].

Bestetik, euskal pastoralistak ez dio nahiko irizten itsasora botatzeari, eta fede-autoen tradiziorik garbiena jarraiki sutara





botatzen ditu. Honakoa diosku:

**762. bert.**

Eta magia libru hoiek oro
mementuan erra erazi
su hortan barnialat
mementuan urthuki. *(Urthuk.)*

Abiatal sazerdote handia eta bere dizipulu Samuel eta Josias zeharo haserre daude apostoluaren arrakasta ikusirik, eta Lisias eta Themorita kapitain erromatarrekin adosturik Santiago preso hartu eta Herodesen aurrera eramaten dute; honek, epaitu ondoren, lepoa mozteko agintzen du. Alabaina, epaia bete aurretik astia du Theodoriq izeneko elbarri bat sendatzeko, nahiz honek ez duen eragotziko Tabor borreroak bere eginkizuna betetzea, apostoluaren lepoa moztea alegia. Une horretan aingeruak agertzen dira, bere ahots zerutiarrez kantuan.

**C) Iria Flaviarako trasladoa eta mairu eta kristauen arteko gerra:**

**934-948. bert.** Santiagoren dizipuluek txalupa batean ontziratzen dute haren gorpua, eta txalupa modu miragarrian abantzatzen da *Mediliano* itsasoan barna; eta Galiziara iritsita Jakobe altxatu eta bedeinkatzen ditu.

**949-1351. bert.** Une honetan agertzen dira gaiztoak: Maroc erregea Sacolan, Frisco, Sedan eta Solimanekin, hauek Alfontso erregeari kobratu nahi baitiote ehun dontzeilen tributua. Friscoren delegazioak, erregeagana bidaliak, bere ospila eskuratu du, hau da, Elisabet, Gracina eta Maria Antonio; hauek jainko paganoei gurtza egin nahi ez dietelarik, lepoa mozten diete, Elisabeti izan ezik, Maroc erregeak emaztetzat eskatzen baitu. Kristau erregeek ez dutenez ehun dontzeilen tratua bete, kristauen aurkako borrokarako prestatzen dira, eta kristauak ere gudurako prestakuntzetan murgiltzen dira. Une honetan Betrina agertzen da, Euphrasarekin maitemindua bera, Catrina adiskideari atsekabeturik hizketan, berak maite duenak bakarrik uzten duelako. Catrinak, bere aldetik, kexua agertzen dio, Pierrak ere utzi egin behar duelako, eta halaz desertatzeko gonbitea egiten dio. Alabaina, honek ez du koldartzat har dezaten nahi, eta gerrara doa. Orain Santiago agertzen da bere zaldi zuriarekin, eta kristauak garaitzen zaizkie mairuei santuaren partaidetzari esker. Hurrena Satan sartzen da atzera, zerbitzari duen Mithilarekin batera.

Errege kristauek mairuei urtero-urtero eman behar dizkieten ehun dontzeilen tributua gai errepikatua da literaturan, bai gaztelauan bai euskarazkoan. Halaz, Gonzalo de Berceok ere *La Vida de Sant Millán*-en, XIII. mendeko lana da hau, honakoa diosku **370. ahapaldian**:

*Mandó Abderramán a los cristianos,*
*el que el mal siegle prenda,*
*que li diesen cada año*
*LX dueñas en renda,*
*las medias de linaje,*
*las medias chus sorrenda,*
*¡mal sieglo haya puesto*
*que prende tal ofrenda!*

Oihenartek bere *Art Poétique Basque* lanean, 1655ekoan, kantu tradizional bat jaso zuen gai beraren inguruan, saldu zuten dontzeilaren ezpainetan jarriz kexua.

**D) Codex Calistinuseko V. miraria:**

**Urkatu berpiztua:**

**1352-1597. bert.** Codex Calistinuseko V. Mirariaren bertsioa, urkatu berpiztuarena alegia. Alexis eta bere emazte Betrina (Christina) Santiagorantz abiatzen dira beren seme Dominiquerekin batera. Ostatu batean hartzen dute tokia, eta honetako neskame Pascalina Dominiquerekin maitemintzen da, baina honek ondo hartzen ez duelarik mendekua hartzea erabaki, eta zilarrezko edalontzi bat sartzen du Dominiqueren zorroan. Salaketa jarririk, semea urkatu egiten dute, baina pelegrinaziotik bueltan gurasoek bizirik topatzen dute semea, honen berri ematen diote epaileari, oilarrek kantu egiten dute, eta neskamea urkatzen dute. *Charlemagne*-ren pastoralaren bertsioan, honek ere mirari hau jasotzen baitu, Juliana izeneko neskamea ez dute urkatzen, erre baizik. Historia hau dagoeneko ageri zaigu Alfontso X.aren kantigetako irudietan.

**E) Santiago eta Amerika:**

**1598-1690. bert.** Apostoluaren beste esku-hartze bat gerran. Oraingoan Espainiako Isabel erreginaren alde arituko da, hura Amerikako indioen aurkako borrokan ari da eta, egiazko erlijioa erakuts diezaieten. Ondoren Satan eta bere zerbitzari Mithila agertzen dira, azkeneko aldiz. Pablo Arribasek (1993) Bernal Díaz soldadu kronikagilea aipatuz dioen moduan, Cortés eta Pizarrok Santiago inbokatzen dute indioen aurkako borroketan, eta horrenbestez hau mairu-hiltzaile izatetik indio-hiltzaile izatera igaroko da; eta Indietako kronikagileen kontakizunen arabera, halako batean indioek berek ere esaten dute Santiago ikusi dutela. Garcilaso de la Vega inkak ere kontatzen du, bere *Comentarios reales* (1535) lanean, nola agertu zen apostolua: *Santiago, visiblemente delante de los españoles, que lo vieron ellos y los indios, encima de un hermoso caballo blanco.* Halatan, gehiegikerian erortzeko batere beldurrik gabe esan daiteke Latinoamerika osoa Santiago indio-hiltzailez beteta dagoela.

**F) Epilogoa:**

**1691-1707. bert.** *Le dernier Dialogue*, edo beste pastoral batzuetan esaten dioten moduan *Azken pherediquia* edo "Sortida". Hitzaurrea kantatu duen aktoreak ikusleen arreta eskertzen du, egindako akatsengatik barkamena eta Santiagorako erromesaldian murgil daitezen eskatzen die, eta azkeneko dantza bat egin dezatela; ondoren bakoitza bere etxera afaltzera joan dadin gonbidatzen ditu.

Hona hemen, bada, Jundane Jakoberen pastoralaren laburpen zehatz bat, argi eta garbi erakusten dituena misterio frantsesetan dituen sustraiak, gai berari buruzko europar literaturarekin dituen konkomitantziekin batera.



*Akuarelak, soldadu kristau bat, erregina edo printzesa bat eta errege kristau bat errepresentatzen dutenak. 1997ko edizioaren erreprodukzioa.*

# XVIII. MENDEA





*Francisco Javier María de Munibe Idiáquez, Peñafloridako Kondea.*

*"El Borracho Burlado" lanaren gaur egungo (1985) antzezpen bateko aktoreak eta zuzendaria (Jon Bagües).*

## FARTSAK. PASTORALAK. PEDRO IGNACIO BARRUTIAREN GABONETAKO IKUSKIZUNA. PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN ANTZERKI LANAK

Zenbaitetan aipatu izan dugu euskal antzerkiaren gaineko ikerlana alderdi askotan lugorria dela, ikerketa zehatz ugariren eta aukerako ahaleginen premian dagoena. Espero dezagun etorkizunean ikerlan horiek ustekabeak ekar ditzaten. Bien bitartean, kontinente aldeko euskarazko antzerkia fartsa eta pastoraletara mugaturik dago, eta XVIII. mendean penintsula aldeko antzerkia, berriz, bi egilera, Pedro Ignacio Barrutia eta Francisco Javier Maria de Munibe, Peñafloridako kondea, mende horretako Tradizioaren eta Ilustrazioaren ordezkari, hurrenez hurren.

### ■ FARTSAK

Ezagutzen dugun lehenengoetako fartsa egile bat Arrosako Oxamendi da, zeinak karrosa batean parte hartu baitzuen. Ikuskizun hori Orzaizeko herrian eman zen, 1776. urtean, eta antzezpen horretatik kanta bat heldu zaigu, zazpina lerroko hamaika ahapaldikoa. Nafarroa Behereko lan horrek, ordea, ez du heldu zaizkigun XVIII. mendeko Zuberoako fartsen edo fartsa hasikinen antzik. Garai hartatik gorde diren fartsak honakoak dira:

1. *Agardentegilea eta bere emaztea.* Campan-Latsague bildumaren eskuizkribua, Baionako Euskal Museoaren Liburutegiko 9. zenbakia. Zortzi silabako launa lerroko hamaika ahapaldi, tabernarien aurka Bartcen izeneko batek idatziak.
2. *Ardeatina eta Ludobina*. Itxura batean *Alexandre* pastoralarekin batera antzeztua. Baionako Euskal Museoaren Liburutegiko 46. eskuizkribuak 62 ahapaldi ditu. Bi adiskideren istorioa kontatzen du, Ardeatina eta Ludobina. Azken hori, Rubiq printzearekin oheratu ondoren, abortatu beharrean izango da.
3. *Bala eta Bilota. Juanik Hobe eta Arlaita* izenburuko eskuizkribuan txertatua, fartsa hori 1788ko abuztuaren 28an antzeztu zen. 57 ahapaldi ditu, eta Bala eta Bilota tabernarien bizitza kontatzen du. Tabernariok beren ardoa bedeinkatzen dute eta alaba Hariaren hezkuntzaz eztabaidatzen dute, biarnes eta zubereraz esandako elkarrizketa irainez beteetan.
4. *Bubane eta Xiloberde.* Campan-Latsague bildumako 10. eskuizkribua. XVIII. mendearen amaiera, 165 ahapaldi. Bubane kexu da bere emazte Xiloberdek, berari adarrak ipini ez ezik, bere ondasunak maitaleekin xahutzen dituelako. Bubane hiltzean, Xiloberdek hamar hilabetez itxaron beharko du Kopetekin ezkontzeko, eta, gainera, ezkontzako opariak udalaren esku utzi beharko ditu.
5. *Juanik Hobe eta Arlaita.* Bordeleko Udal Liburutegiko 1695-13. eskuizkribua. Olhaibin antzeztua, 1788ko urriaren 27an, eta geroago ere bai, zenbait moldaketaz, 1791an antolatu zen Guardia Nazionala aipatzen baita. 148 ahapaldiko lan honek azpititulu bat du, fartsa askotan ageri dena: *L'Homme battu par sa femme "Andreak gaizki tratatutako gizona"*. Justiziak Arlaita Marchapipira zigortuko du. Esapide horrek «pikotara joatea» esan nahi du, baina jatorrian Prévosten *Manon Lescaut* (1731) nobelan ageri den esaera baten –«aller à Mississípi»– desitxuratze herrikoia da.
6. *Kabalzar eta bere familia.* Campan-Latsague bildumako 24. eskuizkribua. XVIII. mendearen amaiera, 77 ahapaldi. Osoki gorde ez den fartsa honetan, Kabalzar baserritar alfer eta mozkorrak emazteari gomendatzen dio seme-alaben aurrean eredugarria izan dadin, eta seme-alabei,



*Fartsaren satirak eliza gehiago erasotzen du, emakumeen ahulezia baino.*

berriz, langileak eta zuhurrak izan daitezen. Alabaina, badirudi aholkuek ez dutela fruiturik ematen.

7. *Petit-Jean eta Sebadina. Normandiako Rikardo* pastoralean txertaturik dago, eta Zalgizen antzeztu zen, 1769ko abuztuaren 4an. Ez litzateke harritzekoa *errejenta* edo pastoralaren zuzendaria, Larché izenekoa, launa lerroko 112 ahapaldiko lan honen egilea ere izatea. Sebadina (zuberotarra) eta Petit-Jeanen (biarnotarra) arteko eskandaluzko harremana kontatzen du, eta azken horren hizkuntzan esandako esaldirik ez da falta. Fartsaren amaieran, biarnotarrak Sebadina Ingalaterrako erregerekin joan izana deitoratzen du.
8. *Rekokilart eta Arieder*. Parisko Liburutegi Nazionalaren Fondo Zelta eta Euskalduneko 138. eskuizkribua. 1788ko abuztuaren 8an antzeztu zen, Olhaibin, itxura batean *Clovis* eta *Saint-Jacques* pastoralekin batera. Laurogeitaka urteko Rekokilarten eta hura gau eta egun zerbitzatzen duen Arieder neskamearen arteko harremana kontatzen du. Esposatzen ahalegintzen direnean, ezkontza hain da eskandalagarria ezen bi herritik egotziak izango baitira, eta beren arrastoak lastoz erreko dira, zeremonia arazgarri batean.
9. *Saturno eta Benus. Judith eta Holopherne* pastoralean txertatutako testua, Bordeleko Udal Liburutegiko 1695-19. eskuizkribua. 340 ahapaldi ditu, eta Pagolan antzeztu zela badakigu, baina ez data. Saturno alargun zahar lohiaren zalantzak kontatzen ditu, Ganeton lasakaren eta Trinkilinen alaba Benusen, aitak alargunarekin ezkondu nahi duena, artean. Gazteen trufak saihestearren, Saturnok eta Benusek gauez ezkontzea deliberatuko dute, baina amarrua gaizki irtengo zaie, gazteek elizaraino lagunduko baitituzte, non Belot apaiza zain daukaten, ezkontza bedeinkazioa emateko.
10. *Xiberua eta Marzeline.* Parisko Liburutegi Nazionalaren Fondo Zelta eta Euskalduneko 136. eskuizkribua. Osoa, 436 ahapaldiz. Marzelineren abenturak kontatzen dira, hainbat maitale dituen emakume kaskarina, azkenean Xiberua erresumako adardun nagusi gisa koroatua izango delarik.

Lan horiek guztiak *Zuberoako Irri-teatroa. Recueil des farces charivariques basques.*76 izeneko lanean jasota daude, jatorrizko eskuizkribuen arabera editatu eta ikertuak.

Gorde diren Zuberoako hamazazpi antzezlanenez gain, beste lan zenbaiten berri ere bada, hala nola Pierre Topet Etxahunek (1766-1862) gaztetan egindako hiru kantak: *Eihartxe eta Miñau, Maria Solt eta Kastero*, eta *Ahargo eta Kanbilu*, fartsen hasierak baino ez direnak. Horrenbestez, fartsa horietako sarreren melodia nahiz lan horietako gaien lehen lerroak jakin eta ezagutzen ditugu.



*Xaribariatuen Granadatiko egoztea, Civitates orbis terrarum-en grabatu baten arabera.*




*Jean de Paris-en XVII. mendeko edizioaren azala.*

*Jean de Paris Pastoralaren eskuizkribuaren amaiera, Larrañe 1760.*



## ■ PASTORALAK

Itxura denez, eta George Lacombe kritikariaren arabera, Baionako Euskal Museoko eskuizkribu bat, *Juana de Arco* izenburua daramana, 1712koa da, baina pastoralen antzezpenen data zehatzak, kopistak eta zuzendariak zein eskuizkribuak non jasota dauden, 1. taulan agertzen dugun moduan, XVIII. mendearen erdialdetik aurrera baino ez ditugu ezagutzen.

Hamahiru antzezlan horietatik bakarra argitaratu da, Gidor Bilbaoren77 eskutik. Hala ere, bi tesi egin dira, bata Albert Léon78 ikerlariak Santa Elena edo *Hélène de Constantinople*ri buruzkoa, Parisen 1909an argitaratua, eta bestea *Jean Pariskoa*ri buruzkoa, Iñaki Mozosek79 egina eta oraindik argitaragabea, horrek erakusten duelarik herri literatura konparatuaren ikuspegitik hain garrantzitsua den gai baten inguruan euskal literaturaren adituek duten interes eskasa.

Iraultza urteetan zehar, ikus daitekeenez, pastorala antzezteari ez zitzaion utzi, garaiko egoerara egokitu zelarik, aldaketa txikiak eginez, batez ere azken lerroetan, 1770 eta 1796ko *Seme iriolea* alderatzean ageri den bezala. Ahapaldi batean, *Azken pheredikiak* honela dio:

1770. *Beude diskus horik*
*Jaunak, gitin liberti,*
*Dugun Te Deon kanta*
*Orok algarreki.*

1790. *Beude diskus horik,*
*Jaunak, gitin liberti*
*Dugun Kaminola kanta*
*orok elgarreki.*[81]

Aldaketa txikia da, mila ahapalditik gorako lan batean. Bitxikeria gisa, 1799an *Clovis* pastorala antzeztu zenean, Etxekoin eta Etxeberri emakumeek parte hartu zuten, eta hori guztiz ezohikoa zen, ezen XX. mendean barrena ere emakumezko rolak antzezten zituzten aktoreak gizonezkoak izan ohi baitziren.

## ■ PEDRO IGNACIO BARRUTIAREN GABONETAKO IKUSKIZUNA

**Pedro Ignacio Barrutia Basagoitia** (Aramaio, 1682 Arrasate, 1759) herriko idazkaria *Gabonetako Ikuskizuna* lanaren egilea da, aurkakorik frogatu ezean, eskuizkribuan ageri den izen bakarra izaki. Juan Carlos Guerra historialariak XIX. mendean

| 1. taula Pastoralak | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Data** | **Lekua** | **Izenburua** | **Errejenta** | **M S** |
| 1750-III-1 | Eskiula | *Santa Elisabete* | Gauliber | BNP, FCB, 208 |
| 1759 | Gamue | *Edipo* | | BNP, FCB, 207 |
| 1759-VI-9 | Larrañe | *Jean de Paris* | Pierre Arhex | BNP, FCB, 146 |
| 1769-IV-8 | Zalgize | *Rikardo izukaitza* | Larché | BMBa, 52 |
| 1769-VIII-9 | Altzabeheti | *San Eustakio* | B. d´Etchebarne | BMBo, 1695-6 |
| 1770-II-1 | Sarrikotapea | *Clovis* | | BNP, FCB, 133 |
| 1770-VIII-20 | Onizegaine | *Seme iriolea* | | BNP, FCB, 114 |
| 1772-VII-12 | Maule | *Edipo* | | |
| 1773-VI-19 | Altzabeheti | *Abraham* | | BNP, FCB, 140 |
| 1777-X-19 | Barkoxe | *Jean de Paris* | Pierre Lahorec | |
| 1783-V-12 | Ezpeize | *San Martin* | | BMBo, 1695-5 |
| 1790-VI-25 | Ainharbe | *Godefroy de Bouillon* | Jean Mecol | BMBo, 1695-1 |
| 1792-IV-29 | Montori | *San Luis* | Benoit d´Arette | BNP, FCB, 147 |
| 1792-V-26 | Garindañe | *Edipo* | Jean Mecol | |
| 1793 | Arüe | *Edipo* | Martin Bohotegi | BNP, FCB, 178 |
| 1793-VI-16 | Urdiñarbe | *Godefroy de Bouillon* | Jean Mecol | |
| 1796-IV-4 | Aloze | *Seme iriolea* | | |
| 1796-IV-24 | Lexantzü | *Santa Elena* | Carricart de Ligi | BNP, FCB, 201 |
| 1796-VI-16 | Urdiñarbe | *Godefroy de Bouillon* | Jean Mecol | |
| 1796-VI-19 | Urrüstoi | *Seme iriolea* | | |
| 1798-VI-6 | Urdiñarbe | *Godefroy de Bouillon* | Jean Mecol | |
| 1799-V-13 | | *Clovis* | | |
| 1800-III-18 | Maule | *Abraham* | Pierre Fourcade | |

***Laburdurak:*** *BNP: Bibliothèque Nationale de Paris; FCB: Fonds Celts et Basques; BMBo: Bibliothèque Municipale de Bordeaux.*

Miguel Viguriren liburutegian aurkitua, lehenengoz Resurreción Maria Azkuek argitaratu zuen, bere *Euskelzale* aldizkarian, *Gabon Gaberako Ikuzkizun* izenburuaz.[81]

Kritikari batzuek antzezlana iraultzailetzat jo duten arren, pertsonaia errealak (garaiko Arrasatekoak) eta tradiziokoak (Belen) nahasten eta bi espazio ezberdin uztartzen zituelako, gure iritziz gabon zikloaren tradizio erlijioso erromanikoan osotara txertaturik dago, Lakarra eta Kortazarrek[82] garbi adierazten dutenez.

Eredu gisa Euskal Herrian egindako genero berbereko beste lan batzuk izan bide zituen, Gomez Manrique, Gil Vicente ... eta abarren ereduei jarraiki, zeintzuetan gabonetako autoa ikuskizun errituala baita, antzerkia baino areago, eta sakoneko argumentua beti berbera; hala ere, poetak edo antzerkigileak San Jose eta Amabirjinaren ostatuari, artzainen gurtzari eta abarri buruzko xehetasunak asmatzeko askatasun osoa du.

## ■ Peñafloridako Kondearen antzerki lana

**Francisco Javier María Munibe Idiaquez Peñafloridako Kondea** (Azkoitia, 1729-1785) XVIII. mendeko euskal ilustraturik handienetako bat da. Loiolako jesulagunetan ikasi ondoren, txosten baten arabera «ez oso saiatua eta oraindik makala», hamalau urterekin Toulouseko Nobleen Seminariora joan zen, eta han ernatu zioten jakin-min intelektual eta zientifikoa, Flouret, Charron, Tavernier eta beste hainbat irakasleren eskutik. Horiek, biolina ikasten laguntzeaz gain, Zientzia Fisikoen, Arte Ederren eta beste Arte batzuen munduan sartu zuten. Aita hil ondoren, jioterrira itzuli zen, eta hogei urterekin bertako alkate bihurtu, geroago, 50, 54, 58 eta 61 urteetan Gipuzkoako Diputatu Nagusia izango zelarik, eta 58. urtean Gorteetako Diputatu.



*Pedro Ignacio Barrutiaren eskuizkribuaren hasiera.*




*Gabonetako Ikuskizuna-ren edizioaren azala. 1983.*

Joaquín María Eguia Aguirre Narrosko markesak, 1785eko ohar nekrologikoan, modu honetara deskribatuko du:

*"...gure Kondeak funtzio guztiak aurkezten eta zuzentzen ditu, hala elizan nola plazan. Elizan faszistolaren aurrean ageri da, kapitulu osoa inguruan duela, konpasa eramaten eta berak konposatutako mezak eta arieteak abesten. Plazan danbolindariari argibideak ematen eta berak konposatutako zortzikoak eta kontrapasak joarazten."*[83]

Adibidez, Joseph Plaren *Stabat Mater Dolorosa*ren partiturak ohar hau darama: «1756. urtean Peñafloridako Konde jaunak kantatu zuen Arantzazuko

Amabirjinaren eliza honetan, Herri osoak plazer handiz entzun ziolarik».

Tertulia zale handia, hainbat noblerekin bilduko da, hala nola Manuel Ignacio de Altuna Portu jauna, zeina Rousseauk bere *Aitorpenak* lanean Altuna bertutetsua bezala gogora ekartzen baitu, eta Joaquín Egia Agirre jauna. Noble horiekin asteko zenbait egunetan elkartuko da, aurrez ezarritako programa batekin, non barne hartzen baitziren historia eta zientzien gaineko irakurketak, praktikak eta esperimentuak fisikako kabinete batean, eta kontzertuak. Tertulia horien fruitu dira Isla jesulagunaren *Historia del famoso predicador Fray Gerundio de Campazas, alias* Zotes izenburuko lanari emandako erantzuna, *Cartas Chríticas...* moduko batzuekin, 1758. urtean ezizenez argitaratuak. Erdi trufaz erdi serio, fisika berria arbuiatzen duten eta Aristotele eta Platon dogmatikoki hartzen dituztenak kritikatzen dituzte.

Era berean, euren iritziak antzerkira hedatzen dira. Zehazki, Molièren *L'Ecole des femmes* laudatzen dute bere, baina *Tartuffe* gaitzesten, bere hizkera eta jarduera lizunengatik. Peñaflorida beraren gutunen artean taldearen antzerki lanei buruzko oharrak aurkitu ditugu, Luis María Aretak jasotako hau kasu:

*"Bergaran eman nahi dugun lanetako bat (*El Criado de dos amos *izenekoa) duela bi negu antzeztu genuen hemen, eta inork ez zuen gaitzetsi, herritar orok eta baita Eskolako Aitek ere ikusi zuten arren. Aita Crocek, berorrek ondo ezagutzen duena, eta zalantzarik gabe Eskola horretako ezein aitak bezain irizpen sendoa eman dezakeena, bere aitortzaile eta nire lehengusu Mª Xavierari antzezlanaren rol nagusietako bat egitea baimendu zion."*[84]

Horrenbestez, Goldoniren lan hori arrakasta handiz antzeztu zen Azkoitian, 1762-63ko neguan, eta agerikoa da antzezpen horien arima Peñafloridako kondea zela, Emilio Palaciosek azkoitiarraren literatur jarduera aurkeztean adierazten duen bezala, Vicente María Santibañezen hitzetan:

*"Gure Kondeak, Egile komiko, eta konpositore, bihurturik, aktore berriak trebatzeko hartzen zituen neke eta afanak ezin neurtuzkoak dira. Horiek Gipuzkoako eta Bizkaiko herri ezberdinetan bizi zirelarik, ia ezinezkoa zen guztiak leku batean biltzea; horrenbestez, gure Kondea toki guztietara joan beharrean izaten zen. Une batean Markinan zegoen, eta hurrengoan Bergaran, edo Azkoitian, entseguetan, eta bere opera berriaren saioetan, eta konpainia berria osatu eta doitzean buru eta bihotz lanpetuta; baina ahaleginak fruitua eman zuen. 1764ko irailaren 11. egunean, bi operok Bergarako Udaletxean antzeztu ziren: hango txaloak...!"*[85]


EL BORRACHO BURLADO,
OPERA-COMICA.
EN CASTELLANO, Y BASCUENCE.
ESCRITA, Y PUESTA EN MUSICA
POR UN CABALLERO GUIPUZCOANO.
EL TEATRO REPRESENTA LA TIENDA
DE UN ZAPATERO.
SCENA PRIMERA.
CANZONETA.

*"El Borracho burlado"ren hasiera.*


EL BORRACHO
BURLADO,
OPERA-
COMICA,
EN CASTELLANO,
Y BASCUENCE.
ESCRITA,
Y PUESTA EN MUSICA
POR UN CABALLERO
GUIPUZCOANO.

*"El Borracho burlado"ren azala.*

*"El Borracho burlado". Maite Agirreren konpainiaren bertsioa.*



*"El Borracho burlado"ren antzezpena Bergaran, 1963.*



Bi opera horiek *El Marischal en su fragua* eta *El Borracho Burlado* ziren, aurrez uztailean antzeztu zirenak, Azkoitian, Batzar Nagusien bilera baten kariaz, honako aktore hauekin: Peñafloridako Kondea, Joaquín María Egia, Félix María de Samaniego, Pedro Valentín Mugartegi, María Josefa Munibe, Marcos Rekalde, Javier Etxebarria, Marianita Balzola...

*El Marischal en su fragua* opera komiko bat da. Libretoa Quetant frantsesarena da, eta musika Philidor-ena, eta lehenengo aldiz 1761eko abuztuaren 22an antzeztu zen, Parisko «Théâtre de la Foire St. Laurent» (egun Gare de L´Est) antzokian. Contaut d'Orville[86] kritikariaren iritziz, arteak gidatutako lana zen, «décence» delakoaz idatzia, baina izandako arrakasta osoa batik bat Philidor-en musika harmoniatsuari zor zion.

Irakur dezagun Kondeak 1764ko itzulpen eta edizioan idazten duena:

*ITZULTZAILEAREN OHARRA*

*Ez da gauza bera Antzezlan bat jokatuta ikustea edo berori irakurtzea. Lehenengo kasuan, ikuslea, antzokiaren dekorazioarekin, Aktoreekin, gertakarien korapiloarekin eta abar entreteniturik dagoela, ez da lanaren akatsak aztertzen hasiko, eta ez da haietaz ohartuko, non eta begi-bistakoak ez diren. Bigarren kasuan, berriz, Irakurleak, adia galtzeko ezer gabe, arreta osoa lanaren irakurketan jartzen du, eta, Zentsore zurrun bihurtuta, akatsak topatzen ditu, askotan ez dauden lekuetan, eta beste batzuetan urteetako emanaldien ostean Kritikaririk zorrotzenak ere ikusiko ez lituzkeen lekuetan.*

*Hausnarketa honek, eta nire itzultzeko talentuarekiko mesfidantzak, egiaz Marechal Ferrant-en itzulpen hau argitaratzeaz uzkur ninduketen, horretan pentsatu izan banu ere; baina kexu naiz trantze horretan jartzea ere ez zitzaidala eskaini.*

*Lana Andereño batzuen eta aurrean antzeztua izateko baino ez nuen egin, eta nire adiskide Musikazale batzuek Azkoitian Herrialde honetako Batzar Nagusietan Bildutako Jaunei ikuskizun bat, Herri honetan berria, emanez jostatu nahi izan zutelako: eta geroago Bergarako jaietan berriro antzeztea deliberatu bada, Azkoitian lanaren arrakasta gehientsuen faboratu zuen Herri horretako Jaun batek horrela eskatu duelako izan da, eskubidez eskatu ere; eta bi Herri auzo horien artean dagoen lotura eta bietako bizilagunen arteko adiskidetasun eta ahaidetasunezko harremanak direla eta nahitaezkoa delako jarduera horretan elkarri lagun diezaioten.*



*Moyua dorrea, Real Sociedad Vascongadako Adiskideen antzezlanen ezenatoki.*

*Funtzio eder horien bezperan gauden honetan, Bergarako Jaunak lana argitaratzera tematu dira, antzezlana ikustera joaten direnek aurrean ale bat izan dezaten, modu horretara, kantatzen den oro garbi ez entzuteagatik haria gal dadin saihesteko: eta nik argudiatu diedan oro, hala nola Jendaurrean jarri aurretik antzezlanean egin beharreko zuzenketa ugariak eta amodio propioari dagozkion erreparo bakar batzuk, haiei asmoa kentzeko nahikoa izan ez delarik, ahalegin bat egin behar izan da, jabetzen naizelarik, nire gogoa Espainiako antzerkiaren historian nire izena jartzea ez denez, hobe dela adiskideei atsegin ematea jakintsu irudia izateari uzteko errezeloaz jokatzea baino. Nolanahi ere, hau guztia jakinarazi nahi dut, eta aurrez barkamena eskatzen dut, Kritikari Jaunek gupidaz har nazaten.*

*Jakinarazi behar dut, halaber, itzulpen hau jatorrizko bertsiotik gehiegi aldendu ez den arren, aldaketarik egin dela, premiazko iritzi denean zenbait gauza kenduz eta beste zenbait erantsiz. Musikari dagokionez batik bat, itzulpenari gutxiago jarraitu zaio, metroa Poesia Frantseserako moldatutako Musika bati egokitzeak dituen zailtasun handiak direla eta".*

Egia bada ere Peñafloridak ez zuela garaiko Espainiako opera antzerkian lekurik nahi, Bergarako udalaren ordezkariek, Pedro Askagorta idazkaria medio, beste aitzinsolas batean, kasu honetan El Borracho Burlado opera komikorako egindakoan, egilea laudatzen dute, hitz hauekin:

*"Berorri ezer ez zaio ezezagun, nagitasuna ez bada: Aberriaren udal legeak, fisika, matematika, geografia, humanitateak, poesia [...]. Herri osoak berorrengan onar dezala, bada, jauna, Euskal Antzerkiaren iturburu eta perfekzioa, bere kulturaren zabaltzailea, bere zorionaren eragilea..."*

Laudorio horien arabera, ez dirudi euskal antzerkia sobera hedaturik edo ezaguna zenik, antzerki horren «iturburu» gisa hartzen dutelarik. «Jaun gipuzkoar batek idatzi eta musikatu eta gazteleraz eta euskaraz jarritako opera komiko» honen gaia *Sancho Panzaren Barataria Irlako* pasartearen bertsio bat da. Pasarte hori A.H. Poinsinet libretistak eta Philidor musikariak 1762an antzeztutako *Sancho Panza dans son îsle* beren operarako moldatu zuten. Peñafloridak, ordea, bere testuaren originaltasuna defendatzen du, irakurleari honakoa gaztigatzen baitio:

*"Ondotxo dakit badela frantsesez komedia bat, edo ez dakit opera-komikoa den, honako honen antzeko ideia bat duena, baina adierazten dut ez dudala hura ez ikusi eta ezta irakurri ere; areago, haren izenburua ez dut zehazki ezagutzen, eta gutxiago egilea".*

Aurrerago, kondeak azaltzen du ohizko dramaturgiari lotuz hiru unitateen legeari atxiki zaiola: denbora, ekintza eta espazioa. Eta nola

*"... egia bada ere zenbait ekintza batzen direla, nagusia Chanton Garrote zapuztea da, hari jaun handi bilakatu dela sinestarazita".*

Egilearen ardura bakarra ez da, ordea, arau neoklasikoari jarraitzea. Horrez gain, lan elebidun bat sortzean bi hizkuntzen arteko oreka mantentzen eta elkarri egokitzen ahaleginduko da, arazo hori modu honetara azaldu eta ebatziko duelarik:

*"Nik diot, bada, nire hasierako pentsamendua zela opera hau euskaraz izan zedin, baina gero baliatu beharreko euskalkia hautatzea zaila egin zitzaidan. Azkoitikoa erabiliz gero, Herri osoari, Frantziako mugaraino, ezatsegina gertatuko zitzaion, Goierriko euskara edo euskalkiaren aurka ageri direlako, eta Tolosa, Hernani, Donostia eta inguruetako euskalkia erabiliz gero, antzezleak barregarri geratzeko arriskuan jartzen nituen, zaila gertatuko bailitzateke guztiek euskalki hori behar bezala baliatzea. Horregatik, bada, euskara zati kantatuetan erabiltzera etsi behar izan nuen, eta antzeztutako oro gazteleraz jarri nuen".*

Irtenbide hori, hain zuzen ere, Barrutia idazkariak hautatutakoaren aurkakoa izan zen. Kondeak tertuliei eta Gipuzkoako batzar nagusiei eman zien giro horrek 1765ean fruitu eman zuen, Sociedad Bascongada de los Amigos del País sortu zenean. Peñafloridak berak idatzitako elkartearen estatutuek honela diote:

*"Zientziak, letra eta arte ederrak dira Elkartearen xede, eta horiek arrakastaz sustatzeko urteko biltzarrak burutuko dira, zeintzuetarako honako oinarri hauek onartu baitziren:*

*1) Hainbat jaun leku batean biltzeko garaian beharrezkoa zela dibertimendu zintzo bat,*

*2) Antzerkia baino dibertimendu entretenigarriagorik, edo erabilgarriagorik, ezin hauta zitekeela,*

*3) Atsegina lortzeko inoiz ez zela erakoa ez zen lanik aurkeztuko, gaiaren funtsari nahiz lana antzezteko moduari dagokienez,*

*4) Hortaz, Elkartearen xedeetako batek antzerkia arteztea behar zuela, bertutearen eskola izan zedin, eta ez grina gaiztoena,*

*5) Dibertimendu horiek gauez burutuko zirelarik, egunak zientziak, letra ederrak eta Arteak lantzera emango zirela."*[87]

Bere tertuliakide eta adiskide Egiak 1765eko urte berean eta Inaugurazio Bilerarako «Antzerkiaren aldeko diskurtsoa» idatzi zuen. Diskurtso horretan antzerkiaren aurkako joera kezkatiak, antzerkiak, egoki burutuz gero, ekar zitzakeen onurak kontuan hartzen ez zituztenak, uxa zitezen proposatzen zuen, ezen, Lope de Vega, Corneille, Racine eta Molière bezalako egileen eskutik, antzerkiak grina gaiztoak gaitzetsi eta bertutea goratu baitzituen.

Peñafloridak, Historia de la Sociedad Bascongada lanean, otsailaren 7ko gauean Moyuarren Jauregian gertatua kontatzen digu:

*"Lehenengo eskailburuan bi morroi zeuden, eta haiek elkartearen gonbidapen txartela erakusten zutenei baino ez zieten eskaileran gora egiten uzten. Gelaurrean gonbidatuak, Otazu edo Olaso Zumalabe Adiskideak, hartzen zituzten, eta geroago, Antzezpenean, zegokien lekua ematen zien, arauzko tarteaz.*

*Orkestran edo antzezlanean lanpeturik ez zeuden adiskideek Elkartearen eserleku berezi eta pribatua zuten Orkestraren segidako bankuan, eta antzezpenean parte hartu behar zuten Andereak eta Jaunak beren jantziak soinean zituztela zeuden, funtziorako gertatuz.*

*Ordena eder horretan antolaturik, orkestra osatzen zuten instrumentuez obertura dotore bat jo zen, ikusleak atseginez liluratu zituena. Pieza hori amaiturik,* La Clemencia de Tito *tragedia antzeztu zen, Egia Adiskideak Metastasio abadeak idatzitako jatorrizko italiarretik itzulia. Aurreneko atsedenaldian Vella*



*Sinphonia bat jo zen, eta, amaiera gisa,* La serba Patrona *operaren zati bat."*[88]

Egun berean, gauez, *La Tertulia* Peñafloridaren jatorrizko komedia antzeztu zen. Biharamunean Corneilleren *Horace* irakurri zen, Juan Mata de Linaresek zortziko nagusian itzulia. Otsailaren hamaikan Molièren *Tartuffe* eman zen, izenburu berri batez, *Casilda*, Agirrek jarritakoa. Hamabian Peñafloridaren beste itzulpen bat irakurri zen, *Pathelin*, abokatu iruzurtiari buruzko Erdi Aroko fartsa ezaguna.

Peñaflorida bizi izan zen bitartean, Elkartearen antzerki jarduera etengabe garatu zen, eta, horrenbestez, biltzarren Laburpenetan ikus dezakegu 1772. urtean honako antzezlanak eman zirela: Peñafloridaren *El Borracho Burlado*; Manuel de Gamarraren *El Médico avariento*; Confortoren *Il heroe chinese*; Pergolesiren *La serva Padrona*; Pergolesiren *Il tracolo*; *Livieta e poy Fracoso; Anfronio & Donsilla, Lucille; Le deserteur; Rose & Colas; Ninette à la Cour; Le maître en droit, Le Roy & le fermier; eta Annette & Lubin*. Zerrenda horretatik ondoriozta daitekeenez, gehienbat Frantziako errepertorioa erabiltzen zen.

Lan horietatik badakigu *Le deserteur* kondeak itzuli zuela, eta Carlos Vallésen konpainiak Iruñean 1768an antzeztutako lan bera zela. Kondeak beste hainbat antzezlan egin zuen: *El amor querido*, opera; *Anita*, komedia, *El Carnaval,* komedia; *El Patelin*, itzulitako komedia; *Los Pedantes*, bi ekitaldiko komedia... ia denak galduak.

XVIII. mendeko antzerki musika, eta zehazki Azkoitiko jauntxoena, xehetasun handiagoz ezagutzeko Jon Baguések gai honen gainean moldatutako lana begira daiteke eta aztertu behar da.[89]

Alzibarren[90] ikerlan bati esker dakigu, halaber, 1783ko abenduaren 5ean, antzerki emankizun batean, *Diálogo bascongado* antzeztu zela, baina, tamalez, ez dugu lan hori aurkitzerik izan.

Aurrez esan bezala, bere adiskide Egiak Hileta Gorazarrea [Elogio Fúnebre] irakurri zuen, eta han Peñaflorida Kondea nola hil zen kontatzen du, *La Paz* izenburuko opera komiko bat, eta 1775ean sortu zuen Bergarako Errege Seminarioko ikasleentzat beste entretenimendu lan xalo batzuk idazten ari zela. Hil eta hainbat urte geroago ere haren haziak bizirik zirauen, Seminarioaren antzerki jarduera jasotzen duen akta honetan adierazten den moduan:

*"1793ko urriaren 17ª. Gipuzkoako Euskal Herriko Adiskideen Batzar Pribatua Bergaran.*

*Gogora ekarriz batzar honek Arabako Adiskideei agindu diela Seminarioaren Antzerkian haiek nabaritutako zenbait xehetasunen berri ematea, adiskide horiek moldatu beharreko arautegiaren eraketarako, honakoa adierazten da.*

*1. Nabaritu izan da entretenimendu horietarako Entseguek ikasleek Ikasketetan arreta gal dezaten eragin dutela. Hori ekidin liteke, Inauterietan edo Gabonetan antzeztu beharreko antzezlanak Oporraldietan hautatzen eta entseatzen badira, modu horretara, gainera, oporraldiei entretenimendu berri bat erantsiz.*

*2. Zenbaitetan gustu txarreko lanak, eta inoiz hasierako Zientziako irakasle bat barregarri uzten zuten Entremesak, antzeztu izan dira.*

*3. Ez dirudi egokia akademikoak balkoian egotea, eta orkestraren segidako bankuan jar litezke, ikuskariarekin batera.*

*4. Egokiera horietan Balkoian nabari den Anabasa ekidin behar da, horretarako arau finkoak xedatuz, hala bertan izango diren pertsonen ordenari dagokionez (ezen balkoia edukiera txikikoa baita) nola soinean eraman beharko duten jantzki formalari dagokionez... Horrenbestez batzarra amaitutzat jo zen.*[91]

Atal hau amaitu eta laburbilduz, Francisco Javier María Munibe Idiaquez Peñafloridako Kondea bere garaiko ohiko ilustratua izan zela esan daiteke, Arte Ederren zalea eta horien sustatzaile handia Euskal Herrian, eta ez masoi heterodoxo bat, Marcelino Menéndez Pelayok hasiera batean uste zuen bezala, nahiz eta azken honek, Urquijok Azkoitiko Jauntxoei buruz egindako obraren ostean, bere errakuntza onartu zuen.[92]

Real Sociedad Bascongadaren fundatzaile izan zen, XVIII. mendean zehar Espainia osoan barrena sortuko zirenen eredu, eta Bergarako Errege Seminarioaren sortzaile-zuzendari, zeina *aurreneko eskola laikoa* izan baitzen, bertan Elhuyar anaiek wolframioa aurkitu zutelarik. Egile honen obra osoa, antzerki lanak nahiz bestelakoak hartuz, egiteke eta berraurkitzeke dago oraindik, Areta, Palacios, Bagüés eta Altzibar bezalako ikerlarien ahaleginak ahalegin.

*"El Borracho burlado"ren antzezpenaren amaiera, 1985.*



# XIX. MENDEA



*Marcelino Soroa. 1848-1902.*

*"Bide Onera" antzezlaneko eszena.*
*A. Etxaberen hitzak, Valleren musika, 1895.*

ZUBEROAKO HERRI ANTZERKIA. ANTZERKI BERRIA. LAPURDIKO ESKOLA.
DONOSTIAKO ESKOLA: Marcelino Soroa, Serafín Baroja, Victoriano Iraola, Pepe Artola.
BIZKAIKO ESKOLA: Resurreción María Azkue, Alfredo Etxabe...

## ■ ZUBEROAKO HERRI ANTZERKIA

Antzerki mota honi buruz aurrerago ere luze jardun garenez, kapitulu honetan antzerki ikuskizunari dagokion zatiaz baino ez gara arituko, hau da, xaribari fartsaren edo pastoralaren antzezpen daten eta lekuen zerrendak, izenburua, obraren egilea edo *errejenta* –zuzendaria–, eta libretoak ageri direneko testu edo eskuizkribuen argitalpen urtea eta lekua (**2. taula**).

Hérellek adierazi bezala urtero gutxi gorabehera bi fartsa edo tobera, edo gehiago, burutzen baziren, garaiko obren artetik oso gutxi heldu bide zaizkigu. Obra horiek aurkitu ez izana logikoa da, antzezpen horiek ondorio larri eta zenbaitetan odoltsu eta tragikoak ekar zitzaketela kontuan izanda. Pastoralen kasua, ordea, ezberdina da, eta, horrenbestez, lan horiei buruz daukagun informazioa askoz ugariagoa da, segidako koadroan, non lan baten errepikapenak ez baititugu sartuko, ikusiko dugunez (**3. taula**).

Izenburuetan (36 ezberdin) egiazta daitekeenez, gehienek Historia Sakratuarekin zerikusia dute, Frantziako Historiaren edo zalduntza nobelen gaiak, XVI. mendean geroztik kordel literaturan edo «Bibliothèque bleue» delakoan hain ohiko, ere badiren arren.



*J Delumeauren pintura, sorginen gaia islatzen duena.*

## ■ ANTZERKI BERRIA

Ez dirudi antzerkia zuberotarren edo Azkoitiko zalduntxoen barruti esklusiboa zenik, badirudi hedatuago zegoela. Horren froga dira Antonio Martinez eta Manuel Fornells enpresariak, zeintzuek XVIII. mendearen amaieran beren konpartsa komikoekin Bizkaia, Gaztela eta Nafarroa neke handiz, batik bat lizentziak lortzeko garaian, kurritzen baitzituzten.

1754an, Iruñean, non «Antzinarotik Koliseo edo Antzoki bat baitago», egiaz 1666an eraikia, «31 opera komedia» antzeztu ziren; 1775ean, Bilbon, Rafael Uraldek[95] adierazi bezala, Joseph Bichi eta Thomas Settarok opera denboraldi baterako lizentzia eskuratu zuten, eta 1798an antzerki bat eraikitzeari ekin zitzaion «Jendeari atsegin emateko dagoen premiagatik, entretenimendu publiko, behar bezala antolatuen bitartez»; Donostian, 1802. urtean, antzokia eraikitzeko izapideak egiteari ekin zitzaion, eta jakin badakigu 1619an Goizueta Borda berreraiki zela, bertan antzezpenak egiteko. Gertakari horiek guztiek, eta beste zenbaitek, zalantzarik gabe adierazten digute Euskal Herrian antzerkia osasuntsu zegoela.

Nolanahi ere, euskal antzerki berria ez da dezente beranduago arte agertuko, bigarren karlistadaren amaieran, Errestaurazio garaian.

*"Mozorroen dantza"ren horma-irudia. Tolosa 1864.*







*Argitaratutako aurreneko pastoralaren azala.*

## • Lapurdiko eskola

**Jean Duvoisin**ek testu bat jaso zuen, Donibane Lohitzuneko andre zahar baten eskutik, zeinak 1780 inguruan eman bide zen *Genobeba Oratorioan* izeneko antzezpen bat gogoratzen baitzuen, guk berriki argitaratu duguna[96]; Bartolomé Madariaga karmeldarrak, antzerkiaren aurkako beste hainbat predikarik bezala, zioen zenbait komediak ikusten entretenitzen zela, zezenketetan adina, eta haiek, dantzak bezala, debekatu egin behar zirela, haragikeriaren iturburu zirelako, eta antzezleena «ofizio lotsagarri eta bekataria»[97] zela. Lekukotasun horiek garbiro erakusten dute antzerkia bizirik zegoela, egoera eskasean bada ere.

Aipatu Duvoisin drama historiko baten egile-aurkitzaile ere bada, *Maria Nafarroakoa* izenekoa, X. mendeko euskal kristauen eta mairu mahometarren arteko gatazkei buruzkoa; antzezlana 1841 inguruan idatzia izan zen, eta Michelek[98] zati bat jaso du.

**Jean Martin Hiribarren** (1810-1866) poetak antzeko gai baten gaineko beste drama historiko bat idatzi zuen, *891an Eskaldunak gerlan*. 859 lerroko testu hau ezezagun mantendu da, Xipri Arbelbidek[99] argitaratu zuen arte.

XIX. mendearen lehen erdian drama historikoak bere goren unea izan zuen, eta baita bigarren erdian ere, jakin badakigularik 1861ean, Donostian, El *Capitán Carrillo* antzeztu zela, gazteleraz noski.[100]

**Webster**[101] Saran finkatutako ingelesak esango digu Luhusoko gazteek, Lapurdin, 1867 inguruan lan barregarri bat antzeztu zutela, adiskide batzuk Hego Ameriketatik itzuli izana ospatzeko.

Lapurdin bada emakumezko ikasleentzat idatzitako lan bat, **Joanes Etxeberri** Uztaritzeko Gurutzearen alaben kalonjeak idatzi. Lanaren izenburua *Arraultze Ohoina* zen, eta Sarako eskolako emakumezko ikasleek antzeztu zuten, 1884an.[102]

**Piarres Harispe** (1854-1925), Euskal Herriari buruz frantsesez idatzitako hainbat lanen egile ez ezik, neurtitzetan jarritako drama historiko baten egile ere bada, *Karmela* izenekoa, lehenik *Euskal Erria* (1886) aldizkarian argitaratu zena, eta berriki Euskal Klasikoak bilduman.[103]

Badakigu, halaber, 1890 inguruan Donibane Lohitzunen konpainia ibiltari batek lan txiki bat antzeztu zuela euskaraz. Elémir Bourgesek (1852-1925) antzezlana frantsesera itzuli zuen, eta. **Variot**ek bere *Théâtre de Tradition populaire* lanean jaso, nondik Lafittek ostera euskarara itzuli baitzuen, *Gonzalve edo ostatu betea* izenburuaz. Espainian, gerra napoleonikoen garaian girotutako entremes bat da.[104]

## • Donostiako eskola

**Marcelino Soroa** (Donostia, 1848-1902), Euskal Antzerki Berriaren aitatzat hartua,

| T2. taula. Xaribari fartsak eta pastoralak | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Data** | **Lekua** | **Fartsaren izenburua** | **Egilea** | **Edizioa / Esk.** |
| 1807-II-15 | Arüe | *Malku eta Malkulina* | Anonimoa | *Recueil des farces...* |
| 1813 | Barkoxe | *Eihartxe eta Miñau* | P. Topet-Etchahun | *Recueil des farces...* |
| 1828 | Ezpeleta | *Protestanta eta Belle Marie* | Piarres Adame | *Recueil des farces...* |
| 1848 | Larribarre | *Kaniko eta Beltxitina* | Jakes Oihenarte | *Recueil des farces...* |
| 1848 | Heleta | | J.B. Toulet | *texto perdido* |
| 1875 | Baigorri | *Baigorriko hegalian* | J. Etxamendi | *Recueil des farces...* |
| 1892 | Santa-Grazi | *Belkader, Afrikako errege* | J.B. Hardoy | *Recueil des farces...* |
| 1892 | Santa-Grazi | *Tuduk* | J.B. Hardoy | *Recueil des farces...* |
| XIX. mendea | | *Xiberu eta Marzeline* | Anonimoa | *Recueil des farces...* |
| XIX. mendea | | *Petitun eta Petik-Hun* | Anonimoa | *Recueil des farces...* |
| XIX. mendea | | *Pierrot eta Xarrot* | Anonimoa | *Recueil des farces...* |
| XIX. mendea | | *Planta eta Eleonora* | Anonimoa | *Recueil des farces...* |
| XIX. mendea | | *Pepa eta Koakin* | J. Oxalde | *Recueil des farces...* |

| T2. taula. Pastoralak | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Data** | **Lekua** | **Izenburua** | **Egilea** | **Edizioa / Esk.** |
| 1802-I-13 | Maule | *Santa Genoveva* | Pierre Fourcade | Heguiaphal-Urkizu [93] |
| 1803-V-31 | Donibane Lohitzune | *Santa Elena* | Jean Pierre Rospide | A.Leon,1909 |
| 1803-VI-6 | Maule | *Abraham* | | BNP, 140 |
| 1804-V-10 | Barkoxe | *Santa Grazi* | | BNP, 143 |
| 1805-I-28 | Nabas | *Rikardo izukaitza* | Pierre Mecol | BMBa, 52 |
| 1811-X-27 | Onizepea | *Roland* | Jean Mecol | BNP, 115 |
| 1816-IV-18 | Lenbare | *Edipo* | - | BNP, 178 |
| 1818-III-23 | Maule | *Jean de Calais* | Jean Mecol | BMBo, 2 |
| 1818-IV-6 | Larribarre | *Santa Margarita* | Jean Mecol | BNP, 216 |
| 1818-VI-24 | Lextarre | *San Juan Calybite* | Jean Mecol | BMBo, 2 |
| 1818-VIII-19 | Barkoxe | *Aymonen lau semeak* | Pierre Gorostibar | BNP, 181 |
| 1820-III-10 | Arüe | *Josue* | | BMBo, 2 |
| 1820-X-28 | Etxarri | *Samson* | | |
| 1829-X-13 | Barkoxe | *Mustafa* | | BNP, 149 |
| 1825 | Barkoxe | *San Roke* | Jean Chaten | BNP, 134 |
| 1826-II-2 | Arette | *San Luis* | T. Cassou | BNP, 147 |
| 1827-X-27 | Eskiula | *Jerusalem* | Bessiger | BMBa, 14 |
| 1830-VI-24 | Lextarre | *San Joan Bautista* | Jean P. Saffores | BNP, 212 |
| 1831-VIII-20 | Garindañe | *San Pedro* | Jean Mecol, II | |
| 1835-IX-8 | Eskiula | *Karlomagno* | Bassagaix | BMBo, 28 |
| 1836-III-14 | Atharratze | *Astiaje* | J.P. Saffores | BNP, 180 |
| 1839-III-8 | Atharratze | *Santa Katalina* | J.P. Saffores | Ane Loidi [94] |
| 1839 | Santa Grazi | *Hiru martiriak* | | BNP, 148 |
| 1840-VI-14 | Barkoxe | *Alexandre* | | BNP,113 |
| 1842-V-5 | Lexantzü | *Santiago Nagusia* | | BNP,211 |
| 1849-I-4 | Donapaleu | *Napoleon* | | BNP, 150 |
| 1849-IV-9 | Ezpeize | *Roberto deabrua* | | BNP, 173 |
| 1853 | | *Godefroy de Bouillon* | | BMBo, 1 |
| 1857-X-27 | Atharratze | *Nabukodonosor* | Jean Pierre Busson | BNP, 133 |
| 1857 | | *Jean de Paris* | Juan Bordato | BNP, 146 |
| 1858-II-10 | Atharratze | *Clovis* | Jean Pierre Busson | BNP, 133 |
| 1866-II-8 | Arette | *Hiru enperadoreak* | J.B. Cassou | |
| 1878 | Aronse | *Moises* | | BMBo, 2 |
| 1891 | Larrañe | *Juana de Arco* | | BMBa, 25 |
| 1893 | Bildoze | *Judith* | | BMBa. 2 |
| 1900 | Liginaga | *Francisco I* | J.Aguer Burguburu | P.Sallaberri |

Valladoliden legeak ikasi eta bere jaioterrira itzuli ondoren, garaiko prentsan gehien agertuko zen pertsonaietako bat izango zen, 1868. urteaz geroztik, eta Andia kaleko zirkuan, non Peña, Alberto, Prol, Arcelus eta beste donostiar gazte batzuekin parte hartzen baitzuen, egiten zituen itzulipurdiak ospetsu bihurtuko ziren.

Amadeo erregeren aurkako bertso batzuk argitaratu ostean erbestera abiatu beharrean izango da, eta Ziburun (Lapurdi), beste zenbait erbesteraturekin bilduko da, Agorret kaleko lokal batean, *El Trueno* izenekoa, han hainbat ekimen antolatuko dituztelarik, hala nola jaiak, antzezpenak, zezenketak...

1876an burutu zen antzezpen horietako baten testua Soroaren *Iriyarena* lantxoa zen, erbestetik bueltan, 1878ko maiatzaren 12 eta 19an, arrakasta handiz berrantzeztuko zena, Donostiako Principal Antzokian.

Usadio irutxuloen agerraldi bat da –«irutxulo» deitzen zitzaien Donostiako Alde Zaharreko Abuztuaren 31 kaleko biztanleei–, euskaraz eta gazteleraz jarritako lantxo elebidun bat, zarzuelatxo bat, non pertsonaia estereotipatuak ageri baitira –gauzainak, ikasleak, zezen-zainak, eta abar–, eta antzezpenean habanerak kantatzen dira eta eszenatokian soka-muturra, idia lotuta doaneko soka, kurritzen da.

Lantxo horren arrakastaren ondotik, Soroak beste antzezlan bat idatzi eta antzeztu zuen, osorik euskaraz, *Gabon* izenburukoa (1880). Eta antzezpenetan ikusleen txalo ugari, eta lana argitaratu ostean Federico Mistral eta Victor Hugoren laudorioak jaso ondoren, José Manterolak 1880an sortutako *Euskal Erria* aldizkariak hainbat literatur lehiaketa antolatzeari ekingo dio, eta horien artean antzerki lehiaketak garrantzi handia izan zuen, bertsolari, musikari, pintore eta ipuinlarien lehiaketekin batera.

Hortik aurrera, Soroak etengabe idatziko du, eta sariak jasoko ditu, eta antzezlanak jokatu nahiz zuzendu, bere lan eta datarik esanguratsuenak honakoak direlarik: *Anton Kaiku* (1882), La farce du Maître Pathelin lanaren egokitzapena; *Au ostatuba!* (1884); *Lapurrak, Lapurrak* (1884); *Alkate Berriya* (1885); *Barrenen Arra* (1886); *Urrutiko intxaurrak* (1887); *Abek istillubak!* (1894); *La Concha, excursión veraniega en un baño y dos olas* (ekitaldi bat eta bi eszena) (1894); *Ezer ezta festa* (1899); *Bañan zein naiz ni?; Auxen da eguna; ...*

Donostiako Euskal Jokoen Kontsistorioaren (Consistorio de juegos Euskaros de San Sebastián) batzordekide izan zen, Victoriano Iraolarekin –beste antzerkigile bat– batera. Kontsistorioak urtero



*Serafín Baroja (1840-1912). Ricardo Barojaren olio-pintura. 1913.*




*S. Barojaren lanen berrargitalpenaren azala. 1988.*




*"Hirni ama alabac" dramaren azala. 1882.*

literatur lehiaketak antolatzen zituen, eta horiek antzerkiari susperraldi handia ekarri zioten, antzerkia, euskararekin zerikusirik zuen ororen aurrean egiazko sortasun eta axolagabetasuna ageri zuen garai batean, hizkuntza mantendu, hedatu, garatu eta aberasteko baliabide baliotsutzat hartu zelarik.

Antzezlanak batik bat Santo Tomas gauean jokatzen ziren, eta haien funtzio nagusia entretenitzea eta atsegin ematea zen. Mitxelenak[105], Soroaren obra iruzkintzean, honakoa adierazikoa du:

*"Herrikideei barrea eragitea beste asmorik ez zuela, bere ahaleginean ez zuen hutsegin. Eta guretzat, zer dakar Soroak? Euskal antzerkiaren jaiotzarekin, eta Donostiako alde zaharreko hizkera eta usadioekin onbera izatea dagokigu [...] eta, gainera, joxemaritarren umore gaskoi tankerakoa utzi zigun".*

Umore horren oinarrian, bada, egoera groteskoak eta hitz-jokoak zeuden, genero txikian ohikoak. Genero horri ez zaio literatur balio handirik aitortzen, eta esan ohi da musikari esker libratzen dela, baina Nietzsche bezalako pertsonaiak liluratu zituen, zeinak lan horietan ekintzaren soiltasuna goresten baitzuen, Wagnerren obra handiustearen ondoan.

**Serafín Baroja** (Donostia, 1840-Bera, 1912), meatze eta mendi injinerua, «Pío Barojaren aita», semea ospetsu egin zenean inprimatu zuen txartel batean jarri zuen bezala, Julio Caroren amaren aldeko aitona ere bada, eta, beste hainbat donostiar trufari legez, liberala eta letren maitale handia, batik bat antzerkiarena.

Madrilgo *El Tiempo* egunkarian gerra karlistaren kronikari izan zen, anaia Rikardorekin *El Urumea, periódico no político* (1879) sortu zuen, *El Eco de San Sebastián* egunkari independentean (1880) eta *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikarrean (1885) idatzi zuen, eta, hori guztia gutxi balitz, bi egunkari elebidun sortu zituen, *Bai jauna, bai* (Iruñea, 1883; Madril, 1904) izenekoak, oso gutxi iraun zutenak, ezen, Iruñean argitaratutako azken alean (VI) dioenez: *Inprimaketa gastuen erdiak ordaintzeko adina harpidedun lortu ez dugularik, astekari elebidun honen argitalpena eten egiten da.*[106]

Bere lanen artean aipagarriak dira *Los Pillos de la Playa* (1865), *Noveluchas y cuentos* (1865), *Entre Madrid y San Sebastián (Amores prosaicos)* (1879), *De Chamberí a Madrid, 100 metros en 25 días* (1895)... nobelak eta narrazioak, *Gaci-guezac, poesías prosaicas en vascuence y castellano* (1875), *Malkoak eta itzalak* poesia liburuak eta beste zenbait antzezlan.

Bere antzezlanik arrakastatsuena hiru ekitaldiko opera bat da,



Turkoen eta kristauen arteko gatazka «Abraham» pastoralean. Barkoxe. 1890



Hiribarrenen «891an Euskaldunak gerlan» drama historikoaren hasiera, Abarkari buruzkoa.





Wenthwort Webster (1828-1907), pastoraletan aditua.
«Rikardo izukaitza» lanaren eskuizkribua, 1864, ingelesera itzulia.



Jean ETXEBERRI:
Arroltze Ohoina (Sara, 1884)

PATRI URKIZU

DONOSTIA - SAN SEBASTIAN

1986

«Arroltce Ohoina» antzezlanaren azala, 1986.

«Juana de Arco» pastorala. Larrañe, 1891



«Arroltce ohoina» Jean Etcheverriren eskuizkribuaren zatia Saran antzeztua. 1884.





Marcelino Soroa.
Donostia (1848-1902).



Jean Martin Hiribarren.
Azkaine 1810-Baiona 1866.



ERDERAZ ETA EUSQUERAZ

«Pudente» opera argitaratu zuen 1879ko Almanakaren azala.



Maese Pathelin «El panero ante el juez».
1489ko argitalpen inkunablearen grabatua.



ANTON CAICU

ACOMODADO AL BASCUENCE

POR

D. MARCELINO SOROA LASA,

SAN SEBASTIAN

Anton Kaiku 1882.
«Farce du Maître Pathelin»en moldaketa.



IRIYARENA

OMAR-CELIN-OASOR.

SAN SEBASTIAN:
IMPRENTA DE JUAN OSES,

«Iriyarena», Antzerki Berriaren lehenengo lan argitaratua, Marcelino Soroarena.

*Pudente* izenekoa eta Río Tintoko meatzeetan girotua, Trajanoren garaian. Santesteban (musikaria), Salaberria (eszenografoa), Altzaga (zuzendaria) eta antzezle gogotsuak lagun, 1879an antzeztu zen, Zirku-antzokian. Lanak arrakasta berbera izango zuen 1885eko Inauterietako Astelehenean.

Serafin jaunak beste zenbait antzezlan idatzi eta argitaratu zituen, hala nola *Hirni ama-alabac* (1882)*; Luchi,* hiru ekitaldiko opera (1885, 1904), *Amairu Damacho*, 13 ekitaldiko zarzuela (1904) ... Obra horiek, ordea, ez zuten lehenengoaren arrakastaren hamarrena ere lortu, besteak beste Iruñean eta Madrilen argitaratu zirelako.

Serafin jaunaz ari delarik, honakoa dio Julio Caro bere bilobak:

*"XIX. mendean, nire aitona bezala liberalak ziren beste hainbat euskal idazle eta poeta zeuden. Horien artean bere adiskide miretsi Indalecio Bizkarrondo, Bilintx. Jaioterrian euskaltzaletasuna jovialiterraren moduan eramaten zen: alaitsu. Arandia eta pedantekeriarik gabe. Donostiarra pertsona alaia zen. Bilintx, bere patetismoa eta guzti, halakoxea zen. Are gehiago Raimundo Sarriegi, musikari herrena, aitonaren kolaboratzaile anaikorra, Donostiako martxaren musika eta zortziko ederrak konposatu zituena. Alegeragoa zen Serafinekin lan egin zuen beste meatze injineru bat: Mariano Zuaznabar jauna. Denek hiria maite zuten. Poztasunak ororenak ziren, norberak egiten zuenari garrantzi handirik eman gabe, batik bat nire aitonaren kasuan, zeina lantegi bitxienei ekiteko prest ageri baitzen, hala nola hamahiru ekitaldiko zarzuela baten libretoa idaztea, edo Río Tintoko Meatzeetan, erromatarren garaian, girotutako opera bat euskaraz, edota nobela bat, hori ere euskaraz, foiletoi tankerakoa eta klabean idatzia".* [107]



*"Txanton Piperri"ren estreinaldia. 1896. Oinaztarren koroa.*




*Gabriel Olaizola*
*"Txanton Piperri" antzezlanean.*



**Victoriano Iraola** (Pasai San Joan, 1841-Donostia, 1919) Donostiako giroaren eragile nagusietako da, Baroja eta Soroarekin batera. Bere artikulu eta antzezlanak garaiko aldizkarietan barreiaturik daude: *Euskelzale, Ibaizabal, Euskal Erria, Euskal Esnalea, Euskalerriaren Alde, Baserritarra.*.eta abar.

Bakarrizketa, komedia eta zarzuelen egile, bere lanetan txiste ugari bezain barregarriz beztiturik daude, umore eta kostunbrismo xelebrea agertzen dutenak. Bere lanen artean aipagarriak dira *Bi itsuak* (1884), Barbieriren musikaz, *Ardita beti Ardit* (1884), *Petra xardin saltzallia* (1888), Sarriegiren musikaz, *Pasayan* (1888), Sarriegiren musikaz, *Leokadia* (1891), Luzuriagaren musikaz, *Txomin Donostiyan* (1892), Luzuriagaren musikaz, eta *Onenzaro gaba* (1894), *Ergobiyan* (1902), *Karmen gaztain saltzallea eta zeladore baten estuasunak, Joxemaritarrak, Xordo, Pulpuba, Ixkiña Mutrikun, Txokolo, Xardiñak,* ... eta abar.

*"Txanton Piperri". 1899.*






BEOTIBAR-CO JATZARRAREN
OROIPENA
GAON JUDUBAREN GALERAREQUIN.
RAMOS AZCARATE ETA OTEGGUIC
ZUCENDUBA
TOLOSAN:

*Ramos Azkarate. Tolosa 1847-1904.*


VIZCAYTIK BIZKAIRA
R. M. AZKUETAR ABADIAK
IRU ATALETAN



*Begoñako udalbatza.*
*Eserita, R.M. Azkue.*






*R.M. Azkue. "Pasa de Chimbos" antzezlanaren eszena. 1898.*

Lantxo horiek guztiak, eta beste hainbat, antzerki talde batek antzezten zituen, *Euskaldun Fedea* izenekoa. Taldean gizon zein emakumeek parte hartzen zuten, horien izenak, garaiko argazki zahar baten arabera, honakoak direlarik: Rosario Artola, María Casal, Pepe Artola, Felipe Casal, Pablo Casal, Arrieta, Larman, Andonegui, Uranga, Gamboa, eta Guelbenzu.

Horrenbestez, dena lagunartean eta familian egiten zen, talde murritz baten baitan. Izen horien artean **Pepe Artola** nabarmen liteke, denetan ezagunena baitzen, bere grazia eta gatzari esker. Udaleko musika-bandako kidea zen, eta baita orkestrakoa eta Orfeoi Donostiarrekoa ere. Antzezle gisa bakarrizketak zituen espezialitate: *Motxa errian, Xordo, Ixkiña Motrikun...* Hiru antzezlan labur ere idatzi zituen: *Bixente, Xabiroya* eta *Legorreko Arrantzaleak;* halaber, *Mendi-Mendiyan* opera ospetsua izango zenaren libretoa itzuli zuen, eta hainbat poema eta ipuin argitaratu zuen.

Donostiako mugimendu horren sustatzaile nagusia **José Manterola** *Euskal-Erria* (1880-1918) aldizkariaren eta *Euskal Jaien* sortzaile eta zuzendari, eta *Euskal Kantutegia*ren [*Cancionero Vasco*] egilea izan zen, eta geroago haren zuzendari lanari heldu zioten Antonio Arzak, Francisco López Alén, A. Loiarte eta beste zenbaitek, mugimendu horren eredua Bizkaira hedatu zelarik.

## Bizkaiko eskola

**Resurreción María Azkue** aldizkariaren sortzailea izan zen, eta aldizkari horretan argitaratu zen lehenengo aldiz, hain zuzen ere, Barrutiaren antzezlana. Lan horretaz gain, Emeterio Arrese eta Valerio Mokoroaren beste zenbait argitaratu zituen, eta Azkuek berak zarzuela elebidunak eta eszenarako dibertimenduak idatzi zituen, hala nola *Vizcaytik Bizkaira* (1895), *Colonia Inglesa* (1896), *Eguzkia nora* (1897), *Pasa de Chimbos* (1898), *Sasi-Eskola* (1898), *Aitaren bildur* (1917), eta *Ortzuri* (1911) eta *Urlo* (1914) operak. Azkue, beraz, Bizkaian mende amaierako euskal munduaren eragile nagusia izan zen, horren gainean bere pentsaera, Labayenek hura aipatuz adierazten duenez, honakoa zelarik:

*"Herrian euskararenganako gogoa sustatzeko biderik erraz eta azkarrena Antzerkia da. Izan ere, gure herriak oro har gutxi irakurtzen du, eta nagikeria hori Ortuzarrenaren tankerako antzerki herrikoi batek eskaintzen dituen baliabideekin osatu behar da".*[108]

Bizkaian bizi izan zen euskal antzerkiaren pizkunde horretan, Azkuerekin batera, euskaraz, bi eletan edo gazteleraz antzezlanak eginez, beste hainbat egilek parte hartu zuen: **Sabino Arana-Goiri**[109] (*Libe*, 1895, *La bandera fenicia*, 1895; *De fuera vendrá*, 1897; ...) , **Robustiano Ortuzar** (*Oroigarriak,* 1925), **Alfredo Etxabe** (*Lenago il,* 1900; *Bide onera*, 1905; *Lide ta Ixidor*, 1910; *Mirentxu*, 1910; *Matilde,* 1921; *Pedro Mari*, 1922,...), **Bonifacio Latxa** (*Todos-erribatekos*, 1899...) y **Nicolas Viar** (*Alma vasca,* 1916...), besteak beste.



*Sabino Arana (1868-1903).*



*Alfredo Etxabe (1872-1926).*




*"Libe" lanaren azala.*

*"Bide Onera" antzezlanaren eszena. A. Etxaberen hitzak, Valleren musika. 1895.*





*Mairu eta Kristauen jaia. Bermeo, 1888.*



*Arriaga Antzokia. 1896.*

*Arestik marraztutako txartela, 1895.*



# XX. MENDEA





*Toribio Alzaga “Kaiku”ren karikatura. 1921.*

*Toribio Alzaga eta bere taldea autobusean. Lapurdi 1924.*

Zuberoako antzerki herrikoia. Toribio Alzaga eta Euskal Iztundea (1915-1936). Euskal antzerkiaren eguna (1934-1936). Gerra Zibilean eta Frankismo garaian. Euskal Iztundearen bigarren aldia (1953-1981). Pierre Lartzabal eta Antonio Labaien. Gabriel Aresti eta Bernardo Atxaga. Antzerkigintza 90eko hamarkadan.

## ■ Zuberoako antzerki herrikoia

Antzerkiaren historia aztertzerakoan ezarritako eskemari jarraiki, atal honi Zuberoako fartsak eta pastoralak hizpide ditugula ekingo diogu. Fartsei dagokienez, atzerakada betean daudela nabarmendu behar da, nahiz eta Hérellek dioen 1900 eta 1938 bitartean urtean bi tobera burutzen zirela. Guk *Recueil des farces...* delakoan lau testu baino ez ditugu aurkitu.

Lehenengoa, egile ezezagunekoa, prosan idatzitako *Tzintzarrots* da. *Eskualdun ona* (1907) astekarian argitaratua, komikotasun eta konplizitate aski erakargarriak ageri ditu.

Bigarrena Manex Etchamendi[110] (1873-1960) Nafarroa Behereko poeta-bertsolari eta alkatearena da, eta lan horretan egileak gazteei ikuskizun mota hori antolatzeko eskubidea ukatzen die.

Hirugarren testuaren egilea Leopoldo Irigaray da itzultzailea eta Hérellen laguna, honen Zuberoan antzerki herrikoiaren gainean egindako landa-azterketetan. Testua 1918an aurkitu zen, eta *Peyrot eta Peyrotina* izenburua darama.[111] Lauko txikian idatzitako hamaika neurtitz dira, eta egiturari begira genero txikiaren tankera handiagoa du, fartsena baino. Azkenik, laugarren testuaren izenburua, 16 zortzikoz osatua, *Azken karrosako bertsuak* da, Satrustegik Luzaideko kantuetan jasoak.[112]

Pastoralei dagokienez, aurreko mendeetan antzeztu gabeko izenburuen zerrenda baino ez dugu ekarriko hona. Esana dugu XX. mendeko pastoralen antzezpenetan jorratutako gaiari begira bi aldi aski ezberdin nabari daitezkeela.

### Pastorala



*“Roland” pastoraleko kabalkada. 1908.*

*Turko eta kristauen arteko bataila, “Roland” pastoralean. Atharratze, 1908.*



Aurreneko aldiak mendearen lehen erdialdea hartzen du, 1936 eta 1951 bitartean hutsune handi bat badago ere, azken urte horrez geroztik susperraldia etorriko delarik, Pierre Salaber eta honen Roberto Deabrua antzezlan tradizionalaz. Bigarren aldia berrogeita hamarreko hamarkadatik hona hedatzen da, eta urte horietan pastoralak bilakaera garbi eta esanguratsua biziko du. Gai erlijiosoak eta Frantziaren historiari buruzkoak ia osotara desagertuko dira, eta kasik Euskal Herriaren historiari buruzko gaiak baino ez dira landuko, segidan eskainiko dugun zerrendan ikus daitekeen bezala.

Mendearen lehen erdialdeko bi pastoral baizik ez ditugu argitaratuak, bata Clement d´Andurainena[113], 1906ko Errolan eta euskaldunei buruzkoa, eta bestea Ithurryrena[114], Napoleon Bonaparteren gainekoa (**4. taula**).

Azken hamar urteotan, honako egileak ditugu: Casenave, Davant, Idiart, Berzaitz, Agergarai eta Queheille. Sei pastoral egile, horietatik lehenak frantsesez ere pastoral bat idatzi duena, auzoko birnotarrek antzeztua.

Antzerki mota horretan, Hélène Etchecoparrek[115] adierazi bezala, euskaldunek pairatutako zapalkuntzen (gerra, erbesteratzea, hizkuntz plangintza, alienazio ekonomikoa, akulturazioa, eta abar) adibide ugari dago. Egungo pastoral egileek euskaldunen

| 4. taula. Pastoralak | | | |
|---|---|---|---|
| **Data** | **Lekua** | **Izenburua** | **Egilea** |
| 1903-IV-9 | Ligi | *Louis XI* | Jean Aguer |
| 1903-V-24 | Omizegañia | *Henri IV* | Jean Aguer |
| 1903 | Uharte-Garazi | *Saint Louis (Louis IX)* | |
| 1908-VIII-31 | Atharratze | *Eskualdunak Ibañetan* | |
| 1910-V-22 | Barkoxe | *Mustafa* | |
| 1921 | Lexantxü | *Daniel* | Pierre Salaber |
| 1925 | Ozaze | *Don Carlos* | Pierre Salaber |
| 1927 | Xohüta | *San Andres* | Pierre Salaber |
| 1953 | Barkoxe | *Etchahun koblakari* | Pierre Bordazaharre |
| 1955 | Eskiula | *Matalas* | Pierre Bordazaharre |
| 1958 | Maule | *Berreterretch* | Pierre Bordazaharre |
| 1963 | Gotañe | *Santxo Azkarra* | Pierre Bordazaharre |
| 1966 | Iruri | *Iruriko zalduna* | Pierre Bordazaharre |
| 1967 | Maule | *Chiquito de Cambo* | Pierre Bordazaharre |
| 1973 | Altzai | *Pette Bereter* | Pierre Bordazaharre |
| 1976 | Santa Grazi | *Santa Grazi* | Junes Casenave |
| 1977 | Santa Grazi | *Maitena Basaburu* | Junes Casenave |
| 1978 | Garindañe | *Ibañeta* | Junes Casenave |
| 1979 | Atharratze | *Ximena* | Pierre Bordazarre |
| 1980 | Urdiñarbe | *Iparragirre* | Pierre Bordazarre |
| 1982 | Phagola | *Pette Basaburu* | Junes Casenave |
| 1985 | Muskildi | *Allande Oihenart* | Arnaud Aguergaray |
| 1988 | Urdiñarbe | *Agosti Chaho* | Jean Michel Bedaxagar |
| 1989 | Altzai | *Zumalakarregi* | Junes Casenave |
| 1990 | Maule | *Abadia urrüstoi* | Jean Louis Davant |
| 1991 | Larrañe – Muskildi | *Xalbador – Harispe marexala* | Roger Idiart – Pier Paul Berzaitze |
| 1992 | Santa Grazi | *Santa Kruz* | Junes Casenave |
| 1993 | Gotaine | *Eüskaldunak Iraultzan* | Jean Louis Davant |
| 1994 | Donaixti-Ibarre | *Mixel Garikoitz* | Junes Casenave |
| 1995 | Arrokiaga | *Agirre presidanta* | Jean Louis Davant |
| 1996 | Garindaine | *Sabino Arana* | Arnaud Aguergarai |
| 1997 | Atharratze | *Atharratze jauregian* | Pier Paul Berzaitze |
| 1998 | Barkoxe | *Herriko semeak* | Patrick Queheille |
| 1999 | Altzai | *Agota* | Junes Casenave |
| 2000 | Eskiula | *Madeline de Jauregiberri* | Pier Paul Berzaitze |
| 2001 | Xohüta | *Xiberoko makia* | Jean Louis Davant |

iragana berrezagutu edo berridatzi nahi dute, euskaldunak ia sistematikoki kristauen lekuan jarriz, besteak, kanpokoak, turkoen aldean daudelarik. Eta horrek emaitza ezin hobea ematen du Etsaia, gehienetan Espainiarrak eta Frantziarrak, ezen horiek lagun gisa aurkitzea askoz bitxiagoa baita, agerian utzi nahi denean. Eta egia da pastoralaren egitura manikeoak, bi alorren, Ongiaren eta Gaizkiaren, bereizketa horrek, ez dituela, agerikoa denez, ez *la nuance* ez *la subtilité* inola ere faboratzen, eta ezta konplexutasun psikologikoa eta zolitasuna, zalantza, kontraesana eta autokritika ere, mundu euskaldunaren eta ez-euskaldunaren arteko harremanak hain konplexuak izaki.

**Junes Casenave Harigile** (Santa-Grazi, 1924) poeta, narratzaile eta pastoralen egileak adierazten du, *Argia* astekarian egindako elkarrizketa batean,[116] Euskal Herriaren Historia ez dela behar bezala ezagutzen, eta pixkanaka herri osoak, ez intelektualek soilik, historia hori ezagutu egin behar duela, eta ez arrotzek agertutako moduan.

Euskal Herriko data eta gertakari historikoak oraintsu arte ahaztuta egon dira, ez hainbeste, Perez Stansfieldek[117] Espainiako antzerkiaz ari dela adierazten duen bezala, frankismoaren bertsio ofizialak mozorrotu dituelako, askoz lehenagotik ere kontuan eta aintzat hartu gabe egon baitira, etxeko nahiz kanpoko idazle gehienek gertakari horiek islatzeko interes eskasa agertu dutelako. Ez da harritzekoa, bada, berriki zendutako anarkista batek, Marc Legasse,[118] umore handiz *Pasacalles por un País que ni existe* hura idatzi izana.

Zenbait pastoraletan, nazionalismoaren aldarrikapenak antzinako baserritar mundu baten, loriatutako iragan baten eta behialako euskaldunen batasunaren apologia du bereizgarri nagusi. Beste zenbait antzezlanetan nazionalismo hori bestela, aldarrikapen kutsu are handiagoz, agertzen da, batik bat mezua laburbildu ohi duten epilogoetan. Batasuna, bakea, euskaldunen aberri baten eraikuntza, «Zazpiak Bat» erdiestea ohiko mezuak dira. Pastoralak, euskal gaietan oinarrituta, hartzaileen eremua zabaltzea lortzen du, hau da, denbora luzez isolaturik egon den Zuberoa Euskal Herriaren testuinguruan txertatzen du, eta, era berean, Bidasoaren alde honetako turistak antzezpenera joaten dira, obra antzezten den herrixkan euren euroak utziz.

Antzerki mota honen ikuslegoa dezente areagotzen da testua frantsesez, gazteleraz eta zenbaitetan baita euskara batuaz ere argitaratzen delako. Egia da,












Jean Ithurry (1845-1896). "Napoleón" pastoralaren sortzaile.

**Jean HEGUIAPHAL**

| | | |
|---|---|---|
| 1892 (VIII-23) | Donibane Lohizune | Abraham |
| 1897 (VIII-17) | Donibane Lohizune | Abraham |
| 1898 | Xohuta | Alexandre |
| 1899 (V-28) | Atharratze | Abraham |
| 1899 (VII-12) | Atharratze | Abraham |
| 1906 (IV-16) | Lambere | Hirur martirak |
| 1906 (V-13) | Lambere | Hirur martirak |
| 1906 | Arrokiaga | Nabukodonosor |
| 1927 | - | Napoleon |




*Jean Heguiaphal.*

*Ikusleak "Abraham" pastoralean. 1909.*




*Pierre Salaber, "Charlemagne" pastoralaren zuzendari. Atharratze, 1936.*








Pierre Salaber bere etxeko sukaldean.













"Iparragirre".
Urdiñarbe, 1980.



Rolanden eszena, bere azken unean,
"Ibañeta" pastoralean.
Garindaine, 1978.





*Urdiñarbeko antzezleak "Abraham" pastoralean. 1909.*
*"Santa Helena" pastoralaren antzezle eta musikariak. 1909.*





*Antzezleak "Napoleon" pastoralean. Eskiula, 1924.*
*Antzezleak "Napoleon" pastoralean. Eskiula, 1912.*





*Antzezleak "Robert Le Diable" pastoralean. Gotaine Iribarne, 1926.*
*P. Salaber zirkuluan, "Santa Helena" pastoralean.*





*Antzezleak "Robert Le Diable" pastoralean. Gotaine Iribarne, 1926.*
*"Iruriko Jaun Kontea" pastorala. Iruri, 1966.*





Mende hasierako maskarada. Larrañe, 1909.
Antzezleak "Santxo Azkarra" pastoralean. Gotaine, 1963.





"Matalas" pastorala Eskiulan, 1955.
"Ibañeta" pastorala. Xohüta, 1954.





"Alexandre Handia" pastorala. Heguiaphal errejenta. Maule, 1928.
Antzezleak "Iruriko jaun kuntea" pastoralean. Iruri, 1966.





"Iparragirre" pastorala. Urdiñarbe, 1980.
"Ximena" pastorala. Atharratze, 1979.



halaber, bertsoen leloak hain luze eta astunak izaki (horrexegatik, hain zuzen, azkenaldian ikuskizunaren baitan dantzak eta koruak ugaritu egin dira), eta udan pastoralak atari zabalean antzezten direlarik, antzezpenak ikusleek familiakoen eta adiskide komunen bizitzari buruz elkarri galdetzeko aukera ematen du.

Pastorala, esan dugun moduan, euskal ondare –ez zuberotarra bakarrik– izatera heldu da, eta nortasun sentimendu bat eraikitzen laguntzen du. Testuek, euskaltasunaren inguruko adostasun inplizitu batean oinarrituta, antzezle nahiz ikusleen artean jarrera eta iritzi ezberdinak uztartzea faboratzen dute. Itxurazko euskal batasun bat gordetzea ahalbidetzen dute, eta horrela euskal klase sozialen interes ezberdin eta zenbaitetan kontrajarriak ez dira aztertzen.

Gai historikoak baliatuz, batzuetan modu arrunt behartuan aurkeztutako paralelismoak agertu arren gaur egungo errealitatetik urrun, euskal komunitatearen egungo xehadura eta mugimendu nazionalistaren zatiketak saihestu ahal dira. Heroiak, antzerki mota honen ezaugarriak medio, trinkoak dira, anbiguotasunik ez da inon ageri, ez eta konplexutasun psikologikorik ere, eta behialako aristokrazia gerlari eta kristauaren ezaugarri nolabait mitologikoetan (sufritzeko ahalmena, erronkei aurre egitekoa, sentimenduen zintzotasuna, heroismoa, eskuzabaltasuna, ausardia, emankortasuna, eta abar) funtsatzen dira.

Eta Jean Haritschelharrek[119] azpimarratzen duen bezala, antzerki herrikoi honek –bi adieretan herrikoi, herriak antzezten duelako eta herriarentzat antzezten delako–, antzerki nazional bihurtzen ari da, iragan historiko edo legendazkoa oroitzen duelako. Lehenago ikuspegi erlijiosotik bazen herriaren eskola, orain herriak Herriaren, honen pertsonaien historia ikasten dueneko eskola, antzinatik modu berdingabean mantendu eta gorde duen hizkuntza eta literatura maitatzen ikasteko eskola bihurtu da.

**Jean Louis Davant** (Ürrüstoi-Larrabile, 1935)[120] 1975az geroztik Euskaltzaindiako kide, *Embata* eta *EHAS*en sortzaileetako bat, irakasle eta zenbait historia eta poesia libururen egileak honako pastoral hauek argitaratu ditu: *Abadia Urrustoi* (1986), 1851an Lore Jokoak sortu zituen Antoine d´Abbadie mezenasaren bizitzari buruzkoa, 1990ean Zuberoako ikastolak ordezkatu zituena; *Eüskaldünak Iraultzan* (1993), Euskaldunen eta Frantziako Iraultzaren gainekoa, *Agirre presidenta* (1995) José Antonio Agirreren bizitzari eta Espainiako gerra zibilari buruzkoa, *Xiberoko Makia* (2001), bigarren mundu gerrako Frantziako erresistentziari (euskal atala) buruzkoa.

PASTORALA




*Marcel Heguiaphal. "Aimunen lau semik" pastorala. Xohüta, 1984.*




*Junes Casenave. "Pette Basabürü" pastorala. Phagola, 1982.*

*Kabalkada "Allande Oihenart" pastoralean. Muskildi, 1985.*



**Roger Idiart**,[121] Etxahunekin batera honen pastoral askotan eta bigarren mundu gerraren osteko pastoralaren susperraldian parte hartu zuena, itzultzailea eta kanta egilea da, eta baita *Xalbador* (1991) pastoralarena ere. Xalbador Fernando Aireren (Urepele, Nafarroa Beherea, 1920-1976) ezizena zen, Iparraldeko bertsolari finenetako bat, Mattinekin batera generoak mugaren bi aldeetan izan zuen susperraldian zeresan handia izan zuena.

**Pier Paul Berzaitz** (Muskildi)[122] pastoralen antzezle eta egile da, antzezpen askotan aktore nagusi gisa ere esku hartu duelarik. Bere antzezlanen artean *Harispe Mariskala* (Muskildi, 1991) eta *Atharratze jauregian* (Atharratze, 1992) nabarmen daitezke. Egile honek pastoralaren estetika tradizionalean aldaketa handiak sartu ditu, dantza eta kantuaren fabore. Bere azken lanak, *Elkanoren semeak* (1998) eta *Euskaldunen Izpiritua* (1999), komedia musikaletik hurbilago daude, pastoraletik baino.

**Arnaud Aguergaray-Bordachar**[123] *A. d´Oihenart* (Muskildi, 1985) eta *Sabino Arana* (Garindaine, 1996) pastoralen egilea da. Azken antzezpen hori, uztailaren 21ean burutua, tragikoa gertatu zen, Pierre Paul ´Pipo´ Etxebarne eszenatokian hil baitzen, zorigaiztoak zorigaizto obra amaitu arte antzeztu zelarik. Etxebarne eskola zaharreko aktorea zen, 18 urterekin 1976ko *Robert le Diable*ren emankizunean esku hartua baitzen. Lanak nazionalismoaren apologia huts bihurtzeko arriskua zuen, baina Arana unibertsal eta ez abarkadun baten irudia eskaintzen du, egitura klasiko, trinko eta neurritsu baten baitan.[124]

**Patrick Queheille** (Barkoxe) egileak,[125] *Herriko semeak* (1998) antzezlanaz, bere jaioterriko hiru pertsonaia omendu nahi izan ditu. Beñat Mardo, Chahoren hitzetan bere garaiko bertsolaririk onenetako bat izan zena, *vingt volumes ne contiendraient pas ses oeuvres, s´il avait eu un sténographe avec lui dans les séances poétiques qu´il donnait en toute occasion.* Pierre Topet Etxahun, hau ere Barkoxen jaioa, Haritschelharren aburuz euskal Verlaine izandakoa, poeta erromantiko nagusietako bat. Eta Léon Uthurburu, aurrekoak bezala XIX. mendeko gizona, Ameriketara joan ondoren jaioterrira itzuli eta bere ondasun guztiak Barkoxeko pobre eta behartsuei eman ziena.


BARKOXEN
ÜZTAILAREN 27 ian
AGORRILAREN 10 ian
PIERRE TOPET
ETXAHUN'en
PASTORALA
ARRASTIKO 3 ORENETAN
Sortzeko Ber-Ehün Geren
Urthe Bürian Ospatzeko
1786-1986



Jean Louis Davant, "Abadia" pastoralaren egilea.











Pierre Paul Berzaitze pastoral egilea.

Abadia Urrüstoi. Maule.







Pierre Etxahun Irurikoa, "Etxahun koblakaria". Barkoxe, 1986.

Junes Casenave, "Santa Grazi". Santa-Grazi, 1986.







Pierre Paul Berzaitze, "Harizpe". Muskildi, 1991.




Pastoral baten antzezpenaren aurretik, Zuberoan. Manuel Lekuona beste hainbat gonbidaturen artean, Boadella tarteko.















*"Xiberoko makia" pastorala. Xohüta.*




*"Herriko semeak" pastorala.*











*Artola anaiak.*



*Euskal Jaien Kontsistorioa, 1909.*






*Gregorio Beorlegi eszenatokian.*



*Euskaldun Fedea antzerki taldea.*






*José María Arozamena.*



*Euskal Iztundeko kideak. 1915.*




*Jose Egilegor "Dollorra" antzezlanaren emankizunean.*



*"Dollorra". Campos Elíseos. Bilbo, 1916.*



## • Toribio Alzaga eta Euskal Iztundea (1915-1936)

Antzerki emanaldiak Donostiatik Gipuzkoa osoan barrena hedatuz joan ziren, hain bizkor ezen Gregorio Mujika *Euskalerriaren alde* (1911-1931) aldizkariaren zuzendariak, 1912an herrialdean antzeztutako euskarazko lanen zerrenda egitean, eta hainbat herriren berri izan gabe ere, honako kopuru hau eskaintzen baitu: 72 antzezlan ezberdin, 19 bakarrizketa, ekitaldi bakarreko 40 lan eta hiru ekitaldiko 13, egilerik maiteenak Marcelino Soroa eta Avelino Barriola zirelarik.

Berebat, aipatu *Euskalerriaren Alde* aldizkariak 1912an antzezlan txikien berariazko bilduma bat sortu zuen, *Izarra* izenekoa, zeinak 1912 eta 1931 bitartean hogeita sei lantxo argitaratu baitzituen, gehienak komikoak, egilerik argitaratuena Toribio Alzaga izan zelarik, sei lanekin.

**Toribio Alzaga** (San Sebastián, 1861-1941) hamahiru urteko haur bat zela *Iriyarena* lanaren antzezpenean parte hartu zen jada, Soroaren aginduetara, eta horrek bere bizitzaren norabidea baldintzatu zuen. 1888. urtean *Aterako gera* lanarengatik bere lehenengo saria eman ziotenetik, ez zion antzezlanak idatzi eta moldatzeari utzi –hogei baino gehiago. Bera izan zen, Labaienen126 hitzetan, Tepsis euskal gurdia martxan jarri zuena, gurdi akaso bitxi eta landugabea, baina zeinari bultzada handia eman baitzion, euskarazko antzerkiaren garapen eta hobekuntzari bide segurua zabalduz. Sentiberatasun handiko gizona, egileaz gain kritikari izan zen, euskarazko antzezpenei buruz idatzitako segidako hitzek adierazten dutenez:

*"...bada garaia euskal lanen arrakasta ikuslegoaren abertzaletasunaren mende egon ez dadin, eta arrakasta hori arteak antzezpenei distira emateko eskaintzen dituen baliabideak erabiliz lor dadin".127*

Kezka horien kariaz, Donostiako udalak Antzerkiaren Batzorde Laguntzaile bat sortu zuen, eta batzorde horrek, era berean, Avelino Barriola zinegotziak, antzerkigile eta Sustapen Batzordeko kide, aurkeztutako txosten baten ondoren, Euskarazko Deklamazioko Udal Katedra baterako deialdia onartu zuen, zeinaren oinarriek eta arautegiak, *Euskal-Erria* aldizkariak jasoak, segidakoa adierazten baitzuten:

*"Irakasleak ikasleei oro har Antzerkiari dagozkion ezagutzak irakastea izango du xede eta, aldi berean, eskola horren izaera bereziari dagozkion moldaketak egingo ditu; euskaraz ahalik eta hobekien irakurtzen eta deklamatzen irakatsiko du, aldi*

*berean ikasleak mimikan eta eszenako mugimenduan, eta antzezpenaren alderdi ezberdinetan, heziko dituelarik, irakaspenak oinarrizkoak eta batik bat praktikoak izan daitezen ahaleginduz".*[128]

Lehiaketaren epaia aho batez Alzagaren aldekoa izan zen, eta honek bere katedra Musikako Udal Akademian ezarri zuen. Langile nekaezina, urtebetean jada honako antzezpen hauek zituen errepertorioan: Barriolaren *Lagun txar bat* eta *Gai dagoenaren indarra*, Elizondoren *Dollorra* eta *Atzertokiya*, Soroaren *Barrenen arra*, Ganboaren *Mikelatxo*, eta bere *Bemaiñoren Larriyak* eta *Axentxi ta Kontxesi*.

*Euskal Fedea*[129] antzerki taldeak 1915. urtera arte arrakasta ugari erdietsi zuelarik, orduz geroztik *Euskal Iztundea* bide berberari lotuko zaio, eta ez Donostian bakarrik (59 antzezpen), baizik eta Gipuzkoa osoan (109), Bizkaian (3) eta baita Lapurdin ere (1). Hogeita bi urtetan 51 antzezlan ezberdin jokatuko dituzte, horien artean, antzezpen kopuruari begira, *Ramuntxo* (18), *Garbiñe* (13) eta *Ezer ez ta festa* (11) nabarmentzen direlarik, hau da, bi drama eta komedia bat, errepertorioa gehienbat komediek osatu arren.

Antzeztutako egileak asko dira: **Alzaga** hogeita hiru antzezlanekin, **Barriola** bostekin, **Garitaonaindia** hirurekin, **Elizondo, Eleizegi, Olaizola, Soroa, Iraola, Telleria** birekin, eta abar.[130]

*Ramuntxo* antzezlana, Pierre Lotiren nobelan oinarritua, Gabriel Piernéren musikaz antzeztu zen, opera moduan, Parisko Odeon antzokian, Cádiz eta Madrilen, baina leku horietan porrot egin ondoren, Alzagaren itzulpenak eta moldaketek *–beharrezkoa zen elkarrizketari bizitasun handiagoa eta obrari sakontasun handiagoa ematea–* fruitu eman zuten eta arrakasta handia bilakatu zen, gerra aurretik ez ezik baita frankismo garaian ere.

Kritikari zenbaitek gehientsuen goretsitako beste lan bat *Macbeth* izan zen, hau ere Alzagak itzulia, zeinari *Irritza* izenburua jarri baitzion, bost ekitaldiak hirura eta aitzinsolas batera murriztuz. 1925. urtean estreinatu zen. Beste kritikari batzuek, ordea, ikuslegoari begira eta jatorrizko lanen gabezia agerikoa zen arren, esperimentu alferrikako eta goiztiarra zela iritzi zioten.

Antzezlan aski goretsi bat **Katalina Eleizegi**ren *Garbiñe* izan zen. Hiru ekitaldiko drama historikoa da, zeinaren ekintza XIII. mendean gertatzen baita, eta Galdósen Marianela lanarekin antzekotasunik badu. Garaiko kronikari atsegin baten arabera[131], lan horrek *ez dirudi egile batena, hasiberri batena baizik.*



*Katalina Eleizegi (1889-1963).*



*Jose Egilegor "Garbiñe" antzezlanean. 1916.*









*"Garbiñe", Katalina Eleizegiren drama historikoa.*



*Inazio Goikoetxea "Amantxi" antzezlanean. 1923.*



*Jose Egilegor "Loreti" antzezlanean.*



*Katalina Eleizegi.*




*"Loreti" antzezlaneko eszenak.*







*Toribio Alzaga eta bere taldea, Lekarozen.*

*Toribio Alzaga eta bere taldea, Lekarozen.*





*Toribio Alzaga eta bere taldea autobusean. Lapurdi, 1924.*

*Toribio Alzaga eta bere taldea Eibarren, "Ramuntxo" antzezteko. 1926-XII-12.*








*"Saski-naski" antzezpenaren programa, Bergaran, 1930.*






*Gregorio Mujika (1889-1931).*










SAN SEBASTIÁN
GRAN SEMANA VASCA
DEL 14 AL 22 DE JULIO 1928
BELLAS. DEPORTES. TEATRO
ARTES Y DANZAS
CAT


ANTZOKI ZARRA
TEATRO PRINCIPAL
EUSKAL JAIAK
FIESTA VASCA organizada por el Cuadro Dramático de la Escuela de la Lengua y Declamación Euskara.
• DONE SEBASTIAN EGUNEAN •
1925'ko Ilbeltzaren 20'n
20 de Enero de 1925
A las cinco y media de la tarde
AGERKAIA
AMANTXI
BANAKETA
BIOZBERAK
BANAKETA
SARRIDEN SANEURRIA
Precios de las localidades


ANTZOKI ZARRA
TEATRO PRINCIPAL
EUSKAL JAIA
IÑAUTERI ASTELENEAN
AGERKAIA
MAITASUNAK
BANAKETA
¡ONENTZARO GABAI
BANAKETA
SARRIDEN SANEURRIA
Precios de las localidades


TEATRO-CINE BEDIA.-Mondragón
GRANDES REPRESENTACIONES DEL TEATRO VASCO
RAMUNTXO Y GARBIÑE
RAMUNTXO
GARBIÑE


NUEVO FRONTON TOKI-ALAI, PLACENCIA
Soraluze'ko "Toki-Alai" pelota toki berria
AGERKAIA
Mutilzarra
OSABA
BURRUNTZIYA
Teatro-Cine Bedia
GRANDES REPRESENTACIONES DE TEATRO VASCO
MUTILL ZARRA Y OSABA
MUTILL ZARRA
REPARTO:
PORRU-SALDA
OSABA
ANTZOKI ZARRA
TEATRO PRINCIPAL
FIESTA VASCA
EUSKAL JAIA
1925 Epailaren 15n
15 de Marzo de 1925
AGERKAIA
YRRITZA
EZER EZ TA FESTA
TEATRO


EUZKO ANIZOKIA
THÉATRE BASQUE
SASKI NASKI
TEATRO VASCO
GRAFICAS-LABORDE-Y-LABAYEN-TOLOSA

Xabier Mendigurenek, Alzagaren lan batzuen argitalpenaren aitzinsolas batean –«Toribio Alzaga edo euskal teatro burgesaren nahi eta ezinak»–, Barriola eta Alzaga alderatzen ditu, zori ezberdinez ikuslegoaren maila jasotzen eta kostunbrismo herrikoitik antzerki burges nazional batera igarotzen ahalegindu ziren bi adiskide. Bere iritziz, Alzagak, jostailu komikoetan eta elkarrizketa zirtatsuetan, porrot egingo du ideologia nazionalista behar bezala bereganatu ez zuelako.132

Barriolak, aitzitik, arrakasta handiagoa izango du, bere drametan euskal burgesia nazionalista islatzean, non emakumeak rol nagusia baitu eta hizkuntza duin egingo baita, «baserri usainetik» ihesi eta, horrenbestez, antzerkiari norabide berriak irekiko dizkio, hura aurrez erdietsi gabeko kalitate maila batera eramanez.133

Donostian eta probintzian jarduera hori garatzen ari zen bitartean, Iparraldean, noizbehinkako antzezpenez gain, «Patronage» antzerki bat sortuko da, hau da, batik bat Eliza Katolikoak babestutako antzerkia, 1921. urtean hasiko dena, Mirande jaunaren eskutik. Segidan «komediak» egingo dira nagusiki, antzerki funtsean komiko bat, arina, ikuslego baserritarraren eta antzezleen arteko sinbiosi berdingabea sortzen zuena, gaiak sorgin, deabru, merkatu, ezkontza, emaztegabe, senargabe, eta abarren ingurukoak zirelarik.

Egileak **Jean Barbier,**134 **Léon Léon,**135 **Pierre Lafitte**136... dira. Ia obra guztiak *Gure Herria* aldizkarian arrgitaratu ziren. Aipatu aldizkaria 1921. urtean sortu zen, Baionan, eta bere lehenengo aldian bigarren mundu gerraren hasiera arte, 1939an, argitaratuko da.

## • Euskal antzerkiaren eguna (1934-1936)

Euskal Antzerki Berriaren hirugarren aldia 2. Errepublikaren garaian garatuko dena da, eta 1876an hasitako aldi bati, ikusleen artean harrera beroena izan zuena, amaiera emango dio.

Iñaki Barriolak137 adierazten duen bezala, 1928an jaiotako *Euskaltzalea Elkarteak* izeneko taldea *Olerki Eguna* antolatzen hasiko da, eta, arrakasta handia lortzen duelarik, ideia bera antzerkiaren alorrera aldatuko du, 1934-35-36 hirurtekoan *Eusko Antzerti Eguna* eratuz. Horretarako, eta 1932an Antonio Labaienen zuzendaritzapean sortutako *Antzerti* aldizkaria medio, antzezlan lehiaketa bat antolatuko da, lehenengo urtean sarituak honakoak izan zirelarik:

1) **J. Karraskedo**, *Etxe aldaketa* dramarekin;
2) **A. Amonarriz**, *Iturrian* komediarekin; eta
3) **A. Arozena**, *Urteurrena* bakarrizketarekin.

Berebat, otsail, martxo eta apirilean antzerki taldeen lehiaketa burutu zen Donostian. Hamahiru taldek parte hartu zuten, hamabi Gipuzkoakoak eta bat Bizkaikoa, gehienak batzokietan sortuak (Pasai San Pedro, Urnieta, Donostia, Ondarroa, Bergara, Errenteria, Soraluze, Tolosa, Deba, Alegia eta Zumaia), irabazle Alzagak zuzendutako eskarmentu handiko taldea suertatu zelarik, *Ramuntxo* antzezlanarekin.

Maiatzaren 6an, Donostiako San Telmo Museoan Euskal Antzerkiaren Lehenengo Eguna ospatu zen arrandia handiz. Garaiko gizon handiak hara bildu ziren, eta bertan *Euskaltzaleak*en batzorde berria hautatu zen, aho batez, kideak honakoak zirelarik: Presidentea, Monzon; Idazkaria, Ariztimuño «Aitzol»; eta Antzerki ataleko batzordekideak, Labaien eta Karraskedo.

1935. urtean hamaika lan aurkeztu ziren, sariak Tene Muxikaren *Gabon* eta A. Arozenaren *Balujan* lanei eman zitzaizkielarik. Ordukoan hamaika talde aurkeztu ziren, horiek ere batzoki eta *Euzko-Etxeetan* eratuak (Itsasondo, Alegia, Lezo, Zarautz, Legorreta, Oiartzun, Legazpi, Hernani, Azkoitia eta Irun). Talde irabazlea Oiartzungo Mendiburu gertatu zen, Lekuona anaien *Eun dukat* lanaz, zeinak harrera paregabea izan baitzuen, Gipuzkoan ez ezik mugaz haraindi ere, Lapurdin.

Azkenik, 1936. Urtearen hasiera aldean, lehen hiruhilekoan, Euskal Antzerkiaren Hirugarren Lehiaketa burutu zen, ordukoan bederatzi taldek parte hartu zutelarik (Alegia, Ondarroa, Irura, Tolosa, Oiartzun, Andoain, Donostia, Zumaia eta Hernani). Literatur lehiaketaren irabazlea Karraskedoren *Garoa usaia* izan zen, Txomin Agirreren Garoa eleberrian oinarritua, eta egileak saritzat 250 pezeta jaso zituen. Antzezlana maiatzaren 18an jokatu zen, Euskal Antzerkiaren III. Egunean, Victoria Eugenia Antzokian, Donostiako *Euzko Etxea* taldearen eskutik.

Antzerkigintza ez zegoen, ordea, Gipuzkoako hiriburura mugaturik, eta Bizkaian, **Manu Sota**ren mezenasgoaz (Labaienek, *Antzerti* aldizkarian, Cocteau euskalduna deitua) eta **Esteban Urkiaga «Lauaxeta»** idazlearen laguntza baliotsuaz, mugimendu bat sortu zen, herrialde horretako ia herri guztietan barrena hedatu zena. Durango, Bermeo, Lekeitio, Iurre, Lezama, Mungia, Bedia, Zamudio, Gernika, Mundaka, Galdakao, Abadiño, Gatika, Forua, Larrabetzu, Getxo eta Sopuertan, besteak beste,

### Errepublika



*Bittor Garitaonaindia.*



*Oiartzungo antzerki taldea.*



*Leitzako "Emakume Abertzale Batza" taldeko aktoresak Garitaonaindiaren "Iziartxo" antzezten.*



*Toribio Alzagaren "Uste dinat" antzezlaneko aktoresak. 1931.*

*Lezoko antzerki taldea Loiolan.*



bakarrizketa eta komedia kostunbristak ez ezik, antzerkia ikusteko ohitura handirik ez zuen ikuslego bati Yeats, Maeterlinck eta Pearce-n lanak, euskal jite eta hizkuntzari moldatuak, aurkeztu zitzaizkion, harrera ezin hobea jasoz.

Errepublika garaiko euskal antzerkiaren urrezko aro hori *Antzerti* aldizkarian aurki daiteke, bost urte baino gutxiagotan berrogeita hamar antzezlan baino gehiago argitaratu baitzituen.

1876tik 1936rako antzerkia mugimendu euskaltzale eta nazionalistarekin loturik dago. Hirugarren karlistada eta gero, euskal kultura eta antzerkiarena ia ezerezetik ernatuko dira, eta goieneko unea hogeita hamarreko hamarkadan biziko dute. Alabaina, estatuko antzeko beste hainbat kultur eta herri mugimenduk bezala, altxamendu frankistarekin itzelezko kolpea jasango dute.

## • Gerra Zibilean eta Frankismo garaian

Gerra zibila eta ondorengo gerraostea suspertzen hasiberritako euskal kultura eta antzerkiarentzat kolpe latza izan ziren. «Aitzol» eta «Lauaxeta» mugimendu euskaltzalearen bi pertsonaia funtsezko eta gailenen fusilamendua eta nazionalista gehienen erbesteratze eta kartzelaratzea, euskara erabiltzeko debekua, horrek guztiak haustura larria ekarri zuen.

Alabaina, 1937an jaio eta urte berean, Bilbo erortzearekin bat, zenduko zen *Eguna* lehenengo euskal egunkariaren gerra kronikak jarraituz gero, okupatu gabeko eremuan hainbat antzezpenen berri topa dezakegu, hala nola Bilbon, otsailaren 11an, *Bilboko Euzko Gastedija* taldeak eskaini zuena. Emanaldi horretan Pearce-n *Iru Gudari*, gazteleraz, eta Soroaren *Ezer ez ta festa*, euskaraz, jokatu ziren.

Zaletasun hori ez zen gerra edo kartzela bezain egoera larrietan iraungi. Izan ere, **Estanislao Urruzola «Uxola»**k138 adierazten duen moduan, antzerkia eta aldizkaritxo klandestino bat batasun eta erresistentziarako baliabide ia bakarrak ziren. Hala ere, ez ziren olgetarako garai aproposak, eta antzerkiaren zuzia Jokin Zaitegik Mexikoko erbestean hartuko zuen, Prometeo berri baten antzera, 1946an Sofoklesen antzezlanen itzulpena argitaratuz. Halaber, Guatemalan euskal kulturaren historiak eman duen aldizkaririk interesgarrienetako bat sortu zuen, *Euzko Gogoa* (1951-59), non **Larrakoetxea, Amezaga, Ibiñagabeitia, Labaien, Monzon** eta **Zaitegi** bera bezalako egileek beren itzulpen eta antzezlanak argitaratu baitzituzten.

### Errepublika



*Tolosa. "Teatro Ureta" 1932-XI-20.*



*Euskal Antzerkiaren 1. eguna San Telmo Museoan. Donostia, 1934ko maiatza.*







*Antonio Labaienek "Antzerti" euskal antzerkiari buruzko lehenengo aldizkaria sortu eta zuzendu zuen. 1934-1936.*

### Gerra




*Pedro Mari. 1937.*



*"Eresoinka" antzezlaneko eszena, Parisen. 1937.*

Euskal Herrian –Iparraldea albo batera utzita, bigarren mundu gerraren ostean bere bide propioari lotuko baitzaio, Pierre Laffiteren zuzendaritzapean eta *Herria* astekariaren sorrerarekin– Pirinioen hegoaldean tesi posibilisten aldekoak, kartzela eta erbeste aldi luze baten ondoren, apurka antolatzen hasiko dira.

Horrela, Debako Alostorrea taldeak, Nemesio Etxanizen gidaritzapean, 1947. urtean Manu Ziarsoro "Abeletxe"k (1902-1987) egin zuen Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna* obraren moldaketa, *Gabon Gabonetan* izenekoa, antzeztu zuen. 1949an, Eusko Ikaskuntzak antolatutako Lore Jokoetan saritu egile eta antzezlanak honakoak izan ziren: Pierre Lartzabal (*Urchilotar horiek*), Jean Lousteau (*Amaren heriotzea*), Jon Etxaide (*Amaiur*), Augustin Zubikarai (*Itxasora*), Jeanne Minaberri eta A. Charriton (*Izariko zapeta*) eta Mayi Elissagaray (*Maitetchoren ezkontza*).

Urte berean, 1949an alegia, *Nekazari Alkartasuna*k Azpeitian bakarrizketen lehenengo lehiaketa antolatu zuen, eta irabazle Maria Dolores Agirre idazle eta gerra aurreko antzezlea suertatu zen, *Aukeraren maukera, azkenean okerra*139 lantxoaz.

## • Euskal Iztundearen bigarren aldia (1953-1981)

**Maria Dolores Agirre** laurogeita hamar urte baino gehiagorekin euskarako eskola ematen jarraitzen zuen emakume nekaezina izan zen Alzagaren talde berria antolatu zuena. Talde hori, zeinetan Agirre antzezle nagusia baitzen, euskal antzerkiaren historian gehien iraun duena izan da. Bigarren aldi horretan, *Ramuntxo* obrarekin hasia, 1953ko abenduaren 21ean Donostiako Kursaal zaharrean, *Euskal Iztundea*k antzerki ugari egingo du, batik bat 50 eta 60ko hamarkadetan, 92 emankizunetan 33 antzezlan ezberdin jokatzera helduz.

Antzezpenak ez ziren Donostian bakarrik eman, eta Bergara, Zarautz, Tolosa, Bilbo, Azpeitia, Irun, Elizondo, Andoain eta Hernanira ere iritsi ziren. José Monleónen140 hitzak baliatuz, Eskuinaren Antzerkia ote zen pentsa dezakegu, Alejandro Casonaren moldaketak ez ziren falta eta, *Txalupak jaberik ez* kasu. Bestelako moldaketarik ere bazen ordea, adibidez Molière, Gheon, Loti, Tagore, García Lorca, Lozano, Buero Vallejo, Pío Baroja eta Kanpionenak; eta baita Soroa, Alzaga eta Barriola bezalako egile tradizionalen lanak ere, edo Lartzabal eta Monzon berrienak. Hortaz, eta egoerari begira, Erresistentziaren Antzerkia zela esan daiteke, eta egoera gaitz hartan biziraute hutsa arrakasta



Magdalena Jauregiberri (1884-1997).



"Irulearen Negarra" antzezlaneko eszena. Zuzendaria, L. Dorronsoro. Goaz. Deba, 1999.



"Andre Joxepa" antzezlaneko eszena.







Maria Dolores Agirre Euskal Iztundea bere taldearekin.

Bidegileak, 1942.



Nemesio Etxaniz eta bere txakurra.







Teatro Victoria Eugenia

FIESTAS DE

SAN SEBASTIAN

Patrocinadas por el Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián e interpretadas por el Cuadro de Arte de la Academia de la Lengua y Declamación Vasca del Excmo. Ayuntamiento, bajo la dirección de MARIA DOLORES AGUIRRE, tendrán lugar las siguientes representaciones:

Sábado, 19 de Enero — A las 6'30 de la tarde

El juguete cómico en tres actos, original de don Toribio Alzaga»

«MUTILZAR»

Reparto (por orden de aparición en escena):

| | | |
|---|---|---|
| «Mai Kixu» | Srta. | Arrudiarrena. |
| «Miel Mai» | Sr. | Eguilegor. |
| «On Patixio» | Sr. | Tolarechipi. |
| «Kontxexi» | Srta. | Agote. |
| «Xalome» | Sra. | Moraiz. |
| «Koxdo» | Sr. | Beorlegui. |
| «Joxpa Akilin» | Sra. | Echániz. |
| «Joxe Austin» | Sr. | Ecelza. |



"Mutil Zar" antzezlaneko eszena.



SALON NOVEDADES - Vergara

SABADO, 14 de ENERO de 1956

7,15 tarde — 10,15 noche

Organizado por la Sociedad SAGAR - PE e interpretado por el Cuadro de Arte de la ESCUELA DE LA LENGUA Y DECLAMACION VASCA del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián

REPRESENTACION

del juguete cómico en tres actos, original de D. Toribio Alzaga, actuando los colosos del Teatro Vasco Sres. EGUILEOR Y BEORLEGUI

MUTILZAR

REPARTO
(por orden de aparición en escena)

| | |
|---|---|
| Mari Kixu | Srta. ARRUABARRENA. |
| Miel Mai | Sr. EGUILEOR. |
| On Patixio | Sr. TOLARECHIPI. |
| Kontxexi | Srta. APAOLAZA. |
| Xalome | Sra. MORAIZ. |
| Koxdo | Sr. BEORLEGUI. |
| Joxpa Akilin | Sra. ECHANIZ. |
| Joxe Austin | Sr. ECEIZA. |

Mobiliario cedido por la Fábrica de Muebles de D. Martín Garaib.



Oñatiko Gorpuzti-eguneko prozesio eta dantzak.

Oñatiko Gorpuzti-eguneko prozesio eta dantzen irudiak.









SALON CINE ALOÑA - OÑATE

Gran Velada

organizada por

el Ilustre Ayuntamiento de la Villa de Oñate

Con motivo de la Festividad de Corpus Christi

Día 8 de Junio 1955 — Hora, 10 de la noche



Programa

1.ª PARTE

1) "JEDLIMO" y "BURRUNTZI", monólogos vascos interpretados por Faustino INZA.

2) Presentación de la AGRUPACION CORAL "OÑATI" bajo la dirección de José María ARZUAGA.

3) PREGON DEL CORPUS, por el sacerdote Don José María de AGUIRREBALZATEGUI.

2.ª PARTE

4) "AUKERAREN MAUKERA, AZKENIAN... OKERRA", monólogo vasco de María Dolores Aguirre, interpretado por Rosita ARRUABARRENA.

5) Concierto de violín a cargo del eminente concertista Antonio ALVIRA, acompañado al piano por Tomás ECHARRI, Director del Conservatorio de Música de Vitoria.

6) Actuación de la AGRUPACION CORAL OÑATI.









T. Alzagaren "Osaba" antzezlaneko eszena. Tolosako Lizardi taldea, 1956ko uztaila.



Antonio Maria Labaien (1898-1994).

"Ezkondu ezin ziteken mutila" antzezlaneko eszena. Tolosako Lizardi taldea, 1956.



"Bost urtian" antzezlaneko eszena. 1956-XII-21.





TEATRO PRINCIPAL

21 DE DICIEMBRE 1956 — SANTO TOMAS — 6,30 TARDE Y 10,30 NOCHE

PRESENTACIONES DEL TEATRO VASCO

Organizadas y patrocinadas por el CENTRO DE ATRACCION Y TURISMO a cargo del Cuadro Artistico de la ESCUELA DE LA LENGUA Y DECLAMACION VASCA del Excmo. Ayuntamiento de SAN SEBASTIAN

1.º - La comedia en dos actos, original de D. Toribio Alzaga

BOST URTIAN

— REPARTO —

Axun — Srta. Arruabarrena
Teresa — » Agote
Pantxo — Sr. Beorlegui
Patxiko — » Gurruchaga
Lukax — » Eceiza

2.º - El juguete cómico en un acto, de D. Toribio Alzaga

EZER EZ TA FESTA

— REPARTO —

Antoni — Srta. Arruabarrena
Juanito — Sr. Montes
Sr. Tolarechini



*Imanol Barriola eta Donato Ugartetxea "Goi-Argi" antzezlanean. 1959-IX-7.*



SALON AÑORGA

1957 JULIO 22

7 TARDE

Representación

del juguete cómico en tres actos, original de Don Toribio Alzaga

Mutilzar

Será interpretado por el Cuadro de Arte de la ESCUELA DE LA LENGUA Y DECLAMACION VASCA del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián

REPARTO

(por el orden de aparición en escena)

| | |
|---|---|
| Mari Krux | Srta. Arruabarrena |
| Miel Mai | Sr. Eguilegor |
| On Patrixio | Sr. Tolarechipi |
| Kontxexi | Srta. Apaolaza |
| Xaloma | Sra. Tolarechipi |
| Kondo | Sr. Olegui |
| Joxpa Akiña | Sra. Echániz |
| Joxe Austin | Sr. Eceiza |

NOTA IMPORTANTE.—No se permitirá la entrada a los menores de 14 años.



*Abelino Barriola 1876-1944.*



Teatro Principal

21 Diciembre

6,30 DE LA TARDE
Y
10,30 DE LA NOCHE

SANTO TOMAS

REPRESENTACION

de la Comedia Vasca en tres actos original de D. AVELINO BARRIOLA, titulada.

Lagun Txar Bat

Organizada y patrocinada por el Centro de Atracción y Turismo con motivo de las FIESTAS DE SANTO TOMAS, e interpretada por el Cuadro Artístico de la ESCUELA DE LA LENGUA Y DECLAMACION VASCA, del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

REPARTO

| | |
|---|---|
| Mikela | ROSITA ARRUABARRENA |
| Karlota | MIRENTXU MONAIZ |
| Josepatxu | MIRENTXU ASOTE |
| Kaltuna | MIRENTXU VICANDI |
| Lamperna saltzaile | BLANQUITA MENAYA |
| Aitona Juanpe | GREGORIO BEORLEGUI |
| Bosi | MANUEL BARRIOLA |
| Angel | JOSE MARIA ECHEVESTE |
| Paco | JAVIER TOLARECHIPI |
| Biroe | JUAN ECEIZA |
| Tatzaleo | G. GURRUCHAGA |
| Koipe | J. MERECIARTUA |
| Matilla | C. MENAYA |
| Mikelotxo | J. FALLIN |

En los entreactos actuarán los famosos bersolaris «BASARRI» y «UZTAPIDE».

PRECIOS DE LAS LOCALIDADES

| | | | |
|---|---|---|---|
| Butacas de patio | 25 Ptas. | Delt. sillones principal | 20 Ptas. |
| Delantera entresuelo | 25 » | Sillones principal | 15 » |
| Palcos | 22 » | Delantera galería | 12 » |
| Sillones entresuelo | 20 » | Galería | 10 » |

Las localidades podrán retirarse de las taquillas del Teatro Principal a partir del día 18 de Diciembre.



*Jose Etxebeste eta Rosa Arruabarrena.*

*"Lagun txar bat" antzezlaneko eszena.*





"Eun dukat" antzezlaneko eszena.






"Ramuntxo" antzezlaneko eszena.






Jose Elizondo, 1915ean saritutako "Dollorra" antzezlanaren egilea.






Manuel Lekuona (1894-1987).

















*"Amal" antzezlaneko eszena eta liburuaren azala.*



*"Amal" antzezlaneko eszena.*



*Bagera Elkartea Maria Dolores Agirre omenduz. 1994.*



*Maria Dolores Agirre (1903-1997).*









"Bestelakoa"

(DISTINTO)

Drama en dos actos de Eugene O'Neill

REPARTO

Dirección:

Cuadro de Arte

"JARRAI"



CLUB DE TEATRO

DE

SAN SEBASTIAN

Teatro Principal

1964 DIA 16 MAYO

EL CUADRO ARTISTICO

"Zurgin zaharra"

REPARTO:



*A. Camusen "Gizon Zuzenak-Los Hombres Justos" antzezlaneko eszena. Antzezlea, Xabier Lete Jarrai taldekoa.*






*José Olaizola Abelino Barriolaren "Zorigaiztoko eguna" zarzuela zuzentzen.*



*T. Monzonen "Zurgin Zaharra" antzezlaneko eszena, 1964.*



*Tennesse Williamsen "El zoo de cristal" antzezlaneko eszena. Jarrai taldea, 1962.*



*V. Ruiz de Añibarroren "Ito edo ezkondu" antzezlaneko eszena. Jarrai taldea, 1962.*



*"La Muralla" antzezlaneko eszena. Jarrai taldea.*



*T. Monzonen "Menditarrak" antzezlaneko eszena. Jarrai taldea, 1962.*



*"Beste mundukoak eta zoro bat" antzezlaneko eszena. Jarrai taldea, 1964.*



*"Garo Usaia" antzezlaneko eszena.*

*"Beste mundukoak eta zoro bat" antzezlaneko eszena. Principal Antzokia. Donostia, 1964.*





*Joseba Olaizolaren "Markesaren Alaba" antzezlaneko eszenak Kimuberri taldearekin. Alegia, 1965.*

handia izan zen. Gainera, euskara mantentzeko lantegian ekarpen aski positiboa egin zuen.

60ko hamarkadan Euskal Herri osoan barrena talde berriak sortuz joango dira, eta une horretan beste talde donostiar bat nabarmenduko da. *Jarrai* (1960-65) izena zuen, eta joera nazionalista zaharrekin hautsi zuen ezen, Muñoz Seca antzezteaz gain, Tennesee Williams, Priestley, O'Neill, Ibsen eta Camus taularatu baitzituzten, antzerki belaunaldi eta proposamenen arteko gatazka eraginez.141

## • Pierre Lartzabal eta Antonio Labaien

Esan liteke Antonio Labaien eta Pierre Lartzabal euskal antzerkiaren oinarrizko bi zutabeak direla, lehena Hegoaldekoa eta bigarrena Iparraldekoa, eta, beren lanen katalogoari begira egiaztatu ahal izango denez, biak ala biak egile emankorrenak dira. Gerra aurrean hasi ziren argitaratzen. Labaien (1898-1994)142 tolosarra, belaunaldi berriekiko oso kritiko agertu arren, XX. mendeko abangoardiako hainbat egileren itzultzaile izan da, hala nola Castelao, Dürrenmatt, Ionesco, Frisch eta Brechtena, eta bere jarrera, horrenbestez, eklektikotzat har daiteke. Batetik, eszenatokira egile europar edo amerikarrak ekartzera ausartzen diren talde gazteak kritikatzen ditu, eta, bestetik, euskal mundura antzerki sinbolistaren, absurduaren antzerkiaren edo antzerki epikoaren egile esanguratsuak ekartzen ditu.

Lartzabalen jarrera, zeinaren ikurra *Matalas* antzezlana bita, argiagoa da. Aipatu lanak, *Antzezkilarien Biltzarra* taldeak 1968an, Baionan, antzeztua, aldi berri bati hasiera emango dio. Aldi horrek, garaiotan egile gaztea zen Daniel Landarten gidaritzapean, fruitu goraipagarriak eman ditu, *engagé* tankerako antzerki moldean, Euskal Herriko hizkuntza eta historiarekin engaiatua. Antzezlanetan historia horretako funtsezko pertsonaiak aurkezten dira eta, aldi berean, oinarrizko aldarrikapen, historia ofizialak berariaz baztertu eta antzerkiak gogorazitako historia baten ikasbide eta berreskurapen gisa ere jokatzen du. Antzerki mota horrek drama historikoan inspirazio iturri kasik agortezin bat aurkitu du.

Landartek143 adierazten duenez, antzezlan horietan, pastoral modernoetan bezala, *Etxahun, Bordaxuri, Matalas* ..., beste pertsonaia ospetsu askoren artean, birsortzen eta islatzen dira, irudimenaren eta anakronismo poetikoen bidez, funtzio didaktiko garbiaz.

Ez da hori, ordea, Lartzabalek nahiz bere jarraitzaile Landartek jorratuko duten genero bakarra, egile horien lanetan ugari baitira ohiturazko lan komikoak eta kritika politiko eta sozial garaikideko lanak, eta joera sinbolistako lanak ere ez dira falta.

1975 inguruan, gerraosteko antzerkian hiru belaunaldi bereiz zitezkeela uste zen. Nire iritziz, hiruak une jakinen batean batera eman ziren arren, gaur egun irudi nahiko eklektikoa eskainiz, agerikoa da belaunaldi horiek hiru une politiko eta kultural zehatzi dagozkiela.




Lehenengo belaunaldia, non Nemesio Etxaniz eta Augustin Zubikarai sartu bainituen, geroago Txuma Lasagabasterrek144 Lartzabal eta Begiristain erantsi zituelarik, beren lantegia gerra aurretik hasi eta gerraostean nekaezin jarraituko zuten egileek osatzen dute. Talde horretan sar daitezke, berebat, antzerkigintza nahikoa heterogeneoa ageri duten Maria Dolores Agirre eta Antonio Labaien.

Bigarren belaunaldia 60ko hamarkadan sortu zen, eta bere ordezkari nagusiak Gabriel Aresti eta Salvador Garmendia ziren. Azken honen *Historia Triste bat* lana, ordea, garai hartan eragin handia izan zuen arren, obra isolatua zen, nahiz eta *Jarrai* taldeak ere haustura eta antzerki existentzialistaren aldi hura aldarrika dezakeen, bere ibilbide luzearen barruan.

Azkenik, hirugarren belaunaldia 70eko hamarkadan osatuko da, Atxaga, Haranburu, Lete, Arozena, Landart eta abarrena. Belaunaldi horri beste bat gainera dakioke, frankismoaren azken urteetan baino frankismo oste betean sortutako egile eta taldeek osatua, hala nola Koldo Amestoy, Eneko Olasagasti, Xabier Mendiguren, Yolanda Arrieta...

## • Gabriel Aresti eta Bernardo Atxaga

Gabriel Aresti (Bilbo, 1933-1975), Eneko Olasagasti145 kritikari gazte, antzerkigile arrakastatsu eta zine zuzendariaren hitzetan, *azken antzerkigilea* da. Antzerkigilearena bide da, ordea, poeta bilbotarraren alderdirik ezezagunena. Aresti mundu mailako antzerkigileak, Ugo Betti edo Ramón de Valle-Inclán kasu, euskarara ekartzen ahalegindu zen, egile horien obra bana *Delito all'isola delle capre* eta *Divinas palabras* hurrenez hurren, itzuliz; XVIII. mendeko euskal antzerkia argitaratu zuen, Barrutiaren balioa aldarrikatuz, eta baita XIX. mendeko Jakes Oihenarte egilearen *Kaniko eta Beltxitina* xaribari fartsa ere; eta antzezlan originalak sortu zituen, beti ere antzerki talde gazteei loturik eta antzezleekin harreman zuzenean. Horientzat idatzi zituen *Mugaldeko herrian eginikako Tobera*, 1961eko Toribio Alzaga saria, ...*Eta gure heriotzeko orduan*, *Justizia txistulari* eta abar.

Bere irudi kritiko eta tremendista, otso bakartiaren tankerakoa, antzezlanetan boterearen arbitrariotasunaren eta euskal moral tradizionalaren aurkako jarreran islatzen zen. Arestik tradizio eta abangoardiaren arteko sintesi bat sortu zuen, etiketa ororen balio erlatiboa aitorturik herri antzerki iraultzailetzat kalifika litekeena. Aresti, zalantzarik gabe, 60ko hamarkadako euskal kulturaren munduan eragile nagusia izan zen.

Arestik sustatutako idazleetako bat, geroago, antzerkigintzagatik baino narratibagatik, nazioarteko ospea lortu duena, Bernardo Atxaga da.

Euskal letren munduan 1972. Urtean agertuko da, obra arras sinbolista batez, *Borobila eta puntua* izenekoa, non osagai herrikoiak eta abangoardiakoak nahasten baititu. Bi osagai horiek aldarrikatuko ditu, hain zuzen, *Anaitasuna* aldizkarian argitaratzen duen «Euskal Theatro Berria(ren bila)» manifestuan.146

**NHI** antzerkia deitzen duen horren oinarrizko hiru osagaiak inizial horiek gordetzen dituzten izenak dira zehazki. N Nazionala, H Herritarra eta I Iraultzailea. Testuan zehar, Atxagak batetik antzerki aurreko eta antzerkiko molde tradizionalak aipatzen ditu, bertsolaritza, pastoralak eta jolasak kasu, eta, bestetik, XX. mendeko egile, teorialari eta taldeen izenak ageri dira, hala nola Stanislawsky, Brecht, Roy Hart, Grotowsky, Artaud, Peter Brook, Sastre eta abar. Berebat, *Intxixu* eta *Cómicos de la Legua* antzerki taldeen garai hartako esperientzia zinez abangoardiakoa aipatuko du.

## • Antzerkigintza 90eko hamarkadan

Atxagak duela zehazki hogeita bost urte manifestu hori argitaratu zuenetik, Euskadin antzerkiaren teoria eta praktika anitza izan da, eta askotariko emaitzak eman ditu.

Antzerki jarduerak, gorabeherak medio, bizirik dirau eskolan, kalean, Erakundeen babespean udal, herrialde edo komunitate mailan sortuz joan diren antzerki tailer ezberdinetan. Antzerki jaialdi eta taldeak, horietako zenbait bizialdi aski laburrekoak,















Pierre Larzabal (1915-1988).



*Herriko Bozak taldeko antzezleak.*



*Lezoko Allerru taldeko Patxi Larrea eta Iñaki Tolosa "Senperen gertatua" antzezlanean.*

*Ezkerrean, Pierre Larzabal. Eskuinean, Daniel Landart, eta koadroan, Telesforo Monzon.*





*P. Larzabalen "Matalas". Baiona, 1968.*





*Estanislao Urruzola "Uxola" (1909-1986).*



*"Askatasun garratza" antzezlaneko eszena.*




















Gabriel Aresti (1933-1975).





















Bernardo Atxaga.



Daniel Landart.








Iñaki Begiristain (1922-1984).



A. Zubikarairen "Kresaletan" antzezlaneko eszena. 1991.



"Orria 778" edo "Altabizkarko kantua" antzezlaneko eszena. 1980.




Cartel de "Karlistadaren kronika".



Intxixu taldearen "Txirritarren astolasterra" antzezlaneko eszena. 1980.








"Jaunaren bidetan" antzezlaneko eszenak eta programa. 1959.








"Kresaletan" antzezlaneko eszenak eta programa.


MOMOTXORROEN
IHAUTERI
ALTSASU
CARNAVALES
DE ALSASUA
(Febrero 1982)
Martes 23


Historia del soldado
igor stravinsky
kolektibo
KARRAKA
euskadiko antzerki
ibiltaria


KARRAKA
TEATRO INFANTIL
tutti
frutti
eskola


Tutti frutti eskola
KARRAKA






*Bordaxuri antzerki taldea A. Labaienen "Basajauna" antzelanean. 1984.*






*Steinbecken "Itsas izar bat zen" antzezlaneko eszena, Francis Basterotek zuzendua. 1985.*






*Koldo Amestoy.*









*Guillaume Irigoienen "Hamar Manu Minduak" antzezlaneko eszena. Donibane Garazi, 1987-V-6.*









| 5. taula Sariak | | |
|---|---|---|
| **Toribio Alzaga saria** | | |
| 1990 | **Xabier Mendiguren** | *Pernando, bizirik hago oraindio* |
| 1991 | **Luis Haramburu** | *St Cyran, Jainkoa gorderik* |
| 1992 | **Junes Casenave** | *Agota* |
| 1993 | Eman gabe | |
| 1994 | **Xabier Mendiguren** | *Hilerri itxia* |
| 1995 | **Juanjo Olasagarre** | *Hegazti erratia* |
| 1996 | **Martin Irigoien** | *Hautsi da kristala* |
| 1997 | **Karlos Linazasoro** | *Burdin denda* |
| 1998 | **Juan Karlos del Olmo** | *Jon Gurea, Parisen hatzana* |
| 1999 | **Mikel Ugalde** | *Bake biltzarraren ildotik* |
| 2000 | **Juan Karlos del Olmo** | *Aldi joana, Joana* |
| 2001 | **Alaitz Olaizola** | *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin* |
| **Donostia Hiria saria** | | |
| 1991 | Eman gabe | |
| 1992 | **Koldo Daniel Izpizua** | *Lore zimelduen sua* (akzesit) |
| 1993 | **Xabier Mendiguren** | *Garaia da Euskadi* |
| 1994 | **Ramon Agirre** | *Errenta* |
| 1995 | **Aitzpea Goenaga** | *Zu(t)gabe* |
| 1996 | **Antton Luku** | *Tu, quoque fili.* |
| 1997 | **Anton Luku** | *Antxo Azkarra, edo Miramamolinen esmeralda* |
| | | ´Sancho El Fuerte o la esmeralda de Miramamolín´. |
| 1998 | **Pantxo Hirigarai** | *Beherearta.* |
| 1999 | **Frantzisco Xabier Zillero** | *Uztailaren laua Renon* |
| 2000 | **Pantxo Hirigarai** | *Lamindegiko laminak* |
| 2001 | **Enkarni Genua** | *Ostiralero afaria* |
| 2002 | **Pantxo Hirigarai** | *Garatenea.* |

izugarri ugaldu dira, baina jaialdi horietako askotan euskarazko taldeen presentzia sinbolikoa da. Mundu mailako klasikoak moldatzerakoan lan bikainak egin dira, Strindberg edo Darío Forekin adibidez, baina beste batzuetan milioi askoko muntaketetan egindako hutsegiteen kariaz, *Pipin* antzezlanarekin kasu, egunkariek hasieratik EAJko politikarien eskuetan egon den Eusko Jaurlaritzaren antzerki eta, are ago, kultur politika okerra kritikatu dute.

*Antzerti Zerbitzua*, zeinarekin inoiz lan egin baitugu, ez da modu oso egokian eraman, eta horrek euskal antzerki munduaren kexu ugari eragin du; politika horren ondorioz, adibidez, nazio mailako aldizkari bakarra, *Antzerti Berezia*, nahiz bere antzezlanen bildumak bizialdi laburra izan dute, eta herri askotan oraindik antzezleku egokirik ez dute, antzezpenak maiz frontoi eta polikiroldegietan egin behar izaten direlarik. Alabaina, Kultura sailburu Joseba Arregik147 euskal antzerkiaren egungo egoerari buruzko ikerlan bat aurkezterakoan egindako adierazpenak nahikoa zuzenak dira, dioenean *antzerkia osotara erakundeek emandako dirulaguntzen mende dagoela, ahaztu gabe antzerkiaren profesional asko bizirauteko zinea, telebista eta bikoizketa bezalako alorretan lan egitera behartuta dagoela*. Ikerlan horretan jasotzen da, halaber, egun 29 euskal konpainia dagoela, horietatik 30ek bere burua profesionaltzat duelarik, nahiz eta oro har konpainia horien egoera oso kezkagarria den. Literatura dramatikoari dagokionez, egoera taldeena bezain larria da, larriagoa ez bada, lur jota eta desagertzeko zorian baitago, mendearen lehen herenean literatur generorik ugariena zenean.

**5. taulan** erakunde ezberdinek antolatutako lehiaketa nagusiak –Euskaltzaindiaren Toribio Alzaga edo GKren Donostia Hiria Saria– irabazi dituzten antzerkigile gazteak bildu ditugu.

Segidan egun generorik baztertuena den literatura dramatikoan saritutako egileen aurkezpen biobibliografiko labur bat egingo dugu.

**Xabier Mendiguren** (Beasain, 1964)148 antzerkigile sarituena da, baina, *Egunkaria*n (1999-VII-10) arestian egindako adierazpen batzuetan dio *antzerkigintza ia bazter utzita duela, antzezlanak argitaratzea nahikoa etsigarria baita, antzerki liburuak irakurlerik ez duelako*. Gaztea den arren, literatura asko idatzia da, eta bere antzerkigintza honako lan hauek osatzen dute: *Kanpotarrak maisu* eta *Kultur ministrariak ez digu errukirik*, biak ala biak 1986an idatziak, «Telesforo Monzon» Antzerki Saria irabaziak eta 1987an batera argitaratuak. Bi lanok komedia satirikoak dira. *Publikoari gorroto* antzezlana, hau ere 1986koa, Euskaltzaindiak sustatutako «Toribio Alzaga» Sariaren irabazle gertatu zen, eta 1987an argitaratu. Antzezle batek taula gainean ikusleak ordezkatzen dituzten bere bi lagunekin egindako «happening» moduko esperimentu formala da. 1986an idatzitako *Pernando, bizirik hago oraindio* lanak ere aurretik aipatu Sari bera eskuratu zuen (1988), eta 1989an argitaratu zen. *Zabortegia*, *Hiru jolas gaizto* eta *Horren maite zaitut* 1987an idatzi zituen, eta 1993an liburuki bakar batean argitaratu ziren. *Garai(a) da Euskadi* 1990ean idatzia da, eta planteamendu politiko nabaria du. Eta azkenik, oraingoz, 1994an *Hilerri itxia* idatzi zuen, *Primer Acto*n argitaratu zena (1997). Mendiguren Beasain bere jaioterrian hilerri baten ondoan bizi izan zen, eta urteen joanarekin hilerria itxi egin zuten, zaharkituta zegoelako, eta beste nonbait lekututako handiagoa zen beste batez ordezkatu. Bere balkoitik udaleko langile batzuek leku zaharra nola husten zuten ikusteko aukera izan zuen, hango gorpuzkiak atereaz, esparruari beste erabilera bat eman behar zitzaion eta. Irudi hori betiko gogoan geratu zitzaion eta, denborarekin, antzezlan bat sortzeko gaia eskaini zion. Lan horretan, hilerria «garbitzeko» lantegian ari direla bi pertsonek



*I. Uria y M. Antza "Beteluko Balnearioko Mirakulua" antzezlaneko eszena.*



*"Beteluko Balnearioko Mirakulua" antzezlaneko eszena. Branka taldea.*



*"Isogai Umila" antzezlaneko eszena. Txo Kolektiboa.*



*"Mutil zar" antzezlaneko eszena. Lizardi taldea. 1984.*



*"Gastibeltzaren Karabinak" antzezlaneko eszena. Maskarada taldea.*



*"Gernika" antzezlaneko eszena. Goaz taldea.*

*"Txapela bete Euri" antzezlaneko eszena. Lizardi taldea. 1984.*



*J.B. Beneten "Supertot" antzezlaneko eszena. Gazteiz taldea. 1987.*




1985-KO ABENDUAREN 3-TIK-21-RA
III EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK
AZPEITIA




ANTZERTI
ANTZERKI
ZABALKUNDERAKO
ALDIZKARIA


GASTIBELTZAREN
KARABINAK
MASKARADA


teatropolitan
NEKRASSOV
J.P. SARTREren KOMEDÍA


ANTZERKIA
IRUÑEA
TUTERA
LIZARRA
TAFALLA
ETXARRI ARANATZ
LEKUNBERRI
LEITZA
LESAKA
ELIZONDO
BERA BIDASOA
NAFARROAN
ciclo de teatro en euskera


BILBOKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE BILBAO
Gazteen Arloa · Area de la Juventud
EUSKADIKO TXOTXONGILOEN URTEROKO AGERKETA
Muestra Anual de Títeres de Euskadi - 1985
Del 21 al 27 de Octubre - Teatro Ayala


BIDASOAKO 6. HERRI ANTZERKI SAIOAK
6ª JORNADAS de TEATRO POPULAR del BIDASOA


herriz herri '86


BILBOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BILBA
EUSKADIKO TXONTXONGILOEN
URTEROKO AGERKETA
Muestra anual de Títeres en Euskadi
Del 19 al 24 de noviembre
Teatro
ALBENIZ


VIII NAZIOARTEKO
TXOTXONGILO JAIALDIA
VIII FESTIVAL INTERNACIONAL DE MARIONETAS
TOLOSA 23-11-90 / 1-12-90 C.I.T.


BILBOKO
NAZIOARTEKO
VIII. TXOTXONGILO
JAIALDIA
VIII FESTIVAL
INTERNACIONAL
DE TITERES
DE BILBAO
TEATRO ARRIAGA
ARRIAGA ANTZOKIA
TEATRO AYALA
AYALA ANTZOKIA
CASA DE CULTURA DE BARRAINCUA
KULTUR ETXEAN BARRAINKUA
DEL 8 AL 16 DE DICIEMBRE
ABENDUA 8tik 16ra
BILBOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BILBAO


ANTZERTIA
herriz herri 87


XII FESTIVAL INTERNACIONAL DE TEATRO DE VITORIA-GASTEIZ
NAZIOARTEKO ANTZERTI JAIALDIA
OCTUBRE 1987 URRIA


EUSKAL ANTZERKI TALDEEN BILTZARREA
EIHARTZEA HAZPARNEKO KULTUR ETXEAK
Hazparne Aldean
GALARROTSAK
festival du théâtre basque
EUSKAL HERRIKO KULTUR ETXEA - Centre Culturel du Pays Basque


galarrotsak 86
HAZPARNE ALDEAN


galarrotsak 87
HAZPARNE ALDEAN


GALARROTSAK
KULTUR BIDEETAN
MASKARADA
KUKUBILTXO
ANTXIETA . IKIMILIKI
HIKA . BORDAXURI
DONIBANE LOHITZUNE

beren afanak, sentimenduak eta zalantzak adierazten dituzte.

**Luis Haranburu,** (Alegia, 1947)149 obra historiko ugariren egile da: *Gernika* (1977), *Lancre, Loiola, Sabino, Zumalakarregi* (1986), *St Cyran* (1992)... Bere pertsonaiak zehatzen islatzera ahalegintzen den egilea bide da (beti pertsonaia historikoak dira), haiek araztu, sinplifikatu eta giza ezaugarriez hornitzen saiatzen da, baina oro har ez du bere xedea lortzen, pertsonaiak eskema ideologiko hutsak baizik ez direlarik.

**Koldo Daniel Izpizua** (Zumaia)150, *El País* egunkariaren ohiko zutabegilea, antzezlan baten egile da, *Lore zimelduen sua* izenekoa, zeinak idazle sinbolisten eta Arrabalen eragina ezagun baitu, *Automobilen hilerria* obraren tankerako mundu bat aurkezten duelarik.

**Ramon Agirre** (Donostia)151, azken hamabost urteotako antzezle lanagatik ezagunagoa –zenbait filmetan parte hartu du, eta *Barrenkale* bezalako telebista serieetan–, *Errenta* izeneko lantxo baten egile da, zeinetan, komedia moduan, pisu baten bila dabiltzan gazte batzuen arteko harremanak eta arazoak agertzen baititu.

**Aitzpea Goenaga** (Donostia, 1959)152 ere batik bat antzezlea da. Ikasketak Antzertin, Madrilen eta New Yorken egin ondoren, Euskal Herrira itzuli zen, bertan lan ugari egin duelarik.

1992an Murtziako Paco Rabal zinemaldian emakumezko pertsonaiaren saria irabazia, *Santa Kruz apaiza* filmagatik, *Zu(t)gabe* izeneko bere antzezlanean senarra Antton galdu berria duen Isabelen bizitza kontatzen du, atzera begirako planteamendu batez eta bakarrizketa moduko batean, bi pertsonaien arteko elkarrizketa bihurtuz joango dena.

**Juanjo Olasagarre** (Arbizu)153, Audenen itzultzaile eta poesia zein bidaia lanen egile, *Hegazti errariak* (1996) antzezlanaren sortzailea da, lan bizi eta freskoa, non pertsonaiak etengabe eta ero moduan beren buruetatik ihesi baitabiltza.

**Martin Irigoien** (Garazi)154 Pirinioez bestaldeko egilea *Hiruak bat* taldeko antzezlea da. Egile honen *Amikuzeko toberak* (1991), gaur egungo kritika soziala egiten duen fartsa, eta *Hautsi da Kristala*, XVI. mendean girotutako baina joera sinbolista ageri duen antzezlana, azken urteotan idatzitako obra bikainenen arteko ditugu.

**Karlos Linazasoro** (Tolosa, 1962)155 *Burdindenda. Tragikomedia sasieruditoa ekitaldi bakarrean* (1998) antzezlanaren egilea da. Lan horretan, bi pertsonaien bidez soilik, Saltzailea eta Gaztea, gizakien arteko komunikazioaren edo, hobeto esana, inkomunikazioaren gaia jorratzen du. Giro itxi eta obsesibo, itogarri batean, ironia eta umore beltza nahasten dira, atzean etengabe suizidioaren gaia duten elkarrizketa labur eta zirtatsuetan. Azkenean, itxaropenari bide ematen zaio, eta Edertasuna eta Utopia xede duten itaunez koroatutako *happy end* batean.




*Antzertiren "Las troyanas" antzezlanaren horma-irudia, Esteban Polls zuzendari.*

*"Pistolaren begi zuri-beltzak" antzezlaneko eszena. Maskarada taldea. Bilbo, 1984.*



**Antton Luku** (San Francisco, 1959)156 Ezterenzubin, Nafarroa Beherean, bizi da, maisua da, antzezlea izan da, toberen emanaldietan parte hartuz, eta antzerkigilea da. Idazle honek ere historia gai gisa erabiltzen du, baina ikuspegi sinbolista batetik. Bere antzezlanen artean honakoak nabarmenduko ditugu: *Ezkonduko ditugu* (1995), *Tu quoque fili* (1996), non Baionako familia burges baten kritika garratza egiten baitu, *Antso Azkarra edo Miramamolinen Esmeralda* (1997), eta, bere ikasleentzat berariaz idatziak, *Manuela* eta *Gerezitzea*.

**Pantxo Irigarai** (Baigorri, 1957),157 Adour Irratiko kazetaria , Euskadi Irratiko eta, 1984az geroztik, Irulegi Irratiko berriemailea, Xirrixti-Mirrixti taldeko antzezle, aipatu taldeaz Daniel Landarten158 zenbait antzezlan jokatu duena (1984, *Nola jin ala joan*; 1986, *Gazteluko mutxurdinak*; 1991, *Gezur mezur*, eta 1995, *India Beltzak*), antzerkigile ere bada, besteak beste honako obrak idatzi dituelarik: *Antton eta Maria* (irratirako antzerkia), *Otsoa eta bildotsa alegia* (Kakotx antzerki taldearentzat idatzia), eta *Pontzio Gauxori* (Baigorri, 1992), *Otto Kristobal* (Baigorri, 1997), *Lamindegiko lamiak* (2000) eta *Garatenea* (2002) toberak. Hirigaray, bada, Nafarroa Behereko antzerki munduko eragile nagusietakoa da.

**Juan Karlos Del Olmo** (Barakaldo, 1958),159 Barakaldoko Antzerki tailerraren Zentro Iraunkorreko irakasle eta zuzendaria, 1993az geroztik Donostiako udalean itzultzaile gisa dihardu. 1995ean ipuin liburu bat argitaratu zuen, *Innis Fodhla, amonaren ipuin irlandarrak* izenburukoa. *Jon gurea, Parisen hatzana* (1998) antzezlanaren egile da, zeinetan nik neuk nolabait esku hartu dudalarik, Jon Mirande poeta eta nobelista euskaldun-paristarraren bizitza ehuntzeko darabiltzan testuak batik bat azken egile horretaz argitaratu ditudan lau obra ezberdinetan jasotzen baitira.160 Bestalde, *Aldi joana, Joana* idatzi zuen, Alzaga saria irabazi zuena.

**Frantzisko Xabier Zillero** (Bilbo, 1961)161, narratzailea eta Hemingway, Fitzgerald, Bloch, Chandler, Twain, Dickens, eta abarren itzultzailea, 1999ko Donostia Hiria saria irabazia da, *Uztailaren laua, Renon* obrarekin. Estatu Batuetan girotutako lan horretan emigrazioaren eta belaunaldien arteko harremanen gaia jorratzen du, eta, euskaldunei buruz ari bada ere, baliatutako ikuspegia unibertsala da.

**Enkarni Genua** (Donostia, 1942). 1971an Manolo Gomez senarrarekin Txontxongillo Taldea sortu zuen, Euskal Herriko azken lamia Erreka Marirekin Euskal Herri osoa kurritu duena. 21 disko argitaratu ditu, eta *Ostiralero Afaria*162 antzezlanaz bere jaioterriko Donostia Hiria saria irabazi zuen. Lan horretan euskaldunen artean hitz egiteko premia planteatzen du, egungo egoera tragikoa gainditu ahal izateko.

* * *

Frankismo ondorengo euskal literatura dramatikoa laburbiltze aldera, hainbat joera eta korronte (errealismoa, kostunbrismoa, sinbolismoa, antzerki komikoa, antzerki tragikoa, antzerki historikoa, absurduaren antzerkia...) dagoela nabarmendu beharko litzateke, eta oro har egileak nahikoa gazteak direla. Antzerki historikoan datua eta zehaztasuna ez dira garrantzitsuak, gaur egungo egoera politikoa salatzeko edo, pastoralean bezala, kanta eta dantza bezalako osagai poetikoak sartzeko aitzakia hutsa baino ez direlarik.



*"Maskarada" antzezlanaren horma-irudia.*

Ez da harritzekoa, beraz, historiaren eta indarkeriaren eguneroko izuaren –azkenaldian baretuz doala dirudien arren– ikuspegi objektiboki eta zinez negatibo baten aurrean, ugaltzen ari dena antzerki komikoa izatea, Labaienek proposatutako antzerki-poetikaren ikurritzaren ildotik, *negarra labur irria luze*, Rabelaisek zioen bezala hobe baita barreei buruz idaztea, negarrei buruz baino, barre egitea izaki gizakiak berezko duena.



*Antzerti taldea. Strindbergen "La danza de la muerte".*



*Antzerti taldea. Goldoniren "Arlequino, criado de dos amos". 1983.*

*Maskarada taldea Gasteizko plazan.*



*Euskal Antzerkiari buruzko erakusketa. Ezkerretik eskuinera: Patricio Urkizu, Manuel Lekuona, Ramon Labaien eta Eugenio Arozena.*





Imanol Elias, Azpeitiko Antxieta taldeko zuzendaria.



Imanol Eliasen "Iru morroiak" antzezlaneko eszena. 1987.

Antxieta taldearen "Lapurreta urtsua" antzezlaneko eszena. 1984.







Talde Berri Bat. Ekeikei, 1989.





*Xabier Mendiguren.*






*Eskuinetik ezkerrera: Idoia Sagarzazu, Olatz Beobide eta Ane Gabarain "In Fraganti" antzezlanean.*



*Ane Gabarain kantuan, eta Olatz Beobide eta Idoia Sagarzazu dantzan "In Fraganti" antzezlanean.*



*"Pernando bizirik hago oraindio" antzezlaneko eszena, Lukas Dorronsorok zuzendua. 1992.*



*Hankagorriren "Los astronautas de Urbasa" antzezlaneko eszena. 2001.*



*"El Florido Pensil". Tanttaka taldea, 1997.*

*"Ama begira zazu" antzezlaneko eszena.*



*"Ama begira zazu" antzezlanaren horma-irudia.*






Aitzpea Goenaga.






Martín Irigoien.




Antton Luku.








*Karlos del Olmo Serna.*




*Javi Zillero.*














*Pantxo Hirigarai.*



Enkarni Genua eta bere senar Manolo Gómez.




Txotxongiloak, "Printze txikia" antzezlanaren bertsioa.










*Urtzi Urkizu «Los viajes, tesina trágico-cómica y lectum onírica de textos» antzezlanean. Gasteizko gaztetxea.*



*Oier Guillán «Los viajes, tesina trágico-cómica y lectura onírica de textos» antzezlanean. Gasteizko gaztetxæa.*



*Maskarada taldeko Mikel Martínez eta Patxo Telleria "Historias de un contenedor" antzezlaneko eszenetan. 2002.*



| Itzulitako antzezlanen zerrenda | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egilea** | **Itzultzailea** | **Izenburua** | **Argitaletxea** | **Urtea** |
| Acosta (J.) | Murua (R.) | *Asarre bidetan* | Auñamendi | 1967. |
| Allen (W.) | Valdés (A.) | *Jo ezak berriro* | Sam. Baroja | 1986. |
| Anonimoa | Anonimoa | *Eskaleak* | Antzerti | 1933. |
| Arana (S.) | Etxabe (A.) | *Libe* | Verdes | 1935. |
| Arriola (X.) | Bedoide (J.) | *Abaroa ta babesa* | Iñaki deuna | 1929. |
| Arroitajauregi (J.) | Arrue (P.) | *Amaya* | Leipzig | 1920. |
| Baroja (P.) | Agirre (M.D.) | *Altzateko Jaun* | Edili | 1985. |
| Beckett (S.) | Garzia (J.) | *Godoten esperoan* | Alberdania | 2001. |
| Benavente (J.) | Ibiñagabeitia (A.) | *Abere indarra* | Euzko Gogoa | 1951. |
| Benavente (J.) | Ibiñagabeitia (A.) | *Gaitzetsia* | Euzko Gogoa | 1954-55. |
| Benedetti (M.) | Alberdi (I.) | *Pedro eta kapitaina* | Susa | 1987. |
| Betti (H.) | Aresti (G.) | *Ahuntz-herriko bide-gabea* | Susa | 1986. |
| Bourges (E.) | Lafitte (P.) | *Gonzalve edo Ostatu berria* | Gure Herria | 1970. |
| Brecht (B.) | Landart (D.) | *Amaren armak* | Egan | 1984. |
| Brecht (B.) | Labaien (A.) | *Bai esalea, ez esalea* | Olerti | 1963. |
| Büchner (G.) | Anselmi (L.) | *Woiyzecken kondaira* | Iru | 1989. |
| Calderón (P.) | Iza (L.) | *Zalameako alkatia* | Euskal-Erria | 1881. |
| Calvez (L.) | Labaien (A.) | *Gachucha* | Gure Herria | 1938. |
| Campión (A.) | Begiristain (I.) | *Itzaltzuko koblaria* | Antzerti zerbitzua | dg. |
| Campión (A.) | Agirre (D.) | *Larraldeko lorea* | Donostia | 1935. |
| Campión (A.) | Etxaide (J.) | *Pedro Mari* | Erein | 1988. |
| Castelao (A.) | Labaien (A.) | *Agureok maitemindu behar ez* | Antzerti | 1984. |
| Charason (H.) | Labaien (A.) | *Berezi* | Antzerti | 1934. |
| Chejov (A.) | Lasa (B.) | *Bi antzerki labur* | Baroja | 1987. |
| Clairán (R.) | Mujika (G.) | *Neskame berria* | Euskal esnalea | 1920. |
| Dacosta (B.) | Pochelu (J.) | *Amuarrainak* | Egan | 1986. |
| Decrept (E.) | Etxabe (A.) | *Maitena* | Elexpuru | 1909. |
| Dürrenmatt (F.) | Labaien (A.) | *Gizona ta kidea* | Egan | 1963. |
| Eskilo | Amezaga (B.) | *Prometeo burdinetan* | Euzko Gogoa | 1959. |
| Euripides | Zaitegi (J.) | *Antigone* | Antzerti | 1933. |
| Euripides | Zaitegi (J.) | *Medeie* | Egan | 1963. |
| Euripides | Begiristain (I.) | *Troiako emakumeak* | Antzerti | 1983. |
| Euripides | Santisteban (K.) | *Bakanteak* | L. Haranburu | 1987. |
| Fava (A.) | Zabaleta (P.) | *Aszensorea trabatuta gelditu da* | Egan | 1995. |
| Fo (D.) | Mendiguren (X.) | *Izuaren aurpegia* | Antzerti | 1984. |
| Frisch (M.) | Labaien (A.) | *Su-emailleak* | Egan | 1966. |
| García (E.) | Jaka (D.) | *Gernikako arbola* | Ekin | 1963. |
| Ghelderode (M.) | San Martín (J.) | *Zaldun bitxia* | Egan | 1965. |
| Gheon (H.) | Markiegi (J.) | *Txerrenzubiko gertaria* | Yakintza | 1934-35. |
| Giono (J.) | Lafitte (P.) | *Chalbaten mertxika-ondoak* | Herria | 1964. |
| Goldoni (C.) | Mendiguren (X.) | *Arlekino, ni nagusiren zerbitzari* | Antzerti | 1983. |
| Humpert (P.) | A.V.A.S.C. | *Eriotz-bide* | Antzerti | 1935. |
| Ibsen (H.) | Agirre (J.) | *Andere etxea* | Egan | 1980-81-82. |
| Ionesco (E.) | Labaien (A.) | *Neskatilla ezkongai* | Egan | 1964. |
| Ionesco (E.) | Agirre (J.) | *Erregearen herioa* | Kriselu | 1987. |
| Ionesco (E.) | Muñoz (J.) | *Abeslari burusoila* | Ibaizabal | 2001. |
| Kundera (M.) | Zabalondo (B.) | *Jacques eta Nagusia* * | Susa | 1991. |
| Kundera (M.) | Aranguren (J.L.) | *Jacques eta Nagusia* * | Susa | 1991. |
| Legasse (M.) | Agote (J.) | *Gastibeltzaren karabinak* * | Susa | dg. |
| Legasse (M.) | Atxaga (B.) | *Gastibeltzaren karabinak* * | Susa | dg. |
| Lope de Vega | Etxebarria (J.G.) | *Bakar-autuak* | Bilbo | 1966. |
| Loti (P.) | Altzaga (T.) | *Ramuntxo* | Auspoa | 1961. |
| Maeterlinck (M.) | Urkiaga (E.) | *Balbia* | Klasikoak 38 | 1990. |
| Maria (M.) | Izagirre (K.) | *Berengela* | Antzerti | 1985. |
| Maria (M.) | Izagirre (K.) | *Maiatza* | Antzerti | 1985. |
| Miller (A.) | Galarreta (X.) | *Saltzaile baten heriotza* | Hiria | 2001. |
| Mir (J.) | Mujika (G.) | *Utzi biarko* | Euskal esnalea | 1919. |

* Liburu hauen itzulpenetan itzultzaile batek baino gehiagok parte hartu du.

| Itzulitako antzezlanen zerrenda | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egilea** | **Itzultzailea** | **Izenburua** | **Argitaletxea** | **Urtea** |
| Mir (J.) | Mujika (G.) | *Gizon bikaiñak* | Euskal-esnalea | 1920. |
| Molière | Amasorrain (Tx.) | *Elkorra* | Antzerti zerbitzua | dg. |
| Molière | Guilsou (P.) | *Petan mihiku* | Gure Herria | 1951. |
| Molière | Elizondo (J.) | *Dollorra* (L´avare) | Egan | 1994-95. |
| Pedrolo (M.) | Garmendia (S.) | *Gizonak eta ez* | Egan | 1969 |
| Pessoa (F.) | Sarrionandia (J.) | *Marinela* | Susa | 1985. |
| Piranuelles (A.) | Inza (D.) | *Aralar* | Egan | 1989. |
| Plauto | Labaien (A.) | *Lapikoa* | Olerti | 1969. |
| Power (J.) | Artola (J.) | *Amaya* | Leipzig | 1910. |
| Rousseau | Labaien (A.) | *Su ta gar* | Egan | 1966. |
| Ruiz (V.) | Etxaniz (N.) | *Ito... edo ezkondu* | Auñamendi | 1968. |
| Sartre (J.P.) | Olarra (X.) | *Nekrassov* | Antzerti | 1985. |
| Sastre (A.) | Lasa (M.) | *Bazterrean utzitako panpinaren ixtorioa* | Antzerti | 1983. |
| Sastre (A.) | Dorronsoro (L.) | *Ez da pale egiteko oldua* | Susa | 1985. |
| Sastre (A.) | Barkaiztegi (T.) | *Gillen Tell-ek begiak triste* | Lur | 1979. |
| Sastre (A.) | Barkaiztegi (T.) | *Hauzoko hilketa* | Lur | 1979. |
| Shakespeare (W.) | Alzaga (T.) | *Irritza* (Macbeth) | Labayru | 1990. |
| Shakespeare (W.) | Amezaga (B.) | *Hamlet* | Ekin | 1952. |
| Shakespeare (W.) | Larrakoetxea | *Obra Guziak* | Kardaberaz | 1957 hur. |
| Shakespeare (W.) | Mendiguren (X.) | *Julio Zesar* | Antzerti | 1985. |
| Shakespeare (W.) | Mendiguren (X.) | *Endrike VIII* | Antzerti | 1985. |
| Shakespeare (W.) | Mendiguren (X.) | *Zeuk nahi duzunez* | Antzerti | 1985. |
| Shakespeare (W.) | Mendiguren (X.) | *Neurriari neurriaz* | Antzerti | 1985. |
| Shakespeare (W.) | Urkijo (J.) | *Richard II* * | Antzerti | 1985. |
| Shakespeare (W.) | Sarasola (J.A.) | *Richard II* * | Antzerti | 1985. |
| Schiller (F.) | Goenaga (I.) | *Gilen Tel* | Yakintza | 1934-35. |
| Scott (W.) | Eleizalde (I.) | *Halidon Murua* | Euzkadi | 1912. |
| Sofokles | Santisteban (K.) | *Bakanteak* | Haranburu | 1987. |
| Sofokles | Zaitegi (J.) | *Antigone* | Antzerti | 1933. |
| Sofokles | Zaitegi (J.) | *Aiatz* | Darracq | 1958. |
| Sofokles | Zaitegi (J.) | *Tarakin´go emaztekiak* | Darracq | 1958. |
| Sofokles | Zaitegi (J.) | *Piloktete* | Darracq | 1958. |
| Sofokles | Zaitegi (J.) | *Eletere* | Pizkunde | 1946. |
| Sofokles | Zaitegi (J.) | *Oidipu Bakaldun* | Pizkunde | 1946. |
| Sofokles | Zaitegi (J.) | *Oidipu Kolono´n* | Pizkunde | 1946. |
| Sota (M.) | Urkiaga (E.) | *Iru gudari* | Klasikoak 38 | 1990. |
| Sota (M.) | Altuna (J.) | *Buruzagijak* | Verdes | 1935. |
| Sota (M.) | Altuna (J.) | *Urretxindorra* | Verdes | 1934. |
| Steinbeck (J.) | Bordaxuri Taldea | *Itsas izar bat zen* | Susa | 1985. |
| Steinsson (G.) | Kortazar (J.) | *Atseden laburra* | Antzerti | 1985. |
| Strindberg (A.) | Mendiguren (X.) | *Herio dantza* | Antzerti | 1985. |
| Süskind (P.) | Egiluz (J.) | *Kontrabajua* * | Susa | 1988. |
| Süskind (P.) | Urrutxua (J.) | *Kontrabajua* * | Susa | 1988. |
| Tagore (R.) | Aurre-Apraiz (B.) | *Txitra* | Egan | 1962. |
| Tagore (R.) | Sabiaga (E.) | *Amal* | Yakintza | 1933-34. |
| Trueba (A.) | Arruza (M.) | *Etxe-kalte* | Verdes | 1934. |
| Trueba (A.) | Etxeita (J.) | *Urikoa* | Mena | 1915. |
| Twain (M.) | Markiegi (J.) | *Poxpolin gorria* | Antzerti | 1933. |
| Valle-Inclán (R.) | Aresti (G.) | *Jainkoaren Hitzak* | Susa | 1986. |
| Vallejos (X.) | Iruretagoiena (J.) | *Sutan biotza* | E A | 1935. |
| Viar (N.) | Altuna (J.) | *Euzko Gogoa* | Bilbo | 1916. |
| Wesker (A.) | Monasterio (X.) | *Sugea kantari* | Bilbao | 1989. |
| Wilde (O.) | Mujika (I.) | *Salome* | Baroja | 1987. |
| Wilde (O.) | Olano (A.) | *Fidel izan beharraz* | Ibaizabal | 2000. |
| Yeats (W.B.) | Sota (M.) | *Negarrez igaro zan atsua* * | Verdes | 1932. |
| Yeats (W.B.) | Altuna (J.) | *Negarrez igaro zan atsua* * | Verdes | 1932. |

** Liburu hauen itzulpenetan itzultzaile batek baino gehiagok parte hartu du.*



THE

The Tragicall Historie of HAMLET, Prince of Denmarke.

By William Shakespeare.

Newly imprinted and enlarged to almost as much againe as it was, according to the true and perfect Coppie.

AT LONDON.
Printed by I. R. for N. L. and are to be sold at his shoppe vnder Saint Dunstons Church in Fleetstreet. 1604.

The Title-page of the "Second Quarto."

AMETZAGA tar BINGEN'ek EUSKERATUA

Editorial Vasca EKIN S. R. L.
PERU 175 - BUENOS AIRES

## Oinarrizko bibliografia


ANTZERTI ilabeterokoa. Tolosa, 1932-36, 1-54.

ANTZERTI berezia. Donostia, 1982-84, 1-13.

BIDART, P. et al., 1987, *Euskal antzertia. Le théâtre Basque.* Université de Pau et des Pays de l´Adour. Baiona.

DESPLAT, Ch., 1982, *Le Charivari en Gascogne. La morale des peuples du XVIe siècle au XXe siècle.* Berger-Levrault. Paris.

ETCHECOPAR, H., 2001, *Théâtres basques. Une histoire du théâtre populaire en marche...* Gatuzain, Baiona, 2001.

GARAMENDI, M.A., 1991, *El teatro popular vasco. Semiótica de la representación.* Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

HARITSCHELHAR, J. et al., 1987, *La pastorale. Théâtre populaire basque en Soule.* Lauburu, Baiona.

HERELLE, G., 1925, *Le théâtre comique des basques.* H. Champion, Paris.

HERELLE, G., 1928, *Le répertoire du théâtre tragique*. Curieur, Baiona.

JAKIN 37, 1985, *Euskal Antzerkia (1876-1985). Donostia.*

LABAIEN, A., 1965, *Teatro éuskaro. Notas para una historia del arte dramático. I. Lib.; Teatro éuskaro. Entrevistas, reseñas, crónica. Catálogo de obras dramáticas. II. Lib., Auñamendi, Donostia.*

PRIMER ACTO 268, 1997, *Teatro Vasco.* Madril.

URKIZU, P., 1984, *Euskal Antzertia.* Antzerti, Donostia.

URKIZU, P., 1996, *Historia del Teatro vasco*, Orain, Donostia.

URKIZU, P. (arg.), 1998, *Zuberoako irri-teatroa. Recueil des farces charivariques basques.* Préface de Jean-Baptiste Orpustan. Izpegi, Baigorri.

URQUIZU, P. et al., 2000, *Historia de la Literatura Vasca*. UNED. Madril.

www.artezblai.com

www.euskadi.net/kultura/teatro/teatro e.htm

www.susa-literatura.com/cgi-bin/susa.pl?lib=katantzrk

www.teatroa.com


## Oharrak

1. Julio Caro Baroja, 1971, «San Amando y los vascones», *Príncipe de Viana*, Iruñea, 7-26.
2. Esteban de Garibay, arg. 1854, *Memorias de Garibay. Memorial Histórico Español. VII. Lib.*, J. Rodriguez. Madril, 176.
3. Gabriel Lerchundi, 1948, *Kantikak.* Abbaye N.-D. de Belloc. Urt.
4. Manuel Lecuona, 1965, *Literatura oral vasca*. Auñamendi, Donostia, 147-150
5. Nicolas Ormaetxea «Orixe», 1955, *Euskaldunak. Los vascos.* Auñamendi, Zarautz, 63.
6. Joseph Augustin Chaho, 1836, *Voyage en Navarre, pendant l´insurrection des basques (1830-1835).* A. Bertrand. Paris. M. de Anguiozarren itzulpena, Berrarg. de 1976, Auñamendi, Donostia.
7. François Fourquet, 1990, *La mascarade d´Ordiarp.* BMB. Baiona, 129, 101-156.
8. María Arene Garamendi, 1991, *El teatro popular vasco. Semiótica de la representación. ASJU*, 118-148.
9. Arnold Van Gennep, arg. 1998, *Le folklore français. Du berceau à la trombe. Cydes de Carnaval, Câreme et de Pâques*. Robert Laffont. Paris, 770.
10. Albert Dauzat et al., 1971, *Dictionnaire Larousse Etymologique.* Paris.
11. Henry Rey Flaud, 1985, *Le charivari. Les rituels fondamentaux de la sexualité.* Payot. Paris, 90.
12. José María Iribarren, 1984, *Vocabulario Navarro.* Bigarren argitalpena, Ricardo Ollaquindiak prestatu eta zabaldua. *Príncipe de Viana.* Iruñea, 264.




13. Jean Ithurriague, 1946, «Littérature populaire basque», *Visages du Pays Basque.* Paris, 164.
14. Jon Juaristi, 1987, *Literatura vasca.* Taurus, Madril, 27.
15. Charles Desplat, 1982, *Le Charivari en Gascogne. La «morale des peuples», du XVIe au XIX siècle.* Berger-Levrault. Paris.
16. Pierre de Lancre, 1610, *Tableau de l´inconstance des mauvais anges et démons où il est amplement traité des sorciers et de la sorcellerie.* Paris. Berrarg. Aubier Montagne. Paris, 1982, 85.
17. Georges Hérelle, 1925, *Le théâtre comique des basques* Courier. Baiona, 97.
18. Juan Cruz Labeaga, 1995, «El teatro en Viana en los siglos XVI y XVII», *Príncipe de Viana*, 205, Iruñea, 527-549.
19. Julio Caro Baroja, 1980, «Vida y muerte de la cencerrada», *Historia*, 47, 54-70.
20. François Lebrun, 1981, «Le charivari à travers les condamnations des autorités ecclésiastiques en France du XIV au XIXè siècles», *LE CHARIVARI, Actes de la table ronde organisée à Paris, 25-27 avril 1977.* Arg. J. Lehoff eta J.C. Schmith. Mouton. Paris.
21. «Ouverture d´un Charivari par J. B. Toulet, à Hélette en 1848. Décret présidentiel, Paris, le 28 du mois d´août. Le président de la république, au nom du peuple français. Ayant appris qu´un scandale est survenu à Hélette, –le mariage d´un veuf avec une jeune personne–, Nous permettons à la jeuneusse du lieu de s´amuser et de rire à ce qu´il lui plaira. Signé: Louis Napoleon Bonaparte».
22. Ives-Renouard, 1962, *Rôles Gascons. IV. Lib.*, 1307-1317, 474.
23. Wenthwort Webster, 1901, *Les loisirs d´un étranger au Pays Basque.* E. Bertrand. Paris, 329.
24. Pío Baroja, 1922, *El amor, el dandismo y la intriga.* Madril, 238.
25. Jean Michel Guilcher, 1984, *La tradition de danse en Béarn et Pays Basque-français.* Maison des sciences de L´Homme. Paris, 453-489.
26. Piarres Charritton (arg.), 1984, *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I Euskal gaiak.* Elkar, Donostia, 317-318.
27. Patri Urkizu, 1988, *Zuberoako irri teatroa: Astolasterrak.* Gipuzkoako Kutxa, Donostia, 58-60.
28. Georges Hérelle, 1923, «Jean Baptiste Hardoy, Instruccionea», *Gure Herria*, Baiona, 311-325.
29. Jean Haritschelhar, 1970, *L´oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun (Texte-Traduction-Variantes-Notes).* Euskera XIV-XV, Bilbo, 268.
30. Piarres Lafitte, *Le Basque et la littérature d´expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule.* Aintzina. Baiona, 1941, 29.
31. Jean Haritschelhar, 1987, «La pastorale», *La pastorale. Théâtre populaire basque en Soule.* Lauburu. Baiona, 1-53.
32. Vito Pandolfi, 1964, *Storia universale del teatro dramatico.* Tori. Katalanera itzulia, Bartzelona, 1989, 229.
33. Eugène Ducéré, 1883, «Le théâtre bayonnais sous l´ancienne régime», *Revue des Basses Pyrénées*, 117-229 eta hur.
34. Luis Michelena, 1960. *Historia de la literatura vasca*. Minotauro, Madril, 26.
35. Georges Hérelle, «Une pastorale de l´an 1500», *RIEV*, XVII. lib., 17-19.
36. Louis Petit de Julleville, 1886, *Répertoire du Théâtre comique en France au Moyen-Âge.* Berrarg. Slatkine reprints, Geneva, 1967, 374-375.
37. Pierre Lafitte (arg.), 1967, *L´Art Poétique Basque d´Arnaud d´Oyhénart (1665).* Gure Herria. Baiona.
38. E. Esparza, 1945, «Sobre la representación en Lesaca en 1566 de la Pasión Trovada de Diego de San Pedro», *Príncipe de Viana*, Iruñea, XX. lib., 487-491.
39. Lope Martinez de Isasti, 1625, *Compendio Historial de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa por...*, Donostian inprimatua, Ignacio Ramón Barojaren eskutik, 1850, 476.
40. A. M.-B., 1976, «Mañariko Otxoa Kapanagakoari buruz beste berri bat», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, XXXII, 305-306.
41. Albert Léon, 1909, *Une pastorale basque, Hélène de Constantinople. Étude historique et critique.* H. Champion. Paris, 331.
42. Beñat Oyharzabal, 1985, «Zuberoako herri teatroa», *Antropologiaren Euskal Bilduma (AEB)* 4, Haranburu, Donostia, 41-92.
43. Guillermo de Humboldt, *Los vascos. Aportaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801.* Zarautz, Auñamendi, 186.
44. Joseph Augustin Chaho, 1836, *Voyage ...*, op. cit., 333-335 1856, *Biarritz entre les Pyrenées et L´Océan. Itinéraire pittoresque.* A. Andréossy, Baiona, 122-132.
45. Francisque Michel, 1857, *Le Pays Basque...*, F. Didot, Paris, 43-93.
46. Julien Vinson, 1883, *Le Folklore du Pays Basque.* París, Maisoneve, 309-378.
47. Wenthwort Webster, 1897, «Les pastorales basques», *La Tradition au Pays Basque*. Congrès de Saint-Jean-de-Luz. Berrarg. Elkar, Donostia, 1982, 243.
48. Francesc Massip, 1988, «El repertorio musical en el teatro medieval catalán», *Revista de musicología*, X, 3, Madril, 722.
49. Patri Urkizu, 1983, «Impresiones de Boadella sobre la pastoral vasca», *Antzerti berezia*, 4, Donostia, 2.
50. Iñaki Mozos, 1986, *Ihauteria Euskal Literaturan.* Eusko Ikaskuntza. Hizkuntza eta Literatura 6. Donostia.

51. Jean Claude Aubailly, 1978, *Deux jeux de carnaval de la fin du moyen âge. La Bataille de Sainct Pensar à l´encontre de Caresme et Le Testament de Carmentrant.* Droz, Paris-Geneva.

52. Arene Garamendi, 1991, *op, cit.*, 155.

53. Patri Urkizu, 1984, «Euskara Erdal Antzertian», *Antzerti berezia*, 8, Donostia, 6-8.

54. José María Fernández Catón, 1989, «Cuatro desconocidas obras poéticas halladas en la biblioteca estense de Módena. Notas para el estudio de la imprenta en León en el siglo XVI», *Archivos Leoneses*, 85-86. León. 323-417.

55. Victor Fournel, *Les contemporains de Molière. Recueil de comédies, rares ou peu connues jouées de 1650 à 1680.* I. Lib. Slatkine, Reprints. Geneva 1967, 429-454.

56. Patri Urkizu (arg.), 1998, «Jundane Jakobe handiaren trageria (1634), lehen euskal antzerkia», *Bilduma* 10, Errenteriako Udala, 131-299; «Análisis de la pastoral inédita Jundane Jakobe Handiaren Trageria (1634), primer texto teatral vasco», *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca* IV, UNED, Madril, 1996, 341-351.

57. Millán Bravo, 1991, *Guía del peregrino Medieval («Codex Calixtinus»)*. Centro Estudios Camino Santiago. Sahagún.

58. André Moissan, 1992, *Le livre de Saint Jacques ou Codex calixtinus de Compostelle. Étude critique et littéraire*. H. Champion, Paris.

59. Achille Jubinal, 1837, *Mystères inédits du quinzième siècle*. Têchener. Paris.

60. Francesc Massip, 1992, *El Teatro Medieval*. Montesinos. Bartzelona.

61. Francisque Michel & L.J.A. Mommerqué, 1929, *Théâtre français au moyen âge*. F. Didot. Paris.

62. Xavier Barralt i Altet, 1993, *Compostelle le grand chemin*. Gallimard. Paris.

63. Paul Aebischer, 1972, «Théâtre médieval dans le Pays de Vaud», *Neuf études sur le théâtre médieval*. Droz, Geneva.

64. Louis Petit de Julleville, 1880, *Les mystères*. Hachette. Paris.

65. A.E. Rio, 1836, «De la poésie chrétienne dans son principe, dans sa matière et dans ses formes», *Forme de L´Art*. 2e partie. Paris, Debécourt, 173.

66. Raymond Lebègue, 1929, *La tragédie rèligieuse en France. Les débuts (1514-1573)*. H. Champion, Paris.

67. Koster Loukovitch, 1977, *L´évolution de la tragédie rèligieuse classique en France*. Slatkine reprints, Geneva.

68. Yves Lehir, 1974, *Les drames bibliques de 1541 à 1600*. Presses Universitaires de Grenoble.

69. Pantxika Béguerie, «Sanctuaires, dévotions et pélerinages au Pays Basque Français depuis le moyen-âge», *Ekaina*, 8, Baiona, 193-211.

70. Jean Baptiste Daranatz, 1924, *L´Église de Bayonne*. Lasserre, Baiona.

71. Georges Hérelle, 1928, *Le répertoire du théâtre tragique*. Curieur, Baiona. 1. BNP, FCB, n´ 211. Demi-reliure en parchemin: papier versé, 325 sur 210 mm; 36 feuillets à 2 colonnes, mauvais état. Complet, environ 1600 versets. Ex libris: Jn-Pre Saffores, avec date de 1634 (La date de 1634, très lisible, mais qui ne peut pas se rapporter à Saffores, a sans doute été reproduite d´après le ms dont celui-ci est la copie). Fin du XVIII siècle.

72. Aipatzekoa da *Quatre fils daymon* (Julio de Urquijoren fondoko MS 7340) tragedian Heguiaphali buruz agertzen den oharra: *Cahier apartient a Mr Heguiaphal de Cheraute bon garçon, grand coquin, ... Cheraut, le 25 avril 1894.*

73. 2. Bordeaux, nº 4. Cahier sans couverture; papier versé de grand format: 102 pages à 2 colonnes. Complet: 1520 versets comptés par le copiste. Ex libris daté.- Pierre G., 1842. XIXe siècle.




74. 3. Baiona, 48. Demi-reliure en parchemin; papier écolier, 350 sur 22o mm: 34 feuillets à 2 colonnes. Un aquarelle ajoutée, repésente une princesse, un roi chrétienne et un soldat chrétien ... Complet. XIXe siècle.

75. Anatole Le Braz, 1905, *Le théâtre celtique*. Slatkine reprints, 1981. Geneva-Paris, 404-405.

76. Patri Urkizu (arg.), 1998, *Zuberoako Irri-Teatroa. Recueil des farces charivariques basques* Préface de Jean-Baptiste Orpustan. Éditions Izpegi, Baigorri.

77. Gidor Bilbao (arg.), 1996, «Jean Mecol Garindañekoaren Edipa pastorala (1793)», *ASJU*, XXX-1, 239-333.

78. Albert Léon, 1909, *Une pastorale basque. Hélène de Constantinople. Étude historique et critique d´après des documents inédits, avec textes et traduction*. Paris, Honoré Champion.

79. Iñaki Mozos, 1995, *Jean de Paris pastorala: eskuzkribuen azterketa eta iturriaren moldamoduak.*

80. Julien Vinson, 1883, *Le Folklore du Pays Basque*. Maisonneuve & Lavisse. Paris.

81. *Euskelzale*, Bilbao, 1897, 402-5, 412-5

82. Joseba Lakarra, et al., 1983, *Pedro I. Barrutia, Aramaio 1682-Arrasate 1759. Gabonetako Ikuskizuna (Acto para la noche Buena)*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 13-75, 167-207.

83. Ignacio Zumalde, 1985, «El conde de Peñaflorida como músico», *Euskor*, 10, 53.

84. Luis Mª Areta, 1976, *Obra literaria de la real Sociedad Vascongada de Los Amigos del País*. Gasteiz, 410.

85. Emilio Palacios, 1974, «Actividad literaria del Conde de Peñaflorida. El Carnaval», *Boletín de la Institución Sancho el Sabio*. Gasteiz, XVIII lib. , 525.

86. Contaut d´Orville, 1768, *Histoire de L´Opéra Bouffon contenant les jugements de toutes les pièces qui ont paru depuis sa naissance jusqu´à ce jour pour servir à L´Histoire des Théâtres de Paris.* Paris, 182-183.

87. Xabier María de Munibe, «Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País», *RIEV*, XXI lib., 322-323.

88. Idem, *RIEV*, XXII, 454-455.

89. Jon Bagüés, 1990, *La música en la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. Eusko Jaurlaritza. Donostia.

90. Xabier Altzibar, 1985, «Euskara Adiskideen Batzarrean», *Simbolae L. Michelena oblatae*. Gasteiz, 1119-1137.

91. Prestamero Fondoa. Gasteiz, 1793ko Akten laburpena.

92. Julio de Urquijo, «Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia», *RIEV*, XXVII lib., 308 eta hur.

93. Marzelin Heguiaphal, 1984, *Santa Jenebieba pastorala*. Arg. Patri Urkizu, Antzerti, Donostia.

94. Ane Loidi, 1996, «Sainta Catherina pastoralaren XIX. mendeko bi ezkuizkribu», *ASJU*, XXX-2, 497-603.

95. Rafael Uralde, 1982, *Apuntes para una historia del teatro en Bilbao*. Bizkaiko Aurrezki Kutxa. Bilbo, 8.

**Maite Agirre 1984an etxera itzuli** zen, Bartzelonan *Dagoll Dagom* taldearekin, eta Europa osoan barrena *Domus de Janas* italiar konpainiarekin –*Grotowski*ren espresionismo pobrearen eta *Odin Teatret*en laborategiko jardueren oinordeko– ibilita eskuratutako jakinduriaz.

Hemen Barbaren ***training*** delakoan –*trebakuntza* moduan itzulia– trebatutako antzezle -gimnasten eskola bat sortu zuen, eta haiekin egitura eszeniko bortitz eta sentikorrak moldatzeari ekin zion, beti ere antzerki materialen hautaketa zolietan oinarrituta: ***Marat Sade***, ***K***, ***La balada de Woyzeck***, ***Beckett***, ***Pelotari***, ***Pantzart…***

*Maite Agirre*ren abangoardismoak *Jorge Oteiza*, *Vicente Ameztoy*, *Koldobika Jauregi* eta beste hainbat artista liluratu ditu, zarauztar honek bere sorkuntza lan oldarkorretara erakarri dituena, lan horietan beti bere nortasun indartsua islatzen bada ere.

*James Joyce*ren ***Ulises*** laneko azken bakarrizketa ospetsuarekin –***Molly Bloom***–, *Maite Agirre*k hainbat urtez gure herriko areto txikiak kurritu zituen.

*Agerre Teatroa*ren diskurtso ausart eta konformagaitzaren erakusgai dira, besteak beste, *Arantxa Urretabizkaia*ren ***Zergatik panpox?/¿Por qué panpox?*** eta, azkenaldian, ***Marranadas***, Iparraldeko idazle *Marie Darrieussecq*en izenburu bereko nobelaren moldaketa.

## Legaleon -T Teatro

**Legaleón Teatro konpainiak** bere hastapenetatik, 1986 inguruan, esperimentatzeko eta gauza ezberdinak egiteko gogoa izan du bereizgarri nagusi. Gaur egun jarrera horrek, taldeak *mugimendu, keinu eta hitzaren batasuna* bezala definitzen duena, bizirik dirau, oinarrizko kontzeptua antzerkian testuak dena ezin adieraz dezakeela baita.

**Taldearen muntaketek** ikuslego txiki baina leial baten miresmena dute. Ezein zirkuitu komertzialetik urrun, Legaleóngo kideak Irun eta Genevan, non konpainiako kideek antzerki ikasketak egin baitzituzten, banaturik bizi dira.

**Taldearen inspirazio iturriak** anitzak dira. Batzuetan taldekideek beraiek idatzi eta zuzentzen dute, eta beste batzuetan kanpoko sortzaileak baliatu dituzte. Tamalez, Legaleónek *Edurne Rodríguez*en heriotza goiztiarra pairatu zuen.

Taldeko antzezle eta konpainiak estreinatutako zenbait lanen egile, hala nola ***Merilú, la historia de una muñeca hinchable*** (1995) eta ***Mujeres al rojo vivo*** (1995), Legaleón Teatrok akuilu pertsonal eta artistiko garrantzitsu bat galdu zuen.

Talde honek beste hainbat obra muntatu du, esaterako ***La esclusa*** (1991), ***Canción desde Isla mariana*** (1993), ***Ubú*** (1996) eta ***Bancarrota*** (2001). Berebat, Euskadin *Rodrigo García*, abangoardiaren muturrean dagoen egilea, ezagutzera eman zuten, haren bi testu, ***Carnicero español*** (1997) eta ***Tómbola Lear*** (1998), eszenaratu zituztelarik. Kafe -antzerkia ere egin dute, ***Cómeme el punto*** lanaz.

Muntaketa asko Euskal Herrian ez ezik Suitzan ere estreinatu dituzte, frantsesez. Herrialde hartan, hain zuzen, Zuricheko Jaialdian Encouragement saria jaso dute, taldearen ibilbideari emana. Espainian ere saririk jaso dute, hala nola Txema Zubia (1997), Arcipreste de Hita (1998) eta Arriola Teatro (1999) izenekoak.

## ● Txalo

**Txalo laurogeita hamarreko urteetan jaio zen**, Bederen 1 taldean jazotako zatiketaren ondorioz, eta luze gabe berezko ideiak zituen produkzio etxe gisa agertu zen, emaitza bikainak eman dituen talde tekniko eta artistiko bat bermatuz.

Taldeak beti *Ramón Bareare*n adimen zolia izan du zuzendaritzan nahiz testuen moldaketan. Karrakaren kide ohiari zor zaio, beste inori baino areago, *Agatha Christie*ren ***La ratonera*** antzezlanarekin lortutako arrakasta. Txalok mekanismo zaharkitu bati txinpartak atera zizkion eta berori arrakasta komertzial itzela bihurtu zuen (Madrilen berriro estreinatu zen, hiriburuko antzezleekin, eta estatu osoan barrena jokatu zen, emaitza paregabeekin).

**Erregistro aski ezberdin batean**, *Jacques Rampal* frantziarraren ***La dama y el cardenal*** lanak *Kandido Uranga* eta *Ane Gabarain* aurrez aurre jarri zituen eszenatokian, behialako giro batean. Bestalde, bi aktore atzerritarrekin, *Mulie Jarju* afrikarra eta *Román Luknár* eslovakiarra, Txalok *S. Mrozeck* -en ***Los emigrados*** lanaren irakurketa berri bat egin zuen.

Hurrengo lana konplexuagoa izan zen. ***El hombre que confundió a su mujer con un sombrero*** antzezlanean, *Peter Brook*ek *Oliver Sachs* psikiataren testuei buruz egindako muntaketa, euskal antzerki munduko antzezle gazte eta eskarmentudunen multzo interesgarri bat bildu zen.

Oraintsuago, *Ramón Bareak* ***Sobre los perjuicios del tabaco*** lanarekin, Anton Chejoven bakarrizketaren bertsio itxura batean argitaragabea, liluratu gintuen.



*Paco Obregón eta Julio Perugorria. Durangoko Gerea Antzokia. Argazkia, I. Azcarate.*



*Goldoniren "Arlequino, servidor de dos amos", Antzertiko ikasleen eskutik. Luis Otaegi. Irun 1983.*



*Orain antzerki independenteko elkartea. Oraineko antzezleak.*



*Bernardo Atxaga*ri ***Bambulo*** antzezlanarengatik, non izen bereko txakurraren istorio ospetsuak eszenaratzen baitira, emandako euskarazko egilerik onenaren Max 2002 Saria Txaloren lantegiaren aintzatespen gisa ere hartu behar da.

## ● Taun-taun

Entzuleria helduari zuzendutako txotxongilo konpainiak ez dira ohikoak. **Taun -Taun** talde bergararra lantegi horretan ari da 1987az geroztik, eta estreinatu dituzten zortzi ikuskizunekin genero horren baitan sendo bermatu dira. Horren frogagarri, txotxongilo jaialdi nagusietan maiz egoten dira, hala Estatuan nola atzerrian. Frantzia, Alemania, Holanda, Italia eta, batez ere, Hego Amerikan zehar ibili dira, azken lurralde horretan Brasilen bi bira eta Venezuelan beste bat burutu dituztelarik.

Taldearen ikuskizunaren abiapuntu batzuk kabareta, ***Ubú Rey*** obraren bertsio bat edo Bernardo Atxagaren ipuin bat izan dira. Azkenekoa, oraingoz, ***Kont Arte*** da, *Joan Brossa* egile kataluniarrean oinarrituta dagoena.

Konpainia honen beste jarduera bat bi urtean behin **Bergarako Helduentzako Txotxongilo Jaialdia** antolatzea da, 2002koa seigarrena izango delarik.

## ● Ados teatro

**Ados Teatro** donostiar konpainiaren antzerkiak bereizgarri nagusia ikusle gazteengana heltzeko erraztasuna du. 1995an jaioa, kide gehienak aurrez Tanttakakoak izandakoak dira. Kiderik nabarmenena *Garbiñe Losada* da, testu gehienen egilea eta ia muntaketa guztien zuzendaria izaki. Orain arte sei ikuskizun estreinatu dituzte: *Robinson Crusoe* (1995), *Lamiak* (1996), *Desperrados* (1998), *Manolito Gafotas* (1999), *Gus y Gas* (2000) eta *El amigo de John Wayne* (2002).

Taldeak jasotako sarien artean aipagarrienak ***Gus y Gas*** lanarengatik lortutako euskarazko testurik onenaren 2001eko Max Saria edo antzerki lanik onenaren 2001eko Zubia Saria dira akaso. *Elvira Lindo*k sortutako ***Manolito Gafotas*** pertsonaiaren abentura ezagunen moldaketa Ados Teatroren ikuskizunik jendetsuena gertatu da, taldeak Espainiako hiriburu nagusietan barrena bira luze bar egin burutu duelarik.

## ● Vaivén teatro

Ados baino bi urte geroago, 1997an, **Vaivén Teatro** jaio zen, Donostian baita ere, *Ana Pimenta* antzezleak eta *Iñaki Salvador* musikariak zuzendurik. Orduz geroztik lau muntaketa eszenaratu dituzte: ***La Coraje*** (1988), ***Crímenes del corazón*** (1999), ***Sin vergüenzas*** (2000). Aipatu azkena, gazte jendeari zuzendua,


LA SEÑORITA JULIA
AUGUST STRINDBERG
ORAIN antzerki taldea compañía de teatro
el uno y el otro
idea: adolfo fernández
autor: jaime romo
dirección: mikel gómez de segura
MASKARADA
KONTENEDORE BATEN ISTORIOAK
BITACORA de las ESTRELLAS
MASKARADA
IKARO
MASKARADA
modigliani
ORAIN
pepeelromano
el T.E.N. presenta
EL ZOO DE CRISTAL
de Tennesse Williams


Equus
Peter Shaffer
zintzilik
Compañía de teatro
IV MUESTRA TEATRAL DE GRUPOS DEL PAIS VASCO
Euskal Herriko Antzerki Taldeen IV Erakusketa
Banco Guipuzcoano
Divinas Palabras
Don Ramón María del Valle-Inclán
ORAIN
Kaio luma zikina
Maskarada
Teatro Barakaldo
Barakaldo Antzokia
Meatz Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate Eskola
ORAIN
Besarka Gaitezen Folleville !!
Abenduak
1
"Lourvier's"
"Tela Marinera"
"Rizando las Ondas"

izan da arrakastatsuena, urtebete pasan 45.000 ikusle bilduz.

Azken funtzioak, ***A cuestas con Murphy*** (2002) izenburukoa, Murphyren lege ezagun eta ezkorrekin istorio aski entretenigarri bat molda daitekeela frogatzen du.

## ● Arteszena

**Euskal administrazioek** Euskadiko Zentro Dramatiko edo Antzerki Nazional bat ernetzeko egindako saialdiek antzerki esperientzien oroitzapen aski ezberdinak utzi dituzte.

II Nazioarteko Euskal Biltzarraren kariaz komedia musikal amerikar bat, ***Pipin***, eratu zen, horretarako dirutza itzela erabiliz (1987ko 37 milioi pezeta), eta emaitza lotsagarria izan zen.

**Beste saialdi bat**, askoz interesgarriagoa, **Arteszena** izan zen, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Antzerki Publikoaren iturri.

**Ideia nagusia** Orain eta Tanttaka taldeen inguruan konpainia publiko bat egitea zen, zuzendari itzaltsuen gidaritzapean mundu mailako egile ospetsuen obretan oinarritutako ikuskizun handiak eszenaratuko zituena.

Bi urte eskasetan (1993-1995), Arteszenak ezin ukatuzko kalitatea ageri zuten hiru ikuskizun eskaini zituen: *Arthur Schnitzler* -en ***La cacatúa verde***, *Mario Gas*ek zuzendua, *Ariadne Mnouchkine*ren ***Mephisto***, *Pere Planella*k eszenaratua, eta dantza garaikideko ***Amets beroak*** produkzioa.

Arteszenak utzitako irakaspen garrantzitsuena bezala, Gipuzkoako antzezleak inguru hauetan ohiko diren baino lantegi handizaleagoei heltzeko prestaturik daudela frogatu zen. Lastima hain gutxi iraun izana.

## ● Teatro estudio

Antzerki munduan, Donostiaren betidaniko bereizgarria izan da talde ez profesionalen jarduera oparoa. Hiri horretan talde amateur ugari izan da, bai euskaraz bai gazteleraz. Teatro Estudio de San Sebastián izenekoa talde historikoa izan da. *Manolo Gómez*ek zuzendua, Donostiako antzerki munduan aski ezagunak diren pertsonaiek osatu zuten, hala nola *Esther Remiro, Teresa Pro, Paco Sagarzazu, Romualdo Salcedo*, eta abar.

# ■ Bizkaia

## ● Karraka

**Karraka Kolektiboa, Euskadiko Antzerki Ibiltaria** erditze bikoitz batean munduratu zen (bere biki Maskaradarekin batera), eta minez, ama, Cómicos de la Legua legendarioak, porru eginda utzi baitzuen.



*«Las Troyanas». Antzerti. 1983*



*Tanttaka taldea. 1984. Argazkia, Luis Otaegi.*



*Jorge Díazen «El cepillo de dientes».*
*Iñake Irastorza eta Ramón Albistur. 1983*

*Geroa. Paco Obregón. Argazkia, I. Azcárate.*



*Ramon Barea*ren gidaritzapean, karrakariak hamabost urtez euskal antzerkiaren nonahiko ordezkariak izan ziren, ezin konta ahala antzerki jaialdi, aste edo erakustalditan. Hiru alor jorratzen zituzten, denetan trebetasun bera agertuz: joskera egoki eta osaera zainduko antzerkia; nahaste-borraste musikal herrikoia, eta haur eta kale antzerkia.

**Lehen multzoan** sar daitezke, adibidez, ***Pasen sin llamar***, ***Ubu emperatriz, Hoy, última función,*** edo ***Pecata Minuta*** bezalako ikuskizunak.

**Karrakaren antzerki herrikoia** Manolita Chen eta Bartzelonako Molino antzokiaren usteko umea da. Artifizialki dekadenteak eta faltsuki groteskoak, ***Bilbao-Bilbao***, ***La palanca gran cabaret*** edo ***Euskadi-Euskadi*** moduko ikuskizunak gauetik goizera tradizio bat asmatzearen balentriagatik dira gogoangarriak:euskal lumpenaren antzerkia, laster puntua egitea bezain zaharra eta kalimotxoa bezain "gurea" zirudiena.

Bilboko Aste Nagusian, karrakariak Madril aldeko konpainia handiekin lehiatu ziren, eta ikusleen adostasun osoaz Ercilla sariak bata bestearen atzetik pilatu zituzten. *El caserío* "zarzuela instituzionala" eta euskal etxekoandreen omenaldia bitarte, *La Otxoa*k entzuleen oinarri antropologikoak inarrosi zituen, tankera honetako kantekin:

"Ay qué rico el complejo de Edipo. / Sólo quiero un hijo soltero, / y una nuera sólo cuando me muera… / Este es el ritmo del Euskadi matriarcal".

Asmakari haren atzean ideia aski anitzekiko jendea zegoen: *Juan Carlos Egillor, Jon Juaristi, Antxon Urrosolo, Fran Lasuen, Jose Ibarrola*; antzezleen artean, berriz, *Alex Angulo, César Saratxu, Ramon Ibarra, Itziar Lazkano, Marivi Bilbao* karrakari paregabeak eta beste hainbat, zeintzuetaz antzezle multzo bat zela esatea ez baita nahikoa. Nolanahi ere, denboraren joanarekin hiritar askoren oroimenean antzerki une gozoak gordetzen dira, karrakarien zorakeria trufari haiei esker.

**Karrakaren esperientzia abangoardistenak** ere ezin dira ahaztu, haien bidez taldea lengoaia berriak esplorazioan murgildu zelarik. ***Oficio de Tinieblas***, *Camilo José Cela*ren testu sailkaezin batean oinarritua, bereziki gogoangarria da. 1984an, *Kukubiltxo, Cobaya, Orain* eta *Teatro Estudio* taldeekin batera ekoiztua eta *Ramon Barea*ren zuzendaritzapean, antzerki talde ezberdinak batzeko abiapuntu izan zitekeen, erakunde mailan inolako interesik agertu izan balitz. Akaso proposamena hain ausarta zen ezen administrazioetako arduradunak ikaratu egin baitziren. Ildo beretik, 1988an Karrakak ***Okupado*** postmoderno eta ironikoa utzi zigun.

## ● GEROA

1968koa uztaldi paregabea izan zen, oin-argien distirak *Orain* Donostian, *La Farándula* Gasteizen eta *Geroa* Durangon argiratu baitzituen.

Azken talde hori Geredіaga Kultur Elkartearen baitan sortu zen, eta hasiera zezel baten ondotik, hirurogeita hamarreko hamarkadan taldea bermatu egin zen, ezinbestean Geroari lotuko zaizkion pertsonekin: *Paco Obregón* eta *Antonio Malonda* (*Julio Perugorria* ahaztu gabe). Horiei zor zaie, hain zuzen, Bizkaiko lehen antzerki eskolaren sorrera, batetik aktoreen harrobi izango dena eta, bestetik, Geroaren profesionaltasuna ahalbidetuko duena. Izan ere, 1978an taldeak profesionaltasunerako behin betiko jauzia eman zuen.

**Geroaren bertuterik onena** bere antzerki jarduera ideia aski zehatzetan oinarriturik egotean datza. Horrek Euskal Herriko kultur eta gizarte errealitateari lotutako materialen hautaketa zekarren, eta antzezpen mailan gero eta exijentzia maila handiagoa eskatzen zuen. Modu horretara taldeak berezko profil estetikoa lortu zuen, nortasunez erabat euskalduna, bere lanek penintsularen barruan nahiz kanpoaldean hedapen handia izan zezaten lortuz, beste ezein euskal taldek baino handiagoa, hainbestekoa ezen etengabe hara eta hona zebiltzan hiru talde ibiltari eta hogei profesional baino gehiago izatera heldu baitzen.

Lehenengo lanek (***Kaixo Agirre***, ***La mandrágora***, ***Abraham y Samuel***) harrera ona izan ondoren, Geroaren lehen arrakasta –euskal antzerki artean gaztetxoarena ere izan zena– ***Muerte accidental de un anarquista*** antzezlanarekin etorri zen, Espainia osoan barrena obraren ehunka emankizun eskaini zituztelarik.

**Laurogeiko hamarkadan**, Geroa zalantzarik gabe euskal antzerkiaren talderik behinena da, eta bi antzezlan historiko ekoiztuko ditu, *Ignacio Amestoy* bilbotarraren gidoiez: ***Doña Elvira, imagínate Euskadi***, eta ***Durango, un sueño, 1439***.

*Lope de Aguirre*ri buruzko antzezlanak, zeinarekin munduan zehar hara eta hona ibili baitziren (New Yorken sarituak izan ziren), berori antzoki, frontoi, kale rta polikiroldegietan jokatuz, polemikarik eragin zuen. ***Doña Elvira…*** gaur egungo euskal dramaren alegoria bikain bezain agerikoa zen, eta fanatismoaren kritika zorrotza, eta horren ondorioz kritikari buruberoron batek ekoizleak poliziarekin hitzartuta egoteaz salatu zituen, iskanbila itzela sortu zelarik.

*Mario Onaindia*ren nobelan oinarritutako ***Gran Place*** obran ere "gatazkari" zuzenean heldu zioten, eta ***Ertzaintza al pil-pil*** antzezlanean tonu ozarrez ertzaintzari estreinako omenaldia egin zioten.

**Laurogeiko hamarkadan**, Geroa proiektua akidura zantzuak agertzen hasiko da, ***Rezagados*** *Ernesto Caballero*ren antzezlanaren komedia ziklistaren arrakasta erabatekoak egoera nolabait estaliko duen arren. Geroak oraindik beste zenbait antzezlan eszenaratuko du (***Por mis muertos***, koprodukzio moldean), behin betiko desagertu aitzin.



*«Trapu Zaharra» taldea.*



*"Arlequín". 1983*

*«Los Justos». Orain taldea.*



## ● MASKARADA

**Cómicos de la Legua -Kilikilariak taldea zatitzean**, zenbait kidek Maskarada sortu zuten, euskarazko antzerkia soilik egiteko asmoaz. Beraien helburua bertako hizkuntzan egindako antzerkia duindu eta normaltzea zen. Kale antzerkia, haurrentzakoa, egile itzaltsuen lanak, dokumentu antzerkia, literatur testuen moldaketak, sorkuntza lan kolektiboak, kale-antzerkia, musikalak... Maskaradak bere lan fina kasik diren genero orotan agertu du.

**Taldearen ibilbidea 1980an hasi zen**, *Bernardo Atxaga*k idatzitako haurrentzako lan batez. Segidan kale antzerkia egin zuten, hala nola Inauteri tradizionalean oinarritutako ***Pantzart***, eta ***Tira Jira Bira Kalejira***.

1984an Foren antzezlan bikain bat (***Tenía una pistola con los ojos blancos y negros***) moldatuko dute, eta ***Conoce Bizkaia*** musikala eszenaratuko, eta azken lan horrekin euskarazko antzerkira ohi baino ikusle gehiago erakartzea lortuko zuten. Arrakastarik handiena, ordea, segidako urtean helduko zitzaien, ***Gastibeltza Karabinak*** antzezlanaz, *Marc Legasse*ren obra abiapuntu duen Oskorriren kantez hornitutako opereta heterodoxoa. "Panfleto libertario aski ederra", Alfonso Sastreren hitzetan, keinu folkloriko eta politikoez josia, maisutasunez islatutako sakristiako bekatu eta konspirazio barojarrezko giro batean. Taldearen lanik konplexuena da, eta baita biribilena ere.

Orduz geroztik, *Karlos Panera*ren taldea bestelako bide bati lotuko zaio. *Natxo de Felipe* gidari dutela, *Gabriel Aresti*ren lilurapean eroriko dira, eta emaitza ***Harrizko Aresti hau*** izango da. 1996an atzera *Oskorri*rekin elkartuko dira, ***Landalan*** lanean, eta 2000ean berriro Arestiren iturri poetikoetatik edango dute, ***Kaio luma zikina*** eszenaratzeko.

**1989an** *Patrick Süskind* suitzarraren ***Kontrabajua*** bakarrizketarekin arrakasta lortu zuten arren, eta ***Marxkarada*** eta ***Monstruo Sakratuak*** lanez absurduaren umorean barrena goi mailako ikuskizunak eskainiko bazituzten ere, Maskaradaren lantegi finak ez zuen merezitako fruiturik eman harik eta bertsio


TEATRO GANBARA
AZUFRE Y MELAZA
(BRIMSTONE AND TREACLE)
PACO OBREGON
EN
ESTRATEGIA PARA DOS JAMONES
DE
RAYMOND COUSSE
VERSION CASTELLANA
XABI PUERTA
DIRECCION
CARLOS VIDES
CARTECI
el ZOO de CRISTAL
(THE GLASS MENAGERIE)
TENNESSEE WILLIAMS
TEMPORADA OTOÑO '84
TEATRO
LA RATONERA
Agatha Christie
UNA COMEDIA DE MISTERIO
TANTTAKA TEATROA
EL FLORIDO
PENSIL
A. Sopeña


LA NOCHE DE LAS TRIBADAS
Centro Inestable donostiarra...
BEDEREN 1
Presenta:
el alquiler
ARTESZENA
DANTZA
AMETS BEROAK
!!! MUJERES !!!
DIRECCIÓN
Chiquilladas
Enrique Díaz de Rada
TANTTAKA TEATROA

bikoitzekin, euskaraz eta gazteleraz, lanean hasi eta, horrenbestez, beste merkatuetarako ateak zabaldu zitzaizkien arte. Jarduera berri horri *Oscar Wilde*ren ***La importancia de llamarse Ernesto*** lanaren moldaketa pertsonal batekin ekin zioten, eta *Antonio Skármeta*ren ***El cartero de Neruda*** obrarekin txalo zaparrada itzelak jaso zituzten.

**Oraintsuago**, Maskarada sorkuntza esparru beti interesgarrietan zehar dabil: *Stanilaw Lem*en ***Bitácora de las estrellas***, ***Ikaro***, *Juan Carlos Pérez* Itoizko kide ohiarekin lankidetzan, eta ***Historias de un contenedor***, *Patxo Telleria*ren komedia zoro eta bihozbera.

## ● Akelarre

*Luis Iturri*k zuzendutako taldeak bere hamar urteko bizialdian kalitatezko muntaketa bat baino gehiago egin zuen arren, historian ***Irrintzi*** lanaren oroitzapena geratu da. "Euskal herriaren erritual" hau, Iturriren asmamenaren fruitu eta *Gabriel Celaya, Blas de Otero* eta *Gabriel Aresti*ren testuetan oinarritua, 1977an Bilboko Ayala Antzokian estreinatu zen, eta 1980ra arte antzeztua izan zen.

Antropologia politiko baten bila, eta euskal folklorearen osagaiak erabiliz, Irrintzi dantzari, bertsolari, poeta eta txalapartariek emandako arrazaren zeremonia moduko gisa aurkezten zen. Antzezlanaren entzutea areagotuz, zentsoreak testua goitik behera sakailatu zuen, eta Gabriel Arestiren segidakoa bezalako esaldi "subertsiboak" ezabatu zituen: "baina gerra baino hobeagoa da bakea".

Akelarrek *Irrintzi* aurreko aldi bat bai, baina gerorik apenas izan zuen. Lehenago, hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, proiektu aski politikoez –*Brendan Behan*en ***El rehén***, edo *Martínez Mediero*ren ***El último gallinero***–, taldeak bere garaiarekin engaiatua egotearen ospea lortu zuen, eta kalitatezko antzerkia eskaintzeko gai izatearena. Oinarri horiekin, Akelarre profesionalizatu zen antzerki independenteko lehen euskal taldea izan zen. Taldea funtsean kide fundatzaileek osatzen zuten, zenbait antzezle kataluniarrekin aberastua.

*Irrintzi* eta gero, Akelarrek ezin izan zion arrakastari etekinik atera, edo ez zuen nahi izan. Taldeak ***Gerra ez***, *Unamuno*ren ***Fedra*** eta ***Hator*** antzeztu zituen, Luis Iturri Madril aldera, zuzendaritza lanetan aritzera, joan eta konpainia umezurtz utzi aurretik.

## ● Eolo

**Eoloren agerpenak** ikusmin handia sortu zuen Euskal Herriko antzerki munduan, eta ez da harritzekoa, taldeko kideei begira: *Paco Obregón* –Geroako kide historikoa–, *Xabi Puerta* –ibilbide luzeko egilea, honakoan ekoizle lantegian–, eta *Zutoia Alarcia* –antzezle ezaguna–.

Eolo sortu aurretik, taldeak bere burua *Raymond Cousse*ren ***Estrategia para dos jamones*** urde-bakarrizketarekin aurkeztu zuen, eta hurrengo urtean, 1994an, *Joan Casas*ek idatzi eta *Rafael Durán*ek zuzendutako ***Desnudos*** ikusgarriarekin ikusleak liluratu zituen.

Eolok bi Ercilla Sari irabazi zituen, bere hasiera distiratsuaren adierazgarri.

*Obregón*ek moldatutako ***¡Flash-Bang!*** *Raymond Chandler*-en tankeratsuko komedia beltzaren labainkada arinak taldearen muntaketa gogoangarrienari bide egin zion: ***¿Dónde estás, Ulalume, dónde estás?***, *Alfonso Sastre*k Edgar Allan Poeri egindako omenaldia, *Konrad Zschiedrich* poloniarraren zuzendua.




Baqué-Durango Sariarekin konpromisoa hartua zutelarik, 1996an aurreko urteko testu saritua, *Rafael González Gonsálbez*en ***El culo de la luna*** eszenaratu zuten.

Egile euskaldun baten eta pisu dramatiko nahiz interes politiko handiko testu baten aldeko apustuak –Literaturako Euskadi Saria irabazitako *Roberto Herrero*ren ***Los abrazos perdidos***, Euskal Herriko indarkeria gordintasun osoz mintzagai hartu duen lehengoa eta akaso bakarra– ez zuen 1997an Eolo desegin zedin eragotzi.

## ● Eskarmentu handiko beste talde batzuk

### Cómicos de la Legua-Kilikilariak

**1969an** Boluetan ikusleen elkarte gisa jaio zenetik 1980an desegin zen arte, Cómicos de la Legua-Kilikilariak taldeak hamabost ikuskizun eman zituen Euskadiko kale, auzo eta bazter guztietan barrena.

Antzerki herrikoia egiten zuten, baina inola ere ez errazkeriara emana: *Miguel Hernández*, *Nicolás Guillén*, *León Felipe*ren poemak errezitatzen zituzten, *Lauro Olmo* eta *Emilio Carballido* antzezten…

***Crónicas del Doctor Zeta*** antzezlanarekin Jerôme Savaryren Magic Circus -aren estetikara hurbildu ziren, eta lan horri beste hainbat sorkuntza kolektibo jarraitu zitzaion, hala nola ***Vivir en Bilbao***, ***Prakaman***, ***El jardín de la oca*** eta ***Navarra 1500***.

### Cobaya

1970ean sortu zen, Bilboko Injineru Eskolan, antzerkia ikusle berriei hurbiltzeko saialdi moduan.

Bere ibilbideari Brechten ***La excepción y la regla*** obrarekin ekin zioten, eta estilo jakin baten bila lehenik *Martínez Ballesteros* (antzerki independentearen egile maitea) baliatu zuten, eta gero *Jarry*: honen ***Ubu rey***, orduan modan zegoen Grotowskiren ildoari hertsiki lotua, urte pare batez erruz antzeztu zen, Cobaya puntako taldeen arteko bilakatuz.

1976an *José Miguel Elvira*ren ***Pastel de fresa*** opera rockarekin "erritu grotesko -erraietatik jaioarekin" esperimentatu zuten.

1984az geroztik txotxongiloekin lanean espezializatu ziren. Cobayak, halaber, hirurogeita hamarreko urteetan **Bilboko Antzerki Independentearen Asteak**, denera bi, antolatu zituen.

### Tarima

**Talde hau Basauriko Antzerki Eskolatik** atera zen, 1978an, lehen promozioko ikasleekin, eta lau urte geroago profesional bihurtu zen. Sorkuntza mailan bi aita izan zituen: *Miguel Garrido*, zeinarekin 1982an ***Payasos de circo*** antzezlanaz lehenengo arrakasta lortu baitzuen, eta hurrengo urtean *Anton Chejov*en ***El pabellón nº 6*** gogoangarria zuzendu zuen *Luis Olmos*.

Tarimak denetarik egiten zuen: literatur testu sendoak, artearen komedia, clown edo kabareta, beti ere zuzendari gaituak baliatuz. 1985ean Europa kurritu zuten ***El mundo de los hermanos Valentin*** obrarekin, ikuskizun horrek taldearen une gorena ekarri zuelarik.

Taldeak beste zenbait lan garrantzitsu eskaini zuen, hala nola Federico García Lorcaren ***La zapatera prodigiosa*** eta azken lana, Ramon Bareak 1997an zuzendutako ***Malvaloca*** musikala.

### Markeliñe

**Amorebietako taldeak** 1984az geroztik **pantomima** landu du, genero zinez.

Kale antzerkia egin dute: ***Armagedón***, ***Kubierno*** eta, batik bat, ***Aló, Europa?***, Frantzia, Belgika eta Holandan aurkeztu zutena.

Antzokian jokatzeko ikuskizunak antolatu dituzte: ***Un mundo fantástico***, ***In extremis***, ***Plumas celestiales***, ***Entretejas***, ***La Garbo, S.A.***, ***Underground...***

Baina taldea haurrentzako antzezpenekin nabarmendu da gehien: ***La vuelta al mundo en 80 cajas*** (genero horretan Max Saria) eta ***Mambrú***.

## ● Antzerki harrobia

Laurogeita hamarreko urteetan Bizkaian konpainia profesional ugari desagertu zen, *Geroa*, *Karraka* edo *Eolo* kasu, baina indar beteko antzerkia egiteko gogotsu ageri den hainbat pertsona oso gazteren jarduerak galera hori nolabait leundu egin du, belaunaldi berri bat jaiotzen den orotan gertatu ohi denez galera hori.

**La Fábrica de Teatro Imaginario** (FTI) talde horien guztien artean gehien nabarmendu dena da. *Mina Espazio*ren baitan sortu zen, 1998an. Taldearen erreferentzia


LA CANTANTE CALVA
IONESCO
EL LIGERO DOLOR
PINTER
Colaboran:
Gobierno Vasco
Diputación Foral de Guipúzcoa
TEATRO ESTUDIO DE SAN SEBASTIAN
DONOSTIAKO ANTZERKI IKERKETA

nagusiak mundu mailako egile handiak dira, adibidez *Grotowski, Artaud, Meyerhold* edo *Tadeusz Kantor*. Beren pentsamoldea horrela laburbiltzen dute: "artelana jazarri, formula finkoetatik ihes egin, obra originalak sortu, garena adierazi eta antzerkia gertakari bilakatu".

Ander Lipusek zuzendutako ***8 olivettis poéticos*** antzezlanarekin profesionalen aintzatespena lortu zuten.

Taldeak beste hainbat lan egin ditu, ***Anderground***, ***La niña que sueña Lunas también se mea en la cama*** eta ***Mundopolski, extragedia o rebelión*** trilogia kasu.

CHUSMA. 1998an sortutako talde honetan antzerkia eta zinema uztartzen dira. Antzokian jokatzeko antzezlanekin batera, hala nola *Shakespeare*ren sonetoetan oinarritutako ***L.O.V.E*** edo *Kafka*ren ***El castillo***, taldeak kale ikuskizunak ***Vöjnirek Familixe*** eta ***Nostalgia*** laburmetraia ere eskaini ditu.

CLARO DE LUNA taldeak ere, 2000. urtean jaioa, antzerki eta zinemaren munduan dihardu. Orain arte aurkeztu duten ikuskizun garrantzitsuena ***Mañana de Luna*** da. Lan horretan antzerkia, literatura, datza eta bideoa nahasturik ageri dira.

GAITZERDI taldeak hamarkada bat darama lanean, batik bat kale antzerkia eginez, eszenaratze plastiko, ikusgarri eta sonoritatez betetako ***Girobira*** edo ***Bakun*** moduko ikuskizunekin.



*"Maletas".*

TXAMUSKINA. Talde hau denbora laburrean entzute handia lortzen ari da antzerki munduan.

Basauriko Antzerki Eskolako bi ikaslek1997an sortua, haurrentzako antzerkia egiten dute, berezitasun batekin: antzezlan guztiek euskara, gaztelera eta ingelesezko bertsioak dituzte, taldeak "kalitatezko izateaz gain funtzio pedagogikoaz arduratuko den" antzerki mota baten aldeko apustua egin duelarik.

LA FUNDICIÓN. Antzerki gazte eta ausartenaren gorakada horretan funtsezkoa da lan mota horiek erakusteko zentro bat egon dadin. **La Fundición** 1998an ireki zen. Deustuan kokatua, 90 eserleku dauzka, eta Areto Alternatiboen Koordinakundearena da, programaketa, trebakuntza eta aholkularitza alorretan jarduera bizia ageri duelarik. Ikusle gazte eta jakin-min handikoa du jomuga, eta talde alternatiboenentzat erreferentzia izatea xede. 2001ean lokalek 31 konpainia hartu zituzten, programazioaren 79 egunetan. Finantzaketa mistodun ekimen pribatu bat da.

## ■ ARABA

### ● DENOK KOOPERATIBA

Denok Euskal Herrian izan zen antzerki hutseko lehenengo ekoizpen zentro iraunkorra izan zen, eta, horrenbestez, antzerki profesionalaren munduan esperientzia berri bat.

*"Altxor bat patrikan".*






*"Aeiou".*

1976an sortu zen, esperientzia eta trebakuntza handiko aktore euskaldun eta kanpotarren eskutik eta Arabako Aldundiaren babes ekonomikoaz. Antzerki iraunkor honen jarduera eremua zabala zen oso, eta ia antzerkiaren alderdi oro hartzen zuen.

**Denok Antzerki Ekoizpeneko Kooperatibak** antzezle-gaiei zuzendutako trebakuntza ikastaro ugari eman zuen bere zazpi urteko bizialdian, eta eskola-umeen antzerki pedagogiaz arduratu zen. Informazio bulego bat sortu zuen, eta ikerketa nahiz kontsultarako liburutegi on bat eratu zuen.

Denok kooperatibak **Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren** jaiotza sustatu zuen, eta 1981a bitartean haren antolaketaz arduratu zen, orduz geroztik idazkaritza teknikoari heldu ziolarik. Kooperatiba, halaber, jada desagertua den Florida antzokiaren programazioa beregain hartu zuen.

Eta, jakina, ikuskizunak eman zituen. Ibilbide balantzatsu samarra jarraitu zuen arren, antzerki une bikainak ere eskaini zituen. Adibidez, 1979an *Cervantes*en entremesen eszenaratze bikaina, ***Cipión y Berganza***, irudimen harrigarrikoa eta kanon akademikoez bestelakoa, umore fina eta malenkonia leun eta gozo bat ageri zituena (*Félix Petite*k lan ahaztezina egin zuen ***El viejo celoso*** obran). Eta, segidan, *Rodríguez Rubí* XIX. mendeko egile ahaztuaren antzezlan bat, ***El gran filón***, burgesia espainiarraren interpretazio aski originala, esperpento moduan paratua.

*Antonia Sanjuán.*



Dozena erdi ikuskizun eman ondoren, 1981ean Denok taldeak *Francisco Nieva*ren ***El rayo colgado (auto de fe imperdonable)*** estreinatu zuen, *Juanjo Granda*ren zuzendaritzapean. Espainia osoan, Portugal eta Polonian barr ena ibiliko dira, hainbat jaialditan arrakasta itzela lortuko dute, eta antzezlana Televisión Españolarako grabatzera helduko dira (zenbait murrizketaz). Nievak ia hogeita hamar urte lehenago idatzi zeremonia ilun hori ikuskizun argitsu eta bikain bihurtu zuen Denokek, eta horrek bakarrik egindako ahalegin oro eta gastatutako diru guztiak justifikatuko lituzke. Alabaina, une goren hori Denoken gainbeheraren hastapena ere izan zen.

Kooperatiba erakundeen enkarguak egitera engaiatu zen, eta horiek ezer gutxi ekarri zioten, antzerkigile moduan *Patxi Larrainzar* zuten arren. Lehenik *Rafa Martínek* zuzendutako ***Iparragirre viaje a la libertad*** eskaini zuten, bardo zaharraren mendeurrenean, eta segidan *Carlos Gil*ek zuzendutako ***La Llanada solitaria***, Gasteizko hiriaren fundazioaren zortzigarren mendeurrena ospatzeko.

1893ko abenduaren 31an Denok Antzerki Ekoizpeneko Kooperatiba ofizialki desegin zen. Gabon zahar trsite hartan euskal antzerkiaren historiako pasarte bikainenetako bat itxi zen.

## ● Bekereke

Bere izen eufonikoarekin kontrastean, zeinaren etimologia eta esanahia egundo ez baita argitua izan, Bekereke antzerki komunaren lanaren oinarrian zeuden ideia artistikoak agerikoak dira: *Eugenio Barba*ren metodoaren espresionismo fisikoa definitzen zuen "hirugarren bidea" deitutakoari lotuak, batik bat kale ekintza burutzen zuten, ikuskizun bortitz eta leuntasunik gabeetan, antzezle komunitate horrek 1981etik **Vírgala** herri txikian zeramaten bizimoduari eta antzerkiari buruzko norabide bakarreko pentsaera islatuz.

**Bekerekeren muina Bilboko Irakasle Eskolan** sortu zen, *Santi Ugalde*, *Txema Ocio* eta *Elena Armengod*ekin. Taldearen lehenengo lanak ***Ganorabako*** eta ***Lorratzean*** izan ziren, 1980 eta 1981ean.

**Sute batek** taldeak zuen apurra erraustu zuen, eta ezerezetik hasi behar horretan *Elena* eta *Manuel Tebar* bakarrik geratu ziren. ***Lorratzean*** berreskuratu eta izen berria jarri zioten, ***El coleccionista de monstruos***, eta proposamen berriak aurkeztu zituzten (***La boda***, ***Zarataka***, ***Fábula de la sirena y los borrachos***) bereizgarri komun bat ageri zutenak: kale antzerkia egitea, dramaturgiaren aldetik interesgarria, herrikoia baina ez trauskila, jai girokoa baina abangoardista.

**1983an** *Miguelón Olmeda, Annarrita Fiaschetti* eta *Miguel Muñoz* komunan sartuko dira. Talde horrekin, 1984an ***Al fondo a la derecha*** estreinatuko da. Lan kolektiboa, ikusleekin harreman zuzen eta berehalakoa ezartzen zuen, ekintza koordinatu, soinu eta erritmoen gainean egoki egituratutako irudietatik abiatuta.

Esparru espezializatuetan Bekereke izena ahotik ahora zerabilten, eta areagoa ***Eco*** ondoren, taldearen ibilbideko arrakastarik biribilena, Britainia Handiko profesionalen talde batekiko lankidetzaz sortua.

Antzezlan horretan antzerkia eta dantza lotu ziren, indar adierazkor handiko sintaxi batean, non soinua, argia, kolorea eta antzezpena ezin hobeto uztartzen baitziren. Iritzi berekoak ziren Bekerekek bi urte luzez kurritutako Holanda, Alemania, Eskandinavia eta beste hainbat lekutako ikusleak.

**Taldeaz gehiegi espero zen** ***Sentido único*** estreinatu zenean. Kaleko beste ikuskizun bat zen, ikusmena akuilatzen zuena eta alderdi kontzeptualera lerratua, beti ere antzerki orohartzaile bat helburu.

1989an taldea desegin zen, ***Se prohíbe*** eskaini ondoren. Antzezlan trinko, gordina, probokatzailea zen, botereak urbanita gajoengan eragiten duen irentzeari buruzkoa.

Bekerekek oraindik kaleko ikuskizun pare bat eskaini zuen, eta antzokirako lan bikain bat, ***Cuando el hielo arde***, baina azken urteetan alderdi pedagogikoari emanagoak zeuden. *Elena Armengod*en heriotzak 2000ean Bekerekeren hogei urteei bizialdi oso bat, amaiera tragikoa eman zien.

## ● Pikor

1989an Bekerekeko bi kide historikok, *Miguelón Olmeda* eta *Annarita Fiaschetti*k, Pikor taldearen abenturari hasiera eman zioten. Ikuskizunen ekoizle gisa, Pikor umore handiko kaleko antzezlanetan espezializatu da eta baita, neurri txikiagoan bada ere, aretokoetan ere. Kale ekintzan eta lan fisikoan nahiz keinuen baliabideetan maisu, Pikor taldeak Espainia osoan zehar lantegi pedagogiko hagitza burutzen dute, profesional nahiz ikasleei zuzendutako mintegi eta ikastaroen bidez, eta ekintza zuzeneko tailerrak medio gizarte salaketako kolektiboentzat.




Ekoizpen lanei dagokienez, 1990ean ***Naftalina*** obrarekin debuta egin zuenetik, Pikorrek hamabost bat lan eszenaratu ditu, gehienak kalekoak eta eduki sozialekoak: ihesa, intolerantzia, marjinazioa... ikuslearen geldotasuna inarrosi nahi duten lanak. Antzezlan horiekin Maeztun finkatutako taldea Espainia, Italia, Holanda, Alemania eta Hego Amerikan zehar ibilia da.

Berebat, Pikorrek sarritan beste talde batzuen ikuskizunetan parte hartu izan du: *Tarima* (Bizkaia), *Zanguango* (Salamanca), *Producciones Quiquilimón* (Asturias), *Legaleón* (Irun), *Lavi e bel* (Granada), eta abar.

Frankensteinen mitoaren bertsio bitxi bat, *Miguel Garrido*k zuzendutako ***Franki Stein***, eta boxeoari buruzko kale ikuskizun bat, ***K.O.***, Pikorrek oraindik orain egindako bi lan nabarmen dira.

## ● Teatro Gasteiz

Teatro Gasteiz taldeak hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik kalitatezko testuekin, klasiko (Molière) zein garaikideekin (Alfonso Sastre), lanean ari bazen ere, 1982an Denok kooperatibako zenbait kide lotu zitzaizkienean arte ez zuten entzute handiegirik izan. Ziklo berri horretan, Gasteiz taldeak lan entretenigarri eta aldi berean egoera politikoarekin engaiatuak egiteko konpromisoa hartu zuen.

*Carlos Gil*ek eta gainerakoek *Dario Fo*rengan iturri oparoa aurkitu zuten. Geroago ostera Nobel saria izango zen egilearengana itzuli ziren, ***Pareja abierta*** eta ***Bakartasunean***, ***Todas tenemos la misma historia*** lanekin. Kale antzerkia ere egin zuten, eta haurrentzakoa (***Supertot***) nahiz klasikoren bat (*Von Kleist*en ***El cántaro roto***), orduko egileen testuez gain, *Luis Matilla* edo *Ignacio Amestoy*, azken horrekin Teatro Gasteizek lankidetza emankorra garatu zuelarik: ***Betizu, toro rojo, Gernika, un grito, La zorra ilustrada***.

Goren unea 1993an heldu zitzaien, *Salvador Távora* La Cuadra de Sevillako zuzendaria ***Pasionaria, ¡no pasarán!*** eszenaratzeaz arduratu zenean. Aurrez aipatu egile bilbotar beraren testuaz, antzezlana akaso konpainia gasteiztarrak egindako biribilena da.

## ● Teatro Paraíso

1976an, Gasteizko Abetxuko auzoan antzerki tailer batean zihardūen taldea eratu zen, **Eterno Paraíso** izenaz. 1983an *Miguel Garrido*rekin elkartu ziren, eta urte horretan bertan José Luis Alonso de Santosen *La leyenda del dragón payaso* antzeztu zuten. Une hartan Teatro Paraísok profesionaltasunerako jauzia eman zuen, eta Euskal Herriko haurrentzako antzerki enpresa saiatu eta langileena bezala bermatu zen. Ikusle helduentzako lanak ere egin dituzten arren, emaitzarik onenak haurrentzako generoan eta ikasleentzako antzerki pedagogian lortu dituzte.

## ● Porpol

1984an, Denoken desagerpenaren errautsetatik Porpol jaio zen Gasteizen, kideen lan kooperatiba moduan. *Javier Alkorta eta beste kideak* Arabako Foru Aldundiaren **Arte Eszenikoen Tailerraren** kudeatzaileak dira, **Araiako Umorezko Antzerki Jaialdia** eta **Arabako Kale Antzerkiaren Jaialdia** zuzentzen dituzte eta Aguraingo **Harresi Aretoa** programatzen dute.

Lehen ikuskizunetik –***La Pared***– azkenera bitartean –***El debut de Leire***–, Porpolek hamabi funtzio egin ditu jada, hainbat genero jorratuz: haurrentzako antzerkia, kale desfileak, lan txikiak eta testu zailekiko obrak, *Samuel Beckett*en ***Esperando a Godot*** edo *Rebeca Pasagg*en ***Hoy Medea*** kasu.

## ● Traspasos

Traspasos taldearen ibilbide artistikoa ezohikoa da gurean. Dantza konpainia gisa hasi zen, eta jaialdi, erakustaldi, zeremonia, telebista programa eta abarretik eskaintza ugari izan zuen, baina zazpigarren ikuskizuna burutu ostean antzerkira aldatu zen, urte luzez egindako koreografia lanean metatutako ezaupideak profitatuz.

*Traspasos*en sustatzaile nagusiak *Mikel Gómez de Segura* eta *Charo Fernández Insausti* dira. 1989an hasi ziren, ***Iendo*** ikuskizunaz, eta hari ***Caballos al viento, Siellas, Sísifo*** eta ***Aparecidas*** jarraitu zitzaien. bien bitartean,


a partir del 6 de noviembre
Tanttaka Teatroa os lleva al
"cole" en el teatro La Latina
de Madrid. Matrículas:
Caja de M 902 488 488
No quie e, quiero
ir al del 6
de n Tea-
troa n el
teatr adrid
Mat drid
902 al
cole. par-
tir Tantta-
ka Te "cole"
en el a de
Madrid Caja de
Madrid No quie
ro ir al quiero ir
al teatro. A partir del 6 de
noviembre Tanttaka Teatroa
os lleva al "cole" en el teatro
La Latina de Madrid. Matrí-
culas: Caja de Madrid
902 488 488. No quiero ir al
EL FLORIDO
PENSIL
Memoria de la escuela
nacionalcatólica

Donostiako Nazioarteko Zinemaldirako eta ETBko *Goraintzi* programarako zenbait koreografia sortu zituzten.

Aurretik aipatu dugun taldearen antzerkirako urratsa 1996an gauzatu zen, ***Pasarela*** lanaz, modaren munduaren gaineko *Mikel Gómez de Segura* eta *Felipe Loza*ren testu batean oinarritua.

Mikel beraren ideaia bikain batetik abiatuta, *Ernesto Caballero*ri ***Pepe El Romano (La sombra blanca de Bernarda Alba)*** eskatuko diote, 2000. urtean estreinatuko dena, eta hurrengo urtean ***El uno y el otro*** eszenaratuko dute. Ongia eta gaizkia, nia eta hura, gizabanakoaren bereizte etengabea aztertzen duen alegia moral bat da, *Jaime Romo*k idatzia eta *Adolfo Fernández* eta *Rafael Martín*ek aurrez aurre jokatua.

Gaur egun, Traspasosek gehienbat bizirik dauden egileen lanak eszenaratzen ditu, eta antzezleen lana du oinarri nagusia.

## ■ Nafarroa

### ● El lebrel blanco

*El Lebrel Blanco* 1971aren amaieran jaio zen, hirurogeiko hamarkadan Iruñeko antzerki mundua suspertu zuten Amadís eta Valle Inclán taldeetan trebatutako aktoreekin. Sorreratik bi dohain garrantzitsu zituen: aktore multzo handi eta anitz bat –adin eta izaera oroko berrogeita hamar antzezle inguru–, eta ideiak oso garbi zituen zuzendari bat: *Valentín Redín*.

**Hastapenetan El Lebrel** taldeak haurrentzako antzerkia baino ez zuen egin, hainbat obra eszenaratuz, Iruñeko Udal Aurrezki Kutxaren babesaz igande goizetan Gayarre antzokian eman zirenak. Baina 1973an helduentzako antzerkiari ekitea deliberatu zuten, *Valle Inclán*en ***Yerma*** lanaz, eta emaitzak tamaina handiko ikuskizunen ildoari jarraitzeko bihotz eman zien. Hurrengo urteetan *Jordi Teixidor* -en ***El retablo del flautista***, *Jaime Salom*en ***Nueve brindis por un Rey*** edo *Carlo Goldoni*ren ***La posadera*** eskaini zituzten, ***1789, la ciudad revolucionaria es de este mundo*** antzezlanaz arrakasta heldu zitzaien arte. Emankizunak, berealdiko fresko historikoa, El Lebrel Espainia mailan antzerki independenteko talde gailenen arteko gisa bermatu zuen (El País egunkariak, bere jaiotza urtean, denboraldiko muntaketa onenaren saria eman zion 1976an).

Sekula profesional bilakatu ez bazen ere, Valentín Redínen taldeak lan eskema profesional batez jardun zuen. Iruñean areto bat izatera iritsi zen –aurrekaririk gabeko gertakaria– 300 eserleku zituen El Pequeño Teatro, non programazio zaindu bat eskaintzen baitzen.



*"Sigue la tormenta".*



*"Sigue la tormenta".*



*"Romeo y Julieta".*



1978an bonba batek Amaia kaleko lokala suntsitu zuen, baina ezin izan zuen eragotzi jomuga, ***Navarra, sola o con leche*** antzezlana, Nafarroako antzerkiaren historian gehien jokatutakoa izatea.

*1789*ren antzezpenaz geroztik, El Lebrelek eduki sozialeko eta interes orokorreko antzerkia egin zuen, antzerki ausart, entretenigarri eta gogoetatsua, Trantsizioko gizarte nafarra zornatzen zuen zauri oro agertu zuena: eskuin legitimistaren irakurketa kritiko bat ***Carlismo y musica celestial*** lanean; erresuma zaharraren historiaren gainbegiratu bat ***Utrimque roditur*** lanean, eta Nafarroa eta honen ahizpa Euskadiren arteko harremanak aipatu ***Navarra, sola o con leche*** lanean. Hiru obra horiek *Patxi Larrainzar* egilearen talentuaren emaitza ziren, ***Pampilona circus*** bezala.

**El Lebrel Blanco taldeak** berrogei ikuskizun inguru egin eta sona handiko sari ugari pilatu zituen, eskola bat sustatu zuen eta literatur sari bat sortu, eta, finean, Valentín Redín eta honen antzezlari zerrendaren lantegi bikainaren oihartzun modura Nafarroa osoan barrena sortutako antzerki esperientzia askoren inspirazio iturri izan zen.

### ● Teatro estable de Navarra

1979an, El Lebrel Blanco taldeak Nafarroako aurreneko antzerki eskola sortu zuen, eta handik gutxira eskolaren babesean **T.E.N.** jaio zen. Eskolan irakasle aritu ziren, adibidez, *Carlos Creus, Paca Ojea* eta *Juan Pastor T.E.I.*ren kide ohi eta *William Layton* eta *Dominique de Facio*ren jarraitzaileak, eta baita *Francisco Nieva, Miguel Narros* eta *José Carlos Plaza* ere, besteak beste.

**Hasierako T.E.N. haren eszenaratzeek** joera esperimentala zuten, eta Stanislawski metodoan hezitako aktoreen antzezpen mailagatik nabarmentzen ziren. Eszenatokietan estreinakoz agertzeko 30eko hamarkadan Ipar Amerikako antzerki sozialaren obra adierazgarri bat hautatu zuten, *Clifford Odets*en ***Esperando al zurdo***, *Creus*en zuzendaritzapean. Estreinaldiaren ondoren, Primer Acto aldizkariko kritikariak honakoa idatzi zuen: "Ez dago oso garbi obraren egitura eta beharrizanak proposatzen zitzaigun emankizun motari egokitzen zitzaizkionik. Baina eszena bikainak ikusi ziren, eta denbora ez dela alferrik galdu egiaztatu zen, jarduera artistiko ororen berezko zuzenketak eginez gero. Garrantzitsuena, finean, gaurgero gertatuko dena da".

Eta T.E.N. Espainiako antzerki munduan bermatuz joan zela gertatu zen, kalitate eta arrisku handiko lanez, ezaugarri horiek

izan direlarik drama garaikidearen testu handiak eta sorkuntza lan esperimentalak tartekatzen dituen ibilbidea bideratu dutenak.

Psikologiaren mundua miatzen duten zenbait antzezlan eskaini dituzte, hala nola *Brecht*en ***La boda de los pequeños burgueses***, *Williams*en ***El zoo de cristal*** (*Paca Ojea*rekin antzezle nagusi eta zuzendari gisa), *Mastrosimone*ren ***En el quinto cielo*** (*José Pedro Carrión*en zuzendaritzapean), *Albee*ren ***Historia del zoo***, *Pamela Gems*en ***Cuatro mujeres***, eta *Kafka* edo *Chejov*.

Lehenago, Nafarroako sorgineen gaineko antzezlan batekin harritu gintuzten: ***Marijuana*** (*Angel Sagüés*ekin hasierako egile eta zuzendari bezala).

*José Láinez*ekiko (*Anexa* eta *Yauzkari* dantza garaikideko taldeen sortzaile) lankidetzatik antzezlearen heriotzari buruzko collage hiperfisiko bat atera zen, ***Ameli-Catalina***, eta Jean Geneten ***Severa vigilancia*** obraren moldaketa libre zirraragarria, zeinak ***Abismo*** izenburuaz 1985eko Sitgesko Jaialdian arrakasta handia lortu baitzuen.

Zuzendari bikainak izan ohi dituen taldea, laurogeiko hamarkadaren amaieran Grotowskiren obran espezializatutako Jaroslaw Bielski erakarri zuen, *S.I. Witkiewicz* eta *Tadeusz Rózewicz* abangoardiako egile poloniarrak ezagutarazi zizkiguten hiru muntaketa egiteko.

## ● Pinpilinpausa

1989an, T.E.N. eta **Pinpilinpausa** elkartu egin ziren. Azken talde hori 1982an jaio zen, eta haurrentzako zuzeneko kale antzerkian espezializatuta zegoen.

*Asun Abad* eta *Angel Sagüés*ek gidatutako taldeak 22 ikuskizun egin du jada, eta horietan gizarte mailako egoerekiko sentsibilitatea handia agertu dute.

## ■ Iparralde

XXI. mendeko Iparraldean, antzerkia kultur gertakaririk bizi eta interesgarriena da. 300.000 biztanle baino gutxiagorekin, lau talde profesional daude eta askoz talde amateur gehiago, antzezpenak ia denboraldi osoan zehar programatzen dira, jaialdiak antolatzen dira eta ikasgeletan antzerki eskolak ematen dira. Gainera, berezko ideiak dituzten antzerkigile gazteak sortzen ari dira, lanak eszenaratzen dizkieten konpainien babesa dutenak.

## ● Les Chiméres

**Gainbegiratu labur hau** eskarmentu handieneko taldearekin hasiko dugu: **Théâtre des Chiméres**, *Jean -Marie Broucaret*ek 1979. urtean Baionan sortua, duela zenbait urtetik hona erroak Miarritzen eman dituen arren. Antzerki gune integral bat da, eskualdeko *lycée*etan tailerrak bideratzeaz, ikastaro eta mintegiak emateaz nahiz ikuskizunak programatzeaz arduratzen dena. Azken alor horretan, jarduerarik garrantzitsuena urtero 1981ean taldearen ekimenez sortutako Baionako Antzerki Jaialdia (orain franko-iberiar eta latinoamerikarra deitua) antolatzea da.

1980an ***Le fil magique*** sorkuntza lan kolektiboarekin hasi zirenetik, *Les Chiméres*ek hogeita hamar ikuskizun inguru eszenaratu ditu. Antzerki garaikideko egileak baliatu ditu (*Sartre, Pinter, Ionesco, Cocteau*), eta baita geroagoko beste zenbait antzerkigileren proposamenak ere (*Claude Confortès, Marc Pheline, Odile Clair…*).

Denboraldi batez idazle espainiarretan espezializatu ziren: *Valle Inclán* eta *Lorca*, nagusiki. Taldearen ***La casa de Bemarda Alba*** sorkuntzazko aurkikunde bat izan zen lehenengoz eman zenean, 1984an.

1998an taldeak euskaraz egindako lehen funtzioa estreinatu zuen. *Andrée Chedid*en ***L'enfant debut*** antzezlanaren itzulpen bat zen, bi urte lehenago frantsesez jokatu zena.

## ● Lézards qui bougent

**Lézards qui bougent** konpainia *Bernard -Marie Koltès* antzerki moderno europarreko klasikoaren testuen eszenaratzeengatik eta lantegi horretan ageri duen kalitateagatik Frantzia osoan onetsia da. Izan ere, Baionako *muskerren* zuzendaria, *Kristian Frédric*, *Koltès*en estreinaldi nagusien arduradun *Patrice Chereau*ren aldamenean trebatu zen.

***Dans la solitude des champs de coton, À la recherche d'un ange au milieu de ce bordel*** eta, batez ere, *Koltès*en ***La nuit juste avant les forêts*** testu goiztiarra bezalako obrek konpainia hau Frantziako antzerki talde nagusietako bihurtu dute.

*Lézards qui bougent*ek *Dorothée Letessier* eta *Emmanuel Bove* egile garaikideekin ere lan egin du, besteak beste. Berebat, helduentzako antzerki ikastaroak eta testu modernoen irakurketa publikoak antolatzen dituzte.

## ● Théâtre de Versant eta Scaramuccia

Iparraldeko beste bi antzerki enpresa dira *Gaël Rabas* buru duen Miarritzeko **Théâtre du Versant**, eta *Jean-Marc Toto*k zuzentzen duen Donibane Lohitzuneko **Scaramuccia**, antzerki eskola izateaz gain komedia klasikoak eszenaratzen dituena (berriki ***Medecin Volant*** estreinatu zuten, *Molière*ren zirriborroa bat abiapuntu harturik).



*"Cartero".*



*"Romeo y Julieta".*



*"Pan con pan".*






*"La ciudad revolucionaria es de este mundo". El lebrel blanco.*



*"Los Justos". Orain taldea. Kike Díaz de Rada eta Iñake Irastorza.*

*Euskal Herriko taldeen antzerki erakustaldia. "Pastel de fresa". Cobaya.*





*Euskal Herriko taldeen antzerki erakustaldia. Nafarroa.*




*"Crónicas del doctor Z". Cómicos de la legua-Kilikariak.*




REPARTO
UNA PRODUCCION DE
ADOS TEATROA


EL TANGO
TEATRO ESTUDIO DE SAN SEBASTIAN
EL TANGO
de Paco Sagarzazu
Versión de
Romualdo Salcedo


EL AMIGO DE
JOHN WAYNE
ESCRITO Y DIRIGIDO POR CARRI LOSADA
ADOS TEATROA


a cUEstAS con
murphy
de Ander Elizondo
DIRECCIÓN: Santiago Sánchez
El 26 de Abril a las 21:00
en el teatro Principal de San Sebastián
Imprescindible confirmar asistencia antes del 24
de Abril en el teléfono 627 54 61 13.
(Invitación válida para dos personas)

# Egileak






…Maletas”.

EGILEEK EUSKAL ANTZERKIAN DUTEN LEKUA antzerkiak berak azken hamarkadetan eman dien garrantziaren araberakoa da. Hirurogeita hamarreko urteetan, eta baita laurogeiko hamarkadaren zati handi batean ere, egiten ziren muntaketek taldeko sorkuntzarako joera handiagoa ageri zuten, edo egilea bere borondatez itzalean geratzen zen, taldeko lana lehenetsita, estatuan gertatu ohi zen bezala.

## Eskarmentu handikoak

Hori gertatu aurretik, ordea, egile garrantzitsurik bazen jada, **José María Bellido** (1922-1992) kasu, zeinak berrogeiko hamarkadaz geroztik umorea eta tragedia uztartzen asmatu baitzuen, ***El hombre que se fue*** (1949), ***El Baile*** (1951) edo ***Fútbol*** (1963) bezalako lanetan. Azkenaldian antzerki komertzialago bat idatzi zuen, ***Milagro en Londres*** (1972) bere arrakastarik handienaren moduko antzezlanekin.

**Gabriel Celaya** (1911-1991) poetak antzerkigintza ere jorratu zuen, ikuspegi poetiko batez beti. ***El relevo***, bere lanik ezagunena, euskal antzerkiarentzat kasik oharkabean joan zen, laurogeiko hamarkadan Bederen-1 konpainia gipuzkoarrak modu bikainean eszenaratu zuen arte.

**Rafael Mendizabal** (1940) eta **Juan José Arteche** Donostian jaio eta Madrilen bizi diren eskarmentu handiko bi antzerkigile dira. Antzerki komertzial eta formalki aski konbentzionala egiten dute. Artechek, berebat, Londres, Paris edo New Yorkeko eszenatokietan arrakasta izan ostean hemen *Pedro Osinaga* o *Arturo Fernández* bezalako erakarmen indar handiko antzezleekin taularatzen diren komedia ugari itzuli eta moldatu ditu.

## Helduak

Gazteleraz idatzitako euskal antzerkigintzan bada 40 eta 50eko hamarkadetan jaiotako egileen belaunaldi bat, **Ignacio Amestoy** (1947) buru duena, lan gehien estreinatu eta bere testuen moldaketetan zorterik handieneko egilea izaki. Adibidez, *Geroa* eta *Teatro Gasteiz* taldeek bere ***Gernika, un grito, 1937***; ***Pasionaria, no pasarán***; ***Betizu, toro rojo***; edo ***Doña Elvira, imagínate Euskadi*** eszenaratu dituzte. Egile honen antzerkian Euskadiko egoera sozial eta politikoa, beste hainbatek saihestu ohi duena, kezka etengabea da.




**Fernando Savater** (1947), aldiz, ez da antzerkigile gisa hain ezaguna. Tonu literario eta diskurtsibo batez, zenbait antzezlan idatzi eta estreinatu du, hala nola ***Juliano de Eleusis*** (1981), ***Vente a Sinapia*** (1983), ***El último desembarco*** (1987), ***Catón, un republicano contra César*** (1997) eta ***Guerreo en casa*** (1992).

**David Barbero** eta **Francisco Javier Diez-Gil Conde** Euskal Herritik kanpo, hurrenez hurren Gaztelan eta Galizian, jaiotako bi egile dira. Alabaina, Euskadin urte asko eman ondoren zalantzarik gabe euskal antzerkigintzaren baitako dira.

**Aipatu lehen egileak**, ofizioz kazetaria, testu eta sari gehiago du, estreinaldi baino. Bere lan batzuk *Un hombre muy enamorado*, *La vida imposible de Marilyn* edo *Gambito de dama* dira.

**Javier Gil** (1953) institutuko irakasleak ere lan dezente egin du, berak *komedia ankerra* deitzen duen genero berriaren barruan. ***Rosa del jardín prohibido***, ***Sueños de identidad*** edo ***La tierra movida bajo los pies*** bezalako testuen bereizgarrietako batzuk ironia, surrealismoa eta beti amildegiaren ertzean dauden pertsonaiak dira.

## Gazteak

Egile gazteenen artean **Xabi Puerta** (1959) nabarmendu behar da, zeinak antzezlanekin batera zine eta telebistarako gidoiak egiten baititu. *Geroa* eta *Eolo* bezalako taldeetan aritu eta beraientzat zenbait lan, adibidez ***Dulce puta*** edo ***La piel prestada***, sortu ondoren, azkenaldian ***Perros de la lluvia*** eta Gilen Tellen mitoaren ikuskera berezi bat idatzi ditu.

**Ortiz de Gondra** (1965) gehientsuen antzeztu eta saritutako egile bat da. Madrilen lan egiten du, eta euskal antzerki sorkuntzarekin harreman eskasa du. ***Dedos***, Centro Dramático Nacional delakoan estreinatua, Espainian eta kanpoan gehien antzeztutako funtzioetako bat da.

Bestalde, **Roberto Herrero** (1960) kazetari eta antzerki kritikariak bi testu eder argitaratu ditu: ***Los abrazos perdidos*** eta ***Como todos los martes***. Lehenengoan, Eolok 1997an estreinatua, ETAren existentzia eta honek euskal gizartean eragiten duen nonahiko indarkeria zuzenean jorratzen dira.

Emakumeek egindako antzerkia, duela gutxi arte apurra, indarra hartzen ari da **Garbiñe Losada** bezalako egileekin. Honek, Ados Teatro bere taldearekin zenbait lan estreinatu ditu, ***Desperrados*** eta ***El amigo de John Wayne*** kasu.

**Maite Agirre** (1955) antzezle, zuzendari eta ***La baladilla de San Sebastián, Bilbao, Lauaxeta, tiros y besos, Y María, tres veces amapola, María***–María de la O Lejárraga errepublikar, antzerkigile eta feministari buruzkoa– antzezlanen egilea da.

**Teresa Calo** (1955) antzezleak *Mentiras* eta *Entre líneas* lanak idatzi ditu.

Zerrenda labur hau ez dugu itxiko **Edurne Rodríguez** (1964) aipatu gabe, tamalez jada zendua. Legaleón konpainiaren kide izan zen, eta bertan antzezle lanak egiteaz gain taldeak ekoiztu dituen antzezlanetako batzuk idatzi zituen, hala nola ***Mujeres al rojo vivo***.


BEHEREARTA
Pantxo Hirigaray


RAFAEL MENDIZABAL
UÑA Y CARNE


Veinte años de Agnes


Uztailaren Iaua, Renon
JAVI OLLERO GORIATXUENA


RAFAEL MENDIZABAL
FELIZ CUMPLEAÑOS SR. MINISTRO


Garatenea
Pantxo Hirigaray


Lamindegiko lamiak
PANTXO HIRIGARAY


Mar
de Almendros
Teatro


Ostiralero afaria
Antzerkia


Premios Literarios Ciudad de San Sebastián 1998
ISMENE
Juan Torres Jiménez
Teatro


1996. Donostia Hiria Antzerki Saria
Tu quoque fili


ERRENTA


Ella se va


El pie de las estatuas
(o el suicidio de Peter Pan)
EVA GARBISAS


EL LIBRO DE SALOMON


1995. Donostia Hiria Antzerki Saria
Zu(t)gabe
Aitzpea Goenaga


GARAIA DA EUSKADI
XABIER MENDIGUREN
donostia hiria antzerki saria
ciudad de san sebastián


Premios Literarios Ciudad de San Sebastián. 1997
Doña Refugio y su comadre
Teatro


Creo en Dios
Rafael González
Paco Sanguino


Los colores del fuego

# Antzerki agenda






**EUSKAL HERRIAN URTE OSOAN ZEHAR** burutzen diren Jaialdien zerrenda luzeak antzerkiak erakartzen duen zaletasunaren berri ematen du. Jaialdi gehienak udalek babesten dituzte, bakarren batzuk antzerki taldeek antolatzen dituztelarik.

## ■ Askotariko jaialdiak

### ● Antzerkia

Jaialdi garrantzitsuena 1975az geroztik **Gasteizen** burutzen dena da zalantzarik gabe. Jaialdi horri esker bestela gure eszenatokietara nekez iritsiko ziren estatuko eta nazioarteko konpainiak ikusi ahal izan ziren. Arabako antzerki eskaintzan berebiziko garrantzia du, eta urteko programazioaren gertakari nagusia da. Euskal Herrian burutzen diren jaialdien artean, **Gasteizko Antzerki Jaialdiak** babes ekonomiko handiena du.

Eibarko Antzerki Jaialdia ere denbora luzez izan dugu gurean. 2002an 25. urteurrena ospatu du, eta tarte horretan erreferentzia bihurtu da, bere programazio anitza, ikusleen erantzun paregabea eta Euskal Herriko nahiz Espainiako antzerki ofizioan lortu duen errespetua medio.

Eskarmentu handikoak dira, halaber, baina ez horregatik zaharrak, **Getxoko Antzerki Jardunaldiak**, 19 urte bete dituztenak, edo dagoeneko 22 ekitaldi ospatu dituen **Santurtziko Nazioarteko Jaialdia**.

### ● Txotxongiloak

Txotxongiloen alorrean, bi jaialdi nabarmentzen dira: **Bilboko Txotxongilo Jaialdia**, hogei urte baino gehiagoko ibilbideaz, eta **Tolosako Nazioarteko Jaialdia**, haurrei zuzendua, 1983tik mundu osoko konpainiak bildu eta ikuskizunak Gipuzkoaren gune ugaritan eskaintzen dituena. Herrialde horretan bertan, Bergarako herrian, Taun-Taun konpainiak antolatzen duen **Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia**, bi urtetik behin eta helduei zuzendua, burutzen da.

### ● Kale eta eskola antzerkia

Kale antzerkiaren esparruan aipagarriak dira **Barakaldoko Jaialdia**, zeina hirugarren ekitaldira heldu baita, eta adin bereko **Leioako Jaialdia**, umorezko lanei emana.

Gazteenek egindako antzerkiari dagokionez, urtean hiru ekitaldi nagusi burutzen dira, partaidetza handia erakarriz. **Deba Behereko Eskola Antzerkiaren Erakustaldia**, Elgoibar, Ermua, Mallabia eta Mutriku bezalako herriak barne hartzen dituena; eta **Donostian** eta **Irunen**, urtean zehar sasoi ezberdinetan, egiten dira gazte antzerkiaren jardunaldiak.

### ● Azoka bat

Azkenik, **Donostiako Antzerki Azoka**, zaletuei nahiz profesionalei zuzendua, hartzen ari den indarra nabarmendu behar da. 2002koa zortzigarren ekitaldia delarik –ez ordea sortu zeneko zortzigarren urtea, tartean eten bat egon baitzen–, erakustaldi honetan euskal antzerki lan gehienak jasotzen dira, eta estatuko antzerkiaren hautaketa batek eskaintza aberasten du.




### ● Iparralde

Iparraldean bi jaialdi nagusi burutzen dira. Garrantzitsuena Baionako **Antzerki Jaialdi Franko-Iberiar eta Latinamerikarra** da, batez ere Hego Amerikako lanak ikusteko parada eskaintzen duena, eta, horrekin batera, **Le Mai de Théâtre**, duela 18 urtetik Hendaiako mugaldeko herrian ospatzen dena.

## ■ Euskal antzerkia, kopuruetan

Euskal Autonomi Erkidegoan, Iparralde eta Nafarroan bezala, antzerki sorkuntza erakunde publikoen mende dago. Horrakoa nekez saihets daitekeen egiaztapena da, ezen antzerkiaren profesionalek Euskal Herrian sortu, ekoiztu eta jokatzeko modua baldintzatzen baitu.

Gure herrialdeetan kultur eskumenak dituzten erakunde guztiek (Gobernu espainiar eta frantsesetik udaletara, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Foru Gobernua nahiz EHAEko hiru Aldundiak barne) urtero antzerkigintza, produkzio edo ikuskizunetarako dirulaguntzak ematen dituzte, profesional berriak hezteko bekez gain.

**Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuak** Foru Komunitateko antzerkigintza sustatu eta talde zein konpainiak bultzatzeko 12.500 euroko lau dirulaguntza eskaintzen ditu, ikuskizun berriak eszenaratzea xede dutenak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 420.700 euro ematen ditu konpainia profesionalen artean banatzeko –zenbateko ezberdinez, zenbait baremoren arabera–, eta 36.000 euro profesional gazteen ikuskizunak sustatzeko. Halaber, urtero antzerki testuen sorkuntzarako lau laguntza, bakoitza 12.000 eurokoa, ematen ditu (bi euskaraz eta beste bi gazteleraz).

Eusko Jaurlaritzaren azken inkestaren (2001) arabera, Erkidegoan eszenatoki gaineko emankizunen (antzerkia, dantza, lirika eta musikalak) eskaintza pribatua %13koa baino ez zen, gainerako %87a publikoa izan zelarik. Hori dela eta, Julio Perugorria banatzaileak honakoa adierazikko du: “produkzio asko dago merkatu bakar bat jomuga duena: erakundeena”.

Horrenbestez, sektoreak kasik erabat altxor publikoari esker bizirauten duela esan daiteke. Egiaztapen kezkagarria da hori, baina badirudi alorrean lanean diharduten gehienak egoerara ohitu direla (edo etsi dutela).

### ● Euskadiko Antzoki Sarea

1993an **Sarea** sortu zen, euskal antzokien sarea, honako xedeaz: “kalitatezko programazio egonkor bat sustatzea, oinarri arrazionaletan funtsa duena, eskura dauden giza baliabideei zein ekonomikoei ahalik eta etekin handiena ateratzeko eta arte eszenikoen alorrean ikuslego bat sortu eta hezteko”. Erakunde arteko koordinaketa hori *Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak*, *Foru Aldundietako* kideek eta azpiegitura egokia izaki borondatea ageri duten *Udalek* osaturik dago.

2001. urtean, Euskal Autonomi Erkidegoan 1.882 funtzio programatu ziren, horietako 1.096 Sarean sartutako Bizkaia eta Gipuzkoako 36 antzokietan (Arabak artean ez zuen antzokirik sarean). Antzerkia hiru hiriren inguruan (Donostia, Barakaldo eta Bilbo, hurrenkera horretan) gehiegi biltzen ote zen hauteman zen, ezen aipatu hiru guneetan Sareak emandako antzezpenen %41 jokatu baitzen.

**Kopuruei begira, Sarearen abantzua** garrantzitsua izan da, 1997rako 655 emanaldi sustatu baitzituen (hau da, lau urtetan %60ko gorakada). Zehazki, 2001ean 914 antzezpen eman ziren, guztira 243.902 ikusle erakarri zituztenak; bestela esanda, funtzio bakoitzeko batez beste 267 eserleku bete ziren.

2001. urteko antzezpenen ia erdiak Euskadiko konpainiek eskaini zituzten, %7 atzerrikoek eta gainerakoak espainiarrek (gehien gehienak Madrilgoak). Alabaina, arrakasta handieneko ikuskizunak Euskal Autonomi Erkidegotik kanpoko antzezlan komertzialak dira: batik bat antzezle itzaltsu edo telebistan ospetsu egindakoek jokatutako muntaketa handiak. Euskal konpainia bat topatzeko zerrendan zazpigarren postura jaitsi beharra dago.

Sarean sartutako lan zerrenden artetik laurdena haurrei zuzendutakoa da, batez ere euskaraz. Oro har, euskara Euskal Herriko antzezpenen %29an ematen dio, eta honek ezikusiarena egiten du. Emaitza modura, ez dago arte eszenikoen lizentziarik, ez Euskal Autonomi Elkartean eta ezta Nafarroan ere.

Lizentziari gehien hurbildu zitzaion esperientzia **Antzerti**, *Eusko Jaurlaritzaren Antzerki Zerbitzua*, izan zen, 1982an martxan jarria, lau urteko ikasketa plan batekin. Hasierako bi urteetan ikastaroak Bilbo eta Gasteizen eman ziren, hango tailerrak profitatuz, eta hurrengo bietan, berriz, Donostiako egoitza zentralean.




baliatzen da, ikusleen %24a erakarriz. Ikuskizunen %61a, berriz, gazteleraz eskaini zen, urte osoko ikuslegoaren %67a hartuz.

## ■ Antzerki ikasketak

Antzerkia irakaskuntza arautu gisa eskaintzeko gai goriari dagokionez, erantzukizuna batak besteari egotzi eta ezer gutxi egin ohi da. *Bata* eta *bestea*, hurrenez hurren, Eusko Jaurlaritzaren *Kultura* eta *Hezkuntza* sailak dira. Lehenengoak pilota bigarrenari

Titulua eskuratu ahal izateko, ikasleek euskararen eta euskal kulturaren ezagutza erakutsi behar zuten, eta horren ondorioz balizko ikasle asko bestela ere antzerkigileengandik kritika ugari jaso zuen eskolatik kanpo geratu zen.

1985ean tailerrak desagertu egingo dira, eta dena Donostian zentralizatuko da, 1989an ikastaroak ostera hainbat lekuetara sakabanatuko zirelarik, finean Antzerti heziketa gune gisa desagerraraziz.

*Getxo, Basauri, Gasteiz* eta *Errenterian* antzerki taldeek eta udalek zuzendutako eskolak sortuko dira. Alabaina, eskola horiek finantzatzeko modua Administrazioaren eta profesionalen arteko gatazka iturri etengabea izan da.

Bestalde, Unibertsitate publikoak graduondoko ikastaroak antolatuta hutsunea nolabait bete nahi izan zuen, baina zinez hezkuntza estatutuen barruan eta titulu ofizial batez ez da egundo antzerki irakaskuntza arauturik egon.

Gaur egun, udal eskola horietako batzuk desagertu egin dira, Eusko Autonomi Erkidegoan gero eta premiazkoagoa delarik arte eszenikoen irakaskuntzak arautegi ofizial bat eta unibertsitateko lizentzia izan ditzan, Madril, Katalunia edo Andaluzian bezala.

**Nafarroako Antzerki Eskolarena** kasu berezia da, seguruenik irakaskuntza zentro ofizial bati gehien hurbiltzen zaiona. 85-86 ikasturtean sortuko da, profesionalen eta Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritzaren ekimenez.

**Antzerki ikasketak** espezialitate bakar batean eskaintzen dira: testu antzerkiaren interpretazioa. Ikasketa horiek LOGSEren Antzerki Ikasketetarako arautegiari jarraiki antolatu dira, hala sarrera azterketei, ikasketa planei, ezagutza eremuei, eskola orduei eta kreditu unitateei nola departamentuen antolamenduari eta arautegi akademikoari dagokienez. Nolanahi ere, Nafarroako Antzerki Eskolak ezin du oraindik titulu ofizialik eman.

## ■ Sariak eta lehiaketak

### ● Ercilla Sariak

Ercilla Sariak, izen bereko hotelak urtero Bilboko antzerki denboraldiko muntaketa eta antzezle gailenei ematen diena, 1984an sortu ziren, lehenago Radio Bilbaok eman ohi zituenei segida emanez. Salbuespenak salbuespen, sarien ia hogei ekitaldietako irabazleen zerrendan espainiar eta euskal antzerkiaren izen handi guztiak ageri dira.

Hasiera batean, Ercilla sariak *sei kategoria* saritzen zituen: emakumezko antzezlerik onena, gizonezko antzezlerik onena, antzezlanik onena, euskal antzerki talderik onena, antzerki lanik onena eta aipamen berezia.

Hurrengo urtean ikuskizun onenaren saria gehitu zen, eta 1986an Antzezlan Errebelazioaren Sariak, ernetzen ari ziren belaunaldien lana balioesteko. 1994an ibilbide profesional onenaren Ercilla Saria eratu zen, eta 1998an rol txikiagoko antzezle

onenarena. Urteen joanean, Ercilla sariek Espainiako antzerki munduko profesionalen artean ospe handia lortu du.

### • Arte eszenikoen Max Sariak

Partikularki nahiz talde mailan Max Saria eskuratu duten euskaldunen zerrenda:

**1998:** **Jon Berrondo**, Eszenografo Onena *Sweenwy Todd* antzezlanagatik.

**2000:** **Markeliñe**, S.C.L., Haur Antzerkiko Ikuskizun Onena ***La vuelta al mundo en 80 cajas*** antzezlanagatik.
**Tantakka Teatroa**, Antzezlan baten Itzulpen edo Moldaketa Onena ***El florido pensil*** lanagatik.
**Jon Berrondo**, Eszenografo Onena ***La Reina de belleza de Leenane*** antzezlanagatik.

**2001:** **Garbiñe Losada** eta **Bego Losada**, Euskarazko Antzerkigile Onenak ***Gus eta Gas*** antzezlanagatik.
**Jon Berrondo**, Eszenografo Onena *Top Dogs* antzezlanagatik.

**2002:** **Bernardo Atxaga**, Euskarazko Antzerkigile Onena ***Bambulo*** antzezlanagatik.
**Trapu Zaharra & Zanguango**, Ikuskizun Errebelazioaren Saria ***Pan con pan*** antzezlanagatik.

### E.A.B. antzerki sariak

**Euskal Aktoreen Batasuna** Euskal Herriko antzerkiaren profesionalak biltzen dituen elkartea da. 1991az geroztik urtean behin ekitaldi bat burutzen duten arren, 1995era arte ez zioten beren kideen iritziz antzerki, zine eta telebistan gehien nabarmendutako aktoreak saritzeari ekin. Ibilbide bitxienen *Besarkada Saria* ere sortu zen, eta geroago *Errebelazio Saria* ematen hasi ziren.

**1995: Aitor Mazo**

**1996: Paco Sagarzazu**

**1998: Paco Sagarzazu**

**1999: Koldo Losada**

**2000: Ane Gabarain** eta **Kandido Uranga**

**2001: Paco Sagarzazu** eta **Itziar Lazkano**

**2000ko Errebelazio Saria: Ander Lipus**

**2001eko Besarkada Saria: La Fundizión**

### Txema Zubia Saria

Urtero, Munduko Antzerki Egunarekin batean, *Txema Zubia Elkarteak* antzerkiaren munduan gailendu den pertsona, talde edo izakia saritzen du. Txema Zubia Sari gisa Rikardo Ugarteren eskultura bat ematen da.

**1990: Enrique Díaz de Rada**, antzezlea

**1991:** Errenteriako **Niessen Aretoa** eta **Ur Taldea**

**1992: Maribel Belastegi**, *Orain* taldearen zuzendaria

**1993: Alfonso Sastre**, antzerkigilea

**1994: Txema Cornago** eta **Juan Ortega**, Eibarko Antzerki Jardunaldien eta Deba Behereko eskola mailako antzerki mugimenduaren sustatzaileak




**1995: Paco Sagarzazu**, antzezlea

**1996: María Jesús Valdés**, antzezlea

**1997: Legaleón-T Teatro**

**1998: Eduardo Yáñez**, kazetaria

**1999: Aitor Mazo**, antzezlea

**2000: Garbiñe Losada**, antzerkigile eta zuzendaria

**2001: Artez aldizkaria**

**2002: Ramon Barea**, zuzendari eta antzezlea.

## ■ Literatur sariak

Eusko Jaurlaritzak lan argitaragabeentzat antolatutako literatur lehiaketa bertan behera utzi zenetik, antzerkiaren munduan Euskadin bi sari garrantzitsu geratzen dira, euskaraz nahiz gazteleraz: **Donostia Hiria Saria** eta **Santurtziko Serantes Saria**.

### • Donostia Hiria Saria

1990ean, ipuinen sari urtetsuari hala gazteleraz nola euskaraz idatzitako antzezlanei zuzendutako deialdia erantsi zitzaion, zeinak Espainia eta Amerika osotik heldutako ehun testu inguru erakartzen baitu. Sariaren titulartasuna Gipuzkoako Kutxarena da, eta berori irabazteak testua argitaratzea dakar. Hasierako ekitaldietan lanaren antzezpena sustatu nahi izan zen, baina zailtasunen aurrean klausula hori ezabatzea erabaki zen. Akzesita ere kendu egin zen eta, horrenbestez, 1995az geroztik gaztelerazko eta euskarazko lanik onenaren sari bakar bana baino ez da ematen.

### • Serantes Saria

2002an Santurtziko *Serantes Kultur Aretoak* ematen duen Serantes Sariak hirugarren ekitaldia zuen. Laurogeiko eta laurogeita hamarreko lehen urteetako antzerki laburraren lehiaketaren oinordekoa, gaur egun iraupen luzeko antzezlanak ditu jomuga, eta sariaren dirukopurua apala da (2.100 euro). Alabaina, egileentzat pizgarri garrantzitsua da antolakuntzak antzezlanaren estreinaldia koproduzitzen duela, 30.000 euro inguru emanez. 40 bat testu jasotzen dira, batzuetan egile ospetsuenak. Testu irabazlea salgarria ez den argitalpen txiki batean editatzen da.

## ■ Ikusleen elkarteak

### • Txema Zubia Elkartea (Donostia)

Euskal Autonomi Elkartean den eta martxan dagoen *Ikusleen Elkarte* bakarra Donostiako "*Txema Zubia*" da, 1989an sortua. Gipuzkoan antzerkia suspertzeko urte luzez lanean aritutako antzerki zale bizkor eta gogotsu baten izena darama. Bozeramaleak *Jaime Zurbano* eta *Mikel Azpiazu* dira, eta beren jardueren artean aurreko atalean aipatu saria ematea, Donostia Hiria Sarietan antolaketa eta lehen aukeraketa egitea edota antzezlan argitaragabe edo gutxi hedatuen fondo bat sortzea, antzerki taldeek zein zaletuek begiratu ahal ditzaten, nabarmentzen dira.

### • Amis du Théâtre de la Côte Basque (Biarritz)

1966an jaioa, euskal kostaldeko antzerkiaren adiskideen elkartea urteetan aurrena doa. Egoitza ofiziala Miarritzen duen arren, bere eragina antzerkirako zaletasuna dagoen bazter orotara hedatzen da, eta batik bat Baiona, Angelu eta Donibane Lohitzunera.

Elkarte bizkor eta jendetsu hau antzerkiaren maitale orori zabalik dago, bederatzi euroko urteko kuota apal bat ordaintzea beste mugaketarik gabe. Elkarteak 600 kide inguru ditu. Bileretan Miarritzeko antzerki programazioaren diseinua, bai Gare de Midi bai Le Colisée antzokietakoa, ebazten da. Muntaketa tradizionalagoak begiko dituztenez, ez da harritzekoa Miarritzeko ikuskizun sailean Goldoni, Molière, Racine eta Victor Hugo moduko antzerkigileen izenak ohiko izatea.


IX FESTIVAL INTERNACIONAL DE TEATRO
DE VITORIA—GASTEIZ
NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIA
OCTUBRE 1984 URRIA

# AIPATUTAKO ANTZEZLANAK


## A

A cuestas con Murphy 110
À la recherche d'un ange au milieu de ce bordel 121
Abismo 121
¡Abracémonos, Folleville! 104
Abraham y Samuel 111
Adagio violentíssimo 105
Agur, Eire, agur 105
Al fondo a la derecha 118
Aló, Europa? 114
Ameli-Catalina 120
Amets beroak 110
Andergraund 114
Antihéroes 105
Aparecidas 118
Aquí no paga nadie 118
Armagedón 114

## B

Bakartasunean - Todas tenemos la misma historia 118
Bakun 116
Bambulo 107, 128
Bancarrota 107
Beckett 106
Bederen-1 106
Betizu, toro rojo 118, 124
Bilbao 124
Bilbao-Bilbao 110
Bitácora de las estrellas 114

## C

Caballos al viento 118
Canción desde Isla mariana 107
Cándido 105
Carlismo y musica celestial 120
Carnicero español 107
Catón, un republicano contra César 124
Cipión y Berganza 117
Cómeme el punto 107
Como todos los martes 124
Conoce Bizkaia 111
Crímenes del corazón 107
Crónicas del Doctor Zeta 114
Cuando el hielo arde 118
Cuatro mujeres 120

## CH

Chiquilladas 105

## D

Dans la solitude des champs de coton 121
Dantería 105
Dedos 124
Desnudos 114
Desperrados 107, 124
Divinas Palabras 104
¿Dónde estás, Ulalume, dónde estás? 114
Doña Elvira, imagínate Euskadi 111, 124
Dulce puta 124
Durango, un sueño, 1439 111

## E

Eclipse 106
Eco 118
El Alquiler 106
El amigo de John Wayne 107, 124
El Baile 124
El cántaro roto 118
El cartero de Neruda 114
El caserío 110
El castillo 116
El coleccionista de monstruos 118
El cuarto tenor 106
El culo de la luna 114
El debut de Leire 118
El florido pensil 105, 128
El gran filón 117
El hombre que confundió a su mujer con un sombrero 107
El hombre que se fue 124
El jardín de la oca 114
El mundo de los hermanos Valentin 114
El pabellón nº 6 114
El pianista del océano 105
El rabo 104
El rayo colgado (auto de fe imperdonable) 117
El rehén 114
El relevo 106, 124
El retablo del flautista 120
El último desembarco 124
El último gallinero 114
El uno y el otro 118
El vengador enmascarado 106
El viejo celoso 117
El zoo de cristal 120
En el quinto cielo 120
Entre líneas 124
Entretejas 114
Ertzaintza al pil-pil 111
Escorial 104
Esperando a Godot 118
Esperando al zurdo 120
Estrategia para dos jamones 114
Euskadi-Euskadi 110

## F

Fábula de la sirena y los borrachos 118
Flaminio 105
¡Flash-Bang! 114
Franki Stein 118
Fútbol 124

## G

Gambito de dama 124
Ganorabako 117
Gastibeltza Karabinak 111
Gato encerrado 106
Gernika, un grito 118, 124
Gerra ez, Fedra 114
Girobira 116
Goraintzi 118
Gran Place 111
Guerreo en casa 124
Gure herria/Nuestro pueblo. 106
Gus y Gas/Gus eta Gas 107, 128

## H

Harrizko Aresti hau 111
Hator 114
Historia del zoo 120
Historias de un contenedor 114
Hoy Medea 118
Hoy, última función 110

## I

Iendo 118
Ikaro 114
In extremis 114
Iparragirre viaje a la libertad 117
Irrintzi 114

## J

Jarry 114
Juliano de Eleusis 124

## K

K.O. 118
Kab, kab, kaenindios kabaret 104
Kaio luma zikina. 111
Kaixo Agirre 111
Kont Arte 107
Kontaktos kabaret 104
Kontrabajua 111
Kubierno 114

## L

L.O.V.E 116
La avería 106
La balada de Woyzeck 106
La baladilla de San Sebastián 124
La boda 118
La boda de los pequeños burgueses 120
La cabeza del Bautista 105
La cacatúa verde 110
La calle o la vida 106
La casa de Bernarda Alba 121
La casamentera 106
La comedia de los errores 105
La Coraje 107
La dama y el cardenal 107
La esclusa 107
La excepción y la regla 114
La Fundizión 128
La Garbo 114
La importancia de llamarse Ernesto 111
La leyenda del dragón payaso 118
La Llanada solitaria 117
La llanura 105
La mandrágora 111
La niña que sueña 114
La nuit juste avant les forêts 121
La palanca gran cabaret 110
La Pared 118
La piel prestada 124
La posadera 120
La ratonera 107
La Reina de belleza de Leenane 128
La señorita Julia 104
La tierra movida bajo los pies 124
La vida imposible de Marilyn 124
La vuelta al mundo en 80 cajas 114, 128
La zapatera prodigiosa 114
La zorra ilustrada 118
Lamiak 107
Landalan 111
Lauaxeta, tiros y besos 124
Le fil magique 121
L'enfant debut 121
Leonce y Lena 104
Lorratzean 117, 118
Los abrazos perdidos 114, 124
Los emigrados 107
Los hermanos Telefrunken 106
Los justos 104
Los tres mosqueteros 104
Luces de Bohemia 105
Lunas también se mea en la cama 116

## M

Malvaloca 114
Mambrú 114
Manolito Gafotas 107
Mañana de Luna 116
Marat Sade 106
María, tres veces amapola 124
Marijuana 120
Marranadas 106
Marxkarada 111
Medecin Volant 121
Mentiras 124
Mephisto 110
Merilú, la historia de una muñeca hinchable 107
1789, la ciudad revolucionaria es de este mundo 120
Milagro en Londres 124
Modigliani 104
Molly Bloom 106
Monstruo Sakratuak 111
Muerte accidental de un anarquista 105, 111
Mujeres al rojo vivo 107, 124
Mundopolski, extragedia o rebelión 116

## N

Nacidos culpables 105
Naftalina 118
Navarra 1500 114
Navarra, sola o con leche 120
Nostalgia 116
Nueve brindis por un Rey 120

## O

8 olivettis poéticos 114
Oficio de Tinieblas 110
Oído cocina 106
Okupado 111
Ondoloin 105

## P

Pampilona circus 120
Pan con pan 106, 128
Pantzart 106, 111
Paquetito 106
Pareja abierta 118
Pasarela 118
Pasen sin llamar 110
Pasionaria, ¡no pasarán! 118, 124
Pastel de fresa 114
Payasos de circo 114
Pecata Minuta 110
Peligro, te quiero 105
Pelotari 106
Pepe El Romano (La sombra blanca de Bernarda Alba) 118
Perros de la lluvia 124
Pipin 110
Plumas celestiales 114
Por mis muertos 111
¿Por qué panpox?/ /Zergatik panpox? 106
Prakaman 114
Procesados 105

## R

Rémora 105
Rezagados 111
Robinson Crusoe 107
Romeo y Julieta 105
Rosa del jardín prohibido 124

## S

S.A. 114
Se prohíbe 118
Sentido único 118
Severa vigilancia 120
Siellas 118
Sigue la tormenta 105
Sin vergüenzas 107
Sísifo 118
Sobre los perjuicios del tabaco 107
Sueño de una noche de verano 105
Sueños de identidad 124
Supertot 118
Sweenwy Todd 128

## T

Tenía una pistola con los ojos blancos y negros 111
Tira Jira Bira Kalejira 111
Todas culpables 105
Todas tenemos la misma historia / Bakartasunean 118
Tómbola Lear 107
Top Dogs 128
Trabajos de amor perdidos 105
Trapu Kursaal Show 106
Txema Ocio 106

## U

Ubú 107
Ubu emperatriz 110
Ubú Rey 107, 114
Ulises 106
Un hombre muy enamorado 124
Un mundo fantástico 114
Underground 114
Utrimque roditur 120

## V

Vente a Sinapia 124
Visto y no visto 106
Vivir en Bilbao 114
Vöjnirek Familixe 116

## X

Xespir 105

## Y

Yerma 120

## Z

Zarataka 118
Zergatik panpox?/¿Por qué panpox? 106
Zilbor Hestea 105

# AIPATUTAKO IZENAK


## A

Abad, Asun 121
Agirre, Maite 106, 124
Agirre, Ramón 106
Alarcia, Zutoia 114
Albee 120
Alkorta, Javier 118
Allan Poe, Edgar 114
Amestoy, Ignacio 111, 118, 124
Ameztoy, Vicente 106
Angulo, Alex 110
Apaolaza, Joseba 104
Aresti, Gabriel 111, 114
Armengod, Elena 117, 118
Arteche, Juan José 124
Atxaga, Bernardo 107, 111, 128
Azpiazu, Mikel 128

## B

Ballesteros, Martínez 104
Barba, Eugenio 117
Barbero, David 124
Barea, Ramón 107, 110, 114, 128
Beato, Eloi 104
Beckett, Samuel 118
Behan, Brendan 114
Belastegui, Maribel 104, 128
Bellido, José María 124
Beobide, Olatz 106
Bernués, Fernando 105
Berrondo, Jon 128
Bielski, Jaroslaw 121
Bilbao, Marivi 110
Bove, Emmanuel 121
Brecht 120
Brook, Peter 107
Brossa, Joan 107
Broucaret, Jean-Marie 121
Büchner 104

## C

Caballero, Ernesto 111, 118
Carballido, Emilio 114
Carrión, José Pedro 120
Casas, Joan 114
Cela, Camilo José 110
Celaya, Gabriel 106, 114, 124
Cervantes, Miguel 117
Clair, Odile 121
Cocteau, Jean 121
Confortès, Claude 121
Cornago, Txema 128
Cousse, Raymond 114
Creus, Carlos 120
Cueto, Jokin 104

## CH

Chandler, Raymond 114
Chedid, Andrée 121
Chejov, Anton 107, 120, 114
Chen, Manolita 110
Chereau, Patrice 121
Christie, Agatha 107

## D

Darrieussecq, Marie 106
de Aguirre, Lope 111
de Facio, Dominique 120
de Felipe, Natxo 111
de Miguel, José A. 104
de Otero, Blas 114
de Santos, José Luis Alonso 118
del Valle Inclán, Ramón María 104
Díaz de Rada, Enrique 104, 106, 128
Díaz, Jorge 104
Diez-Gil Conde, Francisco Javier 124
Durán, Rafael 114

## E

Eguillor, Juan Carlos 110
Elvira, José Miguel 114
Ende, Michael 106
Enzo, Corman 105

## F

Felipe, León 114
Fernández, Adolfo 120
Fernández, Arturo 124
Fernández Insausti, Charo 118
Fiaschetti Annarita 118
Fo, Dario 105, 111, 118
Frédric, Kristian 121
Friel, Brian 105

## G

Gabarain, Ane 107, 128
Gabilondo, Mireia 106
García Lorca, Federico 114, 121
García, Rodrigo 107
Garrido, Miguel 114, 118
Gas, Mario 110
Gems, Pamela 120
Genet, Jean 120
Ghelderode 104
Gil, Carlos 117, 118
Gil, Javier 124
Goldoni Carlo 120, 128
Gómez de Segura, Mikel 118
Gómez, Manolo 110
González Gonsálbez, Rafael 114
Granda, Juanjo 117
Grotowski 106, 121
Guillén, Nicolás 114

## H

Hernández, Miguel 114
Herrero, Roberto 114, 124
Hugo, Víctor 128

## I

Ibarra, Ramón 110
Ibarrola, José 110
Ionesco, Eugene 121
Iturri, Luis 114

## J

Jarju, Mulie 107
Jauregi, Koldobika 106
Joyce, James 106
Juaristi, Jon 110

## K

Kafka, Franz 116, 120
Koltès, Bernard-Marie 121
Kundera, Milan 106

## L

Labiche 104
Láinez, José 120
Larrainzar, Patxi 117, 120
Lasuen, Fran 110
Layton, William 120
Lazkano, Itziar 110, 128
Legasse, Marc 111
Lejárraga, María de la O 124
Lem, Stanilaw 114
Letessier, Dorothée 121
Lindo, Elvira 107
Lipus, Ander 114, 128
Lorca 121
Losada, Bego 128
Losada, Garbiñe 107, 124, 128
Losada, Koldo 128
Loza, Felipe 118
Luknár, Román 107

## M

Malonda, Antonio 106, 111
Martín, Rafael 117, 120
Martínez Ballesteros 114
Mastrosimone 120
Matilla, Luis 118
Mazo, Aitor 128
McIntyre, Dennis 104
Mediero Martínez 114
Mnouchkine, Ariadne 110
Molière 118, 121, 128
Mrozeck, Slawomir 107
Muñoz, Miguel 118

## N

Narros, Miguel 120
Nieva, Francisco 117, 120

## O

Obregón, Paco 111, 114
Ocio, Txema 117
Odets, Clifford 120
Ojea, Paca 120
Olasagasti, Eneko 106
Olmeda, Miguelón 118
Olmo, Lauro 114
Olmos, Luis 114
Onaindía, Mario 111
Ortega, Juan 128
Ortiz de Gondra 124
Osinaga, Pedro 124
Oteiza, Jorge 106

## P

Panera, Karlos 111
Pasagg, Rebeca 118
Pastor, Juan 106, 120
Pérez, Juan Carlos 114
Perugorria Julio 111, 127
Petite, Félix 117
Pheline, Marc 121
Pimenta, Ana 105, 107
Pimenta, Helena 105
Pinter, Harold 121
Planella, Pere 105, 110
Plaza, José Carlos 104, 120
Pro, Teresa 110
Puerta, Xabi 114, 124

R

Rabas, Gaël 121
Racine, Jean 128
Rafael, Mendizabal 124
Rampal, Jacques 107
Recuerda, Martín 105
Redín, Valentín 120
Remiro, Esther 110
Rodríguez, Edurne 107, 124
Rodríguez, Rubí 117
Romo, Jaime 120
Rózewicz, Tadeusz 121
Ruibal, José 104

S

Sachs, Oliver 107
Sagarzazu, Paco 110, 128
Sagüés, Angel 120, 121
Salcedo, Romualdo 110
Salom, Jaime 120
Salvador, Iñaki 107
Saratxu, César 110
Sartre, Jean Paul 121
Sastre, Alfonso
106, 111, 114, 118, 128
Savary, Jerôme 104, 114
Savater, Fernando 124
Schnitzler, Arthur 110
Segués, Juan Mari 104
Shakespeare William 105, 116
Skármeta, Antonio 114
Soroiz, José Ramón 106
Stanislawski, Konstantin 120
Strindberg, August 104
Süskind, Patrick 111

T

Távora, Salvador 118
Tebar, Elena y Manuel 118
Teixidor, Jordi 120
Tellería, Patxo 114
Teresa, Calo 124
Tomé, José 105
Toto, Jean-Marc 121

U

Ugalde, Santi 106, 117
Ugarte, Ricardo 128
Unamuno, Miguel 114
Uranga, Kandido 107, 128
Urretabizkaia, Arantxa 106
Urrosolo, Antxon 110

V

Valdés, María Jesús 128
Valle Inclán 105, 120, 121
Vallejo, Alfonso 106
Von Kleist, Henrich 118

W

Widarte, Walter 105
Wilde, Oscar 111
Wilder, Thorton 106
Williams, Tennesee 120
Witkiewicz, Stanislaw Ignacy 121

Y

Yáñez, Eduardo 128

Z

Zschiedrich, Konrad 114
Zubia, Txema 128
Zurbano, Jaime 128


# AIPATUTAKO TALDEAK


A

Ados teatro 107, 124
Agerre 106
Akelarre 114
Amadís 120
Anexa 120
Artaud 114
Arteszena 110
Artez Revista 128
Atelier 105

B

Bederen 106
Bederen-1 106, 107, 124
Bekereke 106, 117, 118

C

Claro de Luna 116
Cobaya 110, 114
Cómicos de la legua-Kilikilariak 114
Cooperativa Denok 116, 118

CH

Chusma 116

D

Dagoll Dagom 106
Denok 117, 118
Domus de Janas 106

E

El lebrel blanco 120
Eolo 114, 124
Eterno Paraíso 118

G

Gaitzerdi 116
Geroa 111, 114, 124
Grotowski 114

K

Karraka 110, 111, 114
Kukubiltxo 110

L

La Cuadra 118
La Fábrica de Teatro Imaginario (FTI)
114
La Farándula 111
La Fundición 116
Lavi e bel 118
Legaleón 106, 118, 124, 128
Les Chiméres 121
Lézards qui bougent 121

M

Magic Circus 114
Markeliñe 114
Maskarada 110, 111, 114
Meyerhold 114
Mina Espazio 114

O

Odin Teatret 106
Orain 104, 106, 110, 111, 128

P

Pikor 118
Pinpilinpausa 121
Porpol 118
Producciones Quiquilimón 118

S

Sala Niessen 128
Scaramuccia 121

T

Tadeusz Kantor 114
Tanttaka 105, 106, 107, 110, 128
Tarima 114, 118
Taun-taun 107, 126
Teatro estable de Navarra, T.E.N.
120, 121
Teatro Estudio 110
Teatro Gasteiz 118, 124
Teatro Paraíso 118
Théâtre de Versant 121
Théâtre des Chiméres 121
Trapu Zaharra 106, 128
Traspasos 118, 120
Txalo 107
Txamuskina 116

U

Ur 104, 105, 128

V

Vaivén Teatro 107
Valle Inclán 120

Y

Yauzkari 120

Z

Zanguango 118, 128


CINÉMATOGRAP
PILHOT Imp. 54 Rue de Clichy PARIS

# Zinema

*Juan Aguirre Sorondo*



# Euskaldunen zinema, zinemako euskaldunak






"Mayorazgo de Basterretxe" filmaren fotograma.

EUSKAL ZINEMARIK BA OTE DENEKO EZTABAIDA, eta, ondorio gisa, filmak euskaldun bezala hartzeko zein baldintza bete behar dituzten, ia berrogei urtez luzatu den auzia da. Oinarrian, ordea, faktu garbi bat dago: euskal zinema ez da existitzen. Ez kontzeptualki ez materialki. Ezen gure herrian sortzaileen lanak bermatuko dituen industri sektore sendo eta lehiakorrik ez baitago, eta, horrenbestez, sortzaile horiek beren proiektuekin beste norabait joan beharrean izaten dira.

## ■ Euskal zinema?

**Euskal zinemarik ba ote deneko eztabaida**, eta, ondorio gisa, filmak euskaldun bezala hartzeko zein baldintza bete behar dituzten, ia berrogei urtez luzatu den auzia da. Salbuespenak salbuespen, herri honetan ez dago eztabaida korapilatsu hori saihestea lortu duen zinemagile, ekoizle, kritikari edo adituri, *euskal* zinema deitutakoaren esentzia eta existentziaren gaineko dibagazioek zenbaitetan sorkuntza lana bera eragotzi zutelarik.

**Auzi honi buruzko eztabaidak hirurogeiko hamarkadan** hasi ziren, zehazki *Ama Lur* (1968) estreinatu zenean, Jorge Oteizaren (*Quousque tandem!*, 1963) teoria antropologiko-estetikoek akuilatuta.

Eskema teoriko baten euskarri gisa jokatuko zukeen film mordo bat sortu aurretik, etorkizun zegoen zinemari buruz definizio eztabaidaezinak egin ziren, eta eginkizun zorrotzak ezarri zitzaizkion.

**Hasiera batean** adierazi zen euskal filmak, euskaldun izan nahi bazuten, euskaraz eta musika nahiz kultur estilo propioak baliatuz egin behar zirela, herriarekin zuzenean lotutako edukiak jorratuz.

**Geroago, hirurogeita hamarreko urteetan**, "Made in Euskadi" labela lortzeko aurrekoei izaera politikoa erantsi zitzaien ezinbesteko baldintza moduan: filmaren mezuak herri zanpatuaren askapena faboratu behar zuen.




Autonomi Elkarteko zinema –inoiz erneko ez zen euskal industri baten hazi itxaropentsua– martxan jarri zenean, jarrerak baretu egin ziren, eta obraren nazionalitatea ekoizpenak xedatzen duela onartzen hasi zen, eta, beraz, Euskal Herrian ekoiztutako film oro bertakotzat eta, hortaz, euskalduntzat, jo behar zen.

**Hautabide horietatik** bat bera ere ez zen gailendu; horrek ez luke garrantzirik, sikiera akuilu artistiko gisa edo *Euskal Zinemaren Labela* sustatzeko euskarri gisa balio izan balu. Horrelakorik ez zen gertatu ordea. Horrenbestez, eztabaida apurka iraungiz joan da, bere antzuan.

**Ia berrogei urte igaro dira** eta, orduan bezala, oinarrian faktu garbi bat dago: euskal zinema ez da existitzen. Ez kontzeptualki ez materialki. Ezen gure herrian sortzaileen lanak bermatuko dituen industri sektore sendo eta lehiakorrik ez baitago, eta, horrenbestez, sortzaile horiek beren proiektuekin beste norabait joan beharrean izaten dira.

Eta, aurrekoa kontuan izanik, pentsaezina dirudi (eta akaso desiragarria ere ez) gurean eredu berezi bat umotuko denik (hizkuntzan eta hizkeran, estiloan eta gaietan), adierazpide propioak dituen kultura bat islatuko lukeena.

## ■ Euskaldunen zinema

**Alabaina**, egiaz euskal zinema badenik ezin esan badezakegu ere, zinemarako euskal ekarpena, pertsona kopuruari eta kalitateari






















begira, oparoa da, hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan ez bezala. Ekoizleak, zuzendariak, antzezleak, gidoigileak, musikariak, fotografia zuzendariak, zuzendari artistikoak... Frantzia eta Espainiako industrietan (eta kasuren batean Europa edo Ipar Amerikakoetan) ospe handia duten profesional ugari.

**Euskal zinemarik ez da existitzen**, baina ordean ***zinemako euskaldunak*** dauzkagu. Hori egiaztatzeko, irakurleak nahikoa izango du segidan doazen orrialdeei begiratu bat ematea.

Hobe litzatekeela hainbeste eta hain onak diren sortzaile horiek beren talentua hemen, etxean, isurtzea? Jakina. Baina hori nekez gertatuko da aurretik sektore pribatua eta publikoa bilduko dituen industri azpiegitura bat sortzen ez bada. Eta, azken bi hamarkadetako esperientziari begira, lantegi zaila dirudi horrek.

Nolanahi ere, euskal zinemagile berriek beste inon egindako produktuen aldean nortasun bereizgarririk ez dutela ageri? Horri buruz sakon eztabaidatu beharko litzateke (esparru komun bat osatzen duten gai batzuk, korronte obsesiboak akaso, suma daitezke). Dena den, ez da gutxietsi behar, euskal zinemaren faktore komun gisa, honek ageri duen gizabanako anitzen kopuru handia. Alex de la Iglesiaren hitzetan: «Garrantzitsua euskal zuzendari denak desberdinak garela da, eta sortzen diren filmek ez dutela bata bestearekin inolako zerikusirik».

**Finean**, funtsezkoena da euskal sortzaileek filmak egin egiten dituztela. Eta horietako askok ikusle ugari erakartzeko adinako kalitatea dutela. Beraz, euskaldunen zinema denok ezagutu eta hedatu beharko genukeen kultur ondarea da. Hain zuzen ere, liburuki hau xede horrekin prestatu dugu.

# Aitzindariak






*"El Mayorazgo de Basterretxe" filmaren fotograma.*

EUSKAL ZINEMAREN AITZINDARIAK. Gutxieneko euskarri ekonomikorik gabe eta ekoizpen eta banaketa egitura are urriago batez, hogeiko hamarkadako euskal zinema zenbait pertsona ekintzaile eta burugabe samarren, sen handiko film zale grinatsu batzuen abentura izan zen, eta, talenturik falta ez zuten arren, finean beren abenturan porrot egin zuten.

## ■ Hasieran

### ● Lehenengo emanaldiak

1895eko Inuzente Egunean, Parisko Boulevard des Capucinesko Grand Café-an, zinematografoaren lehenengo emanaldi publikoa eskaini zen. Zazpi hilabete pasa geroago, Lumière anaien asmakaria Euskal Herrira heldu zen.

Frantzia eta Europako goiko klaseak udaldia igarotzeko begiko zuen Miarritze hiri kosmopolita eta finean, **1896ko abuztuaren 1ean**, Lumière bildumako zenbait film ikusi ahal izan ziren, eta tartean euskal paisaiak, hala nola *Le rocher de la Vièrge* filman jasotako Lapurdiko herri horretakoak eta errege familia udaldia igarotzera heldu zenean Donostian filmatutakoak. Hurrengo asteetan zinematografoak Donostia (abuztuak 6), Bilbo (abuztuak 8), Iruñea (urriak 24) eta Gasteizko (azaroak 1) ikusleak harri eta zur utzi zituen.

### ● Lehenengo filmak

Azken ikerketa historikoen arabera, euskal zinearen erabateko aitzindariak **Antonio Salinas** argazkilari gasteiztarra eta haren kide **Eduardo de Lucas** izan ziren. Pertsona horiek beren aurrezki guztiak Lumière kamera bat erosten xahutu zituzten, eta kamera horrekin 1897an **Gasteizko Plaza Zaharra**ren (gaur egungo Andre Maria Zuriaren Plaza) bistak hartu zituzten. Irudi haiek ekainaren hasierako hamabi egunen barruan hartu baziren, eta itxura guztien arabera hala izan zen, estatuko zinemagintzako zaharrenak dirateke, ezen *Salida de Misa de 12 en el Pilar de Zaragoza* mitikoa 1897ko urriaren 12an filmatu baitzen, eta Coruñan filmatutako *El Entierro del General Sanchez Bregua*, berriz, ekainaren 20koa da.



*Aureliano González.*

*Telesforo Gil eta Mauro Azkona.*



Tamalez, hasierako bulkada hori, euskaldunek zinematografoaren asmatzailearekin zuten harreman hertsiaren ondorio, ez zuen nahi adinako jarraipena izan, eta zinema mutuak Euskal Herrian ekarpen urri eta kalitate eskasekoa utzi zuen. Izan ere, gure herrian ekoizle garrantzitsurik ez zegoen, faktu benetan penagarria, kontuan izanik garai hartan industria, batez ere Bizkaian, loraldi betean zegoela, inbertsio berrietarako dirurik falta ez zelarik. Zinematografia euskal lurraldean erro zedin eragotzi zuen bigarren faktorea entretenimendu mota horren eskari handia eragiteko populazio handiko hirien gabezia izan zen, J.M. Unsain historialariaren esanetan.

### ● Lehenengo filmak

Horren ondorioz, gure herriari buruzko lehenengo filmak sortzaile atzerritarrek egin zituzten –1913ko Louis Feuilladeren ***Un drame au Pays Basque*** kasu–, eta zinema mutuan ospetsu bihurtu ziren profesionalak hiriburuetan jardun ziren, horren adibide direlarik **Harry D'Abbadie** Chaplinen zuzendaritza laguntzaile eta, Fritz Langen hitzetan, "zinemaren historia osoko film xoragarrienetako batzuen egilea", edo **Henry**

**Roussell** zuzendari eta antzezle baionarra, gerra arteko Frantziako zinemaren izarra.

## ■ Eroak eta dirudunak

Gutxieneko euskarri ekonomikorik gabe eta ekoizpen eta banaketa egitura are urriago batez, hogeiko hamarkadako euskal zinema zenbait pertsona ekintzaile eta burugabe samarren, sen handiko film zale grinatsu batzuen abentura izan zen, eta, talenturik falta ez zuten arren, finean beren abenturan porrot egin zuten.

"Ideia ugari zegoen, baina jendeak ero ameslaritzat hartzen gintuen eta, horrenbestez, falta zitzaiguna babes ekonomikoa zen. Zinemara iraultza ekarri ahal izan genukeen", esango zuen, hainbat urte geroago, **Teófilo Mingueza** arabarrak, ***Josetxu*** amaitu gabearen egilea, ziklismoaren izar, argazkilari, irrati-telegrafista, Gasteizko zinema batean operadore izan zen nobelako pertsonaia, zeinak bi objektiboekiko kamera batez hogeita hamarreko urteen hasieran erliebeko zinema sistema bat asmatu baitzuen, eta baita bista panoramiko ikusgarriak hartzeko angelu handiko kamera bat ere.

Ez da harritzekoa, beraz, filmak alaitsu eta arin egiteari ekin zion lehenengo pertsona "ero ameslari" bat ez izatea, baizik eta diru arazorik ez zuen pertsonaia bat: **Manuel de Inchausti** kultur mezenasa. Zinemak herrien oroimenaren agiritegi moduan eskaintzen zituen aukerez jabeturik, 1923 eta 1928 bitartean zenbait dokumental antropologiko filmatu zituen, ***Eusko Ikusgayak*** izenpean, gure herriko folklorearen eta usadioen alderdi nagusiak jasoz. Horrenbestez, Inchaustik ordura arte Estatuan ezezaguna zen genero bat estreinatu zuen: **zinema etnografikoa**.

## ■ Hispania Film (1923-1925)

Inchaustiren ekimen pertsonalaz landa, Euskal Herrian helburu komertzialez ezarritako filmen lehenengo ekoizpen enpresa **Hispania Film** izan zen, 1923an Bilbon bizialdi laburreko zinema akademia baten errautsetatik sortua. Enpresa *Alejandro Olavarría* erlojugileak eta *Aureliano González* argazki enpresariak, dramarako zuen zaletasunagatik *Shylock* deitua (Shakespeareren pertsonaia ospetsua, *Veneziako merkataria* antzezlaneko judu aberatsa), jarri zuten martxan.

Hispania Film-ek 1923 eta 1925 bitartean lau film ekoiztu zituen, ***Un drama de Bilbao*** izeneko metraje ertaineko filmarekin hasita. Filmaren gaiak ekintza eta melodrama uztartzen zituen: gazte dirudun batek, Ricardo, bere ama larri dagoela jakingo du, eta ziztu bizian beragana joko du; ez daki Malaentraña bidelapurrak prestatutako amarru bat dela. Honek Castrejanako gainean gaztea tirokatuko du, gaizkideak txoferra erasotzen duen bitartean. Txoferrak ihes egitea lortu eta poliziarengana joko du, zeinak Malaentraña agudo atxilotzen baitu eta gaizkidea hesitzen, eta azken hau Nerbioi ibaian itota hilko da. Ricardo ere hil egingo da, bere maitearen besoetan.

Hispaniaren bigarren filma, 1924ko ***Lolita la huérfana***, itxura batean *Shylock*ek bakarrik egin zuen, Olavarría bere kide ohiaren gidoiaz. Aita-amatzakoek gaizki tratatutako neska umezurtz beharrtsu batek bere burua Bilboko kaian atrakatutako merkantzia-ontzi batean gordeko du; ezkutuko bidaiaria aurkitu egingo dute, kapitaina neskatoaz gupidatuko da eta bere istorio tristea konta diezaion erregutzen dio. *Flash-back*aren amaieran, marinelak, hunkituta, zorigaiztoko Lolitari etorkizun oparoa segurtatuko dio.

Euskal zinemaren historiako lehen luzemetraia, ***Edurne, modista bilbaína***, 1924ko abenduaren 29an estreinatu zen, Bilboko Olimpia zineman. Hispania Film-en hirugarren ekoizpen horretarako, Aurelianok *Telesforo Gil del Espinar*, La Gaceta del Norte egunkarian zinema kronikak argitaratzen zituen posta funtzionarioa, hartu zuen bazkidetzat. Honek gidoia idatzi eta filma zuzendu zuen, Aureliano gerente lanetan aritu zelarik. Helburua filmean "Euskal Herriko eraikin bikain, fabrika, meatze... guztiak" agertzea zen, berori herrialde orotara hedatzeko estrategia gisa, aurreko ekoizpenak ez baitziren Bilbotik kanpora erakutsi.

Istorioa lañoa bazen ere, eta eszenaratzea apala, *Edurne*ren ekarpenik handiena orduan nagusi zen zinemaren aurrean –ijito eta sastaden "españoladak"–, eta nazionalismo lokalaren aldean, bestelako bide bat agertzea izan zen, arazo sozial ugariko Euskal Herri hiritar eta industrial bat islatuz.

*Edurne, modista bilbaina* arrakasta itzela izan zen, gure zinemaren aurrenekoa, eta hilabete batzuen buruan 7.600 pezetako hasierako inbertsioa bostez biderkatu zen. Horrek ez zuen, ordea, 1925ean Hispania Film desager zedin eragotzi, Aureliano González fundatzaileak zeluloidearen azken metroak euskal zinemaren lehenengo komedia filmatzen xahutu ondoren: ***Atanasio en busca de novia***, "euskal lurrean egin den film fantasmagoriko eta anarkistena", A. López Echevarrietaren hitzetan.




*"Edurne. Modista bilbaína" filmaren horma-irudia eta fotogramak.*






*"Eusko Ikusgayak" filmaren horma-irudia eta fotograma.*







TEATRO DEL PRINCIPE - SAN SEBASTIÁN
El mayor acontecimiento cinematográfico regional
"El Mayorazgo de Basterretxe"
PELICULA NACIONAL
Ambiente Vasco
Paisajes Vascos
Artistas Vascos
Producción Vasca
FUNCIONES TARDE Y NOCHE
ESTRENO
Dirección artística: M. AZCONA. — Dirección etnográfica:
No pierda usted la ocasión de admirar
esta gran producción vasca
DICIEMBRE
19
MIERCOLES






El
EL MAYORAZGO
DE
BASTERRETXE
PELICVLA NACIONAL DE AMBIENTE VASCO
Película


orazgo de Basterretxe
INTÉRPRETES
Margarita Arregui
- y -
Orlando Villafranca
PRODUCCION
AZCONA
Nacional de ambiente Vasco
EL MAYORAZGO
DE
BASTERRETXE



*"Lolita la huérfana" filmaren fotograma.*



*"Los apuros de Octavio".*



*"Jipi y Tilin" filmaren fotograma.*

*"Un drama en Bilbao" filmaren fotograma.*



*"Euzkadi" filmaren filmazioa. CAMSS artxiboa.*





Sobrevilaren «Gernika» filmaren fotogramak.



Nemesio Sobrevila.

## ■ Estudios Azcona (1925-1930)

Hispania Film-i Barakaldon finkatutako **Estudios Azcona** produkzio etxea jarraitu zitzaion. *Mauro* eta *Víctor Azkona* argazkilariei Bizkaiari buruzko dokumental sorta eder bat eta Espainiako zinemagintzaren lehenengo metraje laburreko publizitate filmak –***Los apuros de Octavio*** (1926) eta ***Jipi y Tilín*** (1927)– zor dizkiegu.

1928ko ***El mayorazgo de Basterretxe*** filmaz euskal zine mutuak kalitate mailan goia joko du. Luzemetraiaren bereizgarri nagusia Euskal Herri tradizionala birsortzeko arreta formala da; garaiko publizitateak zioen bezala:

"Joan den mendeko euskal usadio xume eta patriarkalak zehazki deskribatzen dira. Baserriarenganako maitasuna. Itsasoarenganako jaidura. Amodio eztiak. Zekenkeria eta zitalkeriaren aurka".

Hau da, industrializazio aurreko mundu ia ametsezko bat, Josetxu, Mirentxu edo Txomin izeneko baserritar zintzo eta langileek populatua, zeintzuen aurka azpijokoan ariko baitira Timoteo Castell, Paquito edo Lagarto bezalako burgesak, zoriontasuna zapuzteko ahaleginean porrot egingo duten saldukeria makurren egile. *El mayorazgo de Basterretxe* filmak geroko euskal zinema historikoan topiko bihurtuko zen eredu bat taxutu zuen.

Azcona anaien zorigaiztorako, zinema soinuduna heltzearekin filma Madrilen eskaintzeko aukera zapuztu zen, eta ezin izan zuten inbertsioa, 40.000 pezeta ingurukoa, osotara berreskuratu.

## ■ Hogeita hamarreko urteak

1929ko *crack*aren ondoriozko krisi ekonomikoak, Errepublika eta Gerra Zibilaren garaiko aztoramen politikoak eta, gainera, zinema soinuduna filmatzeak eskatzen zuen inbertsio handiagoak, hogeita hamarreko urteetan Zazpigarren Arteak gurean izan zuen gainbehera azaltzen dute. Lanik onenak gatazka politikoaren zerbitzura itzelezko garapena ezagutu zuen dokumentalen generoan egin ziren.

Espainian ekoiztutako propaganda ideologikoko lehenengo luzemetrai dokumentalaren egilea **Teodoro Ernandorena** izan zen. 1933koa da, eta ***Euzkadi*** izena du. 1936ko altxamendua baino apur bat lehenago estreinatutako **Trotz Tichahuer** alemaniarraren ***Sinfonía Vasca*** metraje laburreko filmak joera ideologiko bera ageri zuen.

Alabaina, hamarkada horretan euskal dokumentalik onena **Nemesio Sobrevila** arkitekto eta zinegile bilbotarraren ***Guernika*** (sic) da. Gerra betean, Sobrevilak –ordurako film esperimentalak egina– "Espainiako gerra zibilari buruz diren irudi eder eta patetikoenetako batzuk" (J.M. Unsain) filmatu zituen. Artelan hori egiteagatik, erregimen frankistak Sobrevilari heriotza zigorra ezarri zion, eta horregatik Frantziatik egotzia izan zen.

Eusko Jaurlaritzak ***Guernika*** filmaren ekoizpenean parte hartu zueneko susmoa bada, nola ez badakigu ere. Euskadiko lehenengo gobernuak zinematografia sailik izan ez zuen arren, jakina da Propaganda Zerbitzuak Gerra Zibil betean dokumentalak ekoiztu zituela: ***Semana Santa en Bilbao***, eta ***Entierro del benemérito sacerdote vasco José María de Korta y Uribarren muerto en el frente de Asturias*** (biak 1937koak).

Euskal Herrian egindako zinemaren historiaren sarrera honetan gogora ekarri behar da pantailan euskara lehenengoz 1930eko ***Au Pays des Basques*** filmean entzun zela; film hori, gainera, kanpoaldean filmatutako Frantziako aurreneko pelikula soinuduna izan zen.

# Ama lur






*Nestor Basterretxea, Julio Amostegi eta Fernando Larruquert "Ama Lur" (1965) lanaren filmaketan.*

AMA LUR euskal kulturan ikusmenezko lengoaia propio eta bereizgarri bat sortzeko lehen saialdia izan zen. Hiru hamarkada igaro direlarik, Ama Lur-en funtsezko ekarpena arbasoen mundua geureganatzeko, historia mitoaren janzkiez biltzeko duen aparteko gaitasuna da, zinemaren lengoaiak berezko dituen osagaiak baliatuz: muntaketa, fotografia eta soinua..

## ■ Kultur garrantzia

"*Pelotari*ren filmaketan Euskal Herriko bazter batetik bestera ibili behar izan genuen, pilota partidak filmatzeko. Egun batean, Markinarako bidean, Renault 4L batean, Fernandori esan nion, Elgoibarko mendien paisaia bikaina begiesten nuen bitartean: *Zein herri ederra daukagun! Omenaldi bat merezi du!* Fernandok arrazoi nuela esan zidan. Une horrexetan jaio zen *Ama Lur*".

Modu axolagabe eta pasadizo tankerako honetan azaltzen du Nestor Basterretxeak euskal zinemako obra nagusiaren sorrera, *Ama Lur* mitikoa, 1968ko Donostiako Zinemaldian estreinatua. *Nagusia* idazten dugu beste zenbaitek "fetix objektu", "film-faro" (Santos Zunzunegi) dionean, "euskal zinemaren abiapuntua" bere buruari horrela irizten dion heinean (José Mª Unsain), edo "etengabe begiratu beharreko ardatza, Euskadiko zinemaren historia modernoari zentzuzko jatorri bat eman nahi bazaio" (Carlos Roldán).

Berori nolanahi definitzen delarik ere, ukaezina da *Ama Lur* euskal kulturan ikusmenezko lengoaia propio eta bereizgarri bat sortzeko lehen saialdia izan zela. Ahalegin horretan, dokumentalak laster eredu bihurtuko ziren baina lastertasun beraz ahituko ziren zenbait ikur sortu zituen. Montxo Armendariz zinegileak honela azaltzen du: "*Ama Lur*, eta beste zenbait film, ikur bihurtu dira zinema egiteko, hizkuntza, kultura zinemako lengoaia ezberdin batez islatzeko berezko eta bertako modu bat moldatzen



*Vicente Ameztoy Jesús Almendrosen "Miradas" filmean.*




ahalegindu ziren neurrian. Nik uste dut *Ama Lur* filmean proposatzen zen hori, geroago beste zenbait filmetan garatuko zena, ia gutako inork ez duela egin. Izan ere, zinema konbentzionalago bat egiteko joera gailendu da...".

*Ama Lur* bere garaiko fruitua da. Onenerako nahiz txarrenerako. Garai hura, hirurogeiko hamarkada, euskal kulturaren *Resorgimento*ak markatu zuen: euskarazko literatura, Aresti kontzientzien akuilu bihurtuta; abangoardiako artea, Arantzazuko talde berdingabeaz eta *Gaur, Emen, Orain* eta *Danok* taldeek osatutako kultur frontearen borroka suharrarekin goia jo zuena; musika, *Ez dok amairu* taldearekin, euskal kanta modernoaren jatorri izango zena.

## ■ Produkzioa eta zentsura

Erauntsi horrek eramanda eta kultur manipulazioari aurre egin behar zitzaiola sinetsita, 1963an **Fernando Larruquert** eta **Nestor Basterretxea** laburmetrai esperimentalak egiten hasiko dira: ***Operación H*, *Pelotari*, *Alquézar*.**

1966an *Ama Lur* egiteari ekingo zaio. Filma herri-harpidetzaz finantzatu zen, errotuluak adierazten zuen moduan: "Herriaren filma, herriak egina" ("Una película del pueblo, hecha por el pueblo").

Arazo ekonomikoei, jakina, zentsurarenak gaineratu zitzaizkien, azken horiek nola hala saihestu ahal izan ziren arren, José



"Alquezar" filmaren fotograma.



"Pelotari" filmaren fotograma.



"Operación H" filmaren fotograma.



"Alquezar" filmaren fotograma.




"Pelotari" filmaren fotograma.



"Operación H" filmaren fotograma.

Mª de Areilzaren bitartekotzari esker eta zenbait pasarte kendu zirelako.

## ■ Egiturazko osagaiak

Hiru hamarkada igaro direlarik, Ama Lur-en funtsezko ekarpena arbasoen mundua geureganatzeko, historia mitoaren janzkiez biltzeko duen aparteko gaitasuna da, zinemaren lengoaiak berezko dituen osagaiak baliatuz: muntaketa, fotografia eta soinua.

*Ama Lur* gidoirik gabeko filma da, muntaketa aretoan eraikia. Egitura kopla zaharren, euskal poesia herrikoiaren ereduari jarraitzen zaio: orokorretik zehatzera, handitik txikira doazen asoziazioak, erlazio/aurkaritzako metafora dinamikoen moldean.

Soinu-banda fotogramen lagungarri hutsa baino gehiago da, pisu berezia ematen dion berezko egituraketa ageri du.

## ■ Edukia

Osagai horiekin, filmak euskal herriari buruzko ikerketa etnologiko bat eskaintzen du. Ikuspegia idilikoa da, bere buruarekiko bihozbera, zehaztasun kritikorik gabea, Bilboko Burtsaren pasarte ospetsua, garai hartan euskal burgesiaren aurkako salaketa moduan hartu zena, salbuesten badugu. Basterretxeak ikuspegi hori justifikatzen du, honakoa argudiatuz: "aldi hartan gure bizitza modu triunfalista horretan besterik ezin konta zitekeen. Puztu beharra zegoen. *Ama Lur*



"Pelotari" lanaren filmaketa.

"Pelotari" lanaren filmaketa.



kantu sakratu moduko bat da. Horregatik gailentzen dira tonu handiesle eta irmoak". Fernando Larruquertek, ordea, deitoratzen du filmak ikusleari *Zein handiak garen!* helarazi izana, eta ez *Nolakoak behar genuke izan?*.

## ■ Mezu kulturaleta sentikorra

Edonola ere, *Ama Lur* filmari buruzko hainbat ikerketa teoriko eta ideologiko zorrotzek ahaztu egin dute mezuak emozioa duela xede, sakontasun intelektuala baino. Artean estreinatzeke zegoela, filmean diru gehien jarritako José Luis Echegarayk espreski adierazi zuen:

"*Ama Lur*-ek euskaldunari mezu kultural eta sentikor bat igortzen dio, eta euskaldun ez denari gure herria ezagutzeko ikuspegi berriak eskainiko dizkio. Euskaldunari igorritako mezu kultural eta sentikor hori da, hain zuzen, *Ama Lur* euskal filma egiten duen ezaugarririk behinena".

Herrian gertatzen ari zena zuzenean jorratzen zuen kontakizunik apenas zegoenez, lehen aldiz eman zenetik *Ama Lur* euskal zinemaren izaki sortzaile eta derrigorrezko erreferente bihurtu zen. Alderdi positiboena, bestalde, Basterretxeak eta Larruquertek Euskal Herrian ere gizarte eta kultur errealitateari heltzen zioten kalitatezko filmak egin zitezkeela erakutsi zutela izan zen.

Hitz batez, *Ama Lur*-ekin euskaldunen belaunaldi oso batek bere hezibide sentimentala bizi zuen.

# Zinema dokumentala






"Gipuzkoa" filmaren fotograma.

DOKUMENTALAREN GENEROA umotze prozesu betean zegoen eta etorkizun itxaropentsua ageri zuen Gerra Zibilak zuzendari gazteen ibilbideak eten zituenean. 1983an Euskal Telebista sortu zen arte, Euskal Herriari buruzko ikus-entzunezko fondo bat sortzeko ahalegin garrantzitsuena "Ikuska" izenekoa izan zen. Trantsizio garaiko euskal zinema dokumentala bi joera aski zehatzen artean ibiliko da: salaketa politikoa eta ahaleginaren epika.
Telebista publikoaren jaiotzarekin pantaila handiko zinema dokumentalarekiko interesa hoztu egin zen. Alabaina, azken urteotan generoak susperraldia bizi du.

## ■ Esperientzia berritzaileak

Lehen kapituluan ikusi zen bezala, dokumentalaren alorreko esperientzia berritzaileenetako batzuk euskal zinemagileek burutu zituzten. Horrela, Espainiako zinema etnografikoa ***Eusko Ikusgayak*** (1923-1928) seriearen egile **Manuel de Inchaustirekin** jaio zen; propaganda politikoko lehen filma, ***Euzkadi***, **Teodoro Ernandorenak** egin zuen, 1933an; eta **Nemesio Sobrevila** bilbotarrari Gerra Zibilari buruzko dokumentu zirraragarrienetako bat zor diogu, ***Guernika*** (1937), zeinaren fotogramak beste film eta dokumental askoren oinarri izan baitira.

1904an Tafallan jaioa, **Miguel Mezquíriz** ekoizle eta banatzaile gisa hogeiko hamarkadaren hasieran trebatu zen, Mexikon. 1928an Bilbon finkatu zen. Bere Pathé kameraz, Mezquíriz gaurkotasuneko gertakariak filmatzen hasi zen, gero hiriko zinemetan erakusten zirenak. **"Reportajes Mezquiriz de última hora"** izenekoa erreportari nafar honek II. Errepublikako Bilbo hirian zuzendutako zinema-kazetaritzako enpresa aitzindaria izan zen.

## ■ Erbestea eta urte ilunak

Dokumentalaren generoa umotze prozesu betean zegoen eta etorkizun itxaropentsua ageri zuen Gerra Zibilak zuzendari gazteen ibilbideak eten zituenean. Hogei urteko isiltasunaren ondotik, hirurogeiko hamarkadatik aurrera egokitu zaion garaiarekin engaiatuta kamera herriaren errealitatea agertzeko hartuko duen belaunaldi berri baten sorkuntza grina ernetzen hasiko da, lantegia aurrera eramateko eragozpen itzelak gainditu behar izango dituen arren. Hori dela eta, kalitate eta zehaztasun maila egoki bat ageri zuten lehen dokumentalak erbesteratuek eginak izan ziren (Venezuelako euskal nazionalistek sustatutako ***Los hijos de Gernika*** kasu), edo Frantzian bizi zirenek (hala nola **Gotzon Elorza**, 1960 eta 1964 bitartean bizkaieraz emandako lau dokumental laburren egile).



"Ikuska 5" lanaren filmaketa.

Gotzon Elorzaren "Aberria" filmaren fotograma.



Dokumentalista moduan Mexikon trebatua, **Pío Caro Barojak**, *Zalacaín el aventurero*ren egilearen iloba, **Documentales Artísticos** ekoizpen-etxe sortu zuen, Madrilen. Euskal kulturaren alderdi ezberdinei buruzko zenbait lan labur burutu ostean, Príncipe de Viana Instituzioak erresuma zaharreko bizimodu tradizionalari buruzko hiru dokumental eskatuko dizkio. Julio anaia gidoilari duela, ***Navarra, las cuatro estaciones*** egingo du, 35 mm-ko filma, etnografiaren berreskurapenari begira lan baliotsua eta zinemaren ikuspegitik estimagarria. Hamarkada horren amaieran esperientzia errepikatuko zuen, ***Gipuzkoa*** lanarekin.

**Jesús Almendros** ausart eta esperimentalago agertu zen. Donostian finkatutako gijondar honek, hiriari buruzko zenbait


GIPUZKOA
DOCUMENTAL DE PIO CARO BAROJA
Centenario de la
CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN
Donosti-Aurrezki-Kutxa


AGUR EVEREST
1974-1980
La gran aventura
del Everest.
Un film de
Fernando
Larruquert
y
Juan Ignacio
Lorente
Producida por LAMIA FILMS


EL CHE


BURGOS: EL CAPITAN GENERAL NO HA FIRMADO AUN LA SENTENCIA
PROCESADOS SE DECLARAN MARXISTAS-LENINISTAS
NUEVE PENAS DE MUERTE PARA SEIS DE LOS PROCESADOS
LA SALA, DESALOJADA
j. abrisketa
i. aizpurua • v. arana
j. kalzada • j. a. karrera
u. dorronsoro
j. dorronsoro
a. arruti • e. uriarte
g. lópez irasuegi
x. izko de la iglesia
x. larena • j. gorostidi
e. gosalaga • j. etxabe
m. onaindia
una película dirigida por IMANOL URIBE
EL PROCESO DE BURGOS
ES FIRME LA SENTENCIA
SE ESPERA EL PRONUNCIA-



*"Arrantzale" filmaren fotogramak.*



*"Los hijos de Guernica" filmaren fotogramak.*










*"Mar adentro" filmaren fotogramak.*







*"Navarra, las cuatro estaciones" filmen bi fotograma.*

laburmetrai zuzendu eta gero, 1969an ***Miradas*** filmatu zuen, *Vicente Ameztoy* pintorearen obra eta barne-munduari buruzko dokumentala, estetika psikodeliko, surrealista eta asaldaria baliatzen zuena.

## ■ Ikuska (1978-1984)

1983an Euskal Telebista sortu zen arte, Euskal Herriari buruzko ikus-entzunezko fondo bat sortzeko ahalegin garrantzitsuena ***Ikuska*** izan zen. **Bertan Filmak** produkzio-etxeak 1978an **Antton Ezeiza**ren gidaritzapean martxan jarria, proiektua "Euskal Zinema Nazional" baterako zimentarri moduan jaio zen. Zinemagileak berak egun gogoratzen duen bezala, "*serie* bat izan zen, eta berorrekin ikaskuntzan gutxieneko *jarraitasun* bat, egileetan *dibertsitatea* eta planteamenduetan *aniztasuna* lortu nahi ziren".

Lantalde tekniko berak seriearen bateratasun estetikoa bermatzen zuen… eta baita ideologikoa ere, lehenengo *Ikuska*tik hasi eta azkenekora ikuspegia erabat nazionalista baitzen.

1978 eta 1984 bitartean "gaurkotasun iraunkorreko gaiei buruzko" hogei erreportaje egin ziren, euskarazko albistegi moduan paratuak, ikastolen, Bilboko hirigintzaren, euskal artearen, Gerra Zibileko oroitzapenen, bertsolaritzaren edo baserri munduaren gainean. **Javier Agirresarobe, Jose Luis Zabala, Luis Iriondo** eta **Ezeiza** "finkoez" gain, *Ikuska*n beste hainbat pertsonek esku hartu zuten, hala nola *Imanol Uribe*, *Montxo Armendariz*, *Pedro Sota*, *José Julián Bakedano*, *Juanba Berasategi* eta *Xabier Elorriaga*, besteak beste.

## ■ Izadia eta Politika

Trantsizio garaiko euskal zinema dokumentala bi joera aski zehatzen artean ibiliko da: salaketa politikoa eta ahaleginaren epika.

***El Proceso de Burgos*** (1979) eta ***Euskadi hors d'Etat*** (1983) lan




bikainak edukiz politikoak dira.

**Imanol Uribe**ren lehen luzemetraia euskal militanteen aurkako epaiketan auzipetu eta nahastutakoei egindako elkarrizketetan oinarritzen da. Filmak erakutsia izateko arazo dezente gainditu behar izan zuen, diktadurarekiko errotiko aurkakotasuna islatzen baitzuen, baina zailtasunak ikusleen eta kritikaren babesarekin berdindu ziren, filma hainbat jaialditan saritua izan zelarik.

**Arthur Mac Caig** estatubatuarra, bestalde, euskal labirintuan barrena Gerra Zibilaz geroztiko frankismoaren aurkako erresistentziari buruzko begirada objektibo –objektiboa baina ez hotza–, zorrotz eta interesgarri batez sartu zen. Emaitza ***Euskadi hors d'Etat*** izan zen, **Angel Amigo**k koproduzitua.

Izadiaren aurka borrokatzen den gizakiaren epikak aire ekologiko eta antropologikoko dokumentalak eman ditu.

1975ean **Antón Merikaetxebarriak** ***Arrantzale*** filmatu zuen, Elantxobeko arrantzaleen eguneroko bizitza islatzen zuen film ederra.

Hamar urte geroago ***Mar adentro*** estreinatu zen, zinema zientifikoaren alorreko lehen euskal luzemetraia, dokumentalen generoan eskarmentu handia duten bi zuzendariren eskutik: **Francisco Bernabé** eta **Rafael Treku**.

1974an, euskal mendizaleen espedizio bat Everest mendiaren maila gorenera heldu zen, baina hain zorte txarraz ezen tontorrera iritsi baino metro batzuk lehenago igoera bertan behera utzi behar izan baitzuen. Horien artean zegoen **Fernando Larruquert**, *Ama Lur* filmaren egilekide.

Sei urte geroago, beste espedizio batek Katmandu aldean filmatuko du, eta bi filmazio horien uztarketak ***Agur Everest*** emango du, jomuga orokor bat erdiesteko gizon multzo baten baterako borrokari buruzko dokumental bat.

## ■ Azken ordua

Telebista publikoaren jaiotzarekin pantaila handiko zinema dokumentalarekiko interesa hoztu egin zen. Alabaina, azken urteotan Euskal Herrian fikziozkoa ez den genero honek susperraldia bizi du.

**Igeldo Komunikazioa**, 1982an jada ***Crónica del descubrimiento del Viejo Mundo por Kayun Maax*** ezohikoa ekoiztu zuena, sorkuntzako dokumentalen koprodukzioen aldeko agertu da.

Euskal zinemak gero eta zaletu gehiago dituen genero honi emandako azken lanak **Maurice Dugowson**en ***El Che, una leyenda de nuestro siglo***, eta **Ana Díez**en ***La mafia en La Habana*** (2000) eta ***Galíndez*** (2001) izan dira.

# Zinema politiko eta historikoa







**TRANTSIZIO URTEETAN** Euskal Herrian egingo den zinema, salbuespenak salbuespen, politikoa da edukiz. Errepresioaren salaketa eta euskal herriaren izate bereziaren aldarrikapena izango dira "Estado de excepción", "Irrintzi", "Viudas de vivos e mortos", "Ez, Ikurrinaz filmea"… bezalako filmen ardatzak.

### ■ Toque de queda (1978). 63'

*Prod.*: Araba Films. *Zuz. eta Gid.*: Iñaki Núñez. *Antzez.*: Xabier Elorriaga, María Pardo, Juan Subinas, Manuel Litián, Isabel Ayúcar.

Trantsizio urteetan Euskal Herrian egiten den zinema, salbuespenak salbuespen, politikoa da edukiz. Errepresioaren salaketa eta euskal herriaren izate bereziaren aldarrikapena izango dira "Estado de excepción", "Irrintzi", "Viudas de vivos e mortos", "Ez, Ikurrinaz filmea"… bezalako filmen ardatzak.

***Toque de queda*** filmak heriotza zigorra jasotako bi preso politikoen drama kontatzen du. Ez da film onegia, baina garaiaren eta erresistentziaren epikaren erakusgarria da.

### ■ El proceso de Burgos (1979). 130'

*Prod.*: Cobra Films, Irrintzi Zinema. *Zuz.*: Imanol Uribe.

***El proceso de Burgos*** filmaz **Imanol Uribe**k birritan asmatu zuen: frankismoaren aurkako erresistentziari buruzko funtsezko dokumentu batez gain, euskal zinemaren historiako lehenengo film komertziala egin zuen.

Urte haietako politikaren pisu gehiegizkoak ez zuen akaso filmaren balio gizatiar eta historikoak hauteman zitezen faboratu, alderdi horiek direlarik, hain zuzen, filma gaur egun berrikustean gehien nabarmentzen direnak.

Donostiako Zinemaldian Espainierazko Film Onenaren




Kantauriko Perla Saria, Benalmadenako Jaialdian Lehenengo Saria eta Kordobako Zinema Historikoko Jaialdian Ikusleen Saria eskuratu zituen.

### ■ Segoviako ihesa / La fuga de Segovia (1981). 110'

*Prod.*: Frontera Films. *Zuz.*: Imanol Uribe. *Gid.*: Angel Amigo, Imanol Uribe, Angel Amigoren *Operación Poncho* liburuan oinarritua. *Antzez.*: Xabier Elorriaga, Mario Pardo, Chema Muñoz, José Manuel Cervino, Virginia Mataix.

***Segoviako ihesa*** filmarekin euskal zinema berria jaio zen, autonomi erkidegoko erakunde berrien babesean.

Filmak **Uribe**ren aurreko lanen izaera dokumentala du, 1976ko apirilean Segoviako kartzelatik ETAko 29 presok burututako ihesaldia berreraikitzen baitu, apaingarri dramatiko gutxirekin. Pertsonaien motibazioak edota beraien arteko alde ideologiko edo psikologikoak apenas jorratzen dira, filma gidatzen duen haria ekintzan oinarritzen delarik.

Proiektuan eskarmentu handiko antzezleek nahiz luze gabe euskal zineman punta-puntako izango ziren gazteek parte hartu zuten, ihesaldiaren egiazko protagonista zenbaitekin batera.

### ■ Albaniako konkista / La conquista de Albania (1983). 106'

*Prod.*: Frontera Films. *Zuz.*: Alfonso Ungría. *Gid.*: Arantxa

Urretabizkaia, Angel Amigo, Alfonso Ungría. *Antzez.*: Xabier Elorriaga, Chema Muñoz, Klara Badiola, Walter Vidarte, Miguel Arribas.

Bi urte geroago *Segoviako ihesar*en arrakasta berritu nahi izan zen, oso ezaguna ez zen ahalbide dramatiko handiko gertakari historiko batekin. XVI. mendean Carlos II.a errege nafarrak soldaduen espedizio bat bidali zuen Albania konkistatzera. Alabaina, filmaren iraupen luzeegiak, erritmo eta gidoi aldetiko arazoek eta filmaren promozioan sortutako gehiegizko iguripenak –kasik "euskal peplum" bat bezala saldu zen– proiektua zapuztu zuten, honek alderdi eta une bikainak dituen arren.

## ■ AKELARRE (1983). 100'

*Prod.*: Amboto. *Zuz.*: Pedro Olea. *Gid.*: Pedro Olea, Gonzalo Goikoetxea. *Antzez.*: Silvia Munt, José Luis López Vázquez, Mari Carrillo, Walter Vidarte, Patxi Bisquert.

Euskal zinemaren lehen labealdiak Euskal Herriko historia izan zuen inspirazio iturri. Eta sorginkeria, jakina, gidoilari eta zuzendarientzat gai tentagarria zen. 1983an **Pedro Olea**k gai honi heldu zion, behinolako paganismoaren eta kristautasun bateratzailearen arteko borroka islatzen duen istorio baten bidez.

Berreraikitze historiko zorrotz batean oinarrituta, Oleak kapitalismoaren hastapenetako gizarte nafarraren koadro konplexu bat filmatzen du, manikeismoak eta irakurketa politiko interesatuak saihestuz.

## ■ ERREPORTEROAK / LOS REPORTEROS (1984). 90'

*Prod.*: Leitzarrak Kooperatiba. *Zuz.*: Iñaki Aizpuru. *Gid.*: Iñaki Uria, Iñaki Aizpuru, Juanjo Landa. *Antzez.*: Juanjo Landa, Seve Díez, Isabel Egiazabal, Mónica Rico.

Politikoki ezkerrekoak izaki ikuspegi ezberdinak dituzten telebistako bi *freelance* erreportariren arteko adiskidetasuna pitzatuz joango da, 1981ean gure herrian jazotako gertakariak medio (Otsailaren 23a, Ryan injineruaren eta Mikel Arregiren erailketak, Erregearen bisita Gernikara...). Abiapuntu interesgarri horrekin, Erreporteroak filmak zalantzati egingo du aurrera eta finean porrot egingo du, euskal zinemak bere nerabezaroan eman zituen asmo oneko hainbat film artistikoki eskasek bezala.

## ■ LA MONJA ALFEREZ (1986). 113'

*Prod.*: Goya Films, Actual Films. *Zuz.*: Javier Aguirre. *Gid.*: Javier
















Agirre, Alberto S. Insua, Katalina de Erausoren *Memorias* eta Thomas de Quinceyren *The spanish military nun* lanetan oinarritua. *Antzez.*: Esperanza Roy, Blanca Marsillach, Conrado San Martín, Isabel Luque, Luis Iriondo.

Katalina de Erauso moja alferizaren bizitza eta legenda erakargarritasun nabarmeneko beste gai historiko bat da. XVII. mendeko Amerikan gizonaren egin eta gradu militar, ohore nahiz emakumeak eskuratu zituen emakume donostiarra horren abenturak **Javier Agirre**k zuzendu zituen.

Baliabideen eskasia grinaz eta profesionaltasunaz ordezkatuz, eta *Esperanza Roy* bikain bat lagun, Agirrek film dibertigarri eta atsegingarria lortu zuen. Kritikak, ordea, ez zuen iritzi bera izan, eta filmak ikusleen babesa ere ez zuen erakarri.

## ■ A LOS CUATRO VIENTOS. LAUAXETA (1987). 90'

*Prod.*: Igeldo Produkzioak. *Zuz.*: José Antonio Zorrilla. *Gid.*: José Antonio Zorrilla, Arantxa Urretabizkaia, Xabier Elorriaga. *Antzez.*: Xabier Elorriaga, Anne-Louise Lambert, Jean-Claude Bouillaud, Peter Leeper, Antonio Passy.

Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenaren kariaz, **Angel Amigok** Esteban Urkiaga idazle eta poetaren bizitzan oinarritutako film hau ekoiztu zuen. Lauaxeta ezizeneko idazle honek Gerra Zibilean Euskadiko armadarekin komandante gradua lortu zuen, eta fusilaturik hil zen.

Ordura arteko euskal zinemaren filmik garestiena izanik, emaitzak ez zituen inondik ere aurreikuspenak bete. Gidoia hagiografian erortzen da, eta ez du lortzen pertsonaiaren barne oinazean sar gaitezen. Proiektuaren atzean politikakeria ugari eta heldutasun artistiko eskasa hautematen dira.

## ■ ANDER ETA YUL (1988). 90'

*Prod.*: Igeldo Produkzioak. *Zuz.*: Ana Díez. *Gui.*: Angel Fdez. Santos, Ana Díez, Angel Amigo. *Antzez.*: Miguel Munárriz, Isidoro Fernández, Carmen Pardo, Joseba Apaolaza, Ramón Barea.

***Ander eta Yul*** filmak euskal arazo soziopolitikoaren lehenengo ikuspegi konplexu eta heldua eskaintzen digu. Baliteke **Ana Díez**en lanak alderdi ahulak izatea, baina erasaten gaituen dramaren azterketa xeheari heltzean ausardia, zintzotasuna eta gaitasuna ezin zaizkio ukatu. Horrexegatik, filmaren aurkako kritika suminkorrenak hemen egin ziren: zauriak irekita eta zornea


KE ARTEKO EGUNAK
DIAS DE HUMO
ANTXON EZEIZA ZUZENDARIA
PEDRO ARMENDARIZ JR. ELENE LIZARRALDE
IRO LANDALUZE LANKIDETZA BEREZIA XABIER ELORRIAGA PATXI BISQUERT
LUIS GOYA PRODUKTOREA ALFREDO MAYO ARGAZKIA JOSE SALCEDO OSAKETA
MICHEL PORTAL MUSIKA ANTXON EZEIZA KOLDO IZAGIRRE GIDOIA
BERTAN FILMEAK TRENBIDEKO FILMEAK
SUBVENCIONADA POR EL MINISTERIO DE CULTURA CON LA PARTICIPACION DE TVE S.A.


CRONICA DE LA GUERRA CARLISTA
(1872-1876)
KARLISTADAREN KRONIKA
ZAULI FILMS una producción de José María Tuduri
JOSE MARIA TUDURI


SEGOVIAKO IHESA
Xabier Elorriaga
Mario Pardo
Ovidi Montllor


ALBANIAREN KONKISTA
Musika A. IGLESIAS
Produkzio zuzendaria A. SANTANA


Una producción Aiete Films y Ariane Films
El Rey pasmado
Una pelicula de IMANOL URIBE
basada en la novela de Gonzalo Torrente Ballester "Crónica del Rey pasmado"
MARIA BARRANCO • JOAQUIM DE ALMEIDA • LAURA DEL SOL
GABINO DIEGO • JUAN DIEGO • FERNANDO FERNAN GOMEZ • ALEJANDRA GREPI
JAVIER GURRUCHAGA • EUSEBIO PONCELA • ANNE ROUSSEL
BARBERO • COHEN • ELIAS • RAMON • SAN FRANCISCO • SORIANO
ROMANA GONZALEZ • JAVIER ARTIÑANO • GILLES ORTION
ANDRES SANTANA • JOSE NIETO • TERESA FONT
FELIX MURCIA • HANS BURMANN
JUAN POTAU y GONZALO TORRENTE MALVIDO • IMANOL URIBE y ANDRES SANTANA
DIRIGIDA POR: IMANOL URIBE







*"Toque de queda" filmaren hiru fotograma.*







*Iñaki Núñezen "Estado de excepción" filmaren hiru fotograma.*

zeriela, ikasketa, joan-etorri eta borroka lagun biren istorioa, jada itxuragabetutako ideia batengatik beren buruak suntsitzen dituzten bi pertsonen istorioa, sumina eragiteko modukoa zen. Baina zinemak izan dezakeen xede gorenetakoa ez al da, bada, geure buruak geure anormaltasunen ispiluaren aurrean jartzea?

### ■ Crónica de la Guerra Carlista, 1872-1876 (86')

*Prod.*: Zauli Films. *Zuz.* eta *Gid.*: José Mª Tuduri. *Antzez.*: Paco Sagarzazu, Ramon Agirre, Rafael Enrique, Patxi Barco, Agustin Arrazola.

Bost urtetan zehar, noizean behingo diru-sarreren bulkadez eta 16mm eta 35mm-ak baliatuz, **Jose Mª Tuduri** tolosarra, euskal karlismoan aditua eta Parisen hezitako argazkilaria, izaera didaktikodun film eder hau filmatuz joan zen. Egitura simetriko batetik abiatuta, narrazioak ikuslearen aurrean II. Karlistadan borrokatu ziren alderdien arrazoi eta argudioak agertzen ditu, eta soldaduen eguneroko bizitza zehazki berreraikitzen du. Zine historikoaren ekinaldi bikaina da, euskal gizartearen mendetako ajeak zentzuz ulertzeko ahaleginean.

### ■ Ke arteko egunak Días de humo (1989). 110'

*Prod.*: Bertan Filmeak, Trenbideko Filmeak. *Zuz.*: Antxon Ezeiza. *Gid.*: Antxon Ezeiza, Koldo Izagirre. *Antzez.*: Pedro Armendáriz jr., Elene Lizarralde, Iro Landaluze, Ikerne Letamendi, Patxi Ugalde.

Donostiako Zinemaldian lehiatu zen euskaraz zuzenean filmatutako lehen pelikula, ***Ke arteko egunak*** **Antxon Ezeiza** bere lurraldera itzultzearen testigantza da, Amerikako erbestean urteak eman ostean.

Pertsonaia nagusia, Pedro Sansinenea, hogei urte eta gero Donostiara bueltatzen da, eta gaitz zaharrek egosten dihardutela hautemango du: pertsonalak, alkoholismora eta bakardadera eraman zutenak, eta gizarte gaixo batenak, zeinarekin harreman mingarria baitu. Ezeizaren filma geruza existentzialista batek estaltzen du, eta horixe da, hain zuzen, bere bertute nagusia.

### ■ Santa Cruz, el cura guerillero (1990). 91'

*Prod.*: Zauli Films. *Zuz.*: José Mª Tuduri. *Gid.*: José Mª Tuduri, José Antonio Vitoria, Mitxel Gaztanbide. Zuz.: Ramon Barea, Carlos Zabala, Aitzpea Goenaga, Ramon Agirre, Agustin Arrazola.

*Crónica de la Guerra Carlista* filmaren bermeaz, **José Mª Tuduri**k Santa Kruzen biografia –Hernialdeko parrokoa, azken karlistadan integrista saldo bortitz eta hertsi bat, finean alderdi ororentzat arriskutsua, osatu zuena– pantailaratzeko zuzendari aproposa zirudien. Baina proiektua, hasiera batean Euskal Herritik Amerikara hedatuko zen jazarpen istorio bat bezala moldatua, ia western klasiko baten modura, saialdi zehaztugabe eta sinesgarritasun




*"Santa Cruz, el cura guerrillero" filmaren fotogramak.*




eskaseko bat bihurtu zen, aurrekontu arazoak medio. Antzezleen ahaleginak –Ramon Barea bikain batekin pertsonaia egosgogor eta itxi gisa– ez du osotasunaren arrunkeria ekiditerik lortuko.

## ■ El rey pasmado (1991). 105'

*Prod.*: Aiete Films, Ariane Films. *Zuz.*: Imanol Uribe. *Gid.*: Juan Potau, Gonzalo Torrente Malvido, Gonzalo Torrente Ballesterren *Crónica del Rey pasmado* nobelan oinarritua. *Antzez.*: María Barranco, Joaquín de Almeida, Laura del Sol, Gabino Diego, Juan Diego.

**Imanol Uribe**k, *Aiete Films* bere euskal produkzio-etxearen buru, 1991ko film garrantzitsuena egitea lortu zuen (***El rey pasmado*** pelikulak zortzi Goya irabazi zituen, eta 300 milioi pezeta bildu). Umore dotoreaz, girotze bikainaz eta ozartasun finaz, Felipe IV.aren (*Gabino Diego*) istorioa kontatzen du. Erregea, prostituta baten atzealde biluzia (*Laura del Sol* eta honen ordezkoa gorputzari dagokionez) begiestean, bere emazte eta erreginak merinake azpian gordetzen dituen sekretuak estalgabetzearekin obsesionatuko da, Austriarren gortean zisma bat eta kasik gatazka diplomatiko bat eraginez.

## ■ Yoyes (2000). 104'

*Prod.*: Cipi cinema, Mact producciones, Maruel Movies. *Zuz.*: Helena Taberna. *Gid.*: Helena Taberna, Andrés Martorell. *Zuz.*: Ana Torrent, Ernesto Alterio, Florence Pernel, Iñaki Aierra, Ramon Langa.

Bigarren milurtekoan zine historiko eta politikoa, laurogeita hamarreko urteetan ia desagertua, itzultzen hasiko da. Eta modu bikainean itzuliko da, zuzendari berrien eskutik, hala nola **Helena Taberna** nafarra, Yoyesen biografiaren egilea.

Istorioaren jarraipena eragozten duten zenbait anbiguotasun eta informazio hutsuneak nabari diren arren, filmak askatasun ezak eta intolerantziarekin garaipenak dakarten drama pertsonal, familiakoa eta kolektiboa primeran jasotzen du. *Ana Torrent*ek argilunekiko lan akasgabe bat osatzen du, ikuslearen sentimenduak baino honen adimena akuilatzen duena.

## ■ Silencio roto (2001). 115'

*Prod.*: Oria Films. *Zuz. eta Gid.*: Montxo Armendáriz. *Antzez.*: Lucía Jiménez, Juan Diego Botto, Mercedes Sampietro, Alvaro de Luna, María Botto.

***Silencio roto*** filmean **Montxo Armendarizek** makiaren gaiari heltzen dio, berrogei eta berrogeita hamarreko urteetako frankismoaren aurkako erresistentzia militarra, etnografo fin baten metodologiaz. Pertsonaien eta haien bizimoduaren marrazketa; sentimendu eta betebeharren arteko gatazka etengabea; paisaia berde eta malkartsuak, non batzuetan gorroto zaharrengatik haserretutako familia multzo baten bizitzak itotzen baitira…

Euskal Herriko bazter honetan bizi garenontzat oro da ezagun. Eta, hala ere, pelikula ez dago hemen lekututa, baina Armendarizek gauzak "euskal ikuspegi batekin" kontatzen ditu, Juan Miguel Gutiérrez teorialariak dioen moduan.

## ■ Visionarios (2001). 109'

*Prod.*: Aiete Films, Ariane Films, Sogecine. *Zuz. eta Gid.*: Manuel Gutiérrez Aragón. *Antzez.*: Eduardo Noriega, Ingrid Rubio, Emma Suárez, Fernando Fernán-Gómez, Karra Elejalde.

Ezkiogako agerkundeetan film on baterako oinarria dagoke: horixe pentsatu bide zuen Imanol Uribek filmaren produkzioan sartu zenean.

Gertakari historiko mamitsu horrekin **Manuel Gutiérrez Aragón** zuzendariak lan baldarra egin zuen, XXI. mendeko ikusleentzat interesik gabea. Kontakizunaren maila politikoan ez zuen sakondu nahi izan, edo ez zen sakontzen ausartu, edota ez zuen jakin, hortxe zegoelarik, hain zuzen, bere muina, eta lantegirako egokiak ez ziren bi antzezleren eskutik dibagazio erotiko-esoterikoetan galdu zen.

Entretenimendu modura, filmean ia euskal antzezle guztiak ikus daitezke, bigarren mailako roletan eta figurazioan oinarri sendoa eskainiz.





*"Visionarios" filmaren fotograma.*

# Zinema dramatikoa







GENERO DRAMATIKO *gatazkan* oinarritzen da: pertsonaia batek edo batzuek beren nahiak lortzea eragozten dien erresistentzia bat (barrukoa edo kanpokoa) menderatu behar dute. Euskaldunek ekoiztutako filmetan drama sozialak, drama poetikoak, generoko dramak, komedia dramatikoak... aurkituko ditugu. Gure hurbileko errealitateari lotutako pertsonaiek irudikatutako tentsio dramatikoko adabegiak.

### ■ Fuego eterno (1984). 95'

*Prod.*: Aiete Films, Azkubia Films, José Esteban Alenda. *Zuz. eta Gid.*: José Angel Rebolledo. *Antzez.*: Angela Molina, Imanol Arias, François-Eric Gendron, Ovidi Montllor, Myriam Maeztu.

*Aiete Films* produkzio-etxearen bigarren filma lehenengoa (*Mikelen heriotza*) baino asmo handiagokoa zen, baina emaitza ez zen inola ere hain errentagarria gertatu.

***Fuego eterno*** euskal tradizioetan errotutako maitasun eta heriotzako kondaira bezala aurkezten da. **Rebolledo**ren gidoiak eta zuzendaritzak funtsa badute, antzezleak eraginkorrak dira eta eszenaratzeak maila handiko uneak eskaintzen ditu –batik bat **Agirresarobe**ren fotografia lan bikainari esker– osotasunak porrot egiten du erabat. Filmari ausardia falta zaio, eta nabarmentzeko gogo handiegia du.

### ■ Otra vuelta de tuerca (1985). 113'

*Prod.*: Gaurko Filmeak. *Zuz.*: Eloy de la Iglesia. *Gid.*: Gonzalo Goikoetxea, Eloy de la Iglesia, Angel Sastre, Henry Jamesen izen bereko nobelan oinarritua. *Antzez.*: Pedro Mª Sánchez, Queta Claver, Asier Hernández, Cristina Reparaz.

Zinemagile ausarten herrian, **Eloy de la Iglesia** errege litzateke, begirune osoz esanda. 1985ean, *El pico*ren bi zatiekin irabazitako diruaz, zarauztarrak bere ibilbidean norabidea aldatu eta proiektu klasiko bati helduko dio, beldurrezko generoan: ***Otra vuelta de tuerca***.




Jamesen istorioa euskal handikien giroan egoki txertatzen da, baina zuzendariak, flematiko agertu beharraren beharraz, filma askotan arnasarik gabe uzten du.

*Otra vuelta de tuerca* eta Amenabarren *Los otros* konparatzea halabeharrezkoa da kasik, antzekotasun garbiak ageri dituzte eta.

### ■ Adiós, pequeña (1986). 86'

*Prod.*: Travelling Films. *Zuz.*: Imanol Uribe. *Gid.*: **Imanol Uribe**, Ricardo Franco. *Antzez.*: Ana Belén, Fabio Testi, Marcel Bozzuffi, José Manuel Cervino, Nacho Martínez.

**Imanol Uribe**k genero beltzean (non segidako urteetan bikain moldatuko baita) egingo duen lehenengo saialdia Bilboko itsasadarraren bi ertzen artean mugitzen den istorio bat da: elkarri buru ematen dioten bi munduren sinbolo gisa jokatzen duten bi geografia.

Uribek badaki pertsonaiak mugitzen eta eszenak egoki taxutzen ditu, baina gidoiaren argaltasunek ahalegina zapuzten dute. Ana Belén eta Fabio Testi kontratua konplitzera mugatzen dira, eta filma funtsik gabe ebazten da. Nolanahi ere, aitortu beharra dago generoa Bilboko paisaia industrial dekadenteetan txertatzeko ahaleginak balioa duela.

### ■ Las cartas de Alou (1990). 92'

*Prod.*: Elías Querejeta. *Zuz. eta Gid.*: Montxo Armendariz.

*Antzez.*: Mulie Jarju, Eulalia Ramón, Ahmed El-Maaroufi, Akonio Dolo, Albert Vidal.

Pateren krisiari eta inmigrazio legearen inguruko eztabaidari aurreratu zitzaien honako filma giza komunikazio eta elkartasunaren aldarrikapen ederra da. Elkarrizketa batzuk ia ulertezinak badira ere, pertsonaiak gardenak dira, eta errealitatea ulergarria egiten zaigu erabat.

Gidoiaren amarru zoli bati esker, izenburuak aipatzen dituen Alouren gutunak ikusleak berak idazten ditu bere buruan. **Armendariz**ek Donostiako Zinemaldiaren Urrezko Maskorra Coen anaien *Heriotza lore artean* filmaren kaltetan irabazi izanaren penitentzia pairatu behar izan zuen.

### ■ ALAS DE MARIPOSA (1991). 108'

*Prod.*: Gasteizko Zinema. *Zuz.*: Juanma Bajo Ulloa. *Gid.*: Juanma Bajo Ulloa, Eduardo Bajo Ulloa. *Antzez.*: Silvia Munt, Fernando Valverde, Susana García, Laura Vaquero, Txema Blasco.

**Juanma Bajo Ulloa** laburmetraien zuzendari sarituaren (*Akixo*, *El reino de Víctor*) lehenengo luzemetraia ipuin poetiko, magiko eta limurtzaile bat da, zeinetan bere ikusmen nahiz eszenaratzeko baliabide ugariak agertu ahal izan baitzituen.

*Enfant terrible* gasteiztarraren zinemak planoen sintaxia, irudiaren ehundura eta kameraren mugimendua ditu bereizgarri nagusi, gidoian eta pertsonaien deskribapenean ageri diren hutsuneak kalitate handiko uneez ahaztaraziz.

1991an ***Alas de mariposa*** filmak Donostiako Zinemaldiaren Urrezko Maskorra irabazi zuen.

### ■ VACAS (1992). 91'

*Prod.*: Sogetel. *Zuz.*: Julio Medem. *Gid.*: Julio Medem, Mitxel Gaztanbide. *Antzez.*: Emma Suárez, Carmelo Gómez, Ana Torrent, Karra Elejalde, Klara Badiola.

*Euskal zinema* kultur tradizioez elikatzen eta herriaren ikurretan oinarritzen dena bada, **Julio Medem**en *opera prima*k mugarri bat ezarri zuen. Ezen ***Vacas*** film bikaina da, baina zerbait gehiago ere bai: topiko eta arketipoen aurkako adierazpen bat da, egitura narratibo bizi eta lirikoa, zeinarekin gure zinemak heldutasuna iritsiko baitu.

Hala ere, behiaren "juzkurik gabeko begia" gurearen antzekoa ez denez, proiektuak tamalez ez zuen bertan babesik izan, eta Madrilen finantzatu zen, Medem bere jaioterritik urrundu duen ibilbide batean abiaraziz.







### ■ LA MADRE MUERTA (1993). 106'

*Prod.*: Gasteizko Zinema. *Zuz.*: Juanma Bajo Ulloa. *Gid.*: Juanma Bajo Ulloa, Eduardo Bajo Ulloa. *Antzez.*: Karra Elejalde, Ana Alvarez, Lio, Silvia Marsó, Elena Irureta.

Beste behin, **Bajo Ulloa**k amesgaiztozko edo eromenaren amildegi ertzeko fantasia anker batean sartzeko gonbitea luzatzen digu.

Beste behin, etxetzar islatsuak, hospizioa eta bertako biolentzia sorra, oroimen hautsia, erakarpen halabeharrezkoak, dena **Bingen Mendizabal**en musikaren urrumaz eta zabunkatu eta itotzen gaituen kamera dantza batez. Egia, kontakizunaren pasarte askotan ikusezina, obsesiboki xehea den narratzaile batek ematen du, antzezle multzo bikain baten laguntzaz.

1993an **Montrealgo Jaialdiak** Bajo Ulloari zuzendari onenaren saria eman zion.

### ■ LA ARDILLA ROJA (1993). 110'

*Prod.*: Sogetel. *Zuz. eta Gid.*: Julio Medem. *Antzez.*: Emma Suárez, Nancho Novo, Carmelo Gómez, María Barranco, Karra Elejalde.

**Julio Medem**ek *Vacas*en iradoki zuen oro ***La Ardilla Roja*** filmean berretsi zuen.

Bikoteen arteko gezur eta alegien, botere eta menderatze istorioa da, udara bero batean Donostiako kanpinean girotua.

Medemen zinemaren bereizgarria da nolabaiteko itxurakeria, alderdi original eta poetikoak bortxatzea, naturaltasuna behartuz; baliteke denen gustuko ez izatea. Baina bere istorioei aurre egiteko ageri duen zintzotasunak bestela lotsagarri gerta litekeena erakargarri egiten du.

### ■ HISTORIAS DEL KRONEN (1995). 90'

*Prod.*: Elías Querejeta, Claudine Ossard Productions. *Zuz.*: Montxo Armendariz. *Gid.*: Montxo Armendariz, José Angel Mañas, J.A. Mañasen izen bereko nobelan oinarritua. *Antzez.*: Juan Diego Botto, Jordi Mollá, Nuria Prims, Aitor Merino, Armando del Río.

**Armendariz**ek gizartearen gune ospeletan ezarritako gizabanako eta taldeen bizimodua ikerketa koadernoetan jasotzen duen antropologoaren begirada du.

Jarrera horrekin aztertzen du txondorraren oinean dagoen ikazkina *Tasio*n, eta bizimodu hobe baten bila Itsasartea zeharkatzen duen emigrantea *Las cartas de Aloun*. Era bertsuan, ***Historias del Kronen*** filmean asfaltoa zapaltzen du, nihilismo

suntsitzaile batek gidatutako hiriko gazte mota jakin bat aztertzeko. Gozogarririk gabeko filma da, eztarrian korapiloa jartzen duen horietakoa, aurkikuntza bisualez betea.

### ■ BWANA (1996). 81'

*Prod.*: Aurum, Cartel, Origen. *Zuz.*: Imanol Uribe. *Gid.*: Imanol Uribe, Juan Potau, Paco Pino, Ignacio del Moralen *La mirada del hombre oscuro* lanean oinarritua. *Antzez.*: Andrés Pajares, María Barranco, Emilio Buale, Alejandro Martínez, Andrea Granero.

*Días Contados* egin eta bi urte geroago, **Imanol Uribe**k berriro Donostiako Zinemaldiaren *Urrezko Maskorra* irabazi zuen, ***Bwana*** filmarekin. Armendarizek *Las cartas de Alou*n bezala, Uribek arrazakeria erabatekoena jorratzen du, baina irizpide ezberdinez: nafarrak fintasuna baliatzen duen bitartean, Uribek umore (*Andrés Pajares* eta *María Barranco* bikote protagonista lagun) eta biolentziazko kolpeak erabiltzen ditu. *Bwana* atseginez ikusi eta laster ahazten diren film horietako bat da.

### ■ TODO ESTÁ OSCURO (1997). 95'

*Prod.*: Igeldo Komunikazioa, Euskal Media, Teleset, MGN. *Zuz.*: Ana Díez. *Gid.*: Ana Díez, Carlos P. Merinero, Bernardo Belzunegi, Angel Amigo. *Antzez.*: Silvia Munt, Klara Badiola, Diego Achury, Valeria Santa, Robinson Díaz.

Bederatzi urte eta gero, **Ana Díez** luzemetraiak egitera itzuli zen ***Todo está oscuro*** filmarekin. Marta (*Silvia Munt*) Kolonbiara doa zendutako anaiaren (*Kike Díaz de Rada)* gorpuzkiak jasotzera. Bidaia iniziatiko baten hasiera izango da, non bere ilusioak zapuztu egingo baitira, infernuaren atea dirudien gizarte batean bizirauten ikasiko duelarik.

*Ander eta Yul* filmean bezala, tuterarraren kezka nagusien artean biolentzia dago, eta oraingoan haren desarrazoian sakontzeko emakume baten begirada hartzen du.

### ■ ASFALTO (1999). 92'

*Prod.*: José María Lara, Sur Films, Albares Productions. *Zuz.*: Daniel Kalparsoro. *Gid.*: Daniel Kalparsoro, Santiago Tabernero, Frank Palacios. *Antzez.*: Najwa Nimri, Juan Diego Botto, Gustavo Salmerón, Alfredo Villa, Antonia San Juan.

Beste dohain askoren artean, **Kalparsoro**ren laugarren filmaren izenburua egokia da, ezen protagonista, funtsean, hiria baita: Madril. Asfalto errearen berotan, Lucía, Chino eta Charlyk ezinezko triangelu bat osatzen dute.









Askatasunak etsai gehiegi ditu, hala kanpoan nola norberaren barruan.

Kalparsorok orain arte egindako lan onenak aparteko eszenaratzea ageri du, fotografiaren tratamendu bikain batek eta *casting*aren diseinu egoki batek indartua. Hondarribikoarengan ohikoa denez, akzio eszenek zuzendari gisa duen trebezia agerrarazten dute.

### ■ LOS AMANTES DEL CÍRCULO POLAR (1998). 103'

*Prod.*: Sogetel. *Zuz. eta Gid.*: Julio Medem. *Zuz.*: Najwa Nimri, Fele Martínez, Nancho Novo, Maru Valdivielso, Sara Valiente.

Patuaren eta halabeharraren jokoa milaka filmen oinarri izan da. Alor labaina da, non erraza baita estropezu egitea. Horrek ezein zinemagile uzkur lezake, baina ez **Julio Medem**, istorioen garapenean unibertso propio eta originaltasun handiko artista.

Kasualitatea eta kausalitatea paisaia elurtuekiko bi anai-arrebaorderen arteko *amor fou*ko istorio honen ardatzean daude. Arbitrariotasun eta apainkerian erortzeko zorian, Medemek sinesgarritasun poetiko handiz aurrera egiten du, eta emozio handiko beste obra bat eskaintzen digu.

### ■ LA NOVENA PUERTA (1999). 132'

*Prod.*: Araba Films, Bac Films, Kino Vision. *Zuz.*: Roman Polanski. *Gid.*: Enrique Urbizu, John Brownjohn, Roman Polanski, Arturo Pérez Reverteren *El club Dumas* nobelan oinarritua. *Antzez.*: Johnny Depp, Frank Langella, Lena Olin, Emmanuelle Seigner.

*Iñaki Núñez* koprodukzioan dagoela, eta *Enrique Urbizu*k beste zenbait egilerekin batera idatzia, **Roman Polanski**ren filma gaizkiaren indarrak nagusi direneko errealitatearen alderdi ilunetan sartzen da. Tentsio narratiboa erabat galdu gabe eta antzezleen lan dotoreekin, istorioak Arturo Pérez Reverteren nobelan txerta litezkeen baina pantailan emaitza onik ematen ez duten baliabideei heltzen die, bukaera eskas batekin proiektuak finean behea joko duelarik. Nolanahi ere, gorestekoa da **Araba Films** produkzio-etxeak neurri honetako proposamenetan inbertitzean agertutako adorea.

### ■ PLENILUNIO (2000). 118'

*Prod.*: Sogecine, Aiete/Ariane Films. *Zuz.*: Imanol Uribe. *Gid.*: Elvira Lindo, Antonio Muñoz Molinaren izen bereko nobelan oinarritua. *Antzez.*: Miguel Angel








Solá, Adriana Ozores, Juan Diego Botto, Fernando Fernán Gómez, Chete Lera.

*Extraños* eskasaren ondoren, **Uribek** polizi istorio bat moldatuko du berriro. ***Plenilunio*** filmak egiaz paraleloan doazen hiru istorio kontatzen ditu, Manuel (*Miguel Angel Solá*) pertsonaiaren bidez: neskatoen hiltzailearen (*Juan Diego Botto*) kasua, bere maitasun istorioa andereño batekin (*Adriana Ozores*) eta Bilbon igarotako urteen oroitzapena, atentatu moduan itzul litezkeenak. Ekintza probintziako hiriburu batean kokatzen delarik, filmak Bardemen *Calle Mayor* gogorazten du. Egia da hiru istorioak ez daudela behar bezala elkarloturik, baina emaitza estimagarria da.

## ■ Lucía y el sexo (2001). 123'

*Prod.*: Sogetel. *Zuz. eta Gid.*: Julio Medem. *Antzez.*: Paz Vega, Tristán Ulloa, Najwa Nimri, Daniel Freire, Javier Cámara.

***Lucía y el sexo*** filmaren bilgarri erakargarriak (izenburu, horma-irudi eta *trailer* limurtzaileak, telebistatik heldutako aktore multzoa) ezin hobeto funtzionatu zuen, **Medem**en bosgarren luzemetraia bere arrakasta komertzialik sonatuena bihurtuz. Zuzendariaren erronka ausart eta




bide-urratzaileena dela aitortu arren, etsigarriena ere bada. Nor bere baitara bildua, Medemek bistakoa eta gehiegikeria baliatzen ditu, kulebroiaren eta liburu astun baten artean dabilen istorio nahasi eta hanpatua moldatuz, ikuslearen arreta piztea lortzen ez duena. Filmak duen onena, zalantzarik gabe, *Elena Anaya* eta *Paz Vega*ren (Goya sariaren irabazlea) antzezpenak dira.

## ■ Algunas chicas doblan la piernas cuando hablan (2001). 90'

*Prod.*: Igeldo Komunikazioa. *Zuz.*: Ana Díez. *Gid.*: Daniel Castro, Ana Díez. *Antzez.*: Fernando Ramallo, Paz Gómez, Roberto Hoyas, Aitor Merino, Lucía Napal.

Jakina da Proustez geroztik artean gai guztiak bakar batera mugatzen direla: Denbora. **Ana Díez**ek galdutako denboraren bilaketari buruzko istorio bat moldatzen du, berori gaztaroan eta San Ferminetako Iruñearen eremu geografikoan lekutuz. Filmean Espainiako zinemaren labealdi berriko antzezle onenetako batzuek parte hartzen dute.

Estreinaldian (2001eko abendua), Ana Díezen filmak kritika eskasak izan zituen, eta ikuskizun sailetan pattal samar aritu zen.

# Euskal Herria pantailan






EUSKAL GIZARTEAREN AZTORAMEN ETA KONTRAESANAK; bere krisi politiko, sozial, etikoak; borroka ideologikoak, historian zehar gehiegitan tragediaz zipriztinduak; kultur gatazkak... Euskal zinemak inguratzen gaituen errealitatea islatzeko, fikzioaren bidez kolektibo moduan gertatzen zaiguna azaltzeko premia larria du. Euskal Herria pantailan jartzen duten filmak.

## ■ Euskal Herri-Musika (1978). 64'

*Prod.*: Lankor Lamia. *Zuz.*: Fernando Larruquert. *Gid.*: Fernando Larruquert, José Angel Rebolledo, Javier Agirresarobe.

***Euskal Herri-Musika*** Bizkaiko Bankuak finantzatutako euskal kulturari buruzko dokumentalen proiektu itzel baten lehen emanaldia bezala diseinatu zen.

Pelikulak euskal musika herrikoia laburbiltzen du, eta bertako musika egiturekin formalki esperimentatzen du. *Jorge Oteiza*k adierazi bezala, film honetan "kamerak euskaraz kantatzen du".

**Larruquert-Rebolledo-Agirresarobe** hirukotearen saialdi ausartak ez zuen jarraipenik izan, baina testigantza etnografiko eta artistiko baliotsu gisa geratu zaigu.

## ■ Siete calles (1981). 84'

*Prod.*: Lan Zinema. *Zuz. eta Gid.*: Juan Ortuoste, Javier Rebollo. *Antzez.*: Enrique San Francisco, Antonio Resines, Patricia Adriani, Fernando Vivanco, Marivi Bilbao.

**Ortuoste** eta **Rebollo**ren lehenengo filmeko protagonista birmoldaketa aurreko urteetako Bilboko paisaia hiritarra da.

Zazpi egunetan, zazpi pertsonaia Bilboko zazpi kaleetatik gora eta behera dabiltza, bakoitza bere ondasun eta maitasunezko ametsak jazarriz. Filmari akats ugari leporatu bide zaizkio, baina bertute formalak eta, euskal zinema instituzionalaren ernaldi betean, garaiko eredu politiko eta historikoaz bestelako generoko obra bat egiten ausartu ziren egileen kemena ere aitortu behar zaizkio.




## ■ El pico (1983). 104'

*Prod.*: Opalo Films, Gaurko Filmeak. *Zuz.*: Eloy de la Iglesia. *Gid.*: Gonzalo Goikoetxea, Eloy de la Iglesia. *Antzez.*: José Luis Manzano, Javier García, José Manuel Cervino, Luis Iriondo, Enrique San Francisco.

***El pico*** Eloy de la Iglesia zarauztarraren euskal produkzio bakanetakoa da (*Gaurko Filmeak* etxearen eskutik). Espainiako zinemaren ia kritika eta *inteligentsia* osoak gaitzetsia, *El pico* bere garaiko film arrakastatsuenetako bat izan zen. Arrakastaren formula bi korronte poloren lotura bat bezala da, honakoan euskal gizartean elkarren etsai amorratuenek ordezkatuak: segurtasun indarrak eta mugimendu abertzalea. Elkarrekiko herra agerikoa da. Pelikularen sakontasun asmorik ezari ezin konta ahala xehetasun morboso eta orduko gertakarietarako keinu oportunistak gaineratzen zaizkio.

## ■ Mikelen heriotza / La muerte de Mikel (1984). 89'

*Prod.*: Aiete Films. *Zuz.*: Imanol Uribe. *Gid.*: Imanol Uribe, José Angel Rebolledo. *Antzez.*: Imanol Arias, Montserrat Salvador, Fama, Amaia Lasa, Ramon Barea.

**Uribe**ren hitzetan, ***Mikelen heriotza*** "intolerantziari buruzko film bat da, Euskadin girotua baina beste edonon egin zatekeena". Egia, Baina egia da, halaber, zuzendari euskal-amerikarrak eta berarekin gidoilari lanetan aritutako *José Angel Rebolledo*k laurogeiko hamarkadako euskal gizartearen erretratu doia erdietsi zutela. Giro ito eta itogarri bat, non gehiengoaren ereduari jarraiki bizi ez direnentzat apenas lekurik dagoen.

*Mikelen heriotza* hamarkadako euskal zinemako pelikularik arrakastatsuena izan zen.

### ■ Tasio (1984). 96'

*Prod.*: Elías Querejeta. *Zuz. eta Gid.*: Montxo Armendariz. *Antzez.*: Patxi Bisquert, Amaia Lasa, Nacho Martínez, José Mª Asín, Paco Sagarzazu.

**Montxo Armendariz**en aurreneko luzemetraia gizon arrunt baten deskribapen xume, sakon eta hunkigarria da. Pertsonaia nagusia izadiarekin, belaunaldien errutinarekin eta desagertzear dauden bizitzeko moduekin dituen harremanei eusten dien basoko langile bat da.

Kontakizunarekiko leial, Armendarizek sekuentziak xume baino inozokeriarik gabe lotzen ditu, eta eszenek, apurka garatu ahala, gizabanakoaren bizitzaren handitasun osoa eta ezerez osoa agertzen dute, Urbasako mendilerroaren edertasun sorgorra lekuko dela. Arnas poetiko eta kaligrafia trebeko lana, bi hamarkada geroago bere dohain guztiak mantentzen ditu.

### ■ Golfo de Vizcaya (1985). 90'

*Prod.*: Lan Zinema. *Zuz.*: Javier Rebollo. *Gid.*: Joaquín Jorda, Santiago González, Juan Ortuoste, Javier Rebollo. *Antzez.*: Omero Antonutti, Silvia Munt, Amaia Lasa, Patxi Bisquert, Mario Pardo.

Laurogeiko hamarkadako egoera soziopolitikotik edanez (ETA eta GAL, polimilien birgizarteratzea, krisi politikoa, industri birmoldaketa...) **Rebollo-Ortuoste** bikoteak zinema beltzaren tradizio barruko film bat egin zuen, ***Golfo de Vizcaya***. Korapiloak alderdi interesagarriak zituen, baina gidoilariek ez zuten osagai guztiak bateratzea lortu, eta, horri antzezleen hautaketan okerra eta eszenaratze eskasa gaineratu zitzaizkiolarik, filmak porrot egin zuen. Bilbo hiriaren lekuko is arkeologiko gisa, Guggenheim aurreko 12 urtean, bitxia gertatzen da.

### ■ 27 ordu / 27 horas (1986). 90'

*Prod.*: Elías Querejeta. *Zuz.*: Montxo Armendariz. *Gid.*: Elías Querejeta, Montxo Armendariz. *Antzez.*: Martxelo Rubio, Maribel Verdú, Jon Donosti, André Falcon, Antonio Banderas.

Altzairu koloreko zeru baten pean, ***Agirresarobe***k Donostia malenkoniatsu eta sarria fotografiatzen du, non bizitzan kale egitera etsitako gazte talde baten bizialdietako 27 ordu erabakigarrienak igarotzen baitira. Zenbait kritikarik "drogazaleei buruzko pelikula" zela iritzi zioten, heroina **Querejeta** eta **Armendariz**ek bere burua suntsitzen duen gazteriaren
















inguruko bilbe bat moldatzeko tresna dramatikoa baino ez denean (bederatzi urte geroago zuzendari nafarrak gai berari helduko dio, irizpide askoz erradikalagoez). Filmean *Antonio Banderas* aski gazte bat eta lehenengo filma zuen *Maribel Verdú* agertzen dira, *Martxelo Rubio* eta *Jon Donosti* izeneko antzezle ezezagun bikain baten aldamenean.

### ■ Kareletik / Por la borda (1987). 90'

*Prod.*: Irati Filmak. *Zuz. eta Gid.*: Anjel Lertxundi. *Antzez.*: Patxi Bisquert, Mario Pardo, Luis Iriondo, Felipe Barandiarán, Mikel Garmendia.

**Anjel Lertxundi** idazlea kameren atzean jarri zen ***Hamaseigarrenean aidanez*** bere nobela moldatzeko, eta segidan itsasoari buruzko gidoi original bat idatzi zuen, 1987an zuzenduko zuena. Orio bere jaioterrian jazotako egiazko gertakari bat abiapuntu harturik, Lertxundik euskal gizartearen baztertze mekanismoetan eta eguneroko biolentzian, bere lehen filmean ere ageri ziren osagaiak, sakontzen du. ***Kareletik-Por la borda*** filmaren dohainik aipagarrienak antzezleen lana (*Mikel Garmendia*k, Balantxas ahaztezinaz, Cartagenako Jaialdian interpretazio saria irabazi zuen) eta marinelen bizimoduaren deskribapena dira.

### ■ Gran Sol (1987). 90'

*Prod.*: Centre Promotor de la Imatge, Irati Filmak, Lauren Films, Mare Nostrum Produccions, Productora Catalana de Televideo. *Zuz. eta Gid.*: Ferrán Llagostera, Ignacio Aldecoaren izen bereko nobelan oinarritua. *Antzez.*: Carlos Lucena, Luis Iriondo, Paco Sagarzazu, Agustín González, Patxi Bisquert.

Itsasgizonen bizimodua euskal zinemako zenbait filmen gai nagusia izan da: *Bandera negra*, *Kareletik—Por la borda*, *Terranova*, eta *Gran Sol*. Ignacio Aldecoaren liburu ederrean oinarritutako azken film honetan, sinesgarritasunez filmatua, ur handitako arrantzuntzi bateko zereginak eta eguneroko bizitza bikain islatzen dira.

Antzezpen onak badira, hala nola *Luis Iriondo*rena kapitain moduan eta *Carlos Lucena*rena arrantzale liskargilearena egiten.

### ■ Offeko maitasuna / Amor en off (1992). 81'

*Prod.*: Trenbideko Filmeak. *Zuz.*: Koldo Izagirre. *Gid.*: Usoa Urbieta, Koldo Izagirre. *Antzez.*: Mónica Molina, Patxi Bisquert, Fernando Guillén Cuervo, Klara Badiola, Jose Ramon Soroiz.

Euskal zineak bere bizialdi laburrean jasan duen eztabaida










handienetako bat *Luis Goya*k ekoiztutako film honek sortu zuen, zeinetan preso politiko baten, honen andregaiaren eta ezinbesteko hirugarren baten arteko maitasun triangelua kontatzen baita.

Muturreko zenbait sektore politikok pelikulak jarrera fundamentalistak –haiek hain urrunekoak ez zituztenak –salatzen zituela ulertu zuten, eta estreinaldia baino lehenagotik filmaren aurkako kanpaina bat antolatu zuten. Eztabaidak eztabaida, Izagirreren filmak grinarik gabe berrikusia izan dadin merezi du.

## ■ Urte ilunak / Los años oscuros (1993). 87’

*Prod.*: José María Lara, Euskal Media. *Zuz. eta Gid.*: Arantxa Lazkano. *Antzez.*: Eder Amilibia, Garazi Elorza, Klara Badiola, Carlos Panera, Amaia Basurto.

Arantxa Lazkano zarauztarrak luzemetrai bakarra egin du, ikusiak ikusita aukera berri bat mereziko lukeen arren. *Urte ilunak* film dotorea da, sentikortasunaren hariez ehuna eta iradokizun interesgarriz betea. Lazkanok haurrak zuzentzeko erronka trebe gainditzen du, eta gerraosteko urte ilunetan Euskal Herriko herri bateko bizitzaren deskribapen sinesgarri bat eskaintzen digu.

## ■ Días contados (1994). 93’

*Prod.*: Aiete Films, Ariane Films. *Zuz. eta Gid.*: Imanol Uribe, Juan Madriden izen bereko nobelan oinarritua. *Antzez.*: Carmelo Gómez, Ruth Gabriel, Candela Peña, Karra Elejalde, Elvira Mínguez.

ETAko kide bat, Madril Komandoaren buru, berarengan grina oinarrizkoenak pizten dituen neska batez maitemintzen da, zeina droga eta prostituzioaren azpimunduan nahasita baitago.




Militante zailduak krisialdi bat biziko du, eta akats larriak egiten hasiko da. Planteamendu interesgarria da, Uribek korapiloa maisutasunez gidatzen du eta Carmelo Gómez eta Ruth Gabrielek interpretazio onak eskaintzen dituzte. Pelikulak Donostiako Zinemaldiko film onenaren Urrezko Maskorra eta zortzi Goya sari irabazi zituen.

## ■ Salto al vacío (1995). 86’

*Prod.*: Yumping Films, Siurell, Fernando Colomo. *Zuz. eta Gid.*: Daniel Kalparsoro. *Antzez.*: Najwa Nimri, Roberto Shalu, Alfredo Villa, Ion Gabella, Karra Elejalde.

Daniel Kalparsosoren aurkezpen bikaina. Zuzendaria artistikoki Estatu Batuetan hezi eta laurogeita hamarreko urteetan etxera itzuli zen gipuzkoar bat da, maletan zinemarako ideia eder ugari ekarri zituena. Kalparsororen sorkuntzarako grina Iruñeko Najwa Nimri antzezle gaztearekin topo egitean hezurmamituko da, bost urtetan lau film irregular baina nortasun handikoak eginez. *Salto al vacío* arreta erakartzen duen zuzendari baten trebeziaren lehen agerraldia da, eta 1995eko Berlingo Jaialdian harridura eragin zuen. Aurrera begira zuzendari honengandik funts gehiagoko lanak espero ditugu.

## ■ Secretos del corazón (1997). 104’

*Prod.*: Aiete Films, Ariane Films, Euskal Media. *Zuz. eta Gid.*: Montxo Armendariz. *Antzez.*: Andoni Erburu, Alvaro Nagore, Carmelo Gómez, Charo López, Silvia Munt, Vicky Peña.

Javi bere izebekin hirian bizi den mutiko bat da. Aste Santuko oporrak heltzean bere ama alargunarekin eta aitonarekin bilduko da, herriko etxetzar zaharrean. Egun gutxitan helduen mundu arekin topo egingo du: familiako sekretu gaiztoak, sexua, heriotza, herra higatuak. Pertsonaiek gazteleraz hitz egiten dute, baina euskaraz berdin egin zezaketen: Armendarizek kulturalki gertuko dugun komunitate bat deskribatzen du, euskal herrien bizitzaren zati izan diren tradizioak agertuz. 1998an film zoragarri hau Oscar sarien finalera heldu zen.

## ■ Lo mejor de cada casa (2000). 85’

*Prod.*: Alfonso Gazón, Pedro L. Lanza, Alfonso Arandia. *Zuz. eta Gid.*: Toni Abad. *Antzez.*: Mario Pardo, Aitor Merino, Azucena de la Fuente, Juan Querol, Maitane Sebastián.

Madrilgo TAI delakoan hezitako **Toni Abad** telebistako gidoilariaren *opera prima* honek lekuaren unitatea gordetzen du: Bilboko Doña Kasilda parkea. Ia ordu eta erdiz kamerak eserlekuetan jesarri eta bidexketan ibili ohi diren pertsonak filmatzen ditu, eta pertsona bakoitzarengan istorio interesgarri bat aurkitzen du, finean askotariko istorioak bilduz. Emaitza elkarlotutako laburmetraien segida baten antzekoa da, eta zuzendari hasiberrien ohiko gaitza ageri du: espazio oso laburrean gauza gehiegi erakutsi nahi ditu.


Carmelo Gómez
Charo López
Silvia Munt
Vicky Peña
secretos del corazón
Una película de MONTXO ARMENDÁRIZ
ANDONI ERBURU
ÁLVARO NAGORE
JOAN VALLES
IÑIGO GARCÉS
JOAN DALMAU
Vestuario Josune Lasa. Maquillaje Jorge Hernández. Peluquería Fermín Galán. Sonido Gilles Ortion. Jefe de Producción Puy Oria. Música Bingen Mendizabal.
Director de Producción Andrés Santana. Montaje Rori Sainz de Rozas. Director de Arte Félix Murcia. Director de Fotografía Javier Aguirresarobe.
Productores Asociados Jose Mazeda / Thierry Forte. Producida por Imanol Uribe / Andrés Santana. Guión y Dirección Montxo Armendáriz.
Una producción de Aiete Films, S.A. y Ariane Films, S.A.
altafilms

# KOMEDIA







**EUSKALDUNOK UMORERAKO BEREZKO DOHAINIK BA AL DUGU?** Hona hemen gure izaerari buruzko topiko erabilienetako bat. Zinemari begira, esan beharra dago komediak urteak behar izan dituela pantailetan leku bat hartzeko. Laurogeiko hamarkadaren amaiera arte ez ziren azkenik betiko lelo hura desegingo zuten obra arin edo kitzikari eta entretenigarriak estreinatu.

## ■ TU NOVIA ESTÁ LOCA (1987). 80'

*Prod.*: Creativídeo. *Zuz.*: Enrique Urbizu. *Gid.*: Luis Marías. *Antzez.*: Antonio Resines, Ana Gracia, Santiago Ramos, Guillermo Montesinos, Gran Wyoming.

Euskal Herrian umore falta larria zegoela sinetsita, **Urbizu-Marías-Trincado** hirukoteak –Ministerioarena beste laguntza ofizialik gabe–, lehenengo euskal komedia ekoiztu zuen: ***Tu novia está loca***. Hogeita hamarreko urteetako goi komediaren ildotik, bilbea antzezle multzo eraginkor batean oinarritzen da, eta generoaren baliabide guztiak maisuki erabiltzen ditu.

Mugak eta akats teknikoak alde batera utzita, filma pipertsua eta lotsagabea da. Eta ia beti serio ageri den euskal zinemara ozartasuna ekarriko du.

## ■ TODO POR LA PASTA (1991). 94'

*Prod.*: Creativídeo. *Zuz.*: Enrique Urbizu. *Gid.*: Luis Marías. *Antzez.*: María Barranco, Kiti Manver, Antonio Resines, Pepo Oliva, José Amezola.

Laurogeiko hamarkadan, komedia ia jorratu gabeko generoa zen, euskal egoera soziopolitikoari buruzko kezka zuhurrek bertako produkzioa kasik erabat hartu zutelarik, baina laurogeita hamarreko urteetan ugaritzen joan zen, batik bat Bilboko **Creativídeo** produkzio-etxearen bultzadari esker. *Tu novia está loca*n agertutako bertuteak komedia hutsa zine beltzeko argumentu batean txertatzen duen ***Todo por la pasta*** filmean berretsi eta areagotu egin ziren.




## ■ COMO LEVANTAR 1.000 KILOS (1991). 93'

*Prod.*: Story Board. *Zuz.*: Antonio Hernández. *Gid.*: Mario Onaindia, Mercedes Fonseca, Jorge Martínez Reverte, Jorge M. Reverteren *Gálvez en Euskadi* nobelan oinarritua. *Antzez.*: Antonio Valero, Ana Duato, Charo López, Patrick Bauchau, Mathieu Carrière.

*Mario Onaindía* eta *Jorge Martínez Reverte* zinemako gidoiaren bi teorialariek beste guztietatik ezberdina izango zen film bat egitea deliberatu zuten. Okerrena da film honekin egiazko "euskal komedia" jaio zela iragartzeko ausardia izan zutela. Eta dena jomuga itxura batean barre-eragileen jomuga terrorismoa, polizia eta dirua zirelako.

Produktua hain da penagarria ezen euskaldunok umorea egiteko ezgauza ote garen pentsatzera baikaramatza. ***Como levantar 1.000 kilos*** filmak *kilo* bat bera ere ez zuen bildu txartel-lehiatiletan.

## ■ ACCIÓN MUTANTE (1993). 89'

*Prod.*: El Deseo SA, Civy 2000. *Zuz.*: Alex de la Iglesia. *Gid.*: Jorge Gerrikaetxebarria, Alex de la Iglesia. *Antzez.*: Antonio Resines, Alex Angulo, Frederique Feder, Juan Viadas, Karra Elejalde.

Arrakasta handiko laburmetrai baten egile –*Mirindas asesinas*–, telebistako dekoratzaile eta zuzendari artistikoa, **Alex de la Iglesia**k, **Gerrikaetxebarria** kide

bereiztezinarekin batera, gidoi labur bat idatzi zuen, *Piratas del espacio* izenekoa, eta Pedro Almodóvarri bidali zion. Honek gidoia luzemetrai bihurtzeko konbentzitu zuen, eta horrela jaio zen ***Acción mutante***.

Berariaz luzatutako istorio bat delarik, garapena harrigarria da (protagonista guztiak filmaren lehenengo orduan hiltzen dira). Baina pelikularen ozartasunak eta zuzendaritza lan trebeak hutsegiteak soberan berdintzen dituzte.

### ■ Sálvate si puedes (1994). 90'

*Prod.*: Atrium Producciones, Creativídeo. *Zuz.*: Joaquín Trincado. *Gid.*: Luis Marías. *Antzez.*: Imanol Arias, María Barranco, Fernando Guillén, Pilar Bardem, Ramon Barea.

***Enrique Urbizu*** zuzendariaren komedien produktore ***Joaquín Trincado*** eta honen ohiko gidoilari **Luis Marías**, hain fruitu onak eman zizkien generotik irten gabe, gaurkotasun beteko gai bati –ustelkeria– buruzko pelikula bat egiteko elkartu ziren.

Bilbeak goi komediaren osagaiak ditu, maisu handien ildotik, eta Madrilgo antzezle talde on bat du (zeintzuen artean *Pilar Bardem* garratz bat gailentzen baita). Alabaina, tonua oro har faltsu samarra da, eta finean "Hawks moldeko" zine ariketa huts bat baino ez da.

### ■ Maité (1994). 90'

*Prod.*: Igeldo Komunikazioak, Euskal Media, ICAIC. *Zuz.*: Eneko Olasagasti, Karlos Zabala. *Gid.*: Senel Paz, Karlos Zabala, Eneko Olasagasti. *Antzez.*: Jose Ramon Soroiz, Ileana Wilson, Nadia Moreira, Mikel Garmendia, Cary Rosa Llinas.

Honakoa asmo apaleko film bat, gogo handiz eta zinemarako sen agerikoaz egina, ahotik ahorakoa medio arrakastatsu bihurtzearen adibide bat da.

**Olasagasti** eta **Zabala**, pantaila handirako filmatzen hasi aurretik telebistan eskarmentu handia izandakoak, gidoilari bikain batekin elkartu ziren beren lehen gidoia egiteko, eta Kubara abiatu ziren, konfiantzazko zenbait antzezle lagun. Han komedia bero eta maitagarri hau filmatu zuen, zeinak Habanako Jaialdiaren ikusleen saria irabazi eta bizialdi komertzial luzea izan baitzuen.

### ■ Justino, un asesino de la tercera edad (1995). 92'

*Prod.*: José Mª Lara. *Zuz. eta Gid.*: La Cuadrilla. *Antzez.*: Saturnino García, Carlos Lucas, Carmen Segarra, Francisco Maestre, Concha Salinas.

Ez dago gutxiagorekin gehiago lortzerik. *La Cuadrilla* izenaren
















atzean gordetako hirukoteak zuri-beltzean egindako luzemetrai hau laburmetrai bat egiten ari balitz bezala moldatu zuen, ilusio eta baliabide eskasia berberaz. Baina filma dohainen beterik ageri da (berori Biaffran girotzea, *Saturnino García* hautatzea edo metraje osoa zeharkatzen duen ironia fina) *Justino* urte horretako pelikula arrakastatsuena bihurtzeraino.

Trilogiaren beste bi emanaldietan (*Matías juez de línea* eta *Atilano, presidente*), La Cuadrilla modu penagarrian huts egin zuen, bere sinesgarritasuna xahutuz.

### ■ El día de la bestia (1995). 100'

*Prod.*: Sogetel-Iberoamericana, M.G. *Zuz.*: Alex de la Iglesia. *Gid.*: Alex de la Iglesia, Jorge Gerrikaetxebarria. *Antzez.*: Alex Angulo, Armando de Razza, Santiago Segura, Terele Pávez, Nathalie Seseña.

**Alex de la Iglesia**ren bigarren luzemetraian zuzendari bilbotarraren gaitasunak *Acción mutante* irregularrean baino modu garbi eta adierazgarriagoan islatzen dira.

Ikusmenezko irudi indartsuez eta umore garratzaz, ***El día de la bestia*** filmak komikiaren estetikatik eta telebistaren kulturatik edaten du, eta fantasiazko fikzioaren arauetatik irten gabe produktu esportagarriak egiteko gai den zinemagile original bat agertzen du.

Sei *Goya* irabazi zituen eta *El Mundo*ren euskal zinemarako sarietan oroz gain gailendu zen.

### ■ Sólo se muere dos veces (1996). 89'

*Prod.*: Sogetel, Lola Films. *Zuz.*: Esteban Ibarretxe. *Gid.*: José Miguel Ibarretxe, Esteban Ibarretxe. *Antzez.*: Juan Inciarte, Alex Angulo, Rosana Pastor, Angel de Andrés, Álvaro Ordóñez.

Laurogeita hamarreko urteen bigarren erdialdean Alex de la Iglesiaren zinemak jarraitzaile ugari erakarri zuen. Horren adierazgarri garbi da Ibarretxetarren lehenengo luzemetraia, *Acción mutante* eta *El día de la bestia* berriagoaren oinordeko. Esan dezagun, egiaren mesedetan, bikote bilbotarrak beste iturrietatik ere edaten duela, hala nola Monty Phytonen zinema eta komedia beltz tradizionala. ***Sólo se muere dos veces*** filmak hil ostean zombie itxuraz lanean jarraitzen duen antzezle baten istorioa kontatzen du.

### ■ Calor... y celos (1996). 82'

*Prod.*: Lan Zinema, Sendeja Films. *Zuz.*: Javier Rebollo. *Gid.*: María Eugenia Salaverri, Javier Rebollo. *Antzez.*: Fernando Guillén Cuervo, Elvira Mínguez, Leire Berrocal, Luis Alberto García, Héctor Echemendia.

Laurogeita hamarreko urteak sukar tropikal batek hartu zituen. Zineman *Fresa y chocolate*, *Guantanamera* eta *Maité* bezalako filmek arrakasta handia izan zuten.

**Rebollok**, ***Calor… y celos*** pelikularekin, ez zuen hainbesteko zortea izan (25 milioi pezeta bildu zituen). Eta hori filmari umorea falta ez zaionik, eta ezta antzezpen onik ere, emazte-senar-maitale hirukote klasikoaren eskutik (*Femando Guillén, Elvira Mínguez, Leire Berrocal*). Hiruek Habanako ospitale batean topo egingo dute, eta hortik aurrera egoki jositako hainbat gertakari dibertigarri biziko dituzte.

## ■ AIRBAG (1997). 127’

*Prod.*: Asegarce Zinema, Marea Films. *Zuz.*: Juanma Bajo Ulloa. *Gid.*: Karra Elejalde, Juanma Bajo Ulloa, Fernando Guillén Cuervo. *Antzez.*: Karra Elejalde, Fernando Guillén Cuervo, Alberto San Juan, María de Madeiros, Karlos Argiñano.

Guztiok harritu gintuen **Bajo Ulloa**, irizpide estetiko irmoak dituen zuzendari bat, komedia eroa egitera lerratu izana. Apustua, guztiz komertziala, ezin hobeto joan zitzaion: mila milioi bilduta Espainiako zinemaren historiako pelikularik arrakastatsuena bilakatu zen (hurrengo urtean *Torrente, el brazo tonto de la ley* filmak lekua kendu zion arren).

Zinemaren ikuspegitik, ***Airbag*** grazia eskasa eta metraje amaiezineko film ziztrin eta lotsagabea da.

## ■ PERDITA DURANGO (1997). 123’

*Prod.*: Sogetel, Lola Films, Mirador. *Zuz.*: Alex de la Iglesia. *Gid.*: Barry Gifford, Jorge Gerrikaetxebarria, David Trueba, Alex de la Iglesia, Barry Gifforden *59 gradu eta euritan* nobelan oinarritua. *Antzez.*: Rosie Pérez, Javier Bardem, Harley Cross, Aimee Graham, Santiago Segura.

Bere garaian zinema espainiarreko filmik garestienak (1.100 milioi pezeta) **Alex de la Iglesia**ren ibilbidean aurrerapauso bat beharko zukeen: gidoilari bikaina, mundu mailako antzezleak, filmaketa Amerikan…

Alabaina, atzerapauso bat izan zen, hala ekonomikoki (inbertitutakoaren heren bat baino gehixeago bildu zuen) nola artistikoki. *Javier Bardem*en antzezpen bikaina, Romeo Dolorosaren rolean, edo De la Iglesiaren abilezia eszena bortitzak ebazterakoan, ez ziren filma hutsalkeriaren putzutik ateratzeko nahikoa izan.

## ■ PECATA MINUTA (1999). 92’

*Prod.*: José María Lara, Alokatu. *Zuz.*: Ramon Barea. *Gid.:* Ramon Barea eta Felipe Loza, Ramon Barearen izen bereko komedian oinarritua. *Antzez.*: Elena Irureta, Loli Astoreka, Ane Gabarain, Aitzpea Goenaga, Maruchi Fresno.






*“Ione sube al cielo” filmaren fotograma.*







**Ramon Barea**ren lanak harrera nahikoa ona izan zuen Euskal Herriko eszenatokietan. Komediak jendaurrean ongi funtzionatzen zuela egiaztatuta, bazirudien ***Pecata Minuta***ren pantailarako jauzia nolabaiteko bermerik bazuela. Zinemak berezko legeak ditu ordea, eta horiek askotan ez datoz Talia antzerki-jainkosaren deseinuekin bat. Bere lehenengo laburmetraian Bareak, eszena zuzendari zorrotz eta trebea eta bi laburmetrai dotoreren egile izanagatik, ez zuen kamera erabiltzen asmatu eta film bigun, erritmo eta indarrik gabeko bat atera zitzaion.

## ■ MAMÁ ES BOBA (1999). 89’

*Prod.*: El Lápiz de la Factoría, Trastorno Films, Velvet Producciones, Cecilio Gerrikabeitia. *Zuz. eta Gid.*: Santiago Lorenzo. *Antzez.*: José Luis Lago, Faustina Camacho, Eduardo Antuña, Cristina Marcos, Ginés García Millán.

**Santiago Lorenzo**ren lehen lanak ez zuen banaketarekin zorterik izan. 1997ko Valladolideko Jaialdian aurkeztua, pantailan egonaldi aski labur bat egiteko bi urtez zain egon behar izan zuen. Pertsonaiak eskematikoak eta umorea inozoa badira ere, ***Mamá es boba*** filmak alderdi interesgarriak ageri ditu. Telebisten negozioari buruzko satirak batzuetan funtzionatu egiten du, eta kritika askotan zuhurra da.

## ■ SÍ, QUIERO (1999). 91’

*Prod.*: Igeldo Komunikazioak. *Zuz.*: Eneko Olasagasti, Karlos Zabala. *Gid.:* Eneko Olasagasti, Karlos Zabala, Senel Paz. *Antzez.*: Joseba Apaolaza, Cayetana Guillén, Marta Belaustegui, Isidoro Fernández, Juan Luis Galiardo.

**Olasagasti** eta **Zabala**, beste behin ***Senel Paz*** (*Fresa y chocolate*ren gidoilaria) lagun dutela, eta ostera **Ángel Amigo** produkzio lanetan, ***Sí, quiero*** filmarekin beren lehenengo film *Maité* arrakastatsuaren giro tropikala Donostiara aldatzen saiatu ziren, oraingoan umorea egoera jakinetan ipiniz. Telebistarako lan duina zatekeen, baina leihatila eta palomiten alorrerako egindako produktu gisa espero zitekeen mailatik urrun dago.

## ■ MUERTOS DE RISA (2001). 109’

*Prod.*: Andrés Vicente Gómez, Lolafilms. *Zuz.*: Alex de la Iglesia. *Gid.*: Jorge Gerrikaetxebarria, Alex de la Iglesia. *Antzez.*: Santiago Segura, Gran Wyoming, Alex Angulo, Alfonso Lussón, Carla Hidalgo.



“Sálvate si puedes” filmaren fotogramak.



“Sí, quiero” filmaren fotogramak.





*Perdita Durango*ren porrotaz osatzeko, **Alex de la Iglesia**k eta bere ekoizleak tramankulu komertzial bat diseinatu zuten. Alderdi artistikoa bazter utzita, bi aktore kaskar baina komertzialki erakargarriri, *Santiago Segura* eta *Gran Wyoming*, protagonista rolak eman zizkieten, eta berorien laguntzaz produktu itxura batean kistch eta izugarri dibertigarri bat bultzatu zuten.

Operazioak arrakasta izan zuen, gehienek desengainua hartu zuten arren. Ezen, egiaz, ***Muertos de risa*** komedia beltz bat baita, oso beltz eta sarria, irensten zaila eta narratiboki malkartsua.

## ■ Sabotage (2000). 105’

*Prod.*: Ibarretxe & Co., Kino Visión, Cine B., Pathé Image, Spice Factory. *Zuz. eta Gid.*: Esteban Ibarretxe, José Miguel Ibarretxe. *Antzez.*: Stephen Fry, David Suchet, Alexandra Vedernoot, Dominique Pinon, Santiago Segura.

Hamar zeroko koprodukzio frantziar-ingeles-euskalduna; nazioarteko mailako antzezleak (*Stephen Fry, David Suchet, Dominique Pinon*); gai historiko bat modu irrigarrian aurkeztua (Napoleon eta haren afera beliko-sexualak). Emaitza: euskal zinemaren historiako (eta atzerriko zati batekoa ere bai) zentzugabekeriarik handiena.

**Ibarretxe** anaiek, Monty Phyton izan nahirik, barre txiki bat bera ere ez zuten erauzi leihatilatik igaro ziren 50.000 ikusle jasankorrengandik. Baina gure buruetan ezin ebatzizko enigma bat utzi zuten: nola sartu ziren memelokeria horretan hain gaituak diren hainbeste profesional?

## ■ La comunidad (2000). 104’

*Prod.*: Andrés Vicente Gómez, Lolafilms. *Zuz.*: Alex de la Iglesia. *Gid.*: Jorge Gerrikaetxebarria, Alex de la Iglesia. *Antzez.*: Carmen Maura, Eduardo Antuña, María Asquerino, Jesús Bonilla, Emilio Gutiérrez Caba.

Bere zinema onenaren oinarriak berreskuratuta (osagai askok *El día de la bestia* gogorazten dute), **Alex de la Iglesia** gaurdaino bere filmik onena dena egin zuen, ***La Comunidad***.

Beldurra eta umorea, suspensea eta akzioa, drama eta komedia, bere ibilbide aski bizkorreko (zazpi urtetan bost pelikula) dohain eta hutsegiteetatik ikasi duela dirudien zuzendari batek maisuki nahasiak. Antzezpen zoragarriak eta kameraren erabilera trebea De la Iglesiaren proposamenetan alderdirik ahulena izaten jarraitzen duen gidoiaren oso gainetik daude.

## ■ Ione, sube al cielo (2000). 98’

*Prod.*: Zine Zero. *Zuz.*: Joseba Salegi. *Gid.*: Joseba Salegi, José Antonio Vitoria. *Antzez.*: Martxelo Rubio, Mario Pardo, Kike Díaz de Rada, Klara Badiola, Anabel Arraiza.

**Joseba Salegi** (Altsasu, 1958) euskal zinemaren kredituetan askotan agertzen den izena da. Zuzendari lanak egin aurretik zuzendaritza eta produkzio laguntzaile gisa hogei film baino gehiagotan esku hartu du. AISGEren (antzezleen irudi eskubideak kudeatzen dituen elkartea) bidez antzezle talde bat mojen komunitate batean film bat filmatzeari buruzko pelikularen koprodukzio lanetan sar zedin lortu zuen. Bildutako 100.000 euroak ***Ione, sube al cielo*** filmak merezitakoak baino gutxiago dira.

## ■ Carretera y manta (2000). 88’

*Prod.*: Filmart. *Zuz.*: Alfonso Arandia. *Gid.*: Javier Etxaniz. *Antzez.*: Eduardo Noriega, Carmen Maura, Natalia Verbeke, Jordi Bosch, Ramon Barea.

**Alfonso Arandia**, ekoizle eta zuzendari bizkaitarra, 1990eko *El anónimo… ¡vaya papelón!* komediaren egile, ostera kameraren atzean jarri zen *road movie* baten egitura duen endredo hau filmatzeko, zeinetan krisian dagoen bikote batek autoan bidaia bati ekiten baitio, protagonistak sukaldari lapur bat (*Carmen Maura*) eta ihesean dabilen preso bat (*Jordi Bosch*) direlarik.

***Carretera y manta*** pelikulan osagai nabarmenik bada, baina oro har trinkotasunik gabea da eta ez du ikuslea atxikitzen. *Eduardo Noriega*ren presentziak gauzak okerragotzea baino ez du lortzen.

## ■ Año Mariano (2000). 118’

*Prod.*: Asegarce Zinema. *Zuz. eta Gid.*: Karra Elejalde eta Fernando Guillén Cuervo. *Antzez.*: Karra Elejalde, Fernando Guillén Cuervo, Manuel Manquiña, Silvia Bel, Pepín Tre.

*Airbag*en arrakasta berritzeko asmoz, **Asegarce Zinema** Karlos Argiñanoren produkzio-etxeak konfiantza *Karra Elejalde* eta *Fernando Guillén Cuervo*rengan jarri zuen, burua berotu eta beste astakeria jator eta zarpail bat erdi zezaten.

***Año Mariano*** filmak *Airbag*i on itxura ematen dio. Eta hori “komedia haluzinogeno” honen planteamendua ona denik, antzezleek oso ondo pasatzen dutenik eta umore kolpe eraginkorrak dituenik. Baina osotasunak oinarririk ez du eta metrajearen ia bi orduak astunak dira, entretenigarriak baino.

## ■ Marujas asesinas (2001). 111’

*Prod.*: Lan Zinema, Kino Visión. *Zuz.*: Javier Rebollo. *Gid.*: María Eugenia Salaverri, Javier Rebollo. *Antzez.*: Neus Asensi, Antonio Resines, Nathalie Seseña, Pere Ponce, Carlos Lozano.

Azucena maruja psikopata bat da, senarra pairatzeaz nazkatuta eta bere maitaleaz erabat maiteminduta ahalik eta lasterren alarguntzea deliberatzen duena. Bere plan baldarrak krimenak mendekotasuna eragiten duela erakutsiko dio, eta, horrenbestez, senarraren hilketa segida baten lehenengo urratsa baino ez da izango, oztopatzen duen oro desagerrarazi egingo duelarik.

*Calor… y celos* pelikulako sorkuntza talde berberaz, **Javier Rebollo** komediara itzultzen da, gero eta gusturago lantzen duen generoa, istorio zoro eta umore bikainekoak kontatuz.

# Animazioa






*"Karramarro uhartea" filmaren fotograma.*

HAMABOST URTE SOILETAN, euskal animazio zinema ia ezerezetik Estatuan eta Estatutik kanpo hainbat sari irabaztera heldu da. Tamainaz txikia izanik ere, euskal animazioaren alorra iparramerikar edo asiarren pareko sorkuntza eta teknologiako kalitate maila lortzen ari da. Gure zinemaren belaunaldi gazteak etorkizun oparoa iragartzen digu.

## Genero lehiakorra

Genero bat bada zeinetan euskal zinema nazio mailan puntakoa eta nazioartean lehiakorra baita: animazioa. Hamabost urte soiletan, euskal animazio zinema ia ezerezetik Estatuan eta Estatutik kanpo hainbat sari irabaztera heldu da. Gailurra 2000. urteko Goya sarietan iritsi zuen, espezialitate horretako lau finalisten arteko hiru Euskal Herriko enpresen edo teknikarien sorkuntza lanak zirelarik, horien artean garailea, **José Angel Muñoz** eta **Txabi Basterretxea**ren *Karramarro Uhartea / La Isla del Cangrejo*.

Tamainaz txikia izanik ere (hamar bat produkzio-etxe eta 300 profesional inguru lanean), euskal animazioaren alorra iparramerikar edo asiarren pareko sorkuntza eta teknologiako kalitate maila lortzen ari da. Alabaina, aipatu beste bi zinema horietan ez bezala, gure produktuek, mundu osoko pantailan erakutsiak izan daitezen, ez dute enpresa banatzaile indartsuen babesik, eta ezta behar adinako laguntzarik administrazioen aldetik ere. Horri dagokionez, lehia ez da orekatua, David eta Goliaten arteko borroka baizik. Edonola ere, gure zinemaren belaunaldi gazteak etorkizun oparoa iragartzen digu.

## Juanba eta beste

Espainian egindako aurreneko film soinudunak *La novia de Juan Simón* izenburua darama, eta 1933an gauzatu zen. Alberto López Echevarrieta zinemako historialariak egilea **Mauro Azkona** –*El mayorazgo de Basterretxe* filmaren egile, "Barakaldoko Griffith" bezala ezaguna– zelakoan dago, litekeena den arren honek ezizena erabili izana.




Zalantzazko aurrekari hori –nolanahi ere Madrilen ekoiztua– kenduta, euskal animazioaren lehenengo luzemetraiaren estreinaldia ikusteko 1985 berantiarra arte itxaron behar izan genuen, urte horretan *Kalabaza tripontzia / La calabaza mágica* lehen aldiz eman zelarik.

Esan beharra dago, hala ere, esperientzia hura ez zela ezerezetik sortu, *Jaizkibel* produkzio-etxea eta marrazki bizidun xarmant horren arduradunak hiru laburmetrai eginak baitziren (*Ekialdeko izarra*, 1977, *Fernando Amezketarra*, 1981, eta *Kukubiltxo*, 1983): taldea **Koldo Izagirre** gidoilariak, **Luis Goya** produkzio buruak eta, gidari nagusi moduan, Euskal Herrian generoaren ernaldian berebiziko eragina izan zuen **Juan Bautista Berasategi**k osatzen zuten.

Animazio japoniar erabat teknologiko eta oldarkorraren gorakada betean, Juanba Berasategik Disneyren eredu klasikora itzultzeko ausardia izan zuen, estilistikoki eklektikoa eta grafikoki aberatsa zen luzemetrai bat burutzeko, euskal tradizio herrikoietan oinarritutako gidoi bat garatuz, zeinetan ez baitira falta gizarte mailako salaketa, estetika bihurria eta ikuslego heldu bati zuzendutako umorezko keinuak.

Filmak Donostiako XXXIII Zinemaldian Ohorezko Aipamena lortu zuen, eta kritika nahiz ikusleen aldetik harrera ona izan zuen. *Kalabaza tripontzia*rekin euskal animazio zinema indarrez eta distiraz oldarka jaio zen.

Berasategi eta kideen bigarren esperientzia *Astakiloen abenturak eta kalenturak / Aventuras y desventuras* (1987) izan zen. Tamalez, Europako rock talde onena osatzen zuten lau astakiloen istorioa, **Bernardo Atxaga**ren gidoi batetik jaioa, banaketan

zapuztu zen, eta areto komertzialetara ez zen heldu. Atzerapauso horrek ez zuen eragotzi Jaizkibel produkzio-etxeak ereindako hazia hurrengo hamarkadan fruitu ematen has zedin.

## ■ HAMARKADA ANIMATUA

Laurogeita hamarreko urteek egiaztatu zuten euskal animazioa ez zela gertakari iragankor bat edo profesional gutxi batzuen fruitu galkorra, baizik eta, aitzitik, gure herria sortzaile bikainen haztegia zela.

Hamarkada horretan, **Berasategik** ETBrako ***Fernando Amezketarra*** eta ***Lazkao Txiki*** serieak ekoiztuko ditu, 1991an ***Balearenak / Balleneros*** estreinatuko du eta 1997an, berriz, ***Ahmed, Alhambrako printzea***, zeinaren bigarren zatia dagoeneko bidean baita.

Bestalde, Berasategik ***Ipar haizearen erronka / La leyenda del Viento del Norte*** Episa produkzio-etxearen animazio ederrean, 1993ko Houstongo Jaialdian Urrezko Domina irabazia, partehartzerik izan zuen (hain zuzen ere, 1992an auzi horren kariaz eztabaida garratza piztu zen).

Horren segidako filmaren sari zerrenda are oparoagoa izan zen, **Iñigo Silvak** ekoiztu eta **Maite Ruiz de Austrik** zuzendutako ***Ipar haizearen itzulera / El regreso del viento del Norte*** lanak 1994ko Animazioko Film Onenaren Goya Saria irabazi zuelarik. Ekoizpen arrakastatsu honen formulak ekologia eta abentura ugari barne hartzen zituen, kalitate handiko eskema grafiko batean, marrazki amerikarraren arau klasikoen barruan. Extremaduran finkatuak, **Ruiz de Austri** eta **Silvak** 1997an ***Qué vecinos tan animales*** lanarekin bigarren Goya bat jasoko zuten, eta 2002an hautagai zerrendan dira atzera, ***La leyenda del unicornio*** filmaz.

## ■ "MEGASÓNICOS", 3D FORMATUAN

Filmaren kalitateaz haratago, Durangoko *Baleuko* produkzio-etxeko ***Megasónicos*** (1997) luzemetraiaren izaera berritzailea azpimarratu beharra dago, ordenagailuz hiru dimentsiotako animazio marrazkiez Europan burututako lehenengo filma baita. Teknologia digitalean, softwarea arkatzaren ordezkoa da, eta pantaila paperarena, animazioaren estetikara nahiz hiru dimentsiotan paratutako zinema ekoizpenera iraultza ekarriz.

**Javier González de la Fuente** eta **Pepón Martínez Monteroren** zuzendaritzapean, filmak ustekabean ilargi misteriotsu




*"Karramarro uhartea".*









*"Ipar haizearen itzulera".*



*"Fernando Amezketarra" filmaren fotograma.*



*"Kukubiltxo" filmaren fotograma.*

*"Astakiloen abenturak eta kalenturak" filmaren fotograma.*



batera jausten diren espazioko garraiolari aldra baten pasadizoak kontatzen ditu. Telebista serie baterako lan pilotu bezala egin zen, baina luzemetrai moduan amaitu zuen, Los Angeles eta Hego Karolinako jaialdietan saritua gainera, 1998an Animazioko Film Onenaren Goya saria ere eskuratu zuelarik.

## ■ TEKNIKA MISTOAK

Azken hamabost urteotan animazioaren alorrean egindako ia lan arrakastatsu guztien arduraduna, **Carlos Varela** arabarra, 1999an hasi zen zuzendaritza lanetan, ***Goomer*** filmaz, eta hurrengo urtean ***Marco Antonio. Rescate en Hong Kong*** gauzatu zuen (lehena **Juan Luis Feito**rekin eta bigarrena **Manuel J. García**rekin batera zuzenduak).

Azkenean, 2000. urtean euskal animazioak zinema aretoetan arrakasta izatea lortu zuen, Zinematografiako Arteen Akademiako sari gehienak irabaziz gainera, aurretik adierazi den bezala.

Lerro hauek idazteko unean ***El rey de la granja*** filmaren estreinaldia iragarri da, antzezleekin egiazko filmazioa, 3D eta 2D teknikak konbinatzen dituen lehenengo pelikula europarra. Ekoizlea *Bainet* da, eta sektorean eskarmentu handia duen beste pertsona batek, **Gregorio Muro** gidoilariak, zuzentzen du, **Karlos Zabala** lagun duela.

## ■ BALANTZEA ETA ETORKIZUNA

Zalantzarik gabe, euskal animazio zinemak, edo euskaldunek egindakoak, oso urte gutxitan abantzamendu ikusgarria bizi izan du, eta arrakasta ugari eskuratu du. Horrekin konformatu gabe, gure profesionalek xede berriak ezarri dituzte, eta fikzio animatuen sorkuntzaren abangoardiara heltzea dute helburu.

Hori aitortuta ere, onartu behar da, halaber, sektoreak atomizazio handiegia ageri duela, eta ia berezkoa duen ahulezia ekonomikoa. Juanba Berasategik argi eta garbi adieraziko du: "Euskal Herrian animazio zinema, zerbitzu gisa planteatzen ez den bitartean, ez da errentagarria izango. Dirulaguntzarik gabe ez dago animazioko pelikula bat egiterik, kultur fenomenotzat hartzen baita, eta ez industrialtzat. Administrazioak beste urrats bat eman beharko luke. Kontua ez da dirulaguntzak ematea. Industria bat eratzeko behar dugu laguntza, ez filmak egiteko".

Espero dezagun gure lanak jasotzen ari diren emaitza ikusgarriek erakundeen esku-hartze handiagoa eragin dezatela. Horri dagokionez, itxaropen arrastorik begiztatzen hasiak gara.

# LABURMETRAIA





*"Ikuska 5" laburmetraiaren filmazioa.*

**ZINEA LABURMETRAIAREKIN HASTEN DA.** Bi adieratan, gainera: baieztapen historiko bezala (hastapenetan film guztiak laburrak ziren) eta egiaztapen biografiko gisa (formatu laburra zinemagile hasiberri ororen eskola da). Euskal Herrian, bestalde, baieztapen hori bermatzen duen hirugarren arrazoi bat dago: laurogeiko hamarkada bitartean hemen egindako zinema gehiena metraje laburrekoa zen, lan garesti eta luzeagoak egiteko produkzio eta banaketa azpiegiturarik ez duen herri batean logikoa denez.

**Euskal laburmetraiak**
Estatukoaren ibilbide bera jarraitu du: hasieran hainbat alor ezberdin –hala nola dokumentalak, publizitatea eta fikzioa– jorratu ostean, Errepublikaren eta Gerra Zibilaren garaian propaganda politikoa zerbitzatuko du; berrogei eta berrogeita hamarreko urteetan gorespen nazional-geografikoaren dokumentala da nagusi, hirurogeiko hamarkadaz geroztik laburmetrai egileen labealdi berri batek, zeinak aldi berean apurka fikzioa berpiztuko baitu, genero hori birmoldatuko duelarik; hirurogei eta hirurogeita hamarreko urteetan laburmetraiak *boom* handia biziko du, esperimentazio formalerako eta egoera soziopolitiko nahigabetsu bat salatzeko tresna gisa.

Laurogeiko hamarkadan erakunde autonomikoak sortuko dira, eta hasiera batean horrek laburmetraien kopuruarengan eraginik ez badu ere, kalitatean eta edukietan aldaketak nabarmena ditu.

Azkenik, laurogeita hamarreko urteetan laburmetraiak Euskal Herrian egindako zinemaren izen berriak hezi, topatu eta hedatzeko euskarri moduan dagokion lekua hartuko du.



*"A través de San Sebastián" filmaren fotograma.*

*"Gente de mar" filmaren fotograma.*



## ■ DOKUMENTAL LABURRA

Gerra Zibila amaituta, laburmetraietan garaileen ideologia hedatzeko dokumentala ezarri zen genero bakar moduan.

Gerraostean, **Luis Torreblanca** gasteiztarra laburmetrai dokumentalen zuzendari oparoenetako bat bezala nabarmendu zen, laurehun lan baino gehiagoz, horietako asko sarituak.

Berrogeita hamarreko urteen hasieratik, NO-DO delakoa (*Noticiarios y Documentales Cinematográficos* izenburuaren apokopea, programatutako filma baino lehenago Espainiako zinema guztietan derrigorrez eman beharreko albistegia) zinemagile gazteen haztegi bilakatu zen. "Hasiberrientzako eskola" horietan aritutako euskal zinemagileen artean Javier Agirre, Alfonso Ungría edo Antonio Mercero aipa daitezke, eta horietan kirats nazional-sindikalista ezaguna zerien albistegi laburrak eta turismoko erreportajeak egin ohi ziren.

Zinema ofizialaren topikoei kontrajarriz, berrogeita hamarreko urteen amaieraz geroztik zenbait gaztek, ohiko genero deskribatzaile geografikoaren barruan, berorren berriztatze kritiko bat egin nahi izango du. Mugimendu horren sorrerako manifestua *Carlos Saura*k burututako Cuencari buruzko laburmetrai goraipatua da, eta mugimendu horretan sartzen dira, halaber, euskal arrantzaleen gaineko lan bat –**Carlos de los Llanos** eta **Antonio Alvarez**en *Gente de mar*– eta **Antxon Ezeiza** eta **Elías Querejeta**ren lehenengo obra: *A través de San Sebastián* (1960).

Horrenbestez, ernatuz doan Espainiako Zinema Berria NO-DOaren postal astunen ordeko gisa gauzatutako Espainiako geografia eta usadioak mintzagai zituzten laburmetrai saldo batekin agertuko da.

## ■ IKASLEAK ETA ESPERIMENTALAK

"Talde donostiarra" deitutakoaren Zinematografia Eskola Ofizialeko ikasleak (**Santiago San Miguel, José Luis Egea** eta **Víctor Erice**) korronte horretatik kanpo daude, eta beren ikasle praktiketako laburmetraiek (Víctor Ericeren *Los días perdidos* kasu) *Nouvelle Vague* mugimenduaren eragin handia ageri dute.

Aurrekoak bezala gipuzkoarra eta Zinematografia Eskola Ofizialean diplomatua da **Antonio Mercero**, ikasturte amaierako bere ***Trotín Troteras*** lanarekin Parisko Bienalaren irabazlea eta ***Lección de arte*** filmarekin 1962ko Donostiako Nazioarteko Zinemaldian laburmetraien Urrezko Maskorra.

**Javier Agirre** urte haietako abangoardiako zinema espainiarrean pertsonaia aski garrantzitsua izan zen. Zazpigarren artearen egiazko frankotiratzailea, donostiarrak Zinematografia Eskola Ofiziala utzi eta enkarguzko lanak egiteari ekin zion, modu horretara pertzepzio zinematografikoaren mekanismoaren inguruan obra esperimental zabala, laburmetrai sorta oparo batean jasoa, finantzatuz.

Haren herrikide **Iván Zulueta** ildo berari lotuko zitzaion, ikus-entzunezko lengoaiaren edukiak aztertuz bideokliparen eta bideoartearen aitzindaritzat har daitezkeen laburmetraiak burutu zituelarik.

## ■ Periferiako sortzaileak

Bilbon –Estatuko lehenengo Laburmetrai Jaialdiaren egoitza–, hirurogeita hamarreko urteen hasieran laburmetrai egileen mugimendu interesgarri bat osatuko da, **José Julián Bakedano**, **Antón Merikaetxebarria**, **Juan Ortuoste**, **Javier Rebollo** eta **José Angel Rebolledo**ren lehen lanak eman zituena.

Ia aldi berean, Iruñean **Iñigo Silva**k *Emergencia P.C.* sortuko du, aipatu hamarkadan zehar laburmetraien katalogo garrantzitsu bat bilduko duen produkzio-etxea.

Eta **Iñaki Núñez**ek beste hainbeste egin zuen Gasteizen, *Araba Films* gidatuz, zeinarekin euskal zinemako laburmetrai polemikoena aurkeztu baitzuen: ***Estado de excepción*** (1977).

Gainbegiratu labur honetan **Francisco Bernabé** eta **Rafael Treku** aipatu beharrekoak dira, *Ornis Films* produkzio-etxearen arduradunak eta izaera ekologista eta zientifikoko hogei bat laburmetraien egileak diren neurrian.

1979 eta 1984 bitartean ***Ikuska*** serieak leku berezia du laburmetraiaren alorrean. *Bertan Filmeak* produkzio-etxearen seriea euskal kultur eta gizarte egoerari buruzko hogei dokumentalek osaturik dago.

Espero zitekeenaz bestela, instituzionalizazio autonomikoaren eragina ez zen berehalakoan igarri. Lehen fruituak Nafarroan umotu ziren, **José María Lara** laburmetraiak egiten hasteaz bat, eta EHAEan animazioko lehenengo produkzio-etxea –genero berria, baina luze gabe zeresan handia izango duena–, **Juanba Berasategi**ren *Jaizkibel*, sortzean.

1985eko urte berean, **Juanma Bajo Ulloa** gazteak produkzio-etxe bat, *Gasteizko Zinema*, sortuko du, eta lau urte geroago laburmetrai onenaren Goya saria irabazitako lehenengo euskalduna izango da, ***El reino de Víctor*** lanarekin.



*"La primera vez" filmaren fotograma.*



*El reino de Víctor" filmaren fotograma.*

## ■ Kimuak

2000. urtean, Eusko Jaurlaritzak EHAEaren esparruan ekoiztutako laburmetraiak sustatzeko plan bat martxan jarri zuen. "**Kimuak**" izenaz, programaren helburua Euskal Herrian egindako laburmetrai guztiak (16 nahiz 35 mm-tan, baina 30 minutu baino iraupen gutxiagokoak) bilduko dituen katalogo bat egitea da, horiek Euskadiko ikus-entzunezko jardueran sartutako sektore eta erakunde ororen artean hedatzeko eta horietako batzuk nazio eta nazioarteko mailako jaialdi eta foroetan aurkeztuak izan daitezen hautatzeko.

Kimuak arrakastaz estreinatu zen, lehengo ekitaldian hautatutako laburmetrai batek, **Pablo Malo**ren ***Jardines deshabitados***, zenbait jaialditan sari andana bat bildu baitzuen.

Komenigarria litzateke Kimuak planak gure zuzendari gazteen lanak behar bezala banatzen laguntzea, eta baita Euskal Telebista proiektuan sartzea ere, antena eskubideak erosiz eta bere bi kateetako programazioan laburmetraiak sartuz.

Izan ere, *Juan Miguel Gutiérrez* espezialistak dioen moduan, "euskal zinema suspertzeko itxaropena hemen indar geldiezinez eta kalitate izugarriaz sortzen ari den laburmetraien mugimenduan datza, Madrilen lanean ari diren zinegileak hona itzultzean baino".









# Zinema esperimentala






ESPERIMENTALISMOA. "Esperimental" deitutako zinema bereizten duena bere lanaren ardatza emozio eta sentipenak adierazi nahiz hartzeko moduei buruzko ikerketa izatea da. Artistak ikus-entzunezkoaren edo beste generoen mekanismo eta kodeak baliatzen ditu edukien objektibotasunean, euskarri materialen ahalbideetan eta lengoaian sakontzen duten sorkuntza lanak burutzeko.

**Euskal zinema esperimentalik ba al da?** Definizioz, esperimentalismoa banako artisten jarduera da, eskola eta joeren, korronte eta lokalismoen barruan hezigaitza. Alabaina, ukaezina da sortzaile garaikideek beren esperientziak besteei jakinarazten dizkietela eta artistak elkarrenganako eraginez elikatzen direla, emaitza gisa sarritan antzekoak diren lanak emanez. Euskal Herrian hori begi-bistakoa da: hirurogeiko hamarkadaz geroztik ideia estetiko jakin batzuek (*Jorge Oteiza* eskultorearenak) eta zenbait prozedura formalek (*Javier Agirre, José Antonio Sistiaga* edo *Basterretxea-Larruquert* bezalako pertsonek garatu zituztenak) euskal artisten zinema esperimentala egiteko modu bat ekarri zuten.

Laurogeiko hamarkadatik aurrera, eta batik bat laurogeita hamarreko urteetan, esperimentalismoa bideora aldatu da, abangoardiako sortzaileentzat formatu malgu eta ez hain garestia izaki.

## ■ Sobrevila eta beste abangoardista batzuk

Gure zinemako aitzindariei eskainitako kapituluan **Nemesio Manuel Sobrevila** gogora ekartzen dugu, *Guernika* lanaren egile moduan, Gerra Zibilari buruzko laburmetraia, euskal zinemaren haurtzaroan filmatutako dokumentalen arteko harribitxitzat hartua. Bada, zinemagile eta arkitekto bilbotar hau, gainera, gure zinemako lehen egile esperimentala da, bere bi lanek agertzen duten moduan: ***El sexto sentido***, 1926koa, garaiko zineman ziren korronte urratzaileen gaineko ariketa satirikoa, eta 1928ko ***Lo más español o Al Hollywood madrileño***, "zazpi film bakar batean tartekatuta", zuzendari eta gidoilariak berak definitu bezala, non hainbat estilo nahasten baitzituen, hala nola kubismoa, futurismoa, españolada eta drama kriminala.

Gerra Zibila baino lehenagoko beste obra bitxi bat **Sabino Antonio Micón**en ***Historia de un duro*** (1928) da, bost pezetako txanpon baten gorabeherak kontatzen dituena, esku batetik bestera eta patrikatik patrikara dabilen bitartean, jabe ilaunen aurpegiak sekula ikusten ez ditugularik.



*"Axut" filmaren fotograma.*




*"Axut" filmaren fotograma.*



## ■ Oteizaren inguruan

**Ramón de Vargas** 50eko hamarkadako pintoreen belaunaldiko getxotarrak 1960an, Parisen, bere ibilbide artistikoari ekingo dio, gure herrian aurrekaririk ez duen alor batean: ikus-entzunezko esperimentazio abstraktua. Zuzenean zeluloidearen gainean pintatuz, De Vargasek segidako urteetan jarraitzaile bikainak erakarriko zituen animazio ez figuratiboaren atea zabaldu zuen.

1960an baita ere, **Javier Agirre**k ***Tiempo 2*** filmatzen du, joera abangoardistako laburmetrai saldo bateko lehena. Javier Agirre donostiarraren esperientziak –pelikularen zulaketa fisikoa, musika elektronikoaren eta koloreen uztarketa erritmikoa, hutsaren irudikatzea edo matematika puruko ariketa bat filmaren lengoaiara aldatzea– eta bere Anti-Zinemaren teoriak estatu mailan genero honetako





*"Ere erera baleibu icik subua aruaren" filmaren fotograma.*







*"Homenaje a Tarzán" filmaren fotogramak.*



*"Al Hollywood madrileño" filmaren fotograma.*



*"Tiempo 2" filmaren fotograma.*

proposamen interesgarrienetakoak dira (paradoxa bitxi batekin, ezen esperimentu horiek posible izan baitziren zuzendariak aldi berean zinema hutsalagoaren alorrean ibilbide paralelo bati ekin ziolako).

Agirreren filmografiaren zati bat, **Néstor Basterretxea** eta **Fernando Larruquer**ten kasuan bezala, Jorge Oteizaren antropologia estetikoaren eraginpean egina da. Izan ere, eskultore oriotarra ***Operación H*** (1963) filmaren bultzatzaile eta, aipatu azken bi egilerekin batera, sortzaile izateaz gain, *Quousque tandem!* lanaren egilearen teoriak ***Pelotari*** (1964) eta ***Ama Lur*** mitikoaren oinarrian baitaude (lan horiek berariaz beste kapitulu batean aztertuko ditugu).

## ■ Plastika zeluloidearen gainean

Beste Oteiza-zale militante bat **José Antonio Sistiaga** da, pintore donostiarra eta bere film esperimentalengatik nazioarte mailan ezaguna, batik bat ***Ere erera baleibu icik subua aruaren / De la Luna a Euskadi*** (1968-70) medio, "munduan egindako film abstraktu eder eta luzeenetako bat" (hori dio Domique Noguez adituak).

Sistiagaren atzetik, belaunaldi bereko beste pintore bat, **Rafael Ruiz Balerdi**, apur bat geroago laburmetrai pintatu bat egiten hasi zen, ***Homenaje a Tarzan*** (1971), zine eta pinturaren sinbiosi harrigarria, *Historia del cine de animacion y experimental vasco* lanaren egile Begoña Vicarioren iritziz "mundu mailako animazioko zine esperimentalaren oinarrizko obretako bat".

## ■ Zabala, Zulueta eta Etxegaraiko

**José María Zabala** argazkilari, musikari, pintore eta ikus-entzunezko sortzaile irundarrak 1976ko Donostiako Zinemaldian ***Axut*** aurkeztu zuen, "zirku metafisiko" gisa definitu zuen luzemetraia. Irizpide estetiko esperimentalez, Zabalak euskal egoera aztertu zuen, tradizionala eta modernoa, poesia eta umorea uztartuz.

Euskal abangoardiaren ordezkari ospetsua eta espainiar zinemako egile *madarikatua*, **Iván Zulueta**ri ***Arrebato*** (1980) liluragarria zor diogu. Horra iritsi aurretik, Zuluetak super-8 formatuan laburmetrai ugari egin zuen, eta zenbait luzemetrai bide-urratzaile eta lengoaia nagusien deskodetzaile, *collage* teknika, filmaketen filmaketa eta errebelatu gaineko pintura baliatuz.

Artista esperimentalen zerrenda hau –xehea ez baina erakusgarria izan nahi duena– **Etxegaraiko Goti** animatzaileak itxiko du. Behar baino lehen zendua, Etxegaraikok lau film utzi zizkigun, araztasuna eta erradikaltasuna uztartzen dituztena, indar bizizale eta gartsukoak, egilea Euskal Herrian egindako zinema konformagaitzenaren historian eskubide osoz txertatzen dutenak.

# Bideo sorkuntza



Iñaki Larrinberen argazkia.



*"Muro de Aguas", 1997.*
*Iñigo Royo eta Óscar Currás*

## BIDEOA ETA IKUS-ENTZUNEZKO SORKUNTZA.

Zeluloideko zine esperimentalaren eta laurogeita hamarreko urteetan agertutako teknologia berriei (infografia irudiak, espazio birtualak edo errepresentazio interaktiboak) lotutako adierazpide berrien tartean, bideoak ikus-entzunezko sorkuntzaren garapeneko bi aldiren arteko trantsizio lana egin du.

"Zine esperimentalaren eta bideoaren artean urrats bat dago, iraungipen bat balitz bezala; ez egileetan ordea, ezaugarrietan, egiteko moduetan, kontzeptuetan baizik. Euskadin, euskarri baten egiteko moduetatik bestearen moduetara aldatzea ahalbidetu zuena bideoaren teknologia apurka sartu izana da.".

*Josu Rekalde* irakasle eta sortzailearen adierazpen horrek zinema esperimentaletik bideo sorkuntzarako aldaketa, gurean laurogeiko hamarkadan eman zena, azaltzen du (*Ander González Antona*k gai hori sakon eta zorrotz aztertu zuen, EHUk argitaratu eta kapitulu honetan gida dugun doktore-tesian).

Aurreko kapituluan ikusi dugunez, hirurogeiko hamarkadaz geroztik Euskal Herrian filmetara esperimentalismoa eraman zuten zenbait egile sortu ziren, eta horien lanak Estatuan egindako abangoardiako zinemaren ekarpen baliotsuenetakotzat hartuak dira.

**Telebistaren garapenetik heldutako teknologia elektroniko berria** agertzean, zinemagile horietako batzuk, *Iván Zulueta* edo *José María Zabala* kasu, tresna askoz malgu eta merkeago horretaz baliatuko dira. Baina, Rekaldek dioen moduan, zinema esperimentaletik bideorako aldaketa ez da hainbeste pertsonen kontua, sorkuntzako egiturena baino, zeintzuetaz elikatuko baitira zinemaren hizkuntza konbentzioek gogobetetzen ez dituzten gazteak eta ohiko teknika plastikoek bazter utzita adierazpide berrien bila dabiltzan artistak.

Narrazioaz haraindiko sentipenak eta sentimenduak kanporatzea xede duen **arte esperimentalista** hori faboratzeaz gain, bideoa ikasle gazte askok **zinema** edo **telebistako errealizazioa** egiten hasterakoan baliatuko duten euskarria izango da, eta **gizarte komunikazioaren** alorrean tresna erabilgarria.




### ■ Bideoa Euskal Herrian: Lehen hartualdia

Euskal bideoa, ahalbide artistikoekiko teknologia gisa, 1979an jaioko da, **Bideoaren gaineko Informazioren I. Astea** burutzen denean, Bilboko Udal Aurrezki Kutxak babestua.

Hurrengo urtean, Iruñeak –jada bideoaren inguruko agerkari baten egoitza izana, 1972ko udarako Arte Topaketak hartu zituelarik, horiek oso oihartzun apala eduki bazuten ere– berariaz bideoari buruzkoa izango zen lehenengo agerkaria antolatu zuen, 1981ean bideoartea ardatz zuen bigarren ekitaldi bat, eta azkena, biziko zuena.

Urte horietan ikus-entzunezko euskal industria bat hezurmamitzen joango da –erakunde autonomikoen babesean zinema egiteari ekingo zaio, eta ETB telebista publikoa jaioko da–, eta behar bezala trebatutako profesionalen premia sortuko da. Une hartan (1982-1983 ikasturtea) *Erandio eta Gasteizko Institutu Politeknikoek* **Irudia eta Soinua** eskainiko dute ikasgai moduan.

Urte horretan bertan lizentziatutako da Euskal Herriko Unibertsitatearen Arte Ederretako Fakultatearen **Ikus-entzunezko** lehenengo promozioa.

Geroago, 1987an, **Arteleku** sortu zen, Gipuzkoako Aldundiaren zentroa, bideoaren artearen irakaspen eta hedapenean ereduzko lantegia burutzen ari dena.

### ■ Hiru jaialdiak

Euskarri magnetikoa **Donostiako Bideo Jaialdian**, 1982 eta 1984 bitartean, bihurtu zen diziplina tradizionalekin berdin zitekeen hizkuntza artistiko bat, Euskal Herrian ez ezik Espainia osoan.

Jaialdi horri esker, komunikabideak behar bezalako arreta jartzen hasi ziren,



*"Alberto Peralen "El patio de mi casa".*

bideo-sortzaileen eta adituen belaunaldi oso baten agerpena bultzatu zen eta nazioarteko lehenengo topaketak eman ziren. Hasiera batean diziplinarteko izaera erabatekoa bazuen ere (etxeko bideoa, didaktikoa, musikala, terapeutikoa, eta abar hartuz), bigarren ekitaldirako jada alderdi artistikoan oinarritu zen, eta egile berriak sustatzeari ekin zion, euskal bideoaren lehiaketa bat antolatuz. Hirugarren jaialdiak telebista izan zuen mintzagai nagusi, eta zine zein bideo egileen arteko eztabaidak eratu zituen.

Donostiako Jaialdia desagertu zenean, haren sustatzaile *Guadalupe Etxebarria* Gasteiz aldera deitu zuten, non *Iñigo Silva*k eta honen Araba Sauditako lagunek udala



ondare hura profitatzeko premiaz konbentzitu baitzuten. Horrela jaio zen, 1985ean, **Gasteizko Bideo/ Musika** (1) **Jaialdia**, oraindik bizirik dirauena, estatu mailako jaialdi zaharrena delarik.

1988an, jaialdiaren gidaritza *Manuel Palacio*k hartu zuen, eta honek lehiaketa hiru ardatzen inguruan antolatu zuen: bideo-sorkuntza, telebista eta musika.

Hirugarren agerkari garrantzitsuena Tolosako **Bideoaldia** da, zeinak 1986 eta 1990 bitartean euskal bideoaren alde apustu egin eta asmatu egin baitzuen. 1985 eta 1990 bitartean, Donostia, Gasteiz eta Tolosakoaren antzeko bideoaren inguruko agerraldiak izugarri ugaldu ziren (urte bakar batean hamaika antolatzeraino).



# Zuzendariak





*Imanol Uribe.*

*Montxo Armendariz.*

ZINEMAGILEA, laburbilduz, mugitzen ari diren irudiak baliatzen dituen istorioen kontalari bat da. Beraren baitan idazlea, fotografoa, artista plastikoa, eszenaratzailea, erritmoen konpositorea... biltzen dira. Teknika eta ahalmen sortzailea, gurean iragan apala, orainaldi ona eta geroaldi oparoa dituen arte totalaren aldaera batean. Hori egiaztatzea dagokigu, segidan datozen 26 zuzendarien biografiak medio.

## ■ Harry D'Abbadie D'Arrast (Buenos Aires, 1897-Montercarlo 1968)

Oinetxea Iparraldean zuen euskal aristokraziaren familia bateko seme, Harry Buenos Airesen jaio zen, baina gaztetan Parisa joan zen, arkitektura ikastera. I Mundu Gerran borrokatu ostean, Hollywood aldera abiatu zen, eta han Charles Chaplin ezagutu zuen, zeinak ***Parisko emakume bat*** (1923) maisulanaren eta ***Urre kimera*** filmean laguntzaile tekniko gisa kontratatu baitzuen.

Adolphe Menjouk Paramount produkzio-etxeko zuzendariekin harremanetan jarri zuen, eta han 1927 eta 1933 bitartean zenbait komedia sofistikatu, Lubistchen iritziz "zinemaren historiako xoragarrienetakoak", zuzendu zituen. ***Sucedió en España (La traviesa molinera)*** II. Errepublikaren garaiko film nagusienetakotzat hartua da.

## ■ Nemesio Manuel Sobrevila (Bilbo, 1889-Donostia, 1969)

Gerra aurreko abangoardiako zinemaren ordezkaririk behinena dugu. Bartzelonan eta Parisen arkitektura ikasketak egin zituen, eta espazioari buruzko ezagutzak bere zinema lanetan erabili zituen: ***El sexto sentido*** (1926) eta ***Lo más español o Al Hollywood madrileño*** (1928).

Primo de Riveraren gobernuak mirariak egiten zituen mediku donostiarra baten gaineko ***Las maravillosas cura del doctor Asuero*** satira estreinatu aurretik debekatu zuen.



*"El espíritu de la colmena" filmaren fotograma.*



*"Las seis en punto" filmaren fotograma.*



*"Akixo" filmaren fotograma.*

*"El ojo de la tormenta" filmaren fotograma.*



1935ean *La hija de Juan Simón* filmatzeari ekin zio, Luis Buñuel ekoizle zuela, baina Calandako jeinuarekiko ezadostasunek proiektua zapuztu zuten.

Erbestean Espainiako Gerra Zibilari buruzko ***Guernika*** dokumentala egin zuen, eta filmagatik erregimen frankistak heriotza zigorra ezarri zion, Frantziatik alde egin behar izan zuelarik.

## ■ Mauro Azkona (Fitero, 1903--Mosku, 1982)

Euskal zinemaren aitzindarietako bat izateagatik amultsuki "Barakaldoko Griffith" deitua, 1925ean **Mauro**k, anaia **Víctor** lagun zuela, *Estudios Azcona* sortu zuen, eta produkzio etxe horrekin bi anaiok hogeiko hamarkadako Bizkaiaren gaineko dokumental ugari egin zituzten.

Haiei zor dizkiegu Espainiako zinemagintzaren lehenengo metraje laburreko publizitate filmak: ***Los apuros de Octavio*** (1926) eta ***Jipi y Tilín*** (1927).

1928an ***El mayorazgo de Basterretxe*** luzemetraia filmatu zuten, euskal zine mutuko obrarik garrantzitsuena.

Gerraostean Mauro Sobiet Batasunera joan zen, eta han ere zinemarekin harremanetan jarraitu zuen.

## ■ Javier Agirre (Donostia, 1935)

Zinemako Ikerketa eta Esperientzien Institutuan (Instituto de Investigaciones y Experiencias Cinematográficas) zuzendaritza ikasi ondoren, bere ibilbide profesionalari 1958an ekin zion, zuzendari laguntzaile



*"Patas en la cabeza" filmaren fotograma.*



*"Octubre 12" filmaren fotograma.*

gisa. Lan erabat "elikagarriek" hartutako filmografia aski ugari baten aldean, donostiarrak jarduera esperimental interesgarri bat garatu du, bere *Anti-Zinea*ren teoria emango dutenak, 1971an argitaratutako izen bereko liburuan jasoa.

Bere laburmetraiak Venezia, Donostia, Valladolid, Bilbo edo Estrasburgokoa bezalako jaialdietan sarituak izan dira.

1981ean ***Vida perra*** zuzendu zuen, laburmetraien egile gisako bere esperientzien oinordekoa den bakarrizketa zinematografikoa.

## ■ Antonio Mercero (Lasarte, 1936)

Espainiako telebista sortzaile handien artekotzat onartua, **Antonio Mercero**, gainera, zinema ibilbide ez oso oparo baina aski interesgarri baten egilea da.

1960an bere lehen laburmetraia filmatu zuen, ***La oveja negra***.

**1962an** Zinemako Eskola Ofizialean titulatua, urte horretan bertan ***Lección de Arte*** filmaz Donostiako Zinemaldian laburmetrai onenaren Urrezko Maskorra eta Kantauri Itsasoko Perla Saria jasoko ditu.

**1963an** bere lehen luzemetraia zuzenduko du, ***Se necesita chico***.

Bere ibilbidean dokumentalak, NO-DOrako bi erreportaje, laburmetraiak, metraje ertaineko filmak eta telebistako lan ugari egingo ditu, azken horien artean zenbait gogoangarri, hala nola ***La cabina***, ***Verano Azul*** eta ***Farmacia de Guardia***.

Bere noizean behingo zinema esperientziek artisautza hutseko lanak eman dituzte (***Tobi***, ***La guerra de papá***, ***Buenas noches, señor monstruo***), baina baita lan pertsonalagoak ere, non Mercerok bere talentu handia sentsibilitate fineko istorio zoliak kontatzeko agertu baitu: ***Las delicias de los verdes años***, ***Espérame en el cielo***, ***La hora de los valientes***.

## ■ Pedro Olea (Bilbo, 1938)

1964 arte Zinemako Eskola Ofizialean ikasi zuen, eta bere heziketa praktikoan TVEn osatu zuen, metraje erdiko dokumental eta fikziozkoak eginez.

Bere lehen filmak, ***Días de viejo color***, Zinemako Idazleen Zirkuluaren (Círculo de Escritores Cinematográficos) saria jasoko du. Segidan ***El bosque del lobo***, ***No es bueno que el hombre esté solo***, ***Tormento***… burutuko ditu.

1984an jaioterrira itzuliko da ***Akelarre*** filmatzera, eta 1986an ***Bandera Negra*** zuzenduko du.

1992an, ***El maestro de esgrima*** lanarekin moldatutako gidoi onenaren Goya saria irabazi zuen.

## ■ Antxon Ezeiza (Donostia, 1935)

Zuzenbidean lizentziatua eta Donostiako zinekluben sustatzailea, 1958an **Antxon Ezeiza** Madril aldera abiatu zen, Zinemako Ikerketa eta Esperientzien Institutuan ikasketak egitera.

*Elías Querejeta* bere adiskidearekin bikotea osatuz bi dokumental filmatuko ditu eta publizitate zineman lan egingo du.

***De cuerpo presente, Ultimo encuentro*** eta ***Las secretas intenciones*** moduko filmez hirurogeiko hamarkadako "Espainiako zinema berria" deitutakoaren ordezkaririk behinenetako bat bilakatu zen.

1973 eta 1978 bitartean atzerrian biziko da. *Bertan Filmeak* produkzio-etxea sortuko du, zeinak ***Ikuska*** seriea bultzatuko baitu.

1989an ***Ke arteko egunak/Días de humo*** filmatuko du, eta 1995an ***Felicidades, tovarich***.

## ■ Victor Erice (Karrantza, 1940)

1963an Zinemako Eskola Ofizialean diplomatua, *Víctor Erice* Zientzia Politikoetan lizentziatua zen, eta hainbat aldizkari espezializatuetan ohiko kolaboratzailea zen.

*Antxon Ezeiza* eta *Manuel Picazo*rekin gidoilari lanetan aritu ostean, 1968an bere lehenengo zuzendaritza lana burutuko du, hurrengo urtean Donostiako Zinemaldian Zilarrezko Maskorra irabazi zuen ***Los desafíos*** filmaren pasarte bat zuzenduz.

Hirurogeita hamarreko urteetan Espainiako zinema modernoaren funtsezko lan bat egingo du: ***El espíritu de la colmena***. 1983an zuzendari gisa bermatuko da, ***El sur*** filmarekin. Bi lan horiek mundu osoan barrena hainbat sari jasotakoak dira.

Ericeren azken lana ***El sol del membrillo*** euskal produkzioa da, Antonio Lópezen sorkuntza prozesua aztertzen duena.

*"El sur" filmaren fotograma.*



## ■ Iván Zulueta (Donostia, 1943)

Espainiako *underground* zinemaren apostolu, **Iván Zulueta** dekoratzaile gisa trebatu zen Madrilen, New Yorken pintura eta publizitate marrazketako ikasketak egin zituen, eta Madrilera itzultzean Zinemako Eskola Ofizialean sartu zen.

1969an, *José Luis Borau* bere lehen filma, ***Un, dos, tres… al escondite inglés***, ekoiztuko dio. Musikal arraro bat da, eta zinemetan porrot egin zuen.

Hirurogeita hamarreko urteetan, Zulueta ikerketa formaleko lantegian murgildu zen, super-8 euskarrian, metraje laburreko hogei lan inguru filmatuz. Baliabide aski originalak erabiliko ditu, hala nola berfilmaketa, collagea eta muntaia musikala, etorkizuneko bideoklipen aurrekari interesgarria.

Iván Zulueta ***Arrebato*** (1980) lanaren egilea da, Espainiako abangoardiako zinemaren kultuko pelikula.

## ■ Eloy de la Iglesia (Zarautz, 1944)

Estatuko zinema *establishment*arentzat madarikatua eta garai bat (1976tik 1986ra) markatu zuten istorio zenbaiten egile, **Eloy de la Iglesia** haurrentzako generoan hasi zen.

Zentsura frankistarekin tirabira ugari izan zituen, honek bere lehen filmak jazarri zituelarik, baina Trantsizio garaian morbo gosea zuen ikuslego bat erakartzea lortu zuen, sexua, droga eta delinkuentzia hizpide zituzten istorioekin: ***Miedo a salir de noche***, ***Los placeres ocultos***, ***El sacerdote***, ***El diputado***, ***La mujer del ministro***, ***Navajeros***…

1983an ***El pico*** bere arrakastarik handiena filmatu zuen, Euskadin. Hamar urte isilik zeramatzanean, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiak omenaldi bat eskaini zion.

## ■ Imanol Uribe (San Salvador, 1950)

Euskal familia bateko seme, El Salvadorren jaio zen. Madrilgo Zinema Eskola Ofizialaren azken promoziokoa zen. *Zeppo Films* bere produkzio-etxearekin zenbait laburmetrai egingo ditu.

1979an ***El proceso de Burgos*** filmatuko du, berrogei urtez diktadurapean egondako zinema espainiarraren birsorkuntzan mugarria izango dena. Filma Donostia, Benalmadena eta Kordobako jaialdietan saritua izango da.

1981an *Angel Amigo*ren ***Operación Poncho*** liburua moldatu eta ***Segoviako ihesa*** egingo du, euskal zinema modernoaren lehen filma.

Kritika eta ikusle mailako arrakastak bere ibilbidea suspertuko du, eta segidan kameren atzean jarri eta ***Mikelen heriotza/La muerte de Mikel*** zuzenduko du.

Bere hurrengo pelikula 1986ko ***Adiós pequeña*** da, porrot egingo duen proiektua, horren ondorioz Uribe euskal zinematik apurka aldentzen hasiko delarik.

Dena den, *Aiete Films* bere produkzio-etxearekin ***El rey pasmado*** egingo du, zeina zinema espainiarrean 1991ko film arrakastatsuena izango baita, euskal erakundeek produkzio lanetan ez sartzea erabaki zuten arren.

**Ekoizle gisa**, Uribek *José Angel Rebolledo*ren ***Fuego eterno*** filmean parte hartu zuen, eta berrikiago *Manuel Gutiérrez Aragón*en ***Visionarios*** pelikulan, "Ezkiogako (Gipuzkoa) agerraldien" kontaketa zimela.

Imanol Uribek Donostiako Zinemaldian bi urrezko maskor irabazi ditu, ***Días contados*** (1994) eta ***Bwana*** (1996) filmekin.

## ■ Juan Marino Ortuoste (Bilbo, 1948) eta Francisco Javier Rebollo (Bilbo, 1950)

Rebollo eta Ortuoste elkarrekin sartu ziren zinema munduan, hirurogeiko hamarkadaren amaieran, Injineru Eskolan ikasle zirela Bilboko Unibertsitate Zinekluba sortu zutenean.

Beraien ibilbide oparoan laburmetrai didaktiko eta zientifikoak, turistikoak eta industrialak, dokumentalak eta fikzioak aurki ditzakegu. Zinema barruan diziplina arrotzik ez dago zuzendari, gidoilari, ekoizle, muntatzaile, antzezle… gisa hogei urte daraman bikote honentzat. Lehen luzemetraia, ***Siete calles*** (1981), batera egin zutenetik, zuzendari eta ekoizle lanetan txandakatzeko ohitura dute.



Eloy Germán de la Iglesia.



Juanma Bajo Ulloa.



Helena Taberna Ayerra.



José María Tuduri Esnal.



Pedro Olea Retolaza.



Mauro Azkona Pérez.



Imanol Uribe Bilbao.



Montxo Armendariz.

Mikel Agirresarobe Hidalgo.



Antonio Mercero Juldain.



**Javier Rebollo**k ***Golfo de Vizcaya, Calor… y celos*** eta ***Marujas asesinas*** zuzendu ditu.

**Juanma Ortuoste**, berriz, ***El mar es azul*** eta ***Entre todas las mujeres*** filmen zuzendaria da.

## ■ Montxo Armendáriz (Olleta, 1949)

Iruñean eta Bartzelonan elektronika ikasi zuen, eta Errenteriako Lanbide Heziketako Zentroan irakasgai horretan irakasle aritu zen. Halabeharrez Euskal Zinemagileen Elkartearen bilera batera joan zen, eta han zineman lehen urratsak emateko bidean jarri zuten alor horretako zenbait pertsonekin harremanetan jarri zen.

Bere lehenengo lana ***Barregarriaren dantza*** laburmetraia izan zen, *Txantreako lankideen elkartea*n bildutako 40 pertsona inguruk kooperatiba moduan finantzatua.

1979an Bilboko Zinema Dokumental eta Laburmetraien Nazioarteko Lehiaketan bi sari irabazi zituen, eta Kultura Ministerioaren "Kalitate berezia" saria.

Lortutako irabaziekin, 1980an *Ikusmena* filmatuko du, aurreko kasuan bezala muntaketan Fernando Larruquert eta fotografian Javier Agirresarobe zituela. *Ikuska* seriearen barruan, Armendarizek 11 zenbakidun filma egin zuen, Nafarroako Erriberari buruzkoa.

Urte berean, 1981ean, Príncipe de Viana Instituzioak ***Nafarrako ikazkinak/Carboneros de Navarra*** proiektua babestuko dio, txondorraren epelean lanbide gogor horretan bizirik irauten azken pertsonen bizimoduari buruzko dokumental bikaina. Anastasio Ochoa pertsonaia nagusia oinarri hartuta, Montxo Armendarizek bere lehen laburmetraia izango denaren gidoia moldatuko du: Elías Querejetak ekoiztutako ***Tasio***.

1986an Donostiako Nazioarteko Zinemaldian Zilarrezko Maskorra irabaziko du ***27 ordu/27 horas*** filmarekin, drogaren munduan nahasitako gazte talde baten bizitza medio bideratutako denboraren gaineko istorio bat. Bere hurrengo lanak, ***Las cartas de Alou***, estatu mailan nahiz atzerrian sari ugari jasoko du, gidoi original onenaren Goya saria eta 1990eko Donostiako Zinemaldiaren Urrezko Maskorra barne.

Gazteen nihilismoaren gaineko ***Historias del Kronen*** istorio bihozgabeaz Espainiako zinemaren arrakastarik sonatuenetako bat lortuko du, eta baita kritika eta profesionalen estimazioa ere, gidoilari onenaren Goya saria emango diotelarik.

Gehien balioetsi zaion luzemetraia, ordea, ***Secretos del corazón*** da, zeinarekin, 1997ko

Berlingo Jaialdian Europako film onenaren saria eskuratzeaz gain, film atzerritar onenaren esparruan Oscar sarien finalean parte hartuko baitu.

Oria P.C. bere produkzio-etxe berriarekin, 2001ean Montxo Armendarizek maki espainiarren istorio bat pantailaratu du, ***Silencio Roto*** izenburu iradokorra daramana.

## ■ Juanba Berasategi (Pasaia, 1951)

Euskadiko animazio zinemaren aitzindari, 1977an bere marrazki bizidunen lehenengo laburmetraia egingo du, ***Ekialdeko izarra*** izenekoa.

Lan horren ondoren animazioko beste bi laburmetrai zuzenduko ditu: ***Fernando Amezketarra*** (1981), Bilboko Zinema Labur eta Dokumentalaren XXI Lehiaketan Euskal Zinemaren Lehen Saria irabazi zuena eta ***Kukubiltxo*** (1983), lehiaketa berean Euskal Zinemaren Sari Nagusiaren irabazlea.

1985ean luzemetrai bat zuzenduko du: ***Kalabaza tripontzia***, euskal zinemaren historian izan den marrazki bizidunen metraje luzeko lehen filma.

Berasategiren eta honen lagunen bigarren esperientzia Bernardo Atxagaren gidoi batean oinarritutako ***Astakiloen abenturak eta kalenturak / Aventuras y desventuras*** (1987) izan zen.

1991an ***Balearenak / Balleneros*** estreinatuko du, eta 1997an ***Ahmed, príncipe de la Alhambra***, bigarren zati bat ere baduena.

## ■ José Mª Tuduri (Tolosa, 1949)

Karlistadak filmatu zituen zinemagileak bi luzemetrai eta dokumentalak bakarrik egin zituen. Baina Euskal Herriko historiaren gertakari eztabaidatsuei manikeismo ideologikorik eta ordain efektistarik gabe heldu izanaren meritua du.

Tamalez, Tudurik ***Crónica de la Guerra Carlista*** filmean azaleratu zituen dohainak ez ziren ***Santa Cruz, el cura guerrillero*** lanean berretsi, azken horrek gidoi ilaun baten ondorioak pairatzen dituelarik.

## ■ Ana Díez (Tudela, 1955)

Medikuntzan lizentziatua, Mexikora abiatu eta han Centro de Capacitación Cinematográfica delakoan matrikulatuko da, zuzendaritzako ikasketak eginez. Han filmatuko du hainbat sari jasoko duen ***Elvira Luz Cruz: máxima pena*** dokumentala.

Etxera itzultzean, orotariko zereginak burutuz zinemaren munduan sartuko da. *Irati* produkzio-etxearen hiru erdimetraietan zuzendari laguntzailea izango da, eta *27ordu/ 27 horas*, *Lauaxeta* eta *Santa Cruz, el cura guerrillero* filmetan aktore-zerrenda osatzen arituko da.



*Francisco Javier Rebollo Fernández.*



*Víctor Erice.*



*Alex de la Iglesia.*



*Ernesto Del Río.*



*Daniel Kalparsoro.*



*Eneko Olasagasti Ezeiza.*



*Javier Aguirre Fernández .*



*Julio Medem Lafont.*

*Enrique Urbizu.*



*Ernesto Telleria.*



1988an, Angel Amigok bere lehen luzemetraia, ***Ander eta Yul***, egiteko enkargua emango dio, erakundeek antolatutako lehiaketa batean oinarritutako gidoi batean oinarritua. Zuzendari berri onenaren Goya saria irabazi zuen.

Zenbait urte geroago Konlonbiara joango da ***Todo está oscuro*** filmatzera. Indarkeriaren ondorioak aztertzen dituen istorio bat da, *Silvia Munt* protagonista duena. ***La mafia en La Habana*** dokumentala 2000. urtekoa da.

Bere azken lana 2001. urtearen amaieran aurkeztu zuen, ***Algunas chicas doblan las piernas cuando hablan***, izenburu luzea ez ezik nahasgarria, Iruñeko San Fermin jaien giroan kontatutako bi anaien arteko harreman konplexuei buruzko istorio gazi-gozo baterako.

## ■ Julio Medem (Donostia, 1958)

Euskal Herriko Unibertsitatean Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua, lehenik zinema kritikari zorrotz gisa ezaguna izan zen, La Voz de Euskadi egunkarian. Bere heziketa teorikoari esperientzia sendoa erantsiko dio, urtetan zuzendaritza laguntzaile, gidoilari, muntatzaile eta zinemarekin zerikusirik duen ezein lanetan aritua baita.

1985ean 35 mm-ko lehen laburmetraia zuzenduko du, ***Patas en la cabeza***, zeinarekin bere burua zinema berriaren egile interesgarri moduan agertuko baitu. Bi urte geroago ***Las seis en punta*** idatzi, zuzendu eta muntatuko du.

Laurogeiko hamarkadaren amaierarako bere lehen luzemetraia, ***Vacas***, idatzia izango du. Eusko Jaurlaritzak gidoia baztertuko du (“egiaz, euskal baserriaren gaia, nire filmaren ikuspegitik ikusia, ez zuen inork ulertu”), eta horrek beste ate batzuetan galdetzera behartuko du. *Sogetel* produkzio-etxeak hasiberriaren alde egingo du, eta ez da erratuko. *Vacas*ek sari ugari irabaziko du (Torino, Tokio, Alexandria, Londres, zuzendari berri onenaren Goya sariaz gain) eta kritika bikainak jasoko ditu, berori garaiko filmik garrantzitsuen artean bermatuz.

**Julio Medem**en ibilbide gero eta sendoagoak ***La ardilla roja*** (1993), ***Tierra*** (1996) eta ***Los amantes del Cículo Polar*** (1998) emango ditu, eta 2001ean, kalitate maila jaitsi gabe, ikusle finentzako egile izateari utzi eta arrakastatsu bihurtuko da, ***Lucía y el sexo*** filmarekin.

## ■ Ernesto del Río (Bilbo, 1954)

Bere lehen laburmetraiek, **Luis Egiraun**ekin batera zuzenduak, espezialitateko saririk garrantzitsuenak pilatu zituzten:






"Ikusmena".








"Alsasua".

"Las maravillosas curas del doctor Asuero".







"Barregarriaren dantza".








"Nafarroako ikazkinak".




"Mirindas asesinas".



Sari Nagusia eta zilarrezko Mikeldi saria 1982ko Bilboko Jaialdian, ***Octubre 12*** lanagatik; zilarrezko Mikeldi saria, Alcalá de Henaresko Jaialdian Lehen Saria eta Melillakoan Urrezko Anfora 1983an, ***El ojo de la tormenta*** filmarengatik.

1986an Ernesto del Río luzemetraiaren alorrean sartuko da ***El amor de ahora*** filmarekin. *Ortuoste* eta *Rebollo*ren ohiko kolaboratzailea, *Lan Zinema* produkzio-etxearen laguntzaz beste bi lan filmatu ahal izan ditu: ***No me compliques la vida*** (1987) eta ***Hotel y domicilio*** (1995).

### ■ Alex de la Iglesia (Bilbo, 1965)

Espainiako zinemako sortzaile ganberroena bilbotar bat da, Filosofian lizentziatua baina lantegi horretan sekula aritu gabea, komikien marrazkilaria, nobelagilea (*Payasos en la lavadora*) eta Euskal Telebistan dekoratzailea, pantaila handirako urratsa eman ahal izan zuen arte.

Bere 1990eko ***Mirindas asesinas*** laburmetraiak lehen saria irabazi zuen Alcalá de Henaresko Zinema Jaialdi itzaltsuan. Segidan bigarren laburmetraia egiteari lotu zitzaion, baina Almodóvar anaiek berori luzatzeko konbentzitu zuten: horrela jaio zen ***Acción Mutante***. Filmak hutsune ugari du, baina ikusle askoren begikotasuna erakarri zuen, bere ozartasunagatik eta generoari heltzeko moduagatik, kritikariren batek "kutre-fikzio" etiketa jarri ziolarik.

***El día de la bestia*** lanarekin, De la Iglesiak fantasiazko komedia bikain menderatzen duela erakutsiko du, eta zuzendaritza onenaren Goya sari bat irabaziko du. ***Perdita Durango*** filma, ostera, atzerapauso bat da, garaiko espainiar pelikula garestienetako bat, Mexiko eta Estatu Batuen artean filmatua, izan arren. Segidan *Jorge Gerrikaetxebarria* bere betiko gidoilariarekin ***Muertos de risa*** sortu zuen, antzezle talde erratua duen film zolia.

Fu-Manchuren abentura bat filmatzeko proiektu hainbestetan amestua behin betiko alde batera utzita, Alexek ***La comunidad*** egingo du, bere film dotore eta helduena, zeinak 2000. urtean sari ugari irabazi baitzuen.

Lerro hauek idazteko unean, **De la Iglesiak** bere lan berriaren estreinaldia iragarri du, Almeriako filmaketen mundu nabarrean girotutako"marmitako western" bat: ***800 galas***, *Sancho Gracia, Carmen Maura, Terele Pávez* eta *Eusebio Poncela*rekin.

### ■ Juanma Bajo Ulloa (Gasteiz, 1967)

Argazkilari baten seme, kamera eta argazki-filmez inguratuta hazi zen, eta artean umegorria zela filmatzen hasi zen. 1984 eta 1987 bitartean lau laburmetrai
















filmatuko ditu super-8an, eta ez ziren oharkabean joan: ***Cruza la puerta*** filmak balio espresiboen sari bat jasoko du. Hortik aurrera lan-martxa aski bizkor bati lotuko zaio, formatu eta euskarri orotan idazketa, produkzio eta zuzendaritza lanak burutuz. Estatuko nahiz nazioarteko zinema jaialdietan hogeita hamar sari inguru irabazia da.

16 mm-tan filmatutako ***Akixo*** eta 1989an laburmetrai onenaren Goya saria irabazitako 35 mm-ko ***El reino de Víctor*** filmez, Bajo Ulloak profesional bihurtzeko urrats erabakigarriak eman zituen.

Bere lehen luzemetraiak, ***Alas de mariposa***, maisutasun harrigarriz (zuzendariaren adina kontuan hartuz gero: 22 urte) burututako eraginkortasun bisual handiko ipuin iluna, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian Urrezko Maskorra irabazi zuen.

***La madre muerta*** bere bigarren luzemetraia ere nazioarteko jaialdietan txalotu eta saritua izan zen. Alabaina, 1997an Bajo Ulloak bere ibilbidearen norabidea zeharo aldatu eta erabat komertziala den istorio bati ekingo dio: ***Airbag***. Kritikak filma gupidagabe makilatu arren, pelikulak ikusleen artean sekulako arrakasta izango du eta fenomeno soziologiko bat bihurtuko da, Santiago Seguraren *Torrente* garaikidea beste aurrekari edo lehiakiderik gabe.

Azken urteotan, **Juanma Bajo** *El Capitán Trueno* komiki espainiar ezagun baten zinemarako moldaketa bat burutzen setatu da, baina badirudi proiektua behin betiko baztertu dela, finantzaketarik eza medio.

### ■ Enrique Urbizu (Bilbo, 1962)

EHUko Informazio Zientzietako Fakultatean hezitako publizista, euskal ikus-entzunezkoaren alorrean oso goiz sartu zen. *Joaquín Trincado* ekoizlearekin *Creatívideo* enpresan lan egingo du, publizitateko produktuak eta fikziozko zenbait laburmetrai eginez. 1987an *Luis Marías* gidoilariarekin lantalde interesgarria osatuko du euskal zinemako lehen endredo komedia filmatzeko: ***Tu novia está loca***. Esperientzia, orduan berria, nahikoa arrakastatsua gertatuko da, eta euskal erakundeek jarraitzen dituzten irizpideei gainean eztabaida piztuko du, horiek pelikulari ezein laguntza ukatu baitzioten, itxura batean bere tonu ozar eta hutsalagatik.

Ostera *Creatívideoko* lantaldeaz, 1991an **Urbizuk** ***Todo por la pasta*** proposatuko du, "laurogeita hamarreko Euskadiko zinemaren ondorengo bilakaerari begira funtsezko pelikula" eta "aldi berri baten hasiera markatzen duena, aurretik *Ama Lur*, Segoviako Ihesa, *Tasio* eta *Mikelen heriotza* filmek egin bezala", Carlos Roldán historialariaren hitzetan.

Inspirazio gutxiagoz, Urbizuk Madrilen ***Cómo ser infeliz y***













*disfrutarlo*, *Cuernos de mujer*, eta askoz interesgarriagoa den *Cachito*, berak egindako moldatutako gidoiaz, filmatuko ditu.

1997an *Roman Polanski* rekin *Arturo Pérez Reverte*ren *El Club de Dumas* nobela aski arrakastatsuenaren moldaketan parte hartzeko aukera helduko zaio, *Chinatwon*en zuzendariak berori emaitza apala lortuz pantailaratuko duen arren (*La novena puerta*).

Zuzendari bezala egin duen azken lana ***La caja 507*** da, 2002an estreinatua, *Antonio Resines, José Coronado* eta *Goya Toledo*rekin.

## ■ Ernesto Tellería (Eibar, 1956)

Parisko Unibertsitatean zinema zuzendaritza ikasi zuen. 1983an Bilboko Laburmetraien Jaialdian Lehen Saria irabaziko du ***Kaiola*** lanarekin, eta horri ***Eta kepak ihes egin zuen*** eta ***La cita***, gazteleraz egindako bere aurreneko lana, zitzaizkion.

Aurrekari horien guztien bermeaz, 1989an ***Eskorpion*** aurkeztuko du, *Rafael Castellano*k idatzitako intolerantziari buruzko luzemetraia. Beti *Ikusmen* bere produkzio-etxearekin, geroago ***Menos que cero*** (1995) eta ***Suerte*** (1997) sortuko ditu.

## ■ Helena Taberna (Altsasu, 1949)

1986 eta 1994 bitartean, **Helena Taberna** Nafarroako Gobernurako Teknologia Berrien koordinatzaile gisa lanean aritu zen, aldi berean sorkuntza-bideoak, dokumentalak eta laburmetraiak burutzen zituelarik.

Dokumentaleko material gisa bere osaba *Marino Aierra* apaiz eta *No me avergonzaré del Evangelio* liburuaren egilearen historia hartuta, Helenak 1994an ***Alsasua 1936*** erdimetraia idatzi eta zuzendu zuen. Lan interesgarri honek zenbait sari jaso zuen.

1999an bere lehen luzemetraia estreinatu zuen, ***Yoyes***, Dolores González Katarain ETAko militante ospetsuaren biografia, zeina 1987an bere kideek erraila izan baitzen.




Filma Munichecko Zinema Jaialdian aurkeztu zen.

## ■ Daniel Kalparsoro (Hondarribia, 1968)

1988an Estatu Batuetara joan zen Arte Ederrak ikastera, eta hurrengo urtean New Yorkeko Tisch School of the Arts Unibertsitatean matrikulatu zen, han zinema ikasketak burutu zituelarik. Bere lehen laburmetraia, ***WC***, han filmatu zuen. 1993an graduatua, etxera itzuli zen, proiektu pertsonalak prestatzera.

Bere lehenengo luzemetraia ***Salto al vacío*** izango da, Berlingo Nazioarteko Zinema Jaialdiko Panorama Atalean aurkeztua.

Bere estilo pertsonal, irmo, lehor eta indarkeriarekin liluratuari leial atxikiz, ***Pasajes***, ***A ciegas*** istorio aldrebes eta hotz samar baina osagai bisualki indartsuekikoa (Atotxako futbol zelaia eraistear zegoela) eta ***Asfalto*** bezalako lanekin, denak ere Iruñako *Najwa Nimri* protagonista dutela, heldutasuna lortuz joan da.

Bere azken lana ***Guerreros*** da, *Eduardo Noriega*rekin Jugoslavia ohian dagoen kasko urdin ausartaren rolean.

## ■ Eneko Olasagasti (Donostia, 1960) eta Carlos Zabala (Donostia, 1961)

Eusko Jaurlaritzaren antzerki eskola dagoeneko desagertuan, Antzertin, heziak, **Karlos** eta **Eneko** Euskadi osoko eszenatokietan gora eta behera aritu ziren, telebistan beren programak –*Hau da A.O.*, *Bi ta bat*, *Jaun eta jabe*...– zuzentzeko lehenengo aukera izan zuten arte.

Telekomedia arrakastatsuen fabrikatzaile gisa, *Igeldo producciones* etxeak haien aldeko apustua egin zuen ***Maité*** filmean, Kuban girotu eta komedia atsegin moduan paratutako lana, laurogeita hamarreko urteen euskal zinemako mugarri bilakatu dena.

***Sí, quiero*** lanarekin arrakasta berresten ahalegindu ziren, baina filmak, erabat erratua ez bada ere, antzezle talde ezegoki baten eta produkzio arazo larrien ondorioak agertuko ditu.






# ANTZEZLEAK






Euskal Herriko zinemak akademikoki hezteko eskola arautuen gabeziaren aurrean ofizioa eszenatokietan, telebistako platoetan eta «casting» proben azterketa gogorrean eguneroko borrokan zaildu diren ANTZEZLEAK ditu oinarrian. Teknika baino areago sena baliatzen dutenak, burutsuak baino areago somatikoak, euskal antzezleek, funtsa bilatzeko prozesua medio, pertsonaiak zorroztasun psikologikoaz eta begiradan egia ageri dutela moldatzen dituzte.

## ■ JUAN DE LANDA. (Mutriku, 1894-1968)

Arrakasta bila Hego Amerikara joan eta bere xedea lortu gabe, baina arte munduan zerbait garrantzitsua egitera deitua zegoela sinetsita, Juan de Landa Italiara abiatu zen, operako kantariaren ofizioari ekiteko. 1929an zinearen gunera, Hollywoodera alegia, joango da, eta gazteleraz filmatutako pelikuletan figurante lanak egingo ditu. 1930ean *El presidio* filmarekin ospe handia lortuko du. 1932 eta 1939 bitartean Espainian ezin konta ahala lan filmatuko du, eta gerraostean Italiara abiatuko da, non batik bat abenturazko filmetan parte hartuko baitu. Garai hartakoa da bere ibilbideko lanik garrantzitsuena: *Ossesione* (1942), Luchino Viscontik zineman egindako lehen filma. John Hustonen *La burla del diablo* pelikulan ere agertuko da, eta Ladislao Vajda eta Ignacio F. Iquinoren hainbat lanetan.



*Juan de Landa.*



*Madeleine Ozeray eta Paul Cambo "Ramuntcho" filmean.*

*"Adiós Tobby adiós" filmaren fotograma.*



## ■ CONCHITA MONTENEGRO (Donostia, 1912)

**Concepción Andrés** Donostia bere jaioterrian bizi izan zen 10 urte zituela gurasoak Madril aldera aldatu ziren arte. Parisen dantza ikasketak egin zituen, dantzari profesional bihurtuz, lehen emanaldia Bartzelonan eskaini zuelarik, *Dresma de Montenegro* izen artistikoaz.

Madrilen zenbait film mutu egin zituen, eta zinema soinuduna hasi zenean Parisa itzuli zen espainierazko bertsioak filmatzera. Han arrakasta handia lortu zuen *La mujer y el pelele* lanarekin (Pierre Louysen nobela ospetsuaren lehen bertsioa, Luis Buñuelek ere pantailara eramango duena, *Ese oscuro objeto de deseo* izenburuaz).

Hollywooden arrakasta lortzeko asmoz Atlantikoa zeharkatu zuen. Buster Keatonekin lan egin zuen, eta 1930 eta 1934 bitartean Metro eta Fox etxeetarako hainbat filmetan parte hartu zuen. 1944an erretiroa hartu zuen arte, Conchita Montenegrok Frantzia, Italia eta, azkenik, Espainian aritu zen.

## ■ PIERRE RICHARD (Baiona, 1896 París, 1983)

Frantziako zinemaren galaia, **Pierre Richard-Willm** baionarrak 40 filmetan parte hartu zuen 1931 eta 1946 bitartean. Hastapenetan artean hasiberriak ziren Robert Siodmakekin, *Autour d'une enquete* lanean, eta Jacques Tourner-ekin, *Cocktail de besos* izenekoan, lan egin zuen. Bere filmografian Max Ophülsen bi pelikula, *Yoshiwara* eta *Le roman de Werther*, eta Jean Duvivier-en *Carnet de Baile* gogoangarriak ageri dira.

## ■ MARTINE CAROL (Biarritz, 1922 Montecarlo, 1967)

Miarritzeko parrokiako pontean **Maryse Mourer** izena jarri zioten, baina hogei urterekin *Martine Carol* izena hartu zuen, eta izen horrekin Frantziako zinemaren

egiazko mito bilakatuko zen. Antzezle malgu, dotore eta sentsuala, berrogeita hamarreko urteetan Martin Carol emakume liluragarriaren roletan nabarmendu zen, eta *Caroline chérie* (1951) egin zuenetik *sex-symbol* erabatekoa bihurtu zen.

Gaur egungo ikuspegiaz, bere agerpenek xaloegiak eman lezakete (*déshabillé*az edo apar burbuilen artean), baina bere garaian gizonezkoen artean, eta baita emakumezkoen artean ere, grina gartsuak piztu zituen.

Bere bizitzako rola Max Ophülsek eskaini zion *Lola Montes* filmean, ahanztura triste batek irentsi zuen arte gizonak zoratu zituen emakume baten biografia, antzezle beraren bizitzaren isla.



*"Muerto de amor" filmaren fotograma.*

## ■ Alfredo Landa (Iruñea, 1933)

Lehen urratsak Donostian unibertsitatean zegoela eman ondoren, Madrilera joan eta bikoizketa lanean profesional bihurtuko da froga bat gainditu eta gero, zeinetan Richard Widmarkena egin behar baitzuen, Alfredo Landak gaur egun ere hitzez hitz gogoratzen duen elkarrizketa batean: "Escucha: Conocí a una mujer en este bar hace seis meses, y un día. Yo le rogué que cantara, lo hizo y su canción me enterneció".

Zineman José Mª Forquéren *Atraco a las tres* gogoangarrian hasi zen, eta gero Berlangaren *El verdugo* eta M. Summersen *La niña de luto* etorriko ziren, non jada bere dohain dramatikoak erakutsi baitzituen.

Hirurogei eta hirurogeita hamarreko urteetan hainbat filmetan antzeztu zuen espainiar sexualki erreprimitu eta sozialki zapuztu tipikoarena eginez, Landak zinema genero oso bat sortu zuen, "landismo" deitua.

Laurogeiko hamarkadaz geroztik genero dramatikorako jauzia egingo du, eta jendearen miresmena irabaziko du, antzezpen bikainak eskainiz: Germán Areta polizia *El crack*en, motorista *El puente*n, Paco el Bajo laboraria *Los santos inocentes*en, zeinarekin Cannesko Jaialdian Antzezle Onenaren Palma irabazi baitzuen, *Bandera Negra*ko krisian dagoen marinela, *La Marrana*ko pikaroa edo telebistarako filmatutako *Don Quijote*ko Sancho Panza.



*"Ikuska 4" filmaren fotograma.*

*"Ikuska 4" filmaren fotograma.*



## ■ Tomás Blanco (Bilbo, 1910-1990)

Tomás Blanco bilbotarra Espainiako zinemak berrogei eta laurogeiko hamarkaden bitartean eman zuen bigarren mailako antzezle sendoenetako bat izan zen. Hiru urtez Legioan egon ondoren, eszenatokietara aldatu zen eta 1933tik aurrera zenbait komedia konpainiekin birak ematen hasiko da. Gerra garaian Hego Amerikan egon zen, Espainiako antzerki errepertorioa erakusten, eta itzuleran zinemaren munduan sartuko zen, bere lehen arrakasta *Mariona Rebull* (1947) izan zelarik.

Ehunka pelikula egina da, gehienak bigarren mailako antzezle gisa, noizean behin protagonista lanik eskainiko zaion arren.

Almeriako westernen eta *spaghetti-western*aren garaian, Tomás Blancok Texasko kapela sarritan jantzi zuen (*La muerte tenía un precio, El hombre que mató a Billy el niño*).

Azken agerraldi garrantzitsuak Jaime Caminoren *Dragon Rapid* eta Mario Camusen *La colmena* filmetan egin zituen. Hogeita hamar urtez, Tomás Blanco Espainiako Telebistako *Telenovelas* eta *Estudio 1* programetan ohiko pertsonaia izan zen.

## ■ Imanol Arias (Riaño, 1956)

Mutiko bat dela bere familia Ermura aldatuko da, eta lehen ikasketak han egin ondoren Eibarko Unibertsitate Laboralean matrikulatuko da. Baina antzerkiaren pozoiaz kutsatzen hasiko da, eta arrakasta bila Madrilera joango da.

Imanol Ariasek protagonista moduan egindako lehen filma Humberto Solásen *Cecilia* izan zen. Behin betiko bultzada, ordea, Manuel Gutiérrez Aragónen. *Demonios en el jardín* pelikulak emango zion, 1982an. Orduz geroztik kasik ez dio filmak egiteari utziko. Euskal zinemak, hastapenetan, Imanol Ariasen antzezpen sendoei onura atera zien, *Mikelen heriotza* (ezagun bihurtu zuena filma), *Fuego eterno* edo *Bandera negra* bezalako lanetan. Alabaina, ikusleek gehien gogoratzen dituzten rolak Vicente Arandaren *El Lute*, Pedro Almodóvar-en *La flor de mi secreto* edo M. Gómez Pereiraren *Todos los hombres sois iguales* –erregistro komiko aski barregarri batean– pelikuletakoak bide dira.

Zenbait telebista serietan ere –*Anillos de oro*, *Brigada central*, *Cuéntame*…– protagonista izan da.

## ■ Luis Mariano (Irun, 1914-París, 1970)

"Operetaren Printzea", Parisko eszenatokietan bere une gorenetan amultsuki deitu zitzaion bezala,

1937an hasi zen zinea egiten, artean **Mariano Eusebio González García** izeneko erbesteratu gazte bat zela, R. Barberisen *Ramuntcho* rekin.

Protagonista gisa 21 film egin zituen, batik bat berrogeita hamarreko urteetan, horietako asko Donibane Lohitzuneko *Francis López* konpositoreak, zeinarekin tandem moduko bat osatu baitzuen, sortuak.

Bigarren mailako antzezle bezala hainbat pelikulan parte hartu zuen. Bere ospea iraungi zenean, Bourvilekin bikote osatuz kalitate eskaseko film komertzialak egin zituen. Akaso Luis Mariano sekula ez zen antzezle handi bat izan, baina bere ahots eta sinpatiarekin garai oso bat markatu zuen.

## ■ Xabier Elorriaga (Maracaibo, 1944)

Venezuelan babestutako euskal erbesteratuen semea, Xabier Elorriaga Txilen biziko da, 1964an Bilbora aldatzen den arte, Zuzendaritzako ikasketak egitera. Geroago kazetaritza munduan sartuko da, nazioarteko gaien analista gisa eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan irakasle moduan arituko delarik.

Azken hiri horretan burutuko du bere lehen antzezle lana, *La ciutat crema* filmean. 1978an euskal zinemak Iñaki Núñezen *Toque de queda* egitera erakarriko du, eta geroago *Segoviako ihesa, Albaniako konkista, Felicidades Tovarich…* egingo ditu.

25 film baino gehiago egin ditu, horietako asko zuzendari itzaltsuekin: Jaime Chávarri, Carlos Saura, Bigas Luna, José Luis Cuerda, José Luis Borau edo Alejandro Amenábar.

*Ikuska 4* laburmetraia eta *Zergatik Panpox?* erdimetraia idatzi eta zuzendu ditu.

## ■ Mariví Bilbao (Bilbo, 1930)

Euskal zineman eskarmentu handieneko emakumezko antzezlea, nortasun handikoa eta pertsonaiak –ia beti ertz askoko emakume hauskorrak– garatzerakoan ausarta, Marivi Bilbao hirurogeiko hamarkadaren lehen urteetan hasi eta gaur egun ere, hirurogeita hamar urte pasa dituela, indar betean dagoen bere ibilbide luzea koroatu duten hainbat sari jasoa da.

Gure begi-ninietan gordeak ditugu euskal antzezle zaharraren irudia *Siete calles*en, mirabe otzanarena *A ciegas*en, mojarena *Pecata Minuta*n eta desloratu gabeko atsoarena berriki estreinatutako *La primera vez* laburmetraian.

2002an emakumezko antzezle onenaren El Mundo saria jaso zuen, *Marujas asesinas* filmagatik.



*Conchita Montenegro.*



*Carol Martine.*



*Patxi Bisquert Manterola.*



*Garcia Saturnino.*



*Richard Pierre.*



*Alfredo Landa Areta.*



*Luis Mariano González García.*



*Xabier Elorriaga.*

*Klara Badiola.*



*Mikel Garmendia.*



## ■ Paco Sagarzazu (Donostia, 1940)

Paco Sagarzazu antzezle bikaina da, baina bere lanbideak, irratiko esataria, dituen dohainen neurriko ibilbidea garatzea eragotzi dio. Hala ere, film askotan ikusi dugu, pertsonaia sinesgarri eta mamitsuak moldatuz: *Crónica de la Guerra Carlista*ko kazetari liberala, *Tasio*ko basozaina…

Zuzendari ugarirentzat lan egin du, hala nola Javier Agirre, Eloy de la Iglesia, Ana Díez, Gracia Querejeta, Antonio Mercero, Ramon Barea eta Daniel Kalparsoro.

## ■ Patxi Bisquert (Zizurkil, 1952)

Imanol Uribek *Segoviako ihesa* egin zezan deitu zion, eta ordutik aurrera Patxi Bisquert euskal zinema berriko filmetan ohiko presentzia izan zen: *Akelarre*, *Albaniako konkista*, *Golfo de Vizcaya*, *Ehun metro*, eta batez ere Montxo Armendarizen *Tasio*, bere antzezpenik gogoangarriena.

Bestalde, Pedro Olea, Francesc Bellmunt edo Carlos Sauraren zuzendaritzapean ere lan egin du.

## ■ Klara Badiola (Donostia, 1954)

Klara Badiolarena azken bi hamarkadetako euskal zinemaren aurpegi ezagunenetako bat da. Telebistan eta antzerkian lan egin ohi duen eskarmentu handiko antzezle hau Imanol Uribe, José Angel Rebolledo, Ernesto del Río, Juanma Ortuoste, Enrique Urbizu, Julio Medem edo Ana Díezen pelikuletan agertu izan da.

## ■ Ramón Barea (Bilbo, 1949)

Antzerki mundutik heldua, non 1969tik Cómicos de la Legua, Karraka, Geroa, Bederen Bat edo Txalo bezalako taldeentzat ikuskizunak zuzendu baititu, zineman Imanol Uriberen eskutik hasi zen, *Segoviako ihesa* filmean, ibilbide aski luze baten abiapuntu izango zena, batik bat bigarren mailako antzezle gisa, baina baita protagonista moduan ere (*Santa Cruz, el cura guerrillero, Entre todas las mujeres*).

Euskal zinemak eskaini zion plataformaz profitatuz, Ramon Bareak estatu mailako produkzioan sartzea lortu zuen, eskaintzen dizkioten rolak eraginkortasunez eta zenbaitetan bikain egiten dituen "ohiko izen" bat bezala.

Horrez gain, bi laburmetrai idatzi eta zuzendu ditu, *Adios, Tobby, adiós* eta *Muerto de amor*, eta luzemetrai bat, *Pecata minuta*, azken hori bere antzerki-testu baten moldaketa.

## ■ Javier Gurruchaga (Donostia, 1958)

Orquesta Mondragón musika taldeko buruaren antzezle lantegia ez da guratsua edota noizbehinkakoa izan, donostiar honek hirurogeita hamarreko urteetako hastapenetatik eszenatokietan erakutsitako talentuaren halabeharreko ondorio baizik.

Neurri berean musikari, showman eta antzezle, zineman bere burua antzeztuz hasi zen, *Bésame tonta* filmean, 1982an estreinatu eta balioa galdu zuen zentzugabekeria bat.

Pedro Almodóvar-ek *Qué he hecho yo para merecer esto* pelikulan rol txiki bat eman zion, eta 1988az geroztik genero eta izaera oroko filmetan agertu izan da. *El rey pasmado*n Conde-Duque de Olivares pertsonaiarena egiteagatik bereziki goretsi eta saritua izan zen. Geroago José Luis García Sánchez (*Tirano Banderas*, *Siempre hay un camino a la derecha*), edo Luis García Berlangaren (*París-Tumbuctú*) zuzendaritzapean, besteak beste, lan egin du.

## ■ Karra Elejalde (Leintz-Gatzaga, 1960)

Euskal zuzendarien azken belaunaldiaren antzezle begikoenetako bat Karra Elejalde da. Horregatik bere izena Julio Medem, Juanma Bajo Ulloa eta Alex de la Iglesiarenekin loturik doa, zeintzuen pelikulei talentua, irudimena eta konplizitate artistikoa ekartzen baitie. Izan ere, gipuzkoar honi kreatibitatea dario: telebista, irratia, antzerkia, zinema, idazketa... Alor horiek guztiak irizpide pertsonalaz, adimenaz eta zolitasunez jorratzen ditu.

Antzezlea da, baina baita gidoilari eta zuzendaria ere. Euskal Orson Welles moduko bat... baino umore handikoa.

## ■ Saturnino García (Bariones de la Vega, 1935)

1952an, bere familiarekin Bizkaira emigratu zuen, Leonen falta zen lanaren bila, eta metalurgi instalazio batean langile gisa sartu zen. Bere sentikortasunari jarraiki, kultura eta farandula giroan barneratu zen, eta 1956an lan-jantzia kendu eta antzerkia bizibide bihurtzea erabakiko du. Beti birak eginez, antzezpenak emanez –bere bululu maiteak–, ehunka obra antzeztuko du, horietako batzuk gogoangarriak, David Mameten *Una vida en el teatro*ko antzezlke zaharrarena kasu, eta zineman zenbait rol ere burutuko du (*Viaje a ninguna parte*, *Todo por la pasta*, *Acción Mutante*, *Amantes*…). 1994an



*Javier Gurrutxaga.*



*Paco Sagarzazu Badiola.*



*Imanol Arias.*



*Marivi Bilbao.*



*Alex Angulo León.*



*Najwa Nimri.*



*José Ramón Barea Monge.*



*Karra Elejalde.*

*Ramón Aguirre Lasarte.*



*Niko Lizeaga Urdanpilleta.*



bere ibilbidea errotik aldatuko duen pelikula filmatuko du: La Cuadrillaren *Justino, un asesino de la tercera edad*. Orduz geroztik, Saturnino pantaila handietan eszenatokietan baino sarriago agertu da, bere burua oroz gain "antzerkiko antzezle zahar bat" bezala hartzen duen arren.

## ■ Mikel Garmendia (Ordizia, 1945)

Herri mailan *Goenkale* telebistako seriean parte hartzeagatik aski ezaguna, Mikel Garmendiak bere dohainak zeluloidean ere erakutsi ditu, pertsonaia *jatorrak*, *Kaleretik*eko Malantxas gogoangarria kasu (1987an Cartagenako Itsas Zinemaren Nazioarteko Jaialdian Antzezle Onenaren Saria), *Hamaseigarrenean aidanez*ko Cornelio zinikoa edo *Maite*ko angulero maitagarria antzeztuz. Garmendia euskal zinemaren bigarren mailako antzezle eraginkorrenetako bat bezala nabarmendu da.

## ■ Alex Angulo (Erandio, 1953)

Angulo ikusle gehienek telebistari esker ezagutzen duten beste antzezle bat da, *Segoviako ihesa* filmean lehenengoz, eta oso laburki, agertu zenetik ia 40 pelikulatan parte hartu duen arren. Dohain ugariren jabe, Alex Angulo zinema berrienaren euskarri sendoa da, eta gaur egungo zuzendari nagusien eskaintzak jaso ditu.

## ■ Najwa Nimri (Iruñea, 1972)

Najwa Nimriren presentzia misteriotsuan, Daniel Kalparsorok bere istorio ilun eta bortitzetarako protagonista eder bat aurkitu zuen. Hala ere, Alejandro Amenabarrekin eta, batez ere, Julio Medemekin pertsonaia konplexuagoak moldatzeko baliabideak erakutsi ditu. 1998rako Goya sarietarako aukeratua izan zen, eta 2002an ostera finalean zen, *Lucía y el sexo* filmarengatik antzezle sekundario onenaren sarirako lehiatuz. Antzezle izateaz gain, Najwa soul eta jazz kantaria ere bada.

## ■ Ramón Agirre (Donostia, 1954)

Ramon Agirre antzerkian eta telebistan aritu izan da nagusiki, baina antzezpenerako bere dohaina euskal zineman ere agertu du: *Santa Cruz, el cura guerrillero*, *Ander eta Yul*, *El día de la bestia*, *La hora de los valientes*… *Lauaxeta*n Eusko Gobernuko lehendakari izandako Jose Antonio Agirre bere osaba-aitonarena egin zuen.

# Ekoizleak




**EKOIZLEAREN IRUDIA**, sarritan ikus-entzunezko negozioan diru-kontuei bakarrik lotua, Espainiako zinemaren kasuan ahalmen sortzaile izugarria duen gizon batek birdefinitu eta duindu du: Elías Querejeta. Ekoizpenaren maisu honen urratsei jarraiki beste hainbat profesional heldu da, azken hamarkadetako euskal zinemaren euskarri izan direnak: Angel Amigo, Luis Goia, José Mª Lara, Iñaki Núñez, Iñigo Silva.

## ■ Elías Querejeta

Espainiako zinemak izan duen ekoizle garrantzitsuena Hernanin jaio zen, 1934ko urriaren 26an. Gaztaroko grinak kirol jarduerak erakarri zituen, hainbesteko arrakastaz ezen 18 urterekin Lehen mailan jokatzen hasiko baita, Real Sociedad taldearekin; sei urte geroago jokatzeari utziko dio, "aspertu" egiten omen zelako. Zuzenbide ikasketak egiten ari zela **Antton Ezeiza** ezagutuko du, eta zinemaren abenturari batera ekingo diote, hasieran San Sebastián eta Cantábrico zineklubetan animatzaile moduan, Zinemaldiaren munduan sartu nahirik, eta, jada Madrilen, 1960az geroztik batera idatzi eta zuzenduz, **Laponia Films** bere lehen produkzio-etxea medio, Errealeko zenbait jokalarik jarritako diruaz sortua.

Bikotearen filmografia ***A través de San Sebastián*** laburmetraiarekin abian jarri zen, eta 1963an lehenengo luzemetraia filmatuko dute, ***El próximo otoño***, *Querejeta* ekoizle eta *Ezeiza* zuzendari zirela.

1964an **Elías Querejeta P.C.** jaioko da, orduz geroztik berrogeita hamar pelikula baino gehiago ekoiztu duen produkzio-etxea. Elías Querejetak berrogei urte hauetan kontatu dituen istorioak formalki kalitate handia eta gure garaiko errealitatean sakontzeko kezka etiko bera dituzte bereizgarri.

**Carlos Saura**, **Jaime Chávarri**, **Víctor Erice** edo **Montxo Armendarizen** filmografiek ekoizle saritu hau dute oinarri, zeinak adierazten baitu bera ez dela pelikula horien egilea, baina bai beroriek gauzatzearen arduraduna ("obra zuzendariarena da, baina produktua produktorearena", laburbilduko du hernaniarrak).



*Elias Querejeta*

## ■ Angel Amigo

1952an Errenterian jaiotako ekoizle honen curriculumean denetarik dago: fikziozko filmak, dokumentalak, ikus-entzunezko kazetaritza lanak eta telebistako serieak. Halabeharrez hasi zen, *Imanol Uribe*k *Operación Apache* bere liburu autobiografikoa gidoi bihur zezan eskatu zionean, finean ***Segoviako ihesa*** deituko zena. Garai hartan Eusko Jaurlaritza zinemarako lehen dirulaguntzak martxan jarri zituen, eta laguntza horiekin film hura egin ahal izan zen.

Gero ***Albaniako konkista***, ***Lauaxeta*** eta ***Ander eta Yul*** (*Ana Díez*ek zuzendua, 1990ean Zuzendari Berri Onenaren Goya saria irabazi zuen), ***El sol del membrillo***, ***Maité***… etorriko ziren.

Telebistan, **Igeldo Komunikazioa** produkzio-etxea ***Bi eta Bat*** edo ***Jaun eta Jabe*** bezalako lan arrakastatsuen arduraduna izan da.

Azken urteotan Kuba, Mexiko, Kolonbia, Portugal, Frantzia eta beste herrialde batzuetako enpresekin zenbait pelikula koproduzitu du.

1998az geroztik, Amigo San Antonio de los Bañosko (Kuba) Zinema Eskolan dokumental-ekoizpeneko irakaslea da, nahiz eta, aitortzen duen moduan, "ni ez naiz ezein eskolara joan eta, egia esateko, ez dut uste honetarako eskolarik dagoenik Askotan ofizio hau kazetariarenarekin alderatzen dut, bai, eskolak eta unibertsitateak badira, baina egiaz lanean ikasten da, gauzak nola eta noiz egin behar diren konturatzen zarenean".

Amigok dio istorio bat, eta ez beste edozein, kontatzera daramana jakin-mina dela. Bere film guztiak "helarazi nahi ditudan istorioak dira, nire iritziz interesgarriak direlako".



*Iñigo Silva*



Luis Goya

## ■ Iñaki Nuñez

1953an Gasteizen jaioa, Iñaki Núñezek arkitektura utzi eta zinema hartu zuen. Ikasketak Madrilen egin eta haurrentzat filmak burutu ondoren, 1976an **Araba Films** produkzio eta banaketa etxea sortuko du.

Hurrengo urtean ***Estado de excepción*** estreinatuko du, pelikula ahaztezina, bere zinema aldetiko balioagatik baino –baliorik baduen arren–, filmaketa eta emanaldia inguratu zuen ororengatik. Terrorismoaren apologia egiteagatik eta agintaritza iraintzeagatik zenbait aste kartzelan eman ondoren, filmak Oberhaussengo Jaialdian, Alemanian, Kritikaren Saria lortuko du. José Mª Unsainek *El cine y los vascos* liburuan adierazten duen moduan, "*Estado de excepción*ek demokrazia aurreko aldian Espainiako zentsuraren mugak agertzearen bertutea izan zuen, eta Iñaki Núñez euskal zuzendaririk ospetsuena bihurtu zuen".

Laburmetraien zuzendaria izateaz batera, Núñezek **López Arroyabe** eta **Francisco Avinza** bezalako zuzendarien lanak ekoiztu zituen.

80ko hamarkadan zinema banaketaren alde egingo du, eta zinema-aretoen sare bat sortuko du: *Mikeldi* zinemak Gasteiz eta Bilbon, eta *Conde Duque* zinemak Madrilen.

Hamabost urtez lantegi horretatik urrun egon ostean, 1998an ostera ekoizpenari ekingo dio, ***La novena puerta*** lanarekin, **Roman Polanskik** zuzendutako koprodukzio handinahia, *Arturo Pérez-Reverte*ren *El Club Dumas* nobelan oinarritua, eta segidan *Richard Dreyfuss* protagonista duen ***El viejo que leía novelas de amor*** eta **Ibarretxe** anaien ***Sabotage!*** burugabea etorriko dira.

## ■ Edouard, Bernard, François eta Michel Harispuru

**Harispurutarrek** frantziar zinemako ekoizleen familia ospetsu bat osatzen dute, 1890ean Iparraldean jaiotako **Edouard** aitagandik hasita, zeinak, 1919az geroztik ikus-entzunezko industrian sartuta, 1936 eta 1956 bitartean ekoizle gisa ibilbide bikaina moldatu baitzuen.

*Sacha Guitry* apartarentzat ***Le Destin fabuleux de Desiré Clery*** ekoiztu zuen 1941ean, eta hurrengo hamarkadan *Luis Mariano*k pantaila handian lortutako arrakasta handietan parte hartu zuen: ***Andalusie*** eta ***La belle de Cadix***.

**Bernard, Michel** eta **Francois Harispuru** aitarekin hasi ziren. Azken hau 1951an *Max Ophüls*en ***Le Plaisir*** maisulanaren ekoizlea izan zen, sketch tankerako antologia zoragarria, *Jean Gabin* eta Frantziako zinemaren orduko izar guztiak bildu zituena.

## ■ Iñigo Silva

Hirurogeita hamarreko urteen hasieran, **Iñigo Silva**k (Gasteiz, 1951), zinema munduan Iruñeko Louis Lumiére Zineklubaren animatzaile gisa ezaguna, **Emergencia P.C.** ekoizpen-etxea sortuko du, lan dokumental laburretan espezializatuko dena: ***Tabú***, ***Sanfermines***, ***Teatro en la calle***, ***El poblado de Santa Lucía*** eta ***Irrintzi***. Azken hori **Mirentxu Loiarte**k zuzendu, **Javier Agirresarobe**k fotografiatu eta **Fernando Larruquert**ek muntatutako intentsitate handiko obra da.

1979 eta 1980ean **Montxo Armendariz** izeneko hasiberri baten lehen esperientziak –***Barregarriaren Dantza*** eta ***Ikusmena***– bultzatuko ditu.

1992 arte, Iñigo Silva laburmetrai esperimentalen (**Gerardo Armestoren *Kubo batentzako maskarak*** eta ***Zurubiaren kontzertua***) eta dokumentalen(***Orreaga***, ***Oinkadak denboran II***, biak berak zuzenduak) ekoizle ausart bat bezala ageri da.

Aipatu urtetik aurrera animazioari helduko dio, **Episa** produkzio-etxearen bidez. Aurrena ***Ipar haizearen erronka*** filmarekin eta gero ***Ipar haizearen itzulera***rekin, nazioarte eta estatu mailako sari ugari lortuko du, 1995eko Animazioko Film Onenaren Goya saria barne, 1998an *Qué vecinos tan animales*ekin ostera irabaziko zuena.

Gaur egun, egoitza Extremaduran duen **Extra** produkzio-etxearen buru, Silva berriro ere 2002ko Goya sarien finalera heldu da, bere azken ekoizpenarekin: ***La leyenda del unicornio***.



Jose Maria Lara

## ■ Jose María Lara

"**José Maria Lara** (Madril, 1948) Nafarroako Foru Komunitatean produkzioaren alorrean zinema sorkuntzako bultzatzaile nagusia bihurtu da", bere herrikide Carlos Roldán historialariaren esanetan.

Borroka politikoari hainbat urte eman eta gero, Alemania Josemari Lara injinerutza fotografikoan lizentziatu zen. Laurogeiko hamarkadaren erdialdeaz geroztik zineman arituko da, fotografia, kamera eta argazki finkoko laguntzaile moduan (zuzendari askorekin lan eginez, hala nola ***Imanol Uribe, Alfonso Ungría, Javier Aguirre, Ernesto del Río, José Antonio Zorrilla, Ana Díez, José Mª Tuduri*** eta ***Víctor Erice***).

1987an zinemagile hasiberrien laburmetraiak ekoizteari ekingo dio, eta geroago luzemetraiarako jauzia emango du. Iruñeko **José María Lara P.C.** produkzio-etxeak ***Helena Taberna, Arantxa Lazkano, Ramon Barea, Daniel Kalparsoro*** edo ***La Cuadrillaren*** lanak finantzatu ditu.

eta ***Kalabaza Tripontzia*** filmaz luzemetraiara aldatuko da; hiru filmon zuzendaria **Juanba Berasategi** izango da. Aipatu azken lanak 1985eko Donostiako Nazioarteko Zinemaldian Ohorezko Aipamena lortu zuen, eta Kultura Ministerioak "Especial Calidad, Especial Interés Cinematográfico y Especial para la Infancia" izendatu zuen.

Animazioarekin jarraituz, 1987an ***Astakiloen abenturak eta kalenturak*** seriea egin zuen.

Bi urte geroago, **Trenbideko Filmeak** etxearekin **Antton Ezeiza**ren ***Ke arteko egunak/ Días de humo*** luzemetraia ekoiztu zuen, zeinak Donostiako Zinemaldian Donostia Saria irabazi baitzuen.

Euskal zineman ekoiztu dituen azken lanak **Koldo Izagirre**ren ***Off-eko maitasuna/Amor en off*** eta **Joseba Salegi**ren ***Ione, sube al cielo*** izan dira.

## ■ Luis Goya

**Jaizkibel** produkzio-etxeko buru, *Luis Goia* (Lezo, 1951) Euskal Herrian animazioko filmen produkzioan aitzindaria da.

1981ean hasi zen, ***Fernando Amezketarra*** eta ***Kukubiltxo*** lanekin,



Angel Amigo

# Zinema munduko jendea







"…girresarobe" Fotografia Saria. …997ko Zinemaldia. Donostia.

ZINEMA TALDEKO LANA DA, ezin konta ahala profesionalen partaidetza eskatzen duena. Eskuarki antzezle, zuzendari edo ekoizleez baino oroitzen ez bagara ere, film baten arrakasta edo porrota gidoilari, zuzendari artistiko, jantzien zuzendari, musikagile, makillatzaile, efektuen aditu eta beste hainbaten talentu eta trebeziaren mende daude. Berebat, platotik kanpo kritikari eta adituek zazpigarren artearen garapena sustatzen dute.

## ■ Javier Agirresarobe
### Fotografia zuzendaria

Laurogeiko hamarkadako euskal zinemaren irudi sortzaile nagusia, 1973an Javier Agirresarobek (Eibar, 1948) euskal zuzendarien pelikula ugari fotografiatu ditu: *Ikuska* seriea, *El proceso de Burgos*, *Segoviako ihesa*, *Golfo de Vizcaya*, *Mikelen heriotza*, *Fuego eterno*, *27 ordu*, *Día contados*, *Bwana*, *La madre muerta*, *El sol del membrillo*, *Tierra*, *Secretos del corazón…*

Fotografia zuzendari gisa egin zuen lehen filma Fernando Colomoren (1978) ***¿Qué hace una chica como tú en un sitio como este?*** izan zen.

*Pilar Miró, Gonzalo Suárez, Ricardo Franco, José Luis Cuerda, Mario Camus, Carlos Saura, Fernando Trueba* edo *Pedro Almodóvar* bezalako zuzendari espainiarrek beren pelikulen argia eta kolorea Javier Agirresaroberen esku utzi dituzte.

Nazioarteko zenbait sari eta Fotografia Onenaren lau Goya irabazi ditu, azken horiek ***Beltenebros***, ***Antártida***, ***El perro del hortelano*** eta ***Los otros*** lanengatik. Amenabarren filmak Ipar Amerikako merkatuan ezagun bihurtu dute, eta litekeena da oso luze gabe Agirresarobek lurralde hartan erronka berriei ekitea.

Bere ofizioaz honakoa dio gipuzkoarrak:

"Fotografia zuzendari bat sortzaile, teknikari eta langileburuaren arteko nahasketa bitxi bat da. Eta horien artean funtzio bat gailendu beharko balitz, irudiaren kontzientzia estetiko eta plastikoa duen sortzailearena izan beharko litzatekeela uste dut. Eta kontzientzia hori begien aurrean gidoi bat duzun egun horretantxe jaiotzen da. Eta zure burua hura fotografikoki interpretatzeko gai sentitzen duzu. Argi eta kolore kontzeptu bat bideratzeko gai. Filmaketa gero etorriko da, baina une horretan filmak zure begietan idatzita egon behar du".




## ■ Arri eta Biaffra
### Zuzendari artistikoak

**Jose Luis Arrizabalaga**, *Arri*, eta **Arturo García**, *Biaffra*, egileek osatutako bikotea zuzendaritza artistikoan nabarmendu da zenbait lan bikain eskainiz, hala nola ***Justino, un asesino de la tercera edad*** (eta La Cuadrillaren trilogiaren gainerakoa), ***Perdita Durango***, ***A ciegas***, ***Torrente, el brazo tonto de la ley***, ***Muertos de risa*** eta ***La comunidad***.

1995ean beren espezialitateko Goya saria irabazi zuten, ***El día de la bestia*** filmarekin.

## ■ Carmelo Bernaola
### Musikagilea

80 soinu-banda baino gehiago egina, Carmelo Bernaola (1929-2002) bizkaitarra bere belaunaldiko zinemako musikagile oparoenetako bat izan zen. Hainbat zuzendarirentzat musika originala egin zuen: **Orson Welles** (*Campanadas a Medianoche*), **Gonzalo Suárez** (*La Regenta*), **Antonio Giménez Rico** (*El hueso, El Cronicón, ¿Es usted mi padre?, Jarrapellejos* edo *Soldadito Español*), **Pedro Olea** (*Días de viejo color, La casa sin fronteras, Tormento, Pim pam pum, fuego, Un hombre llamado flor de otoño* edo *Akelarre*), **Antonio Drove** (*Tocata y fuga de Lolita, Mi mujer es muy decente dentro de lo que cabe*), **Roberto Bodegas** (*Los nuevos españoles, Vida conyugal sana*), **José Luis García Sánchez** (*El love feroz, Adiós con el corazón, Pasodoble*) edo **Fernando Fernán Gómez** (*Mambrú se fue a la guerra*). Elkarrizketetan *Los paraísos perdidos* eta *Nueve cartas a Berta* filmentzat egindako soinu-bandak begikotasun berez iz oroitu zituen.

Zinemako Idazleen Zirkuluaren (Círculo de Escritores Cinematográficos) saria hiru aldiz irabazi zuen (**F. Regueiro**ren *Si volvemos a vernos*; **B. Martín Patino**ren *Del amor y otras*

*soledades*; eta **F. Beltriu**ren *Corazón solitario*). Hil aurretik, Espainiako Zinemako Arte eta Zientzien Akademiak (Academia de las Artes y las Ciencias Cinematográficas) Urrezko Domina eman zion.

### ■ Luis de Pablo
### Musikagilea

Zineman Querejeta eta Ezeizak hala eskatuta hasi zen, ***A través de San Sebastián*** filmeko musika konposatuz. Lan horretan musikak funtzio urrunkor eta urratzailea jokatzen du.

Orduz geroztik eta laurogeiko hamarkada arte, Luis de Pablok (Bilbo, 1930) zinemako musikaren alorra sarritan jorratu zuen, batik bat aukerako zuzendari multzo batentzat: *Carlos Saura, Antxon Ezeiza, Javier Agirre, Víctor Erice, Pedro Olea, Ricardo Franco, Gonzalo Suárez, Jaime Chávarri.*

### ■ Jesús García Leoz
### Musikagilea

Bizitza laburra izan arren (Olite, 1904-Madril, 1953), Jesús García Leozek gerraosteko laurogei film espainiar baino gehiago musikaz koloreztatzeko astia izan zuen. Nafar honi zor diogu ***Bienvenido Míster Marshall*** filmaren soinu-banda ospetsua, eta baita ***Esa pareja feliz***, ***Botón de ancla***, ***Surcos*** edo ***Balarrasa*** filmena ere.

### ■ Jorge Gerrikaetxeberria
### Gidoilaria

**Alex de la Iglesiaren** filmak, neurri handi batean, **Jorge Gerrikaetxeberriaren** (Avilés, 1965) irudimen eta idazte lanaren emaitza dira. Bilbotar eta adopziozko gasteiztar honen arteko sinbiosia Alex ezagutarazi zuen ***Mirindas asesinas*** laburmetraiaren garaitik dator. Gerrikaetxeberria, bestalde, *Pedro Almodóvar*-ekin ***Carne trémula*** pelikularen gidoia moldatzen aritu da.

### ■ Juan Miguel Gutiérrez
### Ikerlari eta zinemagilea

Juan Miguel Gutiérrez (Errenteria, 1945), Bruselako INSAS en ikus-entzunezkoen ikaslea, euskal zinemaren historian euskaraz filmatutako haurrentzako lehen filmaren egilea da. Filma 1977an egin zen, eta ***Balanzatxoa*** izenburua zeraman.

Zinema jardueren animatzaile moduan, Eusko Ikaskuntzaren zinema atalaren buru izan da, hainbat zentrotan ikastaroak eman ditu, kritika landu du eta *Sombras en la caverna, el tempo vasco en el cine* bezalako lan interesgarrien egilea da. Berebat, hirurogeiko hamarkadan arrakasta handia lortu zuen ***Bai horixe*** telebistako seriearen arduraduna da.



*Manuel Villegas.*



*Josune Lasa.*



*Luis De Pablo.*



*Koldo Larrañaga.*



*Javier Agirresarobe.*



*Juan A. Ruiz Anchia.*



*Luis Iriondo.*



*Angel Illarramendi.*



*Luis Marías.*

*Juan Miguel Gutiérrez.*



*Alberto Iglesias.*



### ■ Satur Idarreta
### Zuzendari artistikoa

Zuzendaritza artistikoan 1989an hasi zen, baina ospea bi urte geroago heldu zitzaion, **Juanma Bajo Ulloa**ren *Alas de mariposa* lanarekin. Zuzendari gasteiztarrak bere hurrengo bi luzemetraietan ostera baliatu zuen, eta baita **Julio Medem**ek ere, *La ardilla roja*, *Tierra* y *Los amantes del Círculo Polar* pelikuletan.

### ■ Alberto Iglesias
### Musikagilea

Zinema espainiarrean Goya sari gehien irabazitako artista Alberto Iglesias (Donostia, 1955) da. Haren apaletan bost estatuatxo daude jada: ***La ardilla roja*** (1993), ***Tierra*** (1996), ***Los amantes del Círculo Polar*** (1998), ***Todo sobre mi madre*** (1999) eta ***Lucía y el sexo*** (2001). Ikus daitekeenez, arrakasta gehienbat Julio Medem zuzendariaren eskutik heldu zaio, baina beste hainbat zuzendarirentzat egindako partiturek ere merezitako sona ekarri diote: *Imanol Uribe, Carlos Saura, Pedro Costa, José Luis Guerda, Daniel Kalparsoro, Bigas Luna* eta, batez ere, *Pedro Almodóvar* (***La flor de mi secreto***, ***Carne trémula***, ***Todo sobre mi madre***). ***Films Works*** konpaktu bikoitzak artistak laurogeita hamarrean egindako doinu-bandak jasotzen ditu.

### ■ Angel Illarramendi
### Musikagilea

Angel Illarramendi (Zarautz, 1958) fikzioarekin lehenengoz antzerki ikuskizunak medio topo egin zuen: *Arlequin, servidor de dos amos, Las troyanas*.

1984an ***Tasio*** filmari musika jarriko dio, eta **Elías Querejeta**rekin lankidetzan hasiko da, urteetan zehar hainbat emaitza emango duena: ***27 ordu, El aliento del diablo, El último viaje de Robert Rylands***.

Oraindik orain, "arima jomuga duten lanak" egiten dituela dioen musikari honek egundo konposatutako soinu-bandarik onenaz gozatzeko parada izan dugu: **Juan José Campanella**ren ***El hijo de la novia*** pelikula hispanoamerikarrarentzat egindakoa.

### ■ Luis Iriondo
### Musikaria, antzezlea, koordinatzailea

Euskal zinema eta kantuaren pertsonaia polifazetikoa, **Luis Iriondo**k (Azkoitia, 1934) hirurogeiko hamarkadaren erdialdean *Los Contrapuntos* taldea sortu zuen, zeinarekin hogeita hamar disko baino gehiago grabatu eta estatuan nahiz atzerrian ibili baitzen. Geroago beste kantari batzuentzat musika egiteari ekin zion, eta prentsa zein irratian musika kritikaren berritzailea izan zen.

Hirurogeita hamarreko urteetan zinemaren munduan sartuko da, ekoizpen industrialetan parte hartuz, eta asmo handirik gabe antzezle lanak egiten hasiko da, *José Mª Forn*en ***Companys, proceso a Cataluña*** pelikulan Kataluniako aurreneko presidentearena eginez.

Noizbehinka *Jaime Camino, Ventura Pons* edo *Javier Agirre*ren filmetan parte hartuko du, eta ***El Pico*** filmaren lehen eta bigarren zatietarako zein ***Otra vuelta de tuerca***, ***Gran Sol*** eta ***Terranova*** lanetarako musika partiturak egingo ditu.

Luis Iriondo *Ikuska* seriearen sustatzaileetako bat izan zen, eta serie horren hogei emanaldietan koordinatzaile orokor moduan jardun zuen.

## ■ Koldo Larrañaga
### Zinemazalea

**Koldo Larrañaga** (Azkoitia, 1923) apaiza da ofizioz, baina debozio bikoitza du: arimen salbazioa eta zinema. "Zineman xede erabat pastoralaz sartu nintzen –gogoratzen du Aita Larrañagak–. Zinema mezu kristaua helarazteko eta jendea kristautasunean hezteko baliabide gisa interesatzen zitzaidan".

Hastapenetan euskal zinekluben animatzaile nekaezina izan zen, eta super-8ko egile saiatua, 1976ko martxoan Gasteizen jazotako gertakarien gaineko ***Neguazkena*** luzemetrai interesgarriaren sortzailea.

Zinema irakaskuntzan sartzeaz arduratuta, Olabide ikastolan sorkuntzako esperientzia bat garatu zuen, fruitu moduan ***Sorginkeriak*** (1976), ***Euskera Araban*** (1977) eta ***Idoi ipuia*** (1978) fikzioa eman zituena.

1980an ***Ikuska*** seriearen 8. emanaldia zuzendu zuen, Arabako landako eremuen populazio galtzeari buruzkoa.

Kaizedo Behekoko parrokoak, **Enrique Calvo** lagun, ikerlan itzel bat burutu du: ***Lo vasco en el cine***, aditu eta zaleentzat ezinbesteko kontsulta-lana.

## ■ Josune Lasa
### Jantzien diseinugilea

Donostiako *Perplejos* taldean nabarmendu zen jantzien sortzaile originala, zineak 1983an erakarri zuen (***Mikelen heriotza***). Figuringile edo jostun moduan, **Josune Lasa**k (Donostia, 1954) jada filmografia aski luzea egina du, *Juanma Bajo Ulloa, Imanol Uribe, José Angel Rebolledo, Helena Taberna, Iciar Bollaín, Fernando Colomo* eta *Pedro Almodóvar* bezalako zuzendarien lanetan.

**Montxo Armendariz**en ***Secretos del corazón*** eta ***Silencio roto*** filmetan jantzien diseinu dotoreak egin ditu.

Laburmetrai bat zuzendu zuen, ***La cena***, 1991eko zenbait lehiaketetan txalotu eta saritua izan zena.

## ■ Francis López
### Musikagilea

Donibane Lohitzunen jaiotako musikagile honek **Luis Mariano** "operetaren printzea" gailurrera eraman zuten kanta guztiak konposatu zituen. ***Violetas imperiales***, ***La bella de Cádiz*** edo ***El cantor de México*** bezalako berrogeita hamarreko urteetako arrakasta handiak **Francis López**ek musikalaren generoan konpositore gisa zuen balioaren erakusgarri dira.

## ■ Luis Marías
### Gidoilaria

**Creatívideo** produkzio-etxearen bidez **Enrique Urbizu**ri lotua, 1987an ***Tu novia está loca*** filmaren (euskal zinemako lehen komedia) gidoia idatziko du.

***Todo por la pasta*** pelikulagatik gidoi onenaren Goya sarirako hautagaia, zazpi lan geroago saria irabazi egingo du, **Salvador Garcíaren** (1998) ***Mensaka*** filmaren gidoiarekin.

***Farmacia de guardia***, ***Turno de oficio*** eta ***A las once en casa*** bezalako telebista serietan trebatu da.

2002an **Luis Maríasek** (Bilbo, 1962) zuzendari lanetan bere lehen luzemetraia, ***"X"*** izeneko thriller bat, estreinatuko du.




## ■ José Angel Rebolledo
### Zuzendari, gidoilari eta aditua

**Ortuoste** eta **Rebollo**rekin, *José Angel Rebolledo*k (Bilbo, 1941) Bizkaiko zinemaren eragile izan diren injineru industrialen hirukotea osatzen du. 30 urterekin ofizioa utzi eta Madril aldera joan zen, Zinemako Eskola Ofizialean ikasketak egitera, han Imanol Uriberekin adiskidetuko delarik.

Itzuleran Oteiza tankerako ***Arriluce*** filmarekin estreinatuko da, **Fernando Larruquert**en ***Euskal Herri-Musika*** lanaren gidoi-moldaketan parte hartuko du.

1983an, *Aiete Films* sortuko du, ***Mikelen heriotza***, zeinaren gidoiaren egilekide baita, eta 1985ean berak idatzi eta zuzenduko duen ***Fuego eterno*** ekoizteko. ***Lluvia de otoño*** (1988) filmarekin ez zuen arrakasta handirik lortuko.

Gaur egun EHUn ikus-entzunezko komunikazio eskolak ematen ditu. *Ilusión y realidad. La aventura del cine vasco en los 80* liburuaren egilekidea da.

## ■ Juan A. Ruiz Anchía
### Fotografia zuzendaria

Laurogeiko hamarkadaren erdialdeaz geroztik, **Juan Antonio Ruiz Anchía** (Bilbo, 1949) zinema amerikarreko fotografo itzaltsuenetako bat bezala nabarmenduko da. Los Angelesko American Film Institute izenekoan trebatua, bere izena zuzendari askoren filmetan ageri da, hala nola **David Mamet** (***Casa de juegos***, ***Las cosas cambian***), *Andrei Konchalovski* (***Los amantes de María***), *Mike Figgis* (***Liebestraum***, ***Mr. Jones***), *James Foley* (***Hombres frente a frente***, ***Glengarry Glen Ross***), eta *Joel Schumacher* (***Elegir un amor***).

1998an fotografia onenaren Goya saria lortu zuen, *A.J. Betancor*-en ***Mararía*** lanarengatik.

## ■ José Mª Unsáin.
### Historialaria

***Hacia un cine vasco***, eta, batik, ***El cine y los vascos*** (1985) lanekin, *José Mª Unsain*ek (Orio, 1951) Euskal Herrian zinema historiografiaren oinarriak ezarri zituen. Beste zenbait lan ere egin ditu, ***Los vascos y el cine experimental, Nemesio Sobrevila, peliculero bilbaíno*** kasu, eta ***Haritzaren negua. 'Ama Lur' y el País Vasco de los años 60*** liburuaren argitalpena.

Euskal Filmoteka medio, Unsainek balio handiko ikus-entzunezko materialen berreskurapenean lan handia egin du.

Komiki, publizitate eta arte plastikoen gaineko hainbat liburu argitaratu ditu.

Gidoilari moduan *Anchieta, escultor* (1990) eta *La conquista del horizonte* (1991) dokumentaletan aritu da.

## ■ Manuel Villegas
### Gidoilari eta teorialaria

Manuel Villegas (Donostia, 1906–Madril, 1980) zinema espainiarreko aurreneko teorialari handitzat hartua da.

Errepublikako urteetan zinema kritikaria, zinekluben sustatzailea eta Estatuko Zinema Zerbitzuetako Buru izan zen. Espainian nahiz Argentinan, Gerra Zibilaren ondoren hartuko zuen herrialdea, ikerlan garrantzitsuak argitaratu zituen: *Charles Chaplin, el genio del cine*, *Cine francés*, eta abar.

Ulerkera teoriko aski aurreratuaz, zinema "gizon modernoak sortutako arte bakarra" zela adieraziko zuen. 1950ean, Buenos Airesen Zinemako Ikasketen Zentroa (Centro de Estudios Cinematográficos) sortu zuen, eta zenbait zuzendarirentzat gidoiak idatzi zituen, batik bat *León Klimovsky*rentzat, zeinarekin, Espainiara bueltatzean, ***El jugador***, ***Los amantes del desierto***, ***Una chica para dos*** eta ***La casa de las chivas*** bezalako filmetan esku hartu baitzuen.

1980an, Zinemako Idazleen Zirkuluak (Círculo de Escritores Cinematográficos) haren lana aintzatetsi zuen, hil ostean.

## ■ Santos Zunzunegi
### Aditu eta kritikaria

Doktorea eta unibertsitateko katedraduna, **Santos Zunzunegi** (Bilbo, 1947), obra baten egilea da, *El cine en el País Vasco*, zeinak, argitaratu zenetik hogei urte pasa diren arren, erreferentziako liburu izaten jarraitzen baitu. Beste liburuak ere idatzi ditu: *La mirada cercana*, *Pensar la imagen*, *Paisajes de la forma*. Kritikari itzaltsua, zenbait laburmetraietarako gidoiak ere idatzi ditu.

# Euskara zineman







Hirurogeiko hamarkadaren hasiera arte kasik ez da euskaraz filmatutako lanik izango. Isilaldi luze hori Parisen erbesteratutako bilbotar batek urratu zuen, metraje laburreko zenbait dokumental eginez. 1975etik aurrera egoera normalduz joango da. Gaur egun, euskara osasuntsu ageri da, batik bat haurrentzako animazioari eta istorioak filmatzeko hizkuntza hori hautatzen duen laburmetrai egile zenbaiti esker.

1930ean, *Maurice Champreux* eta *Jean Faugeres* zinemagileek euskara mintzatua (eta batik bat kantatua) entzun ahal izan zeneko lehen film soinuduna filmatu zuten: ***Au Pays des Basques***.

Hain goiztiarra izanik ere, gure hizkuntza apenas entzun ahal izan zen Gerra Zibilaren aurreko urteetan, eta are gutxiago ondorengoetan. Horrenbestez, hirurogeiko hamarkadaren hasiera arte kasik ez da euskaraz filmatutako lanik izango. Isilaldi luze hori Parisen erbesteratutako delineatzaile bilbotar batek, **Gotzon Elorza**, urratu zuen, metraje laburreko zenbait dokumental eginez. Ia klandestinoki filmatutako lanak izan ziren, eta haiekin hizkuntza desagertzeko arriskuaren aurrean garrasi egin nahi izan zuen, aldi berean ikus-entzunezko euskarriak euskararen hedapenerako eskaintzen zituen ahalbideak agertuz.

**Frankismoaren gau luzea amaituta**, 1975az geroztik egoera pixkanaka normalduz joango da. Abiapuntua urte horretan bertan egindako ***Arrantzale*** filma izango da, **Anton Merikaretxebarria**k zuzendutako dokumentala, Bilboko Unibertsitateko Zineklubeko (Cine Club Universitario) adiskideen laguntzaz: J.M. Ortuoste, F.J.Rebolledo, J.B. Heinink, eta abar.

Bi urte geroago, **Juan Miguel Gutiérrez**ek euskaraz egindako haurrentzako fikziozko lehen luzemetraia zuzenduko du, ***Balantzatxoa***, Paco Sagarzazuren lan batean oinarrituta.

1980an **José Julián Bakedano**k eta Sotak hizkuntzak elkarrizketen egituraketan eskaintzen zituen ahalbideak agertu zituzten ***Sabino Arana*** lanean, euskararen




artikulazio dramatikoa, Bakedanok berak ***Oraingoz izen gabe*** (1986) filmean areago araztu zuena.

Aldi horretan bertan, **Eusko Jaurlaritza**k eta **ETB**k, *Irati* produkzio-etxea medio, euskal literaturako lanetan oinarritutako metraje ertaineko hiru film sustatu zituzten: ***Ehun metro***, ***Hamaseigarrenean aidanez***, ***Zergatik panpox***.

1989an, lehenengo aldiz Donostiako Zinemaldiak euskaraz filmatutako luzemetrai bat lehiaketara aurkeztu zuen: 1978an ***Ikuska*** serie interesgarria esku hartu zuen **Antxon Ezeiza**ren ***Ke arteko egunak*** (*Días de humo*).

**Gaur egun**, euskara osasuntsu ageri da, batik bat haurrentzako animazioari eta istorioak filmatzeko hizkuntza hori hautatzen duen laburmetrai egile zenbaiti esker.

Eusko Jaurlaritzak urtero bikoizketa eta azpitituluak jartzeko lanetarako dirulaguntzak eskaintzen ditu, zinema aretoetan luzemetraien euskarazko estreinaldi komertzialak sustatzeko, eta DVD zein bideo euskarrietan euskararen presentzia bermatzeko. 2002an guztira 450.759 euro eman ziren, eta diru horrekin bikoizketako, azpitituluak jartzeko eta kopiatzeko nahiz euskarazko bertsioak sustatzeko gastuei aurre egin behar zaie.

Azkenik, urtean zehar gure herrian berariaz euskarazko zinemara emandako ekitaldiak estimagarriak dira, hala nola **Lekeitioko Euskal Zinema** edo Iruñeko Udalak Golem Baiona zinemetan antolatzen duen **Euskarazko Zinemaren Zikloa**.

# ZINEMALDIA






DONOSTIAKO NAZIOARTEKO ZINEMALDIA mundu osoan seigarren zaharrena da, Venezia, Cannes, Locarno, Karlsbad eta Berlingoenen atzetik. Hasiera batean Donostiako merkatari talde batek bultzatutako gertaera turistiko hutsa, 1953ko Donostiako Nazioarteko Zinemaren I Astea hirian udaldia sustatzeko helburuaz jaio zen, diktaduraren irudia irekitasunaren aldeko keinuez berritzeko ikuspegi ofizialetik.

1957 arte ez zuen "A" kategoriako (zinemaldi batek izan dezakeen gorena, Film Ekoizleen Nazioarteko Federazioak ematen duena) jaialdi gisa ofizialtasuna lortu. Urte horretan, film onenaren lehenengo Urrezko Maskorra Dino Risi zuzendari italiarrak irabazi zuen, ***La nonna Sabella*** filmarekin.

Berrogeita hamarreko urteetan eta hirurogeiko hamarkadaren hasieran Jaialdiak *glamour* apoteosi betea bizi zuen. Dantzariek Victoria Eugenia antzokiaren atarian osatu ohi zituzten ezpata-arkuen azpitik izar ugari igaro zen, hala nola *Gloria Swanson, Ava Gadner, Federico Fellini, Alfred Hitchcock, Kirk Douglas, Anouk Aimée, Sofia Loren, Eva Marie Saint, Melvin Douglas, Kim Novak, Sidney Poitier, Peter Sellers, Anthony Mann, René Clair, Abel Gance...*

Profesional eta izarren topaleku eta kritika espezializatuaren aurrean film berriak erakusteko gune izateaz haratago, **Donostiako Zinemaldiak** hasieratik ikusleen partaidetza gogotsua agertu du; horregatik deitua izan da "*ikusleen jaialdia*" (izarrena den Canneskoa edo industria gailen deneko Berlingoa ez bezala). Izan ere, Jaialdia testuinguru honetatik kanpo zentsura frankista itogarriak onartzen ez zituen filmez gozatzeko parada paregabea zen, eta horrek zinema ona eta ebakirik gabea ikusteko egarri zen ikusle kopuru itzela erakartzen zuen.

## 60KO HAMARKADATIK 80KO HAMARKADAKO KRISIALDIRA

1961ean *Marlon Brando*k Urrezko Maskorra irabaziko du, ***El rostro impenetrable*** western sofistikatuarekin, 1964an irabazlea *Elia Kazan* izango da, ***América, América*** filmarekin, eta 1969an *Francis Ford Coppola* hasiberriaren ***The Rain People*** nagusituko da.




Hirurogeita hamarreko urteetan Urumea ibaiaren ertzean paseeran ibili ziren, besteak beste, *Joseph Von Sternberg, Fritz Lang, King Vidor, Howard Hawks, Orson Welles, Rouben Mamoulian, Nicholas Ray, Samuel Fuller, Sam Peckimpah, François Truffaut, John Cassavetes, Sidney Lumet, Joseph Losey, Luis Buñuel, Steven Spielberg...*

Diktadorea desagertzean, Jaialdia aldi batez norabide argirik gabe ibiliko da, laurogeita hamarreko urteak arte. Egoera politiko aski ernegatu batek eta jaialdiaren zuzendaritzatik izen ezberdinen joan-etorriek astindua, 1980an lehiakortasuna galduko du, eta susmo gaiztoenak hedatuko dira. Zurrumurruen arabera, zenbait erakunde ofizialetan Jaialdia "zirimiririk gabeko hiri batera" (Palmara omen) eramateko erabakia hartua dago. Alabaina, antolatzaileek ez zuten etsi, eta lehenik **Luis Gasca** buru zutela, eta ondoren **Carlos Gortari**rekin, larrialditik ateratzeko lanean gogor jarraitu zuten.

Akuilu moduan, eta sari ofizialik eman ez zitekeenez, *Nazioarteko Kritikaren Saria* sortu zen, prentsa akreditatuak emango zuena. Kontsolazio sari horiek bost film bikainek irabazi zituzten: *Andrzej Wada*ren ***Dyrygent*** (1980), *Marco Ferreri*ren ***Storie di ordinaria follia*** (1981), *Manuel Gutiérrez Aragón*en ***Demonios en el jardín*** (1982), *Diane Kurys*en ***Coup de foudre*** (1983) eta, beste behin, *Francis Ford Coppola*ren ***Rumble Fish*** (1984).


AVANCE
PROGRAMACIÓN
PROGRAMAZIOAREN
AURRERAPENA
NAZIOARTEKO
IRAILA
ZINEMALDIA
19-28
FESTIVAL
SEPTIEMBRE
INTERNACIONAL
2002
DE CINE
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Laguntzailea / Colaborador
IBERIA
Babesle Ofiziala / Patrocinador Oficial
CANAL+



María Félix.

Audrey Hepburn. 1964



Zulueta, Lola Flores, Cesáreo González, Amparo Rivelles. 1965



Donostiako Zinemaldiaren 1. Ekitaldia.1953. Dionisio P. Villar.



Carmen Sevilla eta Augusto Algueró. 1960





Miguel Angel Asturias, zinemaldiak saritua, Gazteluzen.



Indio Fernández eta Imperio Argentina.





Marisol.



Leslie Caron.1963





Alfred Hitchcock.

*"Un tranvía llamado Deseo". 1956*



*Carmen Polo de Franco. 1954*



*Kirk Douglas. 1958*



*Luis Buñuel eta Carlos Saura. 1977*



*Pedro Almodóvar eta Cecilia Roth. 198*



*Richard Burton, Sofia Loren eta Carlo Ponti 1974*





*Marisol eta Antonio Banderas. 1985*



*Carmen Sevilla. 1956*



*Audrey Hepburn eta Mel Ferrer. 1964*



*Ana Belén. 1978*



*Ana Torrent eta Laura Ponte. 1980*



*Orson Wells eta Fernando Rey*



*Almodóuar eta Alaska 1980.*



*Francesca Bertini 1981*



*Elizabeth Taylor*



*Miguel Angel Asturias*

## Jaialdi eraberritua

1985ean, azkenean, ustekabean eta *Pilar Miró*k zuzendutako *Dirección General de Cinematografía* delakoaren babes sendoari esker, Jaialdiak "A" kategoria berreskuratu zuen, behin-behinean bazen ere. Orduan helduko zen, aholkulari gisa, **Diego Galán** kazetaria, hurrengo urteetako susperraldian funtsezko eragilea.

Zuzendaritza talde berriak emaitza bikainak emanez gaurdaino, aldaketa txiki batzuekin, martxan jarraitu duen Jaialdiaren eskema diseinatu zuen:

**Sekzio ofiziala:** Berriki egindako eta beste inon lehiatu gabeko hogei film inguruk parte hartuko dute, beti ere FIAPFek ezarritako arautegiari atxikitzen bazaizkio. Horien artetik (lehiaketan sartzen ez diren bi ezik), nazioarteko epaimahai batek honako sari hauek emango ditu: *film onenaren* **Urrezko Maskorra**; *zuzendari onenaren* **Zilarrezko Maskorra**; *emakumezko antzezle onenaren* Zilarrezko Maskorra; *gizonezko antzezle onenaren* Zilarrezko Maskorra; *fotografia onenaren* **Epaimahaiaren Saria**; *gidoi onenaren* Epaimahaiaren Saria.

Bestalde, Epaimahaiari **Sari Berezi** bat emateko aukera eskaintzen zaio, haren bereizgarriengatik horrelakorik merezi duen pelikularik balego.

Beste jaialdietan erakutsi ez diren Sekzio Ofizialean edo Zabaltegin sartutako ezein zuzendariren lehen edo bigarren luzemetraiak **Zuzendari Berrien Sarirako** lehiatuko da.

**Zabaltegi:** Ofizialarekiko paralelo doan sekzioa. Garaiko zinema onenaren ikuspegi zabal bat eskaintzen da, hasiberrien lanak, zuzendari ospetsuen filmak edo jada nazioarteko beste jaialdi batzuetan ikusitakoak agertuz.

Aipatu Zuzendari Berrien Sariaz gain, ikusleen bozketaz aurreko jaialdietan nabarmendu diren filmen artean onena hautatzen da: **Ikusleen Perla Saria**. Sekzio Ofizialeko, Zabaltegi eta Made in Spanish-eko lehen eta bigarren filmak 17 eta 21 urte bitarteko 300 gazteek osatutako epaimahai batek ematen duen Gazteen Saria irabazteko hautagai dira halaber.

**Gaiaren araberako atzera begirakoak:** Urtero gai edo une historiko jakin baten inguruko pelikulen ziklo bat programatzen da.

2001ean, "**Atzo gertatua**" ("**Sucedió ayer**") atalak XX. mendeko gertakari handiei gainbegiratu bat eman zien, berrogeita hamar bat film medio.

Eta aurreko urteetan Gerra hotzeko film antikomunistak ("**Amesgaizto gorria**" ["**La pesadilla roja**"]), telebistan hezitako zinemagileen filmak ("**Telebistaren belaunaldia**" ["**La generación de la televisión**"]) edo gerraosteko italiar komediak ("**Gosea, umorea eta fantasia**" ["**Hambre, humor y fantasía**"]) ikusi ziren.

**Egileen zikloak:** Jaialdiak sarritan ikusten errazak ez diren filmak egin dituzten kalitate handiko zuzendari bat edo biren antologia xeheak paratzen ditu. Horrek hainbat klasikoren lanak ezagutzeko aukera eskaini digu, hala nola *William Dieterle, Gregory La Cava, Tod Browning, Mitchell Leisen, John M. Stahl, Frank Borzage* eta *Carol Reed*.

Eta baita oraindik lanean diharduten zuzendarien lanak ere: *John Sayles, Hou Hsiao-hsien, Peter Bogdanovich* edo *Otar Iosseliani*. Zuzendari horietako bakoitzaren monografia xehe bat argitaratzen da.

**Made in Spanish:** 1993an sortutako atala, Espainia eta Latinoamerikako zinema onena sustatzeko euskarri moduan. 2001az geroztik **Made in Spanish** Saria Latinoamerikan egindako luzemetraiei ere ematen zaie.

**Beste batzuk:** Zinemako hamar egun bete horietako eskaintza pantaila erraldoian erakutsitako Anoetako Belodromoko emanaldiez, haurrei zuzendutakoez ("Gurasoak zinera eraman itzazu") edo **Euskal zinemaren egunaz** osatzen da.

Berebat, 1986az geroztik Jaialdiak zazpigarren arteko izar handiei omenaldi zirraragarri bat eskaintzen die, **Donostia Saria** emanez. Saria jasotako lehenak *Gregory Peck* eta *Glenn Ford* izan ziren.

## Euskal zinema Jaialdian

Historikoki, Donostiako Zinemaldia Euskal Herrian egiten den zinemaren agertoki izan da. 1968an, adibidez, *Fernando Larruquert* eta *Nestor Basterretxea*k ***Ama Lur*** aurkeztu zuten, jendez lepo zegoen Astoria zineman eskainitako emanaldi gogoangarri batean.

Areto horretan bertan, 1977an Jaialdiak Euskal Herrian egindako zenbait laburmetrai programatu zituen, geroagoko euskal zinemaren maratoien lehen aurrekari moduan.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran euskal zinemaren industria ernetze bidean zegoen, eta Jaialdia ez da bazter geratuko: 1980an ***El Proceso de Burgos*** filma bahiketa ofizial baten mehatxupean eman zen. 1981ean ***Segoviako ihesa*** pelikula mugarri bat izango da, segidako urteetan jarraipena izango duena: ***Albaniako konkista, Euskadi hors d'etat***, ***Tasio***, eta, batez ere, 1986an Urrezko Maskorra irabaziko duen ***27 ordu***. Laurogeita hamarreko urteetan, euskal zinemak behin-betiko bultzada jasoko du, zazpi urtetan



*Bernardo Bertolucci zuzendaria eta Thandie Newton antzezlea. 1998.*



*Bette Davis, 1989ko Donostia Saria, Xabier Albistur Alkatearen eta Fernando Rey antzezlearen ondoan.*



*John Malkovich. 1993*

*Sari-ematea 46. ekitaldian.*



| • URREZKO MASKORRAK • |
|---|
| 1953 (Zinema espainiarraren saria): *La guerra de Dios*, Rafael Gil |
| 1954 (Zinema espainiarraren saria): *Sierra Maldita*, Antonio del Amo |
| 1955 (Kolore onenaren Zilarrezko Maskorra): *Giorni d'amore*, Giuseppe de Santis (Italia) |
| 1956 Atzerriko film onena, *Il ferroviere*, Pietro Germi (Italia); Espainiako film onena, *Todos somos necesarios*, José Antonio Nieves Conde |
| 1957: *La nonna Sabella*, Dino Risi (Italia) |
| 1958: *Ewa chce spac*, Tadeusz Chmielewski (Polonia) |
| 1959: *The Nun's Story*, Fred Zinnemann (EEBB) |
| 1960: *Romeo, Juliet a Tma*, Jiri Weiss (Txekoslovakia) |
| 1961: *El rostro impenetrabe*, Marlon Brando (EEBB) |
| 1962: *L'isola di Arturo*, Damiano Damiani (Italia) |
| 1963: *Mafioso*, Alberto Lattuada (Italia) |
| 1964: *America, America*, Elia Kazan (EEBB) |
| 1965: ex-aequo, *Mirage*, Edward Dmytryk (EEBB), *Zlatá reneta*, Otakar Vávra (Txekoslovakia) |
| 1966: *I Was Happy Here*, Desmond Davis (Britainia Handia) |
| 1967: *Dos en la carretera*, Stanley Donen (EEBB) |
| 1968: *The Long Day's Dying*, Peter Collison (Britainia Handia) |
| 1969: *The Rain People*, Francis Ford Coppola (EEBB) |
| 1970: *Ondata di calore*, Nelo Risi (Italia) |
| 1971: *Le genou de Claire*, Eric Rohmer (Frantzia) |
| 1972: *The Glass House*, Tom Gries (EEBB) |
| 1973: *El espíritu de la colmena*, Víctor Erice (Espainia) |
| 1974: *Badlands*, Terrence Malick (EEBB) |
| 1975: *Furtivos*, José Luis Borau (Espainia) |
| 1976: *Tabor ujodit v niebo*, Emil Lotianu (SESB) |
| 1977: *Partitura inacabada para piano mecánico*, Nikita Mijalkov (SESB) |
| 1978: *Alambrista*, Rober M. Young (EEBB) |
| 1979: *Ossenij marafon*, Gueorgui Danelia (SESB) |
| 1980 (Nazioarteko kritikaren saria): *Dyrygent*, Andrej Wajda (Polonia) |
| 1981 (Nazioarteko kritikaren saria): *Storie di ordinaria follia*, Marco Ferreri (Italia) |
| 1982 (Nazioarteko kritikaren saria): *Demonios en el jardín*, Manuel Gutiérrez Aragón (Espainia) |
| 1983 (Nazioarteko kritikaren saria): *Coup de foudre*, Diane Kurys (Frantzia) |
| 1984 (Nazioarteko kritikaren saria): *Rumble Fish*, Francis Ford Coppola (EEBB) |
| 1985: *Yesterday*, Radoslaw Piwowarski (Polonia) |
| 1986: *La mitad del cielo*, Manuel Gutiérrez Aragón (Espainia) |
| 1987: *Noce de Galilée*, Michel Khleifi (Palestina-Frantzia-Belgika) |
| 1988: *On the Black Hill*, Andrew Grieve (Britainia Handia) |
| 1989: ex-aequo, *Homer and Eddie*, Andrei Konchalovski (EEBB), *La nación clandestina*, Jorge Sanjinés (Bolivia) |
| 1990: *Las cartas de Alou*, Montxo Armendáriz (Espainia) |
| 1991: *Alas de mariposa*, Juanma Bajo Ulloa (Espainia) |
| 1992: *Un lugar en el mundo*, Adolfo Aristarain (Argentina) |
| 1993: ex-aequo, *Principio y fin*, Arturo Ripstein (Mexiko), *Sara*, Dariush Mehrjui (Iran) |
| 1994: *Días contados*, Imanol Uribe (Espainia) |
| 1995: *Margaret's Museum*, Mort Ransen (Kanada-Britainia Handia) |
| 1996: ex-aequo, *Bwana*, Imanol Uribe, *Trojan Eddie*, Gillies Mackinnon (Irlanda) |
| 1997: *Rien ne va plus*, Claude Chabrol (Frantzia) |
| 1998: *El viento se llevó lo que*, Alejandro Agresti (Argentina-Holanda-Espainia-Frantzia) |
| 1999: *C'est quoi la vie?*, François Dupeyron (Frantzia) |
| 2000: *La perdición de los hombres*, Arturo Ripstein (Mexiko-Espainia) |
| 2001: *Taxi para tres*, Orlando Lübbert (Txile) |

| • DONOSTIA SARIA • |
|---|
| 1986: Gregory Peck |
| 1987: Glenn Ford |
| 1988: Vittorio Gassman |
| 1989: Bette Davis |
| 1990: Claudette Colbert |
| 1991: Anthony Perkins |
| 1992: Lauren Bacall |
| 1993: Robert Mitchum |
| 1994: Lana Turner |
| 1995: Susan Sarandon / Catherine Deneuve |
| 1996: Al Pacino |
| 1997: Michael Douglas / Jeremy Irons / Jeanne Moreau |
| 1998: John Malkovich / Anthony Hopkins |
| 1999: Fernando Fernán-Gómez / Anjelica Huston / Vanessa Redgrave |
| 2000: Michael Caine / Robert de Niro |
| 2001: Paco Rabal |

lau Urrezko Maskor irabaziz: ***Las Cartas de Alou*** (1990), ***Alas de mariposa*** (1991), ***Días contados*** (1994) eta ***Bwana*** (1996).

Azken ekitaldietan, Donostiako Zinemaldiak irailean Gipuzkoako hiriburura hurbiltzen diren bi mila kritikari, ekoizle eta banatzaileek euskal zinemagileen labealdi berriaren –Alex de la Iglesia, Julio Medem, Juanba Berasategi, Juanma Bajo Ulloa, Montxo Armendariz…– lanak ezagutu eta heda ditzaten ahalbidetu du. Hurrengo urteetan hemen egindako zinemak urteko gau izartsuak distira bereziz argituko ahal ditu!


DONOSTIA
SAN SEBASTIAN


ESPAÑA PRESENTA EN SECCION OFICIAL
ESPAÑA PRESENTA

# Jaialdiak eta lehiaketak







ZINEMA ERAKUSTALDIEK helburu bikoitza dute: batetik, filmen hedapen komertziala eta sektorearen eraberritzea ahalbidetzen dute; bestetik, ikusleak sentsibilizatzeko eta, zenbaitetan, gizarte balioak (izadia, tolerantzia, euskara, arte gaztea, eta abar) sustatzeko kultur plataformak dira. Euskal Herrian, eskaintza hain handia da ezen jaialdi, aste eta lehiaketen artetik hautespen bat egin beharrean izan baikara.

## ■ Zinebi, Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Laburmetraien Nazioarteko Jaialdia

Aspaldi martxan jarri zelako, gertakari berdingabea delako eta akaso, halaber, duen aurrekontuagatik, **Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Laburmetraien Nazioarteko Jaialdiak** Euskal Herriko bigarren garrantzitsuena beharko luke, Donostiako Zinemaldiaren atzetik. **Zinebi**, ordea, gorabehera eta zehaztugabetasunen artean itzaliz doa, krisialdi egoera kronikoan, jaialdiari kanpora begira erakargarria suertatuko den nortasun eta *élan* bat emateko zuzendarien ezintasunagatik.

Donostiako Zinemaldiaren hastapen eta bermatze azkarrari begira inbidiak jota, 1959an Bilboko handiki multzo batek, **Pedro de Ybarra** *Instituto Vascongado de Cultura Hispánica*ren presidentea buru zuela, Zinema Dokumental Iberoamerikar, Lusitaniar eta Filipinarraren Nazioarteko Lehiaketa bat (Certamen Internacional de Cine Documental Iberoamericano, Luso y Filipino) sustatu zuen, honako helburuaz: "zinema dokumentalaren indar adierazkorraz herri iberoamerikarren artean maitasuna, begikotasuna eta elkar ulertzea sendotzea, eta herri horien usadioak, artea, musika, folklorea, paisaiak, eta abar ezagutaraztea".




1967an *Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Lehiaketa* (*Certamen Internacional de Cine Documental*) izena hartuko zuen, beranduago izenari laburmetraia erantsiko zitzaiolarik.

Hastapenetan, Jaialdiaren parafernalia Donostiako kidearen kopia hutsa zen, baina kaskarragoa, ezen, Luciano Rincón gogoratuak zioen bezala, hasierako lehiaketa "askotariko jardueren gaineko agerraldi arrunta" besterik ez baitzen. Alabaina, hirurogeiko hamarkadaren amaieran tarteka lan esperimentalak, munduko zuzengabekeriak salatzen zituzten dokumentalak eta estatuaren egoerari buruzko metafora garratzak agertuko dira, Jaialdia askoz interesgarriagoa eta sortzaile berrientzat ezinbesteko topaleku bihurtuz. Garai hartan paradoxa ugari emango da, hala nola 1968an *Ama Lur*, euskal etnia goresten zuen lanak, balio hispanikoak islatzeagatik "Conde de Foxá" Saria jasotzea.

Bilbon orduan hasiberriak ziren zinemagile ezagunak sarituak izan dira, *José Luis Garci* (1975), *Jaime Chávarri* (1971), *Imanol Uribe* (1977), *Alfonso Ungría* (1969), *Montxo Armendariz* (1979), *Julio Medem* (1985) eta *Juanma Bajo Ulloa* (1988 eta 1989) kasu.

Bere bizialdi luzean gorabehera eta egoitza ugari izan ostean, badirudi azkenaldian (2002. urtea) **Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Laburmetraien Nazioarteko Jaialdia** beheraldi berri bat pairatzen ari dela. Ennio Morriconeren presentzia izartsuak edo bere ikonografiaren erotismo

kistchak nahasketa areagotu diote gero eta lausoago ageri den gertakari honi.

### ■ Donostiako Urpeko Nazioarteko Zikloa

1975ean, Donostiako Real Sociedad Futbol taldearen urpeko jardueren ataleko zenbait bazkidek nazioarteko ziklo bati hasiera eman zioten, mundu mailako gertakari bihurtu dena. Aurkeztutako film guztiek (zinema formatuan eta, azkenaldian, baita bideoan ere) urpeko bizitzarekin zerikusia dute, mundu gorde eta ezezaguna, eszenatoki liluragarriez eta izaki zoragarriez populatua. Jardunaldietara mundu osoko adituak eta pertsona famatuak biltzen dira, eta urpeko munduari lotutako jarduera ezberdinak programatzen dira.




### ■ Biarritzeko Nazioarteko Jaialdia, Topalekua

Biarritz jaialdi tradizioa duen hiria da. 1949an jada *Zinema Madarikatuaren Jaialdi* bat burutu zuen, eta handik gutxira, 1957an, industri eta enpresako zinema hedatzeko beste jaialdi bat sortu zen. Esperientzia haiek ez zituzten erroak bota, bai ordea **Jaialdi Iberoamerikarrak**. Lehiaketa izaerakoa, 1979az geroztik espainieraz eta portugesez egindako zinemen plataforma gisa jokatzen du, Biarritz Europako merkatuan sartzeko atea dutelarik.

**Cinéma et cultures de l'Amerique Latine** izenaz, Jaialdiak berrogeita hamar film inguru programatzen du, eta luzemetrai eta laburmetrai onenei, antzezle onenei eta dokumental onenari Soleil d'Or sariak eskaintzen die, ikusleek **Sud-Ouest Saria** ematen duten bitartean. Urtero Latinoamerikako herrialde jakin baten kultura eta tradizioak aurkezten dira.

### ■ Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bilera (EZBB)

1978az geroztik, Lekeitioko jaialdiaren ardatza euskarazko zinema da, Euskal Herriko jaialdietan kasu berdingabea. Baina interes mugatua luke, bere nortasunaren ezaugarri bakarra hizkuntza balitz. **Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bilera**ren erakargarritasun nagusietako bat balio berrien, animazioaren eta munduko zinema ezberdinetako gutxiengo batentzako lanen sustapena da.

Super-8 tradizionala ahaztu gabe, 1986an EZBBak bideoari ateak zabaldu zizkion, etorkizunean zinemagile berrien formatua hori izango zela sinetsita. Bideo dokumentalei, sorkuntzakoei eta argumentuzkoei sariak ematen zaizkie, aldaera profesionalean nahiz amateurrean.

### ■ Gasteizko Euskal Zinemaren Astea

Honakoa asmo handirik gabe jaio eta, zuzendaritza taldearen lan aproposaz eta erakundeen laguntzaz (kasu honetan Vital Kutxa Fundazioa), maila eta partaidetza handiak lortu dituen gertakari baten adibide egokia da.

1985ean, euskal zinemaren egoera gainbegiratzeko asmo xumeaz, *Zinemako Gela Ireki*ko (*Aula Abierta de Cinematografía*) kideek, *Euskal Filmoteka*rekin lankidetzan, bertako sorkuntza-lan zahar (*El mayorazgo de Basterretxe*) eta berrien (*Akelarre*, *Toque de queda*) aste bat programatu zuten. Arrakastaren ondorioz, hurrengo urtean esperientzia errepikatu zen, eta horrela jaialdia bermatu egin zen, otsailaren azken astean. Denboraren joanarekin sortzaile bati monografikoki eskainitako sekzio paralelo bat erantsi da, eta 1997az geroztik sariak ematen dira.

### ■ Gasteizko Ikus-entzunezkoeta BideoJaialdia

Estatuko bideo jaialdirik zaharrena, eta musika-sorkuntzan espezializatutako bakarra, 1985ean jaio zen, Bideo/Musika Erakustaldia (*Muestra de Vídeo/ Música*) izenaz (euskal rockaren susperraldi handiaren garaia zen), eta hurrengo urtean Bideo Musikalaren Jaialdia (*Festival de Vídeo Musical*) bezala bermatu zen.

Bideoklipak eskaintze hutsaz haratago, Gasteizko Jaialdiaren oinarrian bideo musikalarekiko interesa dago, soinu eta irudiaren arteko harremanetan sakontzen duen testuinguru orokorrago baten baitan.

Artelanaren kontzeptua eraldatzen ari den eta artista adierazpide berriez hornitzen ari den iraultza teknologikoaren aldi batean, Jaialdiak bere esparrua zabaltzen asmatu du, eta arte elektronikoei nahiz ikus-entzunezko tresna berrien sorkuntza mailako ahalbideei buruzko topaleku eta hausnarketarako gune bilakatu da, sortzaile berrien sustapena eta ahalik eta ikusle gehienen partaidetza ahaztu gabe.

### ■ Tuterako Zinema Espainiarraren Erakustaldia eta Opera Prima Jaialdia

Berrogeita hamarreko urteez geroztik, Tuterak zinemazale multzo eraginkor bat du, *Muskaria Zineklubaren* inguruan biltzen dena. Multzo hori izan zen laurogeiko hamarkadaren erdialdean *Zinema Espainiarraren Erakustaldia* (*Muestra de Cine Español*) martxan jarri zuena, kalitatezko film bitxiak eskaintzeko asmoaz. Laurogeita hamarreko urteen hasieran, Erakustaldia eten bat izan zuen, 1994an udalak berori berpiztea erabaki zuen arte.

Udaberriko hiru astetan zehar (martxo eta apirilaren artean) zinema espainiar berrienaren bilduma bat programatzen da, antzezle eta zuzendariak erakarriz (hemen izan dira, besteak beste, Eduardo Noriega, Antonio Resines, Alex de la Iglesia eta Santiago Segura).

2001ean lau film aurrez estreinatu ziren, Tuterako ikusle jakitunen artean burututako zundaketa moduan.

Tuterak, bestalde, zinema erakustaldi are mamitsuago bat du: **Opera Prima Jaialdia**, hau ere Muskariako jendeak sortua, 2000ko urrian. Asmoa zuzendari, antzezle eta gidoilarien lehen lanak berreskuratu edo eskaintzea da. Fernando Trueba (Tuterara *Opera Prima* lanarekin etorria) bezalako eskarmentu handiko zuzendariak, eta talentu berriak, hala nola Luis Marías zuzendari bilbotarra (X filmaren egilea) Tuterako jaialdira etorri dira, ikuslego ugari eta gogotsu baten iritziak alderatzera (2001eko ekitaldian 4.000 ikusle










baino gehiago izan zen). 90.000 euro inguruko aurrekontuaz, Jaialdiaren programa hamabi bat filmek osatzen dute, horri atzera begirako atala eta laburmetraien emankizuna gaineratzen zaizkiolarik.

## ■ Le Festival International de Programmes Audiovisuels, FIPA

Telebista berezko lengoaia duen eta modalitate oro (fikzioa, dokumentala, esperimentazioa) barne har dezakeen adierazpide gisa onartua izan dadila: hori izan zen 1987an **Festival International de Programmes Audiovisuels**, zeinak 1996az geroztik egoitza Miarritzen baitu, sortu zutenen asmoa.

Urtearen hasieran, FIPAk ikus-entzunezko sorkuntzan diren joera berrienak ikuskazen ditu, lehiaketako sei atalen bidez: Fikzioa, Serieak eta Telenobelak, Sorkuntzako dokumentalak eta saioak, Erreportaje handiak, Musika eta zuzeneko ikuskizunak, Programa laburrak.

*Ikus-entzunezkoaren memoria* sekzio paraleloak telebista arte bihurtu duten maisuak omentzen ditu (hemen izan dira, besteak beste, Robert Altman, Stephen Frears edo Paco Rabal).

## ■ Donostiako Fantasia eta Beldurrezko Zinemaren Astea

Sarrerak eskuratzeko ilara luzeak; ikusle parte-hartzaile eta apur bat trauskilak; kalitatezko fanzineak eta liburukote potoloak; erakusketak, antzerkia, festak... Fantasia eta Beldurrezko Zinemaren Asteak Jaialdi on baten osagai guztiak ditu, arrakasta handiegiz hiltzea eragozteko horrelako izendapen bati ihes egiten dion arren.

1989ko hastapenak apalak eta mugatuak izan ziren, baina ikusleen erantzunak Aste hau (Santu Guztien eta Defuntu Leialen egunak barne hartzen dituena, beti ere Valladolideko Jaialdia egun horietan burutzen ez bada) urte gutxitan zinema genero horretako joeren agertoki bikain moduan nabarmen dadin eragin du.

Egoitza Alde Zaharreko Principal Antzokian du, non lehiaketako filmak (luzeak eta laburrak) eta ziklo monografiko bat eskaintzen baitira, Príncipe aretoetan atzera begirakoak ematen direlarik. Asteak, adibidez, zinema japoniarra, Universal estudioaren beldurrezko klasikoak eta gore zinemaren aitzindariak helarazi dizkigu.

## ■ Gasteizko Fantasiazko Zinemaren Astea

Gasteizko *Orhum* zineklub unibertsitarioa zuzentzen duen koadrila kementsuari zor diogu **Fantasiazko Zinemaren Astea** (1991an jaioa) antolatzea. Donostiako kidea baino askoz apalagoa, ikusleek antzeko zaletasuna ageri dute, urtero, Gabonak heltzear direla, Gasteizko kanpusean lekututako Injinerutza Tekniko Industrialaren Eskolako aretoa betetzen dutelarik, programa osatzen duten bospasei emankizunak ikusteko.

## ■ Nafarroako ikusentzunezkoen sorkuntza / Festival de creación audiovisual de Navarra

1992an *Muestra de Vídeo* izenaz sortu zen, Nafarroako Jaialdien barruan. Hurrengo urtean bereizi eta bere kasa finkatuko da, bideo lehiaketa, erakusketak eta hitzaldiak antolatuko ditu eta nola edo hala bideo-sorkuntzaren alorrean sartutako pertsonen topaleku bilakatuko da. 1997az geroztik arte multimediako lehiaketa sekzio bat programatzen du, non cd-rom eta Internet medio sortutako lanak aurkezten baitira. Horrenbestez, Jaialdiak sorkuntzara aplikatutako teknologia berriei ateak zabaldu dizkie.

## ■ "Gaztebideo" gazteen bideo jaialdia

Gasteizko **Gaztebideo** 1993an sortu zen, *Indar Gazte Elkartea*ren ekimenez, zinema ikasketak sustatu, elkarte, ikastetxe eta partikularrek egindako lanak hedatu eta belaunaldi berrietan zinemarako zaletasuna bultzatzeko helburuaz. Antolatzaileek aitortzen dutenez, "Gaztebideoren arrakasta bere izaera berezi eta espezializatuari zor zaio; izan ere, berariaz antzezle gazteekin eta zuzendari amateurrek egindako lanak saritzen dituen beste lehiaketarik ez dago". Erakustaldia Vital Kutxaren Kultur Aretoan burutzen da, eta epaimahaia euskal zinemako profesional itzaltsuek osatzen dute.










### ■ Irungo Zinema eta Bideo Gaztearen Lehiaketa

Irudi eta soinuko ikasle talde baten eta ikus-entzunezko sorkuntzan interesa duten pertsonen ekimenez, 1993an zuzendari gazteek egindako bideoen erakustaldi bat eta profesionalen eta hasiberrien arteko harremanak faboratzeko mahai-inguruak programatu ziren Irunen. Emaitza positiboa izan zen, eta hiru ekitaldiren ostean Lehiaketa bihurtu zen.

Urtearen amaiera aldera eta hiru edo lau egunez, lepo betetako Amaia Kultur Zentroan jaialdi ezberdinetan nabarmendu diren bideo eta laburmetraiak eskaintzen dira, lehiaketako 35 mm eta bideo lanez gain. Kategoria bakoitzean, profesionalek osatutako epaimahai batek lan onenak hautatzen ditu, eta ikusleek ere sariak ematen dituzte.

### ■ Bidasoako Herrialdeko Laburmetraien Nazioarteko Lehiaketa

1999az geroztik, *Bertizko Partzuergoak* Bidasoa ibaiaren bi aldeetako herriak biltzen dituen Laburmetraien Lehiaketa hau antolatzen du. Lehiaketa sailean, *Urrezko, Zilarrezko* eta *Brontzezko Iratzeak* banatzen dira, honako kategoria hauetan: film onena, antzezle onena, balio ekologikoekiko obra, balio bakezale eta humanistak defendatzen dituen laburmetraia, eta Euskal Herriko zinemagile baten sorkuntza-lan onena. Egileak Bertizko eskualdean laburmetrai bat filmatzeko konpromisoa hartzen badu Lehen Sariaren diru-kopurua bikoiztea ideia bikaina izan da. Modu horretara, urte batzuetan film fondo bat lortu ahal izango da, eremu horren ikus-entzunezko ondare gisa.




### ■ Nazioarteko Zinema Jaialdia. Zuzendari berriak. Gasteiz

"Zinemazale batzuk elkartzen dira. Beste jaialdi batzuetan egon ostean, eta hango giroarekin liluratuta, beraien hiriak antzeko zerbait merezi duela deliberatuko dute. Asmo burugaberik gabe, Jaialdi berri baten jaiotza bultzatzea erabakiko dute". Modu atsegin horretan deskribatzen du Joseba Fiestras kazetariak Gasteizko Nazioarteko Zinema Jaialdiaren sorrera, lehen ekitaldia 1999an ospatu zuena.

Norabide zehatzago baten bila, eta jaialdi ezberdinen artean beraien eskaintza berezitzeko, antolatzaileek estreinatzeko gertu egon arren beren alde egingo duen banatzailerik aurkitzen ez duten luzemetraiak hautatu dituzte. Horrenbestez, **Gasteizko Nazioarteko Zinema Jaialdiak** "**Zuzendari Berriak**" azpititulu iradokorra hartu zuen.

2001ean, jaialdiak egoitza Guridi aretotik Florida antzokira aldatuko du. Alabaina, Jaialdiak jaio zenetik segurtasun ekonomikoa falta izan du, eta arazo hori konpondu ezean sustatzaileak baliabide apurrekin egiten ari diren lan bikaina zaputz daiteke.


I Festival de Cine
Ópera Prima
Ciudad de Tudela
del 27 de Octubre
al 2 de Noviembre
cine


XI CICLO INTERNACIONAL DEL CINE SUBMARINO
SAN SEBASTIAN—ABRIL 86


CINE SUBMARINO
Donostia - San Sebastián
Mayo 2000
24° CICLO INTERNACIONAL DE
EL DIARIO VASCO
AQUARIUM


CINE SUBMARINO
8º CICLO
INTERNACIONAL
DE
SAN SEBASTIAN
5-14 abril 1983
SUBACUATICAS REAL SOCIEDAD DE FUTBOL

# SARIAK






SARIAK. Ez dago zinema nazional aipagarririk, urtero lan nagusiak, talentu handieneko zuzendariak eta gehien nabarmendutako antzezleak sarituko ez dituenik. Euskal zinema ez da salbuespena. Euskal Herrian edo kanpoan ehunka profesionalek denboraldi bakoitzean ikusleoi filmen labealdi berri bat eskaintzeko lan egiten du. Horien guztien artean gailentzen direnek ikusleen, adituen eta lankideen aintzatespena jasotzen dute.

## ■ "El Mundo" Sariak Euskal Zinemari

**El Mundo del País Vasco** egunkariak lehenengo zinema sariak 1992an eman zituen, eta urte gutxitan sona handia lortu zuten, sariak ematerakoan zorrotz jokatzen dutelako eta zeremoniak egoki antolatzen direlako.

**Hautaketa sistemak** oinarri aski zabala hartzen du. Izan ere, Euskadin urtean zehar egindako lanak nahiz euskal zinemagile nagusiek kanpoaldean burututakoak kontuan hartzen dira. Hau da, honakoan "euskal zinema" kontzeptuak *non* eta *nork* galderi erantzuten die. Kasu bietan, gainera, eskuzabaltasun handiz. Euskal Herriko komunikabideetako 40 adituk hautagai zerrenda luzeen artetik botoa ematen dute (2002an bozketa ikusleetara hedatu da, Internet medio).

**Honako sari hauek ematen dira**: *Film onena, Zuzendari onena, Gizonezko antzezle onena, Emakumezko antzezle onena, Bigarren mailako antzezpen onena, Laburmetrai onena* eta *Opera prima onena*. Seigarren ekitaldira arte zuzendaritza artistikoa, fotografia, musika eta jantziak ere saritu ohi ziren.

**Sari-emate jaia** udaberrian ospatzen da, Bilboko Arriaga Antzokian. *Glamour* distirarik ez da falta, antzezle, zuzendari eta gainerako pertsonaia ezagunen eskutik, eta Euskal Herriko kultur, politika eta gizarte alorreko ordezkari ugari izaten da beti. Zeremonia musika emankizunek, umoristek eta magoek girotzen




dute, kartazal itxien errituaren eta Juan Etxegoienek diseinatutako estatuatxoen desfilearen artean ikuskizuna eskainiz.

Lehen ekitaldian, urteko film onenaren saria *El rey pasmado* lanari eman zioten, eta zuzendari onenaren saria **Julio Medem**ek irabazi zuen, *Vacas* pelikulagatik. Donostiarra El Mundo Sarietako klasikoa bilakatu da, Arriagako gau-ekitaldietan bere film bakoitzak sari bat edo bat baino gehiago eskuratu baitu: *film onena* eta *zuzendari onena* ***La ardilla roja*** (1993) eta ***Tierra*** (1997) filmekin, *zuzendari onena* ***Los amantes del Círculo Polar*** (1999) lanarekin, eta *ikusleen film onenaren saria* ***Lucía y el sexo***rekin.

Apaletan sari ugari pilatu duen beste zinemagile bat **Alex de la Iglesia** da: 1995ean ***El día de la bestia*** lanak film onenaren saria irabazi zuen, eta 2001ean ***La comunidad*** hirukotearen irabazle suertatu zen: filma, zuzendaria eta gidoia, gehi *Ane Gabarain*i emandako antzezle onenaren sari txikia.

Madrilen bizi diren arren, **Querejetarrak** –Elías eta Gracia– bertakotzat hartuak dira hemen. Horrek azaltzen du **Fernando León de Aranoa**ren *Barrio* lanak 1999ko film onenaren saria irabazi izana.

***Cuando vuelvas a mi lado*** lanarekin ere sari bikoitza eskuratu dute, film eta gidoi onenari emanak, eta Eliasek gidoi onenaren saria eskuratu zuen ***El último viaje de Robert Rylands*** filmaz.

| • GOYA SARIAK • | |
|---|---|
| Film Onena | *Días contados* (1994) |
| Zuzendari Onena | Imanol Uribe, *Días contados* (1994) |
| | Alex de la Iglesia, *El día de la bestia* (1995) |
| Antzezle Onena | Alfredo Landa, *El bosque animado* (1987) |
| Zuzendari Berri Onena | Ana Díez, *Ander eta Yul* (1989) |
| | Juanma Bajo Ulloa, *Alas de mariposa* (1991) |
| | Julio Medem, *Vacas* (1992) |
| Antzezle Berri Onena | Saturnino García, *Justino, un asesino de la tercera edad* (1994) |
| | Andoni Erbulu, *Secretos del corazón* (1997) |
| Gidoi original Onena | Montxo Armendariz, *Las carta de Alou* (1990) |
| | Juanma Bajo Ulloa, *Alas de mariposa* (1991) |
| Moldatutako gidoi Onena | Pedro Olea, *El maestro de esgrima* (1992) |
| | Imanol Uribe, *Días contados* (1994) |
| | Montxo Armendariz, *Historias del Kronen* (1995) |
| | Luis Marías, *Mensaka* (1998) |
| Fotografia Onena | Javier Agirresarobe, *Beltenebros* (1991) |
| | Javier Agirresarobe, *Antártida* (1995) |
| | Javier Agirresarobe, *El perro del hortelano* (1996) |
| | Juan A. Ruiz Anchía, *Mararía* (1998) |
| | Javier Agirresarobe, *Los otros* (2001) |
| Musika Original Onena | Carmelo Bernaola, *Pasodoble* (1988) |
| | Alberto Iglesias, *La ardilla roja* (1993) |
| | Alberto Iglesias, *Tierra* (1996) |
| | Alberto Iglesias, *Los amantes del Círculo Polar* (1998) |
| | Alberto Iglesias, *Todo sobre mi madre* (1999) |
| | Alberto Iglesias, *Lucía y el sexo* (2001) |
| Zuzendaritza Artistiko Onena | José Luis Arrizabalaga eta Biaffra, *El día de la bestia* (1995) |
| Fikziozko Laburmetrai Onena | Juanma Bajo Ulloa, *El reino de Víctor* (1989) |
| Animazioko Film Onena | *Ipar haizearen itzulera* (1994) |
| | *Megasónicos* (1997) |
| | *¡Qué vecinos tan animales!* (1998) |
| | *Karramarro Uhartea* (2000) |
| Animazioko Laburmetrai Onena | Begoña Vica |

Azkenik, **Montxo Armendariz**en ***Secretos del corazón*** 1998ko euskal pelikula arrakastatsuena izan zen, bost sari irabaziz eta *Airbag* eta *Perdita Durango* bezalako lanak estaliz. Zuzendari hori bera, gainera, X. ekitaldiko palmaresean nagusi gertatu zen, 2002an, ***Silencio roto*** filmarekin (pelikula, gidoia, zuzendaria eta bigarren mailako antzezle onena **Joseba Apaolazari**).

## ■ Euskal Aktoreen Batasunaren Sariak

Euskal Herri osoko antzezpenaren profesionalak biltzen dituen **Euskal Aktoreen Batasunak** (**Unión de Actores Vascos**) lehen ekitaldiak 1991 eta 1993 urteetan antolatu zituen, Antzerkiaren Mundu mailako Egunarekin batera (martxoan).

Gertakariari bizitasuna ematearren, 1995ean programak




lankideen iritziz antzerkian (**Aitor Mazo**), zineman (**Karra Elejalde**) eta telebistan (**Kontxu Odriozola**) gehien nabarmendu ziren antzezleak saritzeari ekin zion.

Orduan sortu zen, halaber, Besarkada Saria, zeinarekin ibilbide bereziekiko antzezleei omenaldia eskaintzen baitzaie: lehen saritua **Txema Blasco** beteranoa izan zen.

Aurrerago **Errebelazio Saria** gehitu zen. Ordutik hona, Euskal Aktoreen Batasunaren sariak urtero ematen dira, ekainean eta egoitza ezberdinetan.

Zinemari dagokionez, hemen mintzagai dugun auzia hori baita, lankideen omenaldia jaso duten antzezleak honakoak dira: **Alex Angulo** eta **Marivi Bilbao** (1996), **Ramon Barea** (1998), **Ane Gabarain** (1999), **Ramon Ibarra** eta **Elena Irureta** (2000), **Karra Elejalde** eta **Pilar Rodríguez** (2001).

# ZINEKLUBAK







ZINEMAZALETASUN PETOENA zinekluben jardueran aurki daiteke. Hirurogeiko hamarkadako *boom*ari (garai hartan elkarte, parroki eta eskolako zineklubetan euskal zinemako profesionalen lehen belaunaldia zaildu zen) laurogeiko urteetako krisia jarraitu zitzaion, bideoaren eta telebista kateen gehiegizko hazkundeak eragina. Gaur egun, udal eta aldundien laguntzaz zineklubak berpizten eta pertsona ororentzat eskuragarria den kalitatezko zinema eskaintza moduan bermatzen ari dira.

## ■ Gipuzkoa

### ● Legazpi (Legazpi)

**Sorrera urtea**: 1958

**Jatorria**: Lasalle Ikastetxea.

**Emanaldi aretoa**: Hasiera batean egoitza Buen Pastor Zinema izan zuen, eta geroago Ibaiondo Zinema. 1977 eta 1985 bitartean emanaldiak Eslesa Zineman burutuko dira. 1985 eta 1991 bitartean ez zen emanaldirik eskaini, elkarteak lokalik ez zuen eta. Azken urte horretan Latxartegi Aretoa, egungo egoitza, zabalduko da.

**Emanaldiak**: Ostegun edo ostiraletan, hamabost egunetik behin, urria eta maiatza bitartean.

**Finantzaketa**: Legazpiko Udala, Gipuzkoako Aldundia. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Eguneko filmari buruzko iruzkin laburra eskaintzen duen diptiko bat ematen da.

### ● Oñatiko Zine-Kluba (Oñati)

**Sorrera urtea**: 1968-1969

**Jatorria**: Oñatz Kluba

**Emanaldi aretoa**: Aita Agustindarren areto nagusian hasi ziren. Garai batean Institutuko areto nagusian 16 mm-ko filmak ere ematen zituzten. Laurogeiko hamarkadaren erdialdetik, Oñatiko Zine-Klubak Santa Ana Antzokian programatzen ditu filmak, Kultur Etxe berriaren eraikuntza amaitzean bertara aldatzea aurreikusita badago ere.

**Emanaldiak**: Ostegunetan, urria eta maiatza bitartean (25-30 film denboraldiko). Ahal dela, hiru hileko programak gaien arabera moldatzen dira. Zenbait film kultur jardueren (Emakumearen eguna, izadiaren astea, Gay Harrotasuna…) osagarri moduan eskaintzen dira.

**Finantzaketa**: Udala, Gipuzkoako Aldundia. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Hiruhileko filmen zerrenda bat argitaratzen da, film bakoitzaren fitxa teknikoa eta iruzkin kritiko bat jasotzen dituen orrialdetxo batez gain

**Arduradunak**: Anton Txintxurreta eta Anton Azpiazu




### ● Kresala (Donostia)

**Sorrera urtea**: 1972

**Jatorria**: Kresala kultur elkartea, 1968an sortua.

**Emanaldi aretoa**: Hasiera batean, Aita Agustindarren elizako aretoa, Amara Zaharrean (35 mm-ko proiektagailua). 1974az geroztik, Donostiako Udal Aurrezki Kutxak Arrasate kaleko bere Kultur Aretoa uzten du.

**Emanaldiak**: Astelehenetan, 19.30etan. Urtean 28 emanaldi inguru (hilean hiru, urria eta ekaina bitartean). Programa ez dago zikloka antolaturik; laburmetraiarik ez da ematen.

**Finantzaketa**: Kutxa Gipuzkoa eta Donostiako Udala. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Hiru hilean behin filmak aurkezteko testuak jasotzen dituen koaderno bat argitaratzen du (zuri-beltzeko fotokopiak).

**Arduraduna**: Luis Bergua.

## ● EGO IBAR (Eibar)

**Sorrera urtea**: 1972

**Jatorria**: Eibarko Unibertsitate Laborala

**Emanaldi aretoa**: Unibertsitate Laboraleko areto nagusia.

**Emanaldiak**: Ostegunero (jaiegun eta oporraldietan ezik), urria eta maiatza bitartean. 20-22 emanaldi inguru denboraldiko.

**Finantzaketa**: Udala, Gipuzkoako Aldundia. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Film bakoitzeko orri bat argitaratzen dute.

## ● ONGARRI (Elgoibar)

**Sorrera urtea**: 1975

**Jatorria**: Zaletu talde batek sustatutako ekimena da.

**Emanaldi aretoa**: Herriko Antzokia

**Emanaldiak**: Urritik ekainera astean bitan (asteartea eta osteguna) film bat ematen da. Programazioa zikloka moldatzen da, ahal izanez gero. Batzuetan laburmetraiak eskaintzen dira.

**Finantzaketa**: Elgoibarko Udala. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Diptiko bat ziklo bakoitzeko.

## ● AZPEITIA (Azpeitia)

**Sorrera urtea**: 1976

**Jatorria**: Herriko zinemazaleek sortu zuten.

**Emanaldi aretoa**: Oreasu aretoa.

**Emanaldiak**: Hamabostean behin, ostiraletan, 21.30etan, urria eta martxoa bitartean. Ahal izanez gero, azpitituluekiko jatorrizko bertsioan. Laburmetraiak ere ematen dira.

**Finantzaketa**: Zineklub honek berrogeita hamar bazkide inguru ditu. Gainera, Udalaren eta Aldundiaren laguntzak jasotzen ditu. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: 2 edo 4 film eman eta gero orri batzuk argitaratzen dituzte, euskaraz.

**Arduraduna**: Pepe Azpiazu, Gipuzkoako Zine-Kluben Elkarteko koordinatzailea ere badena.

**Bestelakoak**: 1977 eta 1991 bitartean, Azpeitiko zineklubaren bazkideek super-8an hamabost laburmetrai eta 16 mm-tan metraje erdiko film bat egin zituzten, denak ere euskaraz. Euskal Filmotekak film horien kopiak baditu.

## ● IRUDI (Tolosa)

**Sorrera urtea**: 1977

**Jatorria**: Urte horretan, zinemazale talde batek Tolosa Zinekluba (oraindik ere izen horrekin da ezaguna, ofiziala Irudi den arren) sortu zuen.







**Emanaldi aretoa**: Leidor Zinema, Iparragirre Aretora aldatu zireneko aldi labur batean ezik.

**Emanaldiak**: Ostegunetan, urria eta maiatza bitartean. Denboraldiko 22 film inguru. Posible de orotan, azpitituluekiko jatorrizko bertsioan. Laburmetraiak ematen dira.

**Finantzaketa**: Tolosako Udala, Gipuzkoako Aldundia. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Hilean behin informazio orri bat.

## ● MUTRIKUKO ZINEFORUM TALDEA (Mutriku)

**Sorrera urtea**: 1980 (hirurogeiko hamarkadaz geroztik herri arrantzale honetan zineklub bat martxan egon bazen ere).

**Jatorria**: Adiskide talde batek sortu zuen.

**Emanaldi aretoa**: Ederrena Zinema (eraikin honen eraispena iragarrita dagoelarik, eta Zabiel Kultur Etxera aldatu beharrean izango).

**Emanaldiak**: Hilean bi, urtarrila eta apirila bitartean, eta udaran beste lau, atari zabalean. Guztira, denboraldiko 10 edo 12 film inguru.

**Finantzaketa**: Mutrikuko Udala eta Gipuzkoako Aldundia. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Lauhilekoaren programazioa jasotzen duen aldizkari txiki bat.

## ● MATADEIXE-ZINEMATOGRAM (Azkoitia)

**Sorrera urtea**: 1984

**Jatorria**: Hasieran Azkoitiko Gaztetxeak burutzen zuen jarduera zen; gaur egungo Matadeixe-Zinematogram herriko bi zineklubak elkartzearen emaitza da.

**Emanaldi aretoa**: 35 mm-ko emanaldiak Baztartxo Aretoan burutzen dira, eta 16 mm-koak Matadeixen, garai bateko udal hiltegian.

**Emanaldiak**: Urritik ekainera, bi modalitatetan: hilean ostiral batean kanal komertzialetan kontratatutako kalitatezko filmak ematen dira, 35 mm-tan. Eta igandeetan, hamabostean behin, filmotekako pelikulak (berreskuratutako klasikoak) ematen dira, 16 mm-tan.

**Finantzaketa**: Azkoitiko Udala, Gipuzkoako Aldundia. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Film bakoitzeko orri bat argitaratzen dute.

## ● OKENDO (Lasarte-Oria)

**Sorrera urtea**: 1986.

**Jatorria**: Zineklub hau bost adiskidek beren kasa sortu zuten, eta geroago Udalak laguntza eman zien.

**Emanaldi aretoa**: Garai bateko Teodoso Zinema, gaur egungo Manuel Lekuona Kultur Etxea.

**Emanaldiak**: Ostegunetan 22etan, iraila eta ekaina bitartean. Udaran frontoian emanaldiak (2 edo 3) programatzen dira.

**Finantzaketa**: Udala. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Argitaratzeari utzi zitzaion. Udalak urtero programatzaileen dokumentaziorako kopuru bat ematen die.

**Arduraduna**: José Carlos Carrasco.

## ● NOSFERATU (Donostia)

**Sorrera urtea**: 1989.

**Jatorria**: Donostia Kultura (Udalaren kultur patronatua).

**Emanaldi aretoa**: Principal Antzokia.

**Emanaldiak**: Asteazkenetan. Hiru hileko hiru ziklo (urria-ekaina). Euskarazko emanaldiak eskaintzen dira. Ez da laburmetraiarik ematen.

**Finantzaketa**: Donostiako Udala. Valentzia eta Galiziako

Filmotekekin hitzarmenak. Aldizkariko publizitatea: Seur. Txartelekin bildutako dirua eta bazkideak.

**Argitalpenak**: Nosferatu Aldizkaria (koloretan).

**Arduraduna**: Jose Luis Rebordinos.

### ● Goieniz (Beasain)

**Sorrera urtea**: 1995. Laurogeiko hamarkadan aldameneko Ordizia herrian martxan egon zen Goierriko Zineklubaren oinordekoa.

**Jatorria**: Zinemazaleen topaketa, horietako batzuk desagertutako Goierriko Zineklubaren bazkideak.

**Emanaldi aretoa**: Usurbe Zinema (350 eserleku).

**Emanaldiak**: Ostegunetan hamabostean behin. Lehenengo bi hiruhilekotan (urria-martxoa) zortzi film ematen dira. Osagarri moduan, apirila eta maiatza bitartean sei klasiko eskaintzen dira.

**Finantzaketa**: Beasaingo Udala eta Gipuzkoako Aldundia. Abonuak eta txartelekin bildutako dirua (170 abonatu inguru). Inprimakiak aurrezki erakundeek ordaintzen dituzte.

**Argitalpenak**: Hiruhilekoaren programazioa (zuri-beltzean).

### ● Ostarrena (Zumaia)

**Sorrera urtea**: 1995. Berrogeita hamarreko urteetan jada zineklub bat bazen Zumaian, eta hirurogei eta laurogeiko hamarkaden bitartean beste bat martxan izan zen.

**Jatorria**: Zinemazaleen talde bat.

**Emanaldi aretoa**: Zumaiako Aita Mari Zinema.

**Emanaldiak**: Ostegunetan 22.15etan, hamabostean behin, urria eta ekaina bitartean.

**Finantzaketa**: Udala eta Gipuzkoako Aldundia. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: 2002an esku-programa berri baten 1. alea argitaratu da (zuri-beltzean).

### ● Cinema Paradiso (Irún)

**Sorrera urtea**: 1995

**Jatorria**: Cinema Paradiso Elkartea, Irungo Udaleko Gazte Departamentuaren laguntzaz.

**Emanaldi aretoa**: Amaia Kultur Zentroa.

**Emanaldiak**: Bi ostiralean behin, urtarrila eta apirila bitartean. Horrez gain, uztail eta abuztuko asteazkenetan Santiago kaleko frontoian emanaldiak antolatzen dituzte.

**Finantzaketa**: Udala eta Gipuzkoako Aldundia. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Kultur Zentroak hileko jardueren agenda bat argitaratzen du. Horrez gain, film bakoitzeko orri bat prestatzen da.







### ● Pabela (Pasaia)

**Sorrera urtea**: 1999

**Jatorria**: Pasaiako zinemazale talde baten ekimenez sortu zen.

**Emanaldi aretoa**: Pasai San Pedroko Udal Aretoa.

**Emanaldiak**: Igandeetan arratsaldeko 6etan, urria eta ekaina bitartean. Emanaldi guztiak bideo bidez egiten dira.

**Finantzaketa**: Udala. Sarrera doakoa da.

**Argitalpenak**: Esku-programa bat hilean behin.

### ● Ernest Lluch Kultur Zentroa (Donostia)

**Sorrera urtea**: 2001.

**Jatorria**: Ares Elkartea.

**Emanaldi aretoa**: Kultur Etxea, Amara (120 eserleku).

**Emanaldiak**: Hilean hiru edo lau asteartetan, urria eta maiatza. Gaiaren araberako zikloak. DVD formatua.

**Finantzaketa**: Donostiako Udala. Sarrera doakoa da.

**Argitalpenak**: Kultur Etxeko jarduera guztiak, zinema programazioa barne, jasotzen dituen diptiko edo triptiko bat argitaratzen da.

## ■ Bizkaia

### ● Fas, Zinema eta Irudiaren Foroa (Bilbao)

**Sorrera urtea**: 1953.

**Jatorria**: San Bizente Parrokia.

**Emanaldi aretoa**: San Bizente Aretoa; 1995ean Indautxu plazako El Carmen Aretora (475 eserleku) aldatuko da.

**Emanaldiak**: Astearteetan 19.45etan, urria eta ekaina bitartean. Denboraldiko 33 emanaldi inguru eskaintzen ditu.

**Finantzaketa**: Bazkideen kuotak (200 eta 300 bazkide bitartean). Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, zeinak hiru hilez behingo aldizkaria babesten baitu.

**Argitalpenak**: Hiru hilez behingo aldizkaria. Horrez gain, Zineklubak edonork erabili dezakeen liburutegi bat du, Euskal Herri osoan zineman espezializatutako bildumarik osoena omen dena.

**Bestelakoak**: 2000ko otsailean, *La noche + corta* de Canal + programak Fas laburmetraien eta zinema ez hain komertzialaren hedapenean Estatuko lau entitate garrantzitsuenen artean sailkatu zuen.

### ● Getxo (Getxo)

**Sorrera urtea**: 1978

**Jatorria**: Udaleko kultur aretoa.

**Emanaldi aretoa**: Kultur aretoa.

**Emanaldiak**: Asteazkenetan, Algortan (Getxo Antzokia) eta ostegunetan Areetan (Gran Cinema). Ostiraletan, filmak azpitituluekiko jatorrizko bertsioan. Cinema Paradison (Getxo).

**Finantzaketa**: Udala. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Informazio orria.

### ● Mudo-Drogot (Ermua)

**Sorrera urtea**: 1980.

**Jatorria**: Zinemazaleen elkartea.

**Emanaldi aretoa**: Hasiera batean Udal Ateneoaren Guria Zinema. Laurogeita hamarreko urteen erdialdetik Ermua Zineman.

**Emanaldiak**: Ostegunetan. Denboraldiko hamahiru film. (urtarrila, otsaila, apirila, urria eta azaroa). Gaiaren, nazionalitatearen edo zuzendarien araberako bost ziklo (hiruna filmeko hiru ziklo eta binako beste bi).

**Finantzaketa**: Udala.

### ● Bellas Artes Museoaren Zinemateka (Bilbao)

**Sorrera urtea**: 1982 (1999ko ekainaren eta 2001eko abenduaren artean etenaldia izan zuen).

**Jatorria**: Zinemateka Bellas Artes Museoarena da.

**Emanaldi aretoa**: Bellas Artes Museoaren emanaldi aretoa (200 eserleku).




**Emanaldiak**: Urte osoan zehar ostegun, ostiral eta larunbatetan (emanaldiak 18.00 eta 20.00etan). Zikloetan antolatutako programazioa. Beti azpitituluekiko jatorrizko bertsioan.

**Finantzaketa**: Bellas Artes Museoa. Metrobilbaoren babesa. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Aldizkari bat film ziklo bakoitzeko.

**Arduraduna**: Jose Julian Bakedano.

### ● Arriola (Elorrio)

**Sorrera urtea**: 1990.

**Jatorria**: Arriola kultur elkartea.

**Emanaldi aretoa**: Arriola Aretoa, Udal jabetzakoa.

**Emanaldiak**: Hilean bi ostegunetan (zinemazale petoentzako programazioa) eta gainerako asteetan larunbat eta igandeetan (programazio irekiagoa). Hilean behin, asteburuan, laburmetrai bat eskaintzen da.

**Finantzaketa**: Elorrioko Udala. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Kultur Etxearen jarduerak jasotzen dituen programa orokor bat argitaratzen dute, eta, horrekin batera, separata bat zinema programazioarekin.

### ● Cine Socialclub (Basauri)

**Sorrera urtea**: 1993. Laurogeiko hamarkadan, Basaurin Jaiki Zinekluba izan zen.

**Jatorria**: Udaleko Kultur Etxea.

**Emanaldi aretoa**: Teatro Social.

**Emanaldiak**: Ostegunetan, bi emanaldi. Zikloka.

**Finantzaketa**: Udala.

**Argitalpenak**: Film bakoitzerako informazio orri bat.

### ● Zornotza (Zornotza)

**Sorrera urtea**: 1994 (laurogeiko hamarkadan programazio iraunkorra izan zuen zineklub baten aurrekariaz).

**Jatorria**: Kultura Zinegotzigoa, Zornotzako Udala.

**Emanaldi aretoa**: Zornotza aretoa (363 eserleku).

**Emanaldiak**: Astearteetan 20.15etan. Urrian, azaroan, urtarrilean, otsailean eta martxoan. Launa filmeko bost ziklo. Hilean laburmetrai bat.

**Finantzaketa**: Udala. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Zornotza aretoaren programazio osoa biltzen duen liburuxka.

### ● Serantes (Santurtzi)

**Sorrera urtea**: 1999

**Jatorria**: Udaleko Kultura saila, Santurtziko Udala.

**Emanaldi aretoa**: Serantes Kultur Aretoa (3 areto). Areto txikietan.

**Emanaldiak**: Hamabostean behin, urte osoan zehar. Iraila eta maiatza bitartean bikoiztutako filmak bakarrik.

**Finantzaketa**: Udala. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Informazio orria.

**Arduraduna**: Felipe Martínez Unanue.

## ■ Araba

### ● Orhum Unibertsitateko Zinekluba (Vitoria-Gasteiz)

**Sorrera urtea**: 1992.

**Jatorria**: Orhum kultur elkartea, Gasteizko kanpusaren EHUko errektoreordetzaren mendekoa.

**Emanaldi aretoa**: Injinerutza Tekniko Industrialaren Eskola.

**Emanaldiak**: Astelehen arratsaldeetan. Sei ziklo eskola-hilabeteetan.

**Finantzaketa**: EHU, Arabako Aldundia. Sarrera doakoa da.

**Bestelakoak**: Orhum zineklubak Gasteizko Fantasiazko Zinemaren Astea antolatzen du.

### ● Amar el Cine (Gasteiz)

**Sorrera urtea**: 2001.

**Jatorria**: Montehermoso Kultur Zentroa.

**Emanaldi aretoa**: Florida Zinemak.

**Emanaldiak**: Ostegunetan 20.00etan (otsailetik ekainera eta irailetik abendura). Guztira, 26 film klasiko inguru azpitituluekiko jatorrizko bertsioan. Bitxikeria moduan, emanaldi bakoitzera kritikari edo aditu bat hurbiltzen da, filmari buruz jarduteko eta eztabaida moderatzeko.

**Finantzaketa**: Gasteizko Udala. Florida zinemen jabe den enpresa, Vitoriana de Espectáculos (Vesa).

**Argitalpenak**: Ziklo bakoitzeko esku-programa bat argitaratzen dute.

## ■ Nafarroa

### ● Muskaria (Tutera)

**Sorrera urtea**: 1954.

**Jatorria**: Junta Diocesana de Acción Católica. 70eko hamarkadaz geroztik, Muskaria Elkarte independentea da.

**Emanaldi aretoa**: Hasieran zinema komertzialetan. 1966an Dekanotzaren Jauregira (Palacio Decanal) aldatu ziren (300 eserleku). 1989az geroztik egoitza Versalles zinema du (500 eserleku).

**Emanaldiak**: Hilabete bakoitzeko azken hiru ostegunetan, urria eta maiatza bitartean. Azpitituluekiko jatorrizko bertsioan.

**Finantzaketa**: Bazkideen kuotak (65). Udala. Txartelekin bildutako dirua.

**Argitalpenak**: Hiru hilez behingo aldizkaria.

**Bestelakoak**: Muskaria Tuterako Zinema Espainiarreko Erakustaldiaren eta Tuterako Opera Prima Jaialdiaren antolatzailea da (1985 eta 2000az geroztik, hurrenez hurren).

### ● Filmogolem (Iruña)

**Sorrera urtea**: 1996.

**Jatorria**: Golem enpresa.

**Emanaldi aretoa**: Golem Yamaguchi aretoak.

**Emanaldiak**: Ostegunetan 22.30etan. Urria eta ekaina bitartean.

**Finantzaketa**: Enpresa pribatua.

**Argitalpenak**: Golem aldizkaria.

ZORNOTZA ARETOA

# ZINEMA ARETOAK







Donostia. *"Astoria" Multizinemak.*

*aiona. Udala eta Antzokia.*

ZINEMAK Besaulki bigunetan patxadan eserita, begien aurrean pantaila zuri bat dagoela. Argiak itzali eta bobina biraka hasten da. Lehen irudiekin, irudimena kulunkan jarri eta egunerokotasunetik haratago garamatzan bidaia bati ekiten diogu. Zinemak fikzioaren tenpluak dira, han bizitzak beste itxura bat hartzen du. Zinemen historia hasieran ferianteen kontua izan zen eta egun multinazional handien eskuetan dagoen ikuskizun baten historia ere bada.

## ■ BAIONA ETA MIARRITZEKO ZINEMAK

Euskal Herri osoko lehenengo zinema emanaldia 1896ko abuztuaren 1ean gertatu zen, Miarritzen. Lumière etxeak Côte Basque aldean udaldia igarotzera etorritako *mondaine* jendea bilduta zegoela profitatu zuen zazpi hilabete baino ez zituen bere asmakari harrigarria aurkezteko.

Geroago, zinematografoa *aux foires* aldeko langileen artean hedatuko zen, udaberriko ferien bidez, zeintzuetan mende hasieratik "*Paris-Electric-Modern*" edo "*Perfect-Cinéma*" moduko areto ibiltariak ezarriko baitziren.

### BAIONA

Mugitzen ziren irudiekin gozatzeko egarri ziren ikusleen eskaria hazten ari zelarik, 1914an Baionan lehenengo areto iraunkorra zabaldu zen, baina lehen "zinema-antzokiak" ez ziren Gerra Handia amaitu arte jasoko: **Majestic** eta batez ere **Feria** izenekoak, biak Baionan. Azken hori, Michel Cenoz ardo eta likoreen merkatariak sustatua –jeneroa aretoaren sarreran gordetzen zuen eta, horrenbestez, emanaldiak ardo eta ron lurrinez gozatuta eskaintzen ziren–, hainbat belaunaldiren bizitzan *cinoche* historikoa izan zen. 1977ko azaroko gau batean, ordea, suak Feria hartu zuen, eta hau betirako desagertu zen, Baionako zinema bizitzaren 55 urteko oroitzapenak berekin eramanez.




*Baiona. "Marine" Multizinemak.*



*Miarritze. Lapurdiko Kasinoa.*

Haren ordez (Paulmy kaleko 1ean), gaur egun **Cinéma CGR Vauban** dago, sei aretorekin eskualdeko zinemarik handiena.

Baionan, Vaubanen osagarri **Cinéma de l'Atalante** ere bada, Saint Espriteko kultur erakargunea (**Utopia** arte eta saiakerako aretoaren eta haren aurretiko **Vox** izenekoaren oinordekoa).

Bidean Baionako zinema ospetsu ugari geratu da:: **Cinema Palace**, **Royal**, **Saint-Esprit**, **La Courtine**, **Colisée**, **Jeanne d'Arc**, **Le Vigilant** edo **Marine**.

### Miarritze

Miarritzeko zinemek ez dute zorte hobeagoa izan. Kostaldeko hiriaren ikuskizunen sailean **Royal** zinemako –berrogeiko hamarkadan sortu eta 2001ean bikain eraberritua– bi areto baino ez dira ageri. Izan ere, **El Castillo** (**Lutetia**, **Ciné Mondain**), **Paris**, **Colisée** edo **Pax** bezalako lokal apartak desagertuz joan dira.

Aurreko lerroetan aipatu izenek irakurle ez hain gazteen oroimenera hirurogeita hamarreko urteetan mugaren alde honetan debekatuta zeuden filmak –*Emmanuelle*, *Azken tangoa Parisen*, *Exortzista, Viridiana, Sacco & Vanzetti*...– ikusteko egindako txango ospetsuak ekarriko dituzte seguruenik. Izan ere, diktadura garaian Iparraldeko zinemak (eta liburu-dendak, jaialdiak eta ospakizunak) aldian-aldian askatasun egarria asetzera joandako milaka euskaldunen egiazko oasiak ziren.

## ■ Bilboko zinemak

Bilbo oso hiri pelikula-zalea izan da, txera eta begirunez esanda. Pelikula-zalea bere geografia eta urbanismoa fikziorako aproposak direlako. Pelikula-zalea zinemagile, antzezle eta zinemako bestelako profesional bikainen harrobia izan delako eta delako. Eta, azkenik, pelikula-zalea bertakoek beti maite izan dutelako besaulki batean eserita begiekin, irudimenarekin eta izpirituarekin irudiak irenstea.

Segidan gonbite hori luzatzen duten lokal nagusiei gainbegiratu bat emango diegu.

### Arriaga Antzokia (1890)

**Arriaga** Bilboko lehen zinema izan zen. Joaquín Rucoba arkitektoak eraiki zuen, 1890ean, garaiko joera neobarrokoiei lotuz, baina 1914an suak erraustu egin zuen, fatxadak bakarrik libratu zirelarik.

Arriaga eraberritua 1927az geroztik hasi zen "zinema fina" iraunkorki eskaintzen, eta 1934an soinu sistema jarri zitzaion. 1978tik Zinema Dokumentalaren eta Laburmetraien Jaialdiko filmak bakarrik ematen dira.

### Olimpia (1906-1947; 1963-1985) eta Gran Vía (1951-1996) zinemak

Alberto López Echevarrieta adituaren esanetan, **Olimpia** "Espainian zinema izateko eraikitako lehen areto egonkor, finko, adreilu eta zimenduez egindakoa" izan zen. 1906an jaso zen.

Langileen artean azalpen-emaile (arintasun eta mintzatzeko erraztasun handiz irudiak azaltzen zituen pertsonaia) aski ospetsu bat zegoen, Eduardo Pérez, zeinak Espainiako Gobernazioko ministro batengan arrasto sakona utzi baitzuen, ezen honek, Bilbo uztean, hiria greba gogor batean murgilduta zegoen garai batean, honakoa besterik ez baitzuen

esaten asmatu: "Azalpen-emaile ederra duzue zuek hemen!".

1947rako zinema zaharkituta zegoen, eta **Trueba**k, Olimpiak eman oinarri sendoaren gainean jasotako Bilboko enpresa handia, orubea Bizkaiko Aurrezki Kutxari saldu zion.

Erakin berriaren barruko patioan **Gran Vía Zinema** ezarri zen, 45 urtez bankuarena izan zen arren Truebak kudeatu zuena. Zinema tradizionala zen, jendea ikuskizun sailean begiratu beharrik gabe erakartzen zuen horietakoa, emankizunak bi orduko arreta mereziko zuela sinetsita. Bilboko Zinema Jaialdiaren lehen hogei ekitaldiak hartu zituen. 1996an itxi zen.

**Olimpia**, 1947an eraitsia, lau urte geroago berpiztu zen, Iparragirre eta Egaña kaleetako izkinan. "Zinema ospetsuena!" omen zenak (publizitatearen arabera) lanegunetan jadanik emandako filmak jartzen zituen programa bikoitzetan, eta erakargarritasunik zuten filmak asteburuetarako gordetzen zituen, haurrentzako *matiné* merkeagoak ere eskaintzen zituelarik. 1962ko udaran sute batek zinema suntsitu zuen.

Berehala berreraiketa lanei ekin zitzaien, eta zineman baliabide teknikoen artean punta-puntakoa ezarri zen: Todd-Ao 70 mm sistema eta pantaila erraldoia.

Orduz geroztik zinemaren lan bikain guztiak Olimpia berritik pasa ziren, estreinaldi moduan: *West Side Story* (lehenengoa, 1963ko abuztuan), *My Fair Lady*, *Cleopatra*, *Erromatar inperioaren erorialdia*, *Lawrence Arabiakoa*, *Irribarreak eta malkoak*… Baina maila horri ezin izan zion eutsi, eta hirurogeita hamarreko urteetan gainbehera betean erori zen.




*Bilbo. Bank Zinema.*

## Vizcaya Aretoa (1910-1981)

San Frantzisko kaleko zinemaren eite arkitektoniko interesgarria, zeinetan ferra-arku hirukoitzeko fatxada nabarmentzen baita, ez zen filmen programetan –*españoladak* eta bestelako zarpailkeriak– islatu, eta are gutxiago ikusleetan –bizimodu gaiztoko jendea, zinemara oihal (ustez) zurian ageri zenarekin zerikusi txikia zuten arrazoiengatik hurbiltzen zena–.

Alabaina, ez dezagun ahaztu Vizcaya Aretoak garai on eta zoriontsuak bizi izan zituela: barietateen antzoki txikia zenean ez ezik, non Emilia Bracamontek arrakasta handia izan baitzuen, neska-mutikoak indiarrak, cowboyak, sheriffak eta zalduneriaren zazpigarrena biltzen zituen igandeko emanaldi bikoitzean pilatzen zirenean.

## Trueba Antzokia (1913-1986)

**Trueba** zinema atsegina zen oroz gain: pantailan, beti film atsegin eta egokiak; besaulki-patioan, ohiko ikusleen agur atseginak; eta makina-gelan, *Juan Alvarez* atsegin eta nekaezina, *Trueba S.A.* Euskadiko ikuskizunen enpresa handienaren gerentea, film batek xarma zuenentz antzemateko berezko sena zuen gizona. "Bilboko zinemako Broadway-en" –Colón de Larreátegui– finkatua, ScopE-aren eta HispanoScopE-aren erregea zen, eta "Truebako estreinaldi bat estreinaldi handia da", urte askotan ia beti egia izan zena, harro esan ohi zuen.

Mende baten ia hiru laurdenez martxan egon ondoren, 1986an Trueba itxi egin zen. Juan Alvarezek sortutako enpresak behin-betiko porrot egin zuen.

## Campos Eliseos Antzokia (1915)

"**Campos**". Gehienbat antzezpenak, kontzertuak eta errezitaldiak eskaintzen zituen. Baina proiektagailua ere martxan jartzen zuen, zehazki 3.000 metro pelikula egunean (1916ko urte hartan programazioak metroka saltzen ziren, oihalak bezala).

Berrogeita hamarreko urteetan, ikuskizunen arteko hutsunea berrestreinaldi edo estreinaldi eskasek bete ohi zuten. 1957an arrakasta sonatua lortu zuen, Joselitoren *El pequeño ruiseñor* filmarekin. Heriotza bidean, 1977an eraikina Monumentu Historiko-Artistiko izendatu zuten, eta horrek eraitsia izan zedin ekidin zuen.

## Gayarre Aretoa (1916-1989)

**Gayarre** Aretoak gaurdaino iraun ez badu Bilboko ondarearen arduradunen axolagabekeriagatik baino ez da. Arkitektura aldetik bikaina izan gabe eta apaingarri arrandiatsurik agertu barik hiri oso baten bizitza laburbiltzen duten erakin horietako bat zen. Eraikina salbatzeko ahaleginak egin ziren, alferrik ordea, eta 1997an hondeagailuek azken zortzi urteetan emanaldiak




*Bilbo. "Ayala" Antzoki-Zinema.*

eskaintzeari utzi zion Gayarre Areto ahaztezina hauts bihurtu zuten. 81 urte zituen. Goian bego.

### Coliseo Albia (1920)

**Coliseo Albia**, 1916an “ikuskizun handiak, Opera, Antzerkia, aukerako Zirkua eta Zinematografoa” eskaintzeko sortua, Espainiako eta, jakina, Bilboko areto handiena omen zen.

1999 arte, “**Coli**” deituak ABAOaren denboraldi bikainak hartu zituen, eta honek antzokia utzi eta Euskalduna Jauregi dotorera aldatu zenean, hiltzear zegoela zirudien. Zinemari dagokionez, garai onenak berrogeita hamar eta hirurogeiko urteetan bizi izan zituen. Aldi hura, gainera, edukiera handiko aretoentzat aproposak ziren film handiena zen: *Hamar Aginduak*, *Gerra eta Bakea*, *Río Bravo*…

### Buenos Aires Antzokia (1925-1989)

**Buenos Aires** nagusiki antzoki bat izan zen, musikalen eta komedien antzoki eder bat. Har zitzakeen balizko bi mila buruen gainetik zeluloiderik pasa zen ordea, eta galanki gainera.

Historiaren gurariagatik, Buenos Aires antzokiak gertakari erabakigarri bat hartu zuen: zinema soinudunaren lehen emanaldia, Bilbokoa ez ezik Euskal Herri osokoa. 1929ko azaroaren 17an izan zen, Michael Curtizen *Noeren Arka* filma eman zelarik. Ikusleak nahiko hotz agertu ziren, azpuztuta ez esateagatik, elkarrizketak ingelesez ziren eta. Bikoizketa asmatu zain itxaron behar!



*Bilbo. “Campos Elíseos” Antzokia.*

### Ideal Cinema (1926) eta Ideales (1983)

Hiriko zinemarik zaharrenetakoa, egunero pelikulak emanez jarraitzen du, 1982az geroztik **Multicines Ideales** izenaz. Zortzi areto ditu, eta kanpotik fatxada modernista ederra mantentzen du, General Concha eta Egaña kaleen elkargunean.

### Actualidades (1935-1976)

II Errepublikan hots eta arrandia handiz sortutako Buenos Aires kaleko hau Bilboko zinema ospetsuenetako bat da. Dokumentalak eta laburmetraiak ematen hasi zen, gero berrestreinaldiko haurrentzako zinema merkera pasa zen, “4etatik 10etarako emanaldi jarraian”, eta hirurogeita hamarreko urteetan erretiroa areto espezializatu moduan (azpitituluekiko jatorrizko bertsioak) hartu zuen.

### Izaro (1943) eta Mikeldi Zinemak (1990)

Urquijo Zuhaiztiko zinema, **Trueba** enpresa itzelaren zati, bere bizialdi osoan kate horretako beste areto batzuetatik egotzitako filmez elikatu zen. Luxurik ere bizi izan zuen ordea, hala nola 1967an *Doctor Zhivago* estreinatzea, Todd-Ao sistema berriaz gainera, edo *Hamabi urkamendian*.

1990ean enpresaz aldatu zen, **Oreina, S.M.** Gasteizko Mikeldi Multiplex Zinemen jabearen esku geratuz. Hasiera batean hiru areto zituzten, baina 1996an horietako bat zatitu eta laugarren areto bat atera zuten. Handienak 620 eserleku ditu. Denek ere THX soinu sistema dute.

### Consulado (1950-1999)

Consulado dotoreak Carlton, Canciller eta Colón aretoen jabe den enpresari izena ematen dio. Ia mende erdiko bizialdian, izen hori kalitatezko zinemari, ikuskizunari loturik joan da, bi solairuetan banatutako 1.200 eserleku baino gehiagotan egoki zerbitzatua.

Une gorena zabaldu eta gutxira bizi izan zuen, 1951ko martxoan *Lo que el viento se llevó* mitikoa Bilbon aurkeztean. Ordu arte moralaren zaindari saiatuek debekatua egon zen, eta orduan ere 3-R kalifikazioaz –helduentzako eta erreparoez– estreinatu zen.

**Consulado** zinematik pasako ziren, berebat, *Cantando bajo la lluvia*, *Un americano en París* eta zinemaren urrezko urteetako beste hainbat film arrakastatsu. Aldi batez Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Laburmetraien Jaialdia hartu zuen.

*Bilbo. “Avenida” Zinemak.*



## Capitol (1958) y Cines Capitol (1992)

Bilboko zinemetan adituek diote Capitol filmen hautaketa arretatsuagatik nabarmendu zela beti, hasierako emanalditik hasita, 1958ko Pazko Igandean estreinatutako Joseph Mankiewiczen *Ellos y ellas* musikala.

1992an azken eraberritze handia egin zen, eta emaitza **Cines Capitol** da, lau areto eroso eta ikusmen kalitate bikainekoak, beren askotariko programazioetan ikuslego leiala erakarri dutenak.

## Carlton (1953-1985)

El cine de la calle Licenciado Poza Lizentziatua kaleko zinema berrestreinaldietan edo kate berean zegoen Consulado zineman emateko kalitate eskasegia zuten filmen estreinaldian espezializatu zen.

Garai onenak berrogeita hamarreko urteetan bizi bide zituen, orduan formatu handiko ikuskizunak eskaintzen zituelarik, eta hiru dimentsioko filmen alde egitea erabaki zuenean.

1978an **Astoria** kateak lokala erosi eta bi aretotan zatitu zuen. Carlton 1 eta 2 1985 arte egon ziren martxan.




*"Warner-Lusomundo" Zinemak Donostian.*



*Donostia. "Príncipe" Multizinemak.*

## Canciller (1963) eta Avenida Zinemak (1978)

Hastapenetan, Canciller **Consulado** enpresaren bigarren mailako zinema bat izan zen, Deustuko aretoan Consulado edo Carlton zinemetan jada aurkeztutako filmak programatzen zituena. 1978an Astoria kateak erosi zuenean, berori berritu eta sei aretotan zatitu zuen, gaur egun ere martxa batean jarraitzen dutelarik.

## Urrutia (1964-1990)

Calixto Díez kaleko **Urrutia** zinemak haurtzaro zoriontsua izan zuen, berrestreinaldiak –*Duelo al sol*, *Duelo de titanes*, *La taberna del irlandés*, *El apartamento*...– eskaintzen zituen zinema dotore moduan. Geroago krisian murgildu eta jabez aldatu zen, *Julián Vinuesa*ren enpresan sartuz.

Bilboko zinema-enpresari nekaezin honek hordago latza bota zuen Urrutian 4 kalifikazioko film guztiak emanez, zeintzuei gainerako enpresariek izurriari bezala ihes egiten baitzien (izan ere, film horiek ez ziren prentsan iragartzen). Publizitate handirik ez zuen behar ordea, ezen, Julianek zioenez, propaganda onena Karmengo elizako parrokoak egiten baitzuen, bere sermoietan Urrutia "infernuaren gelaurrea" bezala definitzen zuenean.

1968an Arte eta Saiakeraren moda helduko da, Vinuesak oportunismo handiz bere egingo duena. Aste gutxiren buruan, Loseyren *El sirviente* filmarekin izugarrizko arrakasta lortuko du, baina sute ikaragarri batek zinema errauts bihurtuko du, langile bat ere akabatuz.




*"Astoria" Multizinemak Donostian.*

1977an Urrutia zinemak jaioko dira, bi areto txiki, 1980ko eraberritzearekin hiru bihurtuko direnak. Bost urte geroago Julián Vinuesa Oiz mendiko ezbeharrean hil egingo da, Urrutia umezurtz utziz. Zinema 1990ean desagertuko da.

### ASTORIA (1969-1999)

**Astoria**. Julián Vinuesaren harribitxia, Urrutia zinema bezala haren heriotza goiztiarra gaindituko ez duena, itzal handiko zine ederra izan arren.

Han estreinaldi ahaztezinak ikusi ahal izan genituen, hala nola *Tiburón*, *Apocalypse Now*, *Los santos inocentes*, *Mikelen heriotza*, *Cabaret*, *Superman*… Urte askoz hiriburuko modako zinema, haurtzaindegia eta guzti zituen, gurasoek emanaldiez kezka izpirik gabe goza zezaten.

Eranskin moduan, 1976an **Astoria** 2 eta 3 sortu ziren, Urquijo Zuhaiztian, 78. Vinuesak zinemak *La naranja mecánica* filmarekin zabaltzeko erabaki zolia, hainbaten artean beste bat, hartu zuen. izan ere, filma urte erdiz egon zen, eta berotasuna epeldu zenean *El último tango en París* lanarekin ostera berotu zituen.

Vinuesaren oinordekoen arteko desadostasunek zinemaren desagerpena ekarri zuten, 1990ean.

### MULTICINES (1977)

José María Escunza kaleko Multicines zinemen atzean, beste behin, Julián Vinuesa Conal dago. Multizine horiek kontzeptu hori ia inork ezagutzen ez zuenean sortu ziren. Ezin hobeto diseinatu eta hornitutako zortzi areto dira, ia genero eta aldaera oro eskaintzen dutenak.

## ■ DONOSTIAKO ZINEMAK

Estatistikek diote, eta urtero berresten dute, Donostia Estatuko hiri zinemazaleena dela.




*Donostia. "Trueba" Zinema.*




*Donostia. "Oscar La Bretxa" Multizinemak.*

Horregatik bakarrik, merezi du donostiarrek belaunaldiz belaunaldi zeluloide gainean kontatutako istorioekin gozatzen duten edo gozatu duteneko gune nagusiak nolabaiteko xehetasunez behatzea.



*Donostia. "Bellas Artes" Emikina.*

### PRINCIPAL ANTZOKIA (1850)

Donostiako Alde Zaharrean lekututako **Principal Antzokia** Donostiako eszenatoki zaharrena da. 1850. urtetik entretenimendu herrikoirako gune begikoena izan da: zarzuelak, komediak eta kontzertuak, mozorro dantzak, bertsolariak eta onegintzako ekitaldiak, hala nola Mari arrantzale ausartaren alargun eta umezurtzen edo Iparragirre zahar baten aldeko funtzio.

Baina Principal zaharreko iluntasun epelak zinema emanaldiak ere hartzen ditu. 1955an ikusle gipuzkoarrei Cinemascopea aurkeztu zien, "mendeko ikuskizun iguriki eta harrigarriena", berrikuntzarekin batera eskainitako *La Túnica Sagrada* filmaren publizitateak zioenez.

Hirurogeita hamarreko urteen amaieran, Principal antzokia biluztearen zinema bilakatu zen, Pequeño Casino auzoarekin batera: azken honek eskandaluzko film jasoenak (Pasolini, Visconti, Kubrick) programatzen zituen bitartean, Principalak, bere tradizio herrikoiari atxikiz, ikusleei Cantudo, Bárbara Rey, Agatha Lys eta enparauen xarmak agintzen zizkien. Horiek ilarak asteburuoro!

Geroago laurogeiko hamarkadan hain indartsu heldu zen beldurrezko zinemaren modari lotu zitzaion, eta modu horretara 1990ean hasitako Fantasia eta Beldurrezko Zinema Jaialdiaren egoitza bilakatu zen. Jaialdian zehar, antzokiaren fatxada iratxo, basapiztia edo mamuez mozorrotzen da.

Azkenik, Principala asteazkenero interes handiko filmak programatzen dituen *Nosferatu udal zineklubaren* egoitza da.

## VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA (1912)

2001. urtez geroztik, Kursaal berria zabaldu arte "Donostiako Zinemaldiaren Jauregia" izan zena 1912an sortu zenetik bizi izan duen zaharberritze lanik handienean murgilduta dago. Lanak amaitzen direnean, Victoria Eugenia

Antzokiak bere ia mende bateko bizitzan aldi berri bati ekingo dio, eta espero dezagun garai berriotan zinemak berebiziko garrantzia izaten jarrai dezala.

Izan ere, **Victoria Eugenia**, antzoki fin eta arranditsuaz gain, zinema soinuduna sartzen lehena izatez harro dagoen sona handiko zinema ere bada. 1930ko martxoan eskaini zen Lehenengoz soinu emanaldi bat Donostian... ikusleek egundoko zaputzaldia hartu zuten arren, entzun, soinu-bandaren orkestra baino ez baitzuten egin, filma bera, *Rapsodia húngara*, mutua zelako.

Antzokiaren ospea bermatuz, 1953an Nazioarteko Zinemaldia sortu zenetik tapiz gorriminez hornitutako zurezko besaulkietan zazpigarren arteko izar handienak eroso esertzen ahalegindu dira (lortu gabe, jakina).

## NOVEDADES ARETOA (1912-1979)

Zinemaren asmakeria berriak zekarren moral eta usadioen lasaikeriari aurre egiteko, hamarreko hamarkadaren hasieran estatu osoan zehar begirunezko zinemak, "garbitasun izpiritual zorrotzena" gordetzen zutenak, zabaltzen hasi ziren. Horietako bat **Novedades** izan zen, El Pueblo Vasco egunkariak 1912an eraikia. 1943an galeria zaharra eraitsi eta oinplano berrian berreraiki zen, 1979ko urtarrilaren 31an itxi zen arte familientzako zinema eskaintzen jarraitu zuelarik.

## MIRAMAR ARETOA (1913-1987)

Aurrerapen tekniko handiak ageri zituelako "ereduzko zinema" gisa iragarritakoa Kantauri itsaso zakarra Donostiako Pasealeku Berriarekin egunero borrokatzen zen elkargunean kokaturik zegoen.

Betidanik, Miramar zinema berrizalea izan zen. 1953an erliebearen lehen esperientzia hartu zuen, bezeroen artean horretarako propio egindako betaurrekoak banatuz, eta hurrengo urtean pantaila panoramikoak areago zabaldu zen, *Quo Vadis* filmeko tertzio erromatarrak bertatik desfilatu ahal izan zitezen.

Hirurogeita hamarreko urteetan zinemako zurezko besaulkiak dardarka jarri ziren, *Terremoto* filmean sensurround soinua baliatu zenean. Miramar Aretoak irekitasuna ere agertu zuen, hilabetez baino gehiagoz zinema mukuru bete zuen *Jesucristo Superstar* polemikoa emateko prest agertu zenean.

1987an, Dexter Gordonen saxoak, *Round Midnight* filmean, Aldamar kaleko zinemari agur esan zion.



*Iruñea. "Gayarre" Antzokia.*

## BELLAS ARTES ANTZOKIA (1914-1982)

"Te dotore eta *high life* giroan ordubete mundukoi eta chic sentituz igaro nahi dugunean, Miramarrera joaten gara. Familia giro apalean ordubete etxeko epela sentituz igaro nahi dugunean, Bellas Artesera joaten gara (...). Miramarrean sartzean gorbataren korapiloa estutzeko eta ilea lisatzeko premia sentitzen dugu, eta Bellas Artesen *tenue*az arduratu gabe sartu eta irteten gara".

1921eko Donostiako bi modako zinemen gaineko iruzkin xelebre honek, garaiko kazetari batek idatzia, Bellas Artes zinema batik bat herrikoi gisa agertzen du, kasik halabeharrez, garai hartako Donostian langile gehien Amaran bizi baitzen. Aldi hartan hiriko edukiera handiena zuen, 1.426 har zitzakeelarik, eta atikoan Orfeoi Donostiarraren egoitza zegoen.

Azkenaldian, "Bellas" zinemak, Arte eta Saiakerako Areto bihurturik, maisulan ugari ezagutzeko parada eskaini zigun.

## PRÍNCIPE (1922)

Gaur egun sei areto ditu, baina duela urte gutxi arte zinema bakar handi eta udako denboraldi bikainetarako eszenikoki behar bezala hornitua zen. Aurretik, fatxada eta sarrera Aldamar kalean zeuden, Miramar Aretoaren aurrean, bere egungo aurraldeak Zuloaga plaza handira ematen duelarik, komedia eta tragediaren mozorroak hutsari keinuak eginez utziz.

Zinema bezala, **Príncipe**k soinu estereofonikoa ekarri zuen Donostiara –1955 urtea zen–, eta geroago, *La vuelta al mundo en 80 dias* filmarekin, zinema pantaila erraldoian ikusteko modu berria aurkeztu zuen.

## KURSAAL (1922-1972. 1999)

Desagertutako **Kursaal Jauregia** lehen munduko gerraosteko Donostiako oparotasunaren sinboloa izan zen.




Iruñea. “Carlos II” Zinemak.

1925etik *Kursaal Kasinoa*n zinema emanaldiak eskainiko dira, eta 1969an, bere barruko areto batean, **Sala de Arte y Ensayo Inesa de Gaxen** izenekoa zabaldu zuen, Donostian egiazko zinema eskola bihurtu zena. Film beraz ireki eta itxi zen: *Hiroshima mon amour*.

1972an Kursaaleko dorreak eraitsiak izan ziren, segidan Batzarren gune berri bat eraikiko zenaren agindupean. Makinek zabaldutako zauria hogeita bost urtez egon zen itxi gabe.

1999ko udaran, azkenik, Rafael Moneo arkitekto nafarrak diseinatutako Kursaal berria hezurmamitu zen. Donostiako Zinemaldiak bere jauregia han kokatu du, *glamour* mundua Urumeako zubia pinpirinduta eta takoi garaiez zeharkatzera behartuz. Sinestezina!

## Trueba (1923)

Donostiako zinemak *Vicente Mendizabal*i Miramar Aretoa, Bellas Artes eta **Trueba** sortu izana zor dio. Azken hori Gros Auzoko azken zinema da, egun filmak jatorrizko bertsioan eta beste *delicatessen* batzuk eskaintzen dituen bi areto txikik osatua. Iragan loriatsua du, orotariko ekitaldiak hartu zituelarik, hala nola kirol ekitaldiak (boxeo borrokaldiak kasu), ezin konta ahala antzezpen (hortik pasa dira, besteak beste, Osinaga, Pepe Rubio, Garisa edo Rafaela Aparicio), mitinak eta abar.

## Pequeño Casino (1925-1994)

Hau ere *Vicente Mendizabal*en kumea, jatorrian **Petit Casino** deitu zen –hiriko Kasino Handitik hurbil zegoelako–, baina “hizkuntza garbitzeko” erauntsi betean, 1940an **Pequeño Casino** izena jarri zitzaion. Leku ezin hobean kokaturik zegoen, Kale Nagusiaren hasieran eta ia Bulebarrarekin izkina eginez, eta goiko solairuan eta anfiteatroan banatutako aretoa kalitatezko film intimistak ikusteko bereziki atsegina zen. Jada esan den bezala, Arte eta Saiakerako Aretoa izan zen, eta bertan hirurogeita hamarreko urteetako maisuen lanak programatu ziren: Visconti, Pasolini, Kurosawa, Romher, Polanski…

1984an multizine bihurtzean, hasierako izena, Petit Casino, berreskuratu zuen. Hiru aretoek ez zituzten erroak bota, eta Kale Nagusiko lokala bere izenari jarraitu zitzaion: gaur egun Donostiako kasinoaren egoitza da. *Rien ne va plus*!

## Astoria (1961)

Berrogeita hamarreko urteez geroztik gailendu zen zinema ikusgarriak teknikoki egoki prestatutako lokal berriak –cinemascopean egindako produkzio handietarako pantailekin, koloretakoak eta soinu estereofonikoko sistemez– behar zituen.

**Astoria**, Amara auzoko koliseo handia, 1.500 eserleku baino gehiagoko edukieraz, hutsune hori betetzera heldu zen. 1988 arte asteburuetako film handien zinema izan zen: *Ben Hur*, *El exorcista*, *Tora, Tora, Tora*, *Tiburón*, *El coloso en llamas*, *Indiana Jones*… Ikusle guztientzako ikuskizuna segurtatuta zegoen, edo gutxienez 13 urtetik gorakoentzat eta heldu batekin joandako adin txikikoentzat.

Laurogeiko hamarkadatik aurrera ametsen industriak hartu zuen norabideak zinema handiak berritu eta zatitzera behartu zituen. Astoriak birmoldaketa hori 1989an egin zuen: orduz geroztik zazpi areto ditu, guztira 1.929 eserleku eskainiz.

## Ahaztuak

Gaur egun Kutxaren Kultura Aretoa den Arrasate kaleko lokala (Kresala zineklubaren astelehenetako saioen egoitza) emanaldi zientifiko eta irakaskuntzakoetan espezializatutako zinema moduan hasi zen, 1951an. 261 eserleku zituen. **Cine Actualidades** zuen izena, eta 1968an itxi zen.

Garai bertsukoa eta kale berean lekutua, enpresa berak, Cinematográfica Donostiarra, kudeatutako **Novelty** zinemak bizialdi laburra izan zuen: 1959

Iruñea. “Golem” Zinemak.






Gasteiz. "Samaniego" Zinemak.

eta 1976 bitartean egon zen martxan, eta geroztik Orfeoi Donostiarraren egoitza bilakatu zen.

Antso Jakitunean lekututako **Rex Avenida** Amarako lehenengo zibema izan zen (1957). Azken urteetan jada emandako filmen emanaldietan eta berrestreinaldietan espezializatu zen. 1991an hil zen.

1967 eta 1977 bitartean, langileek eta jende apalek populatutako Egia auzoak egoki hornitutako zinema handi bat hartu zuen: **Dunixi**. Ekimenak hasieratik arazoak izan zituen, eta norabidea aldatzeko ahaleginek galera gehiago ekarri zuten.

Kalearen pareko solairu bakarra, 500 eserleku, kaoba hormetan eta marmola zoruan, eta, horrez gain, proiekzio baliabide aurreratuak: hirurogeiko hamarkadaren hasieran, Gros auzoko **Savoy** zinema modernoaren eredu bikaina zen. Hogeita hamar urtez baino gehiagoz egunero hiru saio eman zituen. Hirurogeita hamarreko urteetan programazio *ausarta* jartzeagatik nabarmendu zen.

**Amaya Areto** xarmangarriak etxean bezala sentiarazten gintuen. Izan ere, 250 eserlekuko emanaldi areto txiki bat zen, eta bertara familia osoa joaten ginen, guztiek ikusteko moduko filmekin gozatzera. Gainera, asteburuko *matiné* saioak mantendu zituen azken zinema izan zen.

## "Munduko zinemarik handiena"

**Anoetako Belodromoa** horrela definitua izan zen, Donostiako Zinemaldiaren barruan bertan eskaini ziren emanaldien kariaz.

Espazioa, baiki, bikaina da: pantaila itzela, soinu ia beti fina, harmaila beteak, mundu osoko artista, zuzendari eta kazetarien presentzia... Hala eta guztiz ere, definizioa gehiegizkoa da: hiriburu askotan aurki daitezke tamaina bertsuko aretoak, edo handiagoak, kalitate mailan ere hobeak direnak. Kontuak kontu, Belodromoak bakarrik ekartzen digu zinema horrelako *kiroltasunaz*…

## Kontzeptu berri bat

Urteen joanean gure urte gazteak gozatu zituzten zinema zahar eta nostalgiko haiek desagertzen edo eraldatzen ziren bitartean, kontsumo zentroetan multizinema tankerako gune berriak sortuz joan dira, hiriaren erdiko **Oscar La Bretxa** kasu.

Aisialdiaren eta zinemaren gozamenaren kontzeptu berri bat nagusitzen ari zaigu. Erakargarritasun horrekin, gaur ez zaigu axola hirigunetik urrun dagoen merkataritza gune batean, **Garberan** adibidez, film bat ikusteko autoa hartzea. Edo gure denbora librea **Warner Lusomundon** ematea erabakitzen dugu, aisialdi eremu handi bat, ikuslearen gozamenerako bikain hornitutako multizine baten inguruan. Izan ere, garaiak izugarri aldatzen ari dira …

## ■ Iruñeko zinemak

1912an, *Matías Belloch* izeneko Valentziako merkatari zoli batek Iruñeko lehen zinema egonkorra sortzeko ideia ederra izan zuen. Bizialdi labur baina bizkorreko **Cinematógrafo Belloch** izenekoak batik bat Parisko Pathé etxe ospetsuak banatutako filmak ematen zituen. Bitxikeria gisa, proiekzioa atzekoz aurrera egiten zen, makina pantailaren atzean egonik besaulki patioan zeuden ikusleek irudiak alderantziz ikusten baitzituzten, arazoaz inor ohartzen ez bazen ere, letrak aldrebes ageri zituen errotulurik agertu ezean. 1915ean sute batek Cinematógrafo Belloch ospetsua suntsitu zuen, eta jabeak alde egin behar izan zuen.

Belloch zinemaz hitz egiten hasi gara, baina akaso **Teatro Gayarre** zaharrarekin ekin behar geniokeen, Iruñeko lehen emanaldia han eskaini baitzen, 1896ko urrian, Alberto Cañada Zarranzek bere *Llegada e implantación del cinematógrafo en Navarra (1896-1930)* ikerlan bikainean agertzen duenez. Gainera, Gayarre Antzokiak –kokagune zaharrean eta 1932tik egungo Carlos III kalekoan– bere programazioan zine emanaldiak beti mantendu izan ditu, orotariko beste hainbat ikuskizunekin tartekatuta.

## Aretotik Frontoira

Belloch zinemaren garaikide izan ziren, halaber, Iruñeko segidakoak: **Actualidades Zinema** eta **Novedades Aretoa**.

Biak 1912an jaioak, sortu eta hilabete gutxiren buruan bertako gaietan (telebista sortu aurretik izugarrizko ikusmina pizten zuena) espezializatutako **Actualidades** zinema Novedades aretoak bere egin zuen.

Gasteiz. "Florida" Zinemak.



Iruñea zaharreko argazki bildumek **Salón Novedades** zaharraren irudi nostalgikoak ageri dituzte, lokal txiki eta aski apal bat, lekualdatu ostean, zezen-plazaren itzalpean. Itxura eskas samarra zuen arren, Zabalguneko zinema begirunez hartu behar da, bere garaian hiri osoko emanaldi-areto serio, iraunkor eta profesionalena izan baitzen. Adibidez, iruindarrek zinema hartan sentitu zuten aro mutuko Enrico Guazzoniren *Quo Vadis?* peplumak eragindako emozioaren indarra.

1921ean hirigintza premiak zinemaren desagerpena ekarri zutenean, Novedades, hisi krisi batek jota bezala, desarmatu egin zen eta Tuterara joan zen bizitzera, non zahartzaro lasai eta ohoretsuaz gozatu baitzuen.

Bere izenaren ospea 1934an San Agustin kalean zabaldutako **Novedades Zinemak** bereganatu zuen, zeina 1967 arte zinema egonkor moduan martxan egon baitzen.

Jarduera nagusia pilota lehiaketak baziren ere –logikoa bestalde, frontoi bat zen eta–, San Agustin kaleko **Euskal-Jai** izenekoak 18 urtez ikusle herrikoi eta sarritan iskanbilatsu samarrak hartu zituen, pilotariak Falta eta Pasa artean baino izarrak zeluloidean korrika ikustea nahiago zutenak.

1909an zabaldua, bost urte geroago horma gaineko emanaldiak eskaintzen hasi zen, eta 1930eko martxoan Iruñeko zinema soinuduneko lehenengo sistema ezarri zen bertan. Alabaina, bitxia bada ere, zinema soinuduna izan zen, baldintza akustiko penagarriak medio, 1932an zinema-frontoi honen behin-betiko porrota ekarri zuena.

## Zinema erregezalea

Iruñean, zinema ikuskizun handi bezala izen bati loturik egon da: **Coliseo Olimpia**. Izan ere, berariaz ikuskizun lokal bezala diseinatu eta eraikitako aurreneko eraikina izan zen, eragozpen batekin ordea, “hiriaren kanpoaldean” lekuturik zegoen eta.

Jendeari, ordea, ez zitzaion axola izan, eta lehen egunetik **Olimpiak** ikusle zintzoak izan zituen.

**Koliseoa** modako lokala eta jende dotorearen topalekua zen, enpresak inoiz asmo elitistarik izan ez zuen arren (izan ere, 1,402 eserleku bete behar zituzten).



*Gasteiz. Operako eraikin zaharra.*

Olimpiako lehen emanaldia 1923ko abuztuaren 5ean burutu zen. Gertakari handia izan zen *Ben Hur* filmaren estreinaldia 1929an, eta zinema soinudunak harrera paregabea izan zuen, 1931eko San Fermin bezperan *Galas de la Paramount* eskaini zenean.

1942an **Saide** enpresa sortuko da, eta honek Coliseo Olimpia erosiko du enpresaren ikur nagusia izan dadin, egoitza nagusia ere eraikin horretan bertan ezarriz. Berrikuntza sakon baten ostean, 1964an berriro zabaldu zen, **Carlos III El Noble** izenaz. Gertakari garrantzitsu horretarako film aski erakargarri bat hautatu zen: *La conquista del Oeste*.

Edonon multizineak ezartzen ari ziren bitartean, areto handien kaltetan, Nafarroako Gorteen eta San Inazio etorbidearen bilgunekoa penintsularen iparraldeko edukiera eta pantaila handiko azken zinema gisa mantendu zen. Horrek aparteko gune horretan beren filmak jarri nahi zituzten enpresa banatzaileen gutizia pizten zuen, Saideri buruhauste handiak eraginez.

John Cameronen *Titanic* superprodukzioarekin, Carlos III.ak amaiera gozo eta akuatikoa izan zuen: bildutako dirutzak ez zuen multizineetarako birmoldaketa eragotzi.

“Nafarroako erregea, **Saide Carlos III** zinemen inaugurazioan”: 2000.

*Gasteiz. “Guridi” Zinemak.*






*"Oscar La Bretxa " Multizinemetako txartel-leihatila. Donostia.*

urtean eslogan gatzdun horrekin ostera zabaldu zen, Nafarroako erregeren gortean girotutako film bat programatuz: Kenneth Branaghen *Trabajos de amor perdido*, Shakespeare-en obra batetik moldatua.

Carlos III zinema berriek bost areto dituzte, guztira 1.080 eserleku eskainiz, horietako handiena 400 besaulkiekikoa.

## Príncipe eta Olite

Carlos III zinemetatik berrogeita hamar metrora **Saide Príncipe zinemak** daude.

1940an bi solairu eta 800 eserlekuko edukierarekin eraikitako **Príncipe de Viana** zaharraren gainean, 1980an lehen birmoldaketari ekin zion, berori hiru multizine aretotan banatuz. Hogei urte geroago, bigarren eraldaketa batek berrituta eta zinema baldintza egokiagoetan emateko moduan utzi zuen. Guztira 680 eserleku ditu, eta Iruñeko aretorik handiena, 425 besaulkiekikoa.

Kate honen hirugarren zinema **Saide Olite** da. 1961ean jaio zen, *Viaje al fondo del mar* filmarekin. 940 eserlekuz, ordurako mehatxu larria bihurtzen hasia zen telebistarekin lehiatzeko beste zinema itzel bat zen, ikuskizun handiak eskaini ahal izateko prestatua.

Hirurogeita hamarreko urteetako krisialdiak Olite, beste hainbat zinema bezala, eskaintza mota aldatzera behartu zuen. Diseinu berri batekin, 200 ikusleko lau areto hartuz, 1980tik aurrera zinema suspertu egin zen. 1999ko ekainean berrikuntza lan sakonak egin ziren bertan.

## Golem zinemak

1982an, "zinemaren bost maitale zoro", beren burua definitzen duten bezala, zinema emanaldietan oinarritutako bost aisialdi-gune sortzeko elkartu ziren. Eraikinaren lehen harria Iruñeko **Golem Zinemak** izan ziren: lau areto, 1988az geroztik sei, 1.250 besaulki, kafe-jatetxe bat eta geroago liburu-denda bat (Xalem), diskoak eta bideaoak ere salgai dituena.

**Golem Baiona** zinemen lehen hamarkadak emaitza bikainak eman zituen, eta horrek negozioa hedatzea ahalbidetu zuen. Donostia, Bilbo, Salamanca eta Leongo ikuskizun enpresekin elkartua, 1992an seina aretoko bi gune zabaldu zituzten Burgosen, eta zortziko beste bat, gero hamaikakoa bilakatuko zena, Logroñon.

Iruñeak zinema gehiago eskatzen zuela ikusita, 1996an **Golem Yamaguchi** zinemak sortuko dira, izen bereko plazan. 500 ikuslek kalitate bereziko baldintzetan zinemaz goza dezaten hornitutako bost areto dira.

Azkenik, 1999an, Lizarrako Udalarekin lankidetzan, Golem enpresak hiri horretan hiru aretoko gune bat ireki zuen. Guztira, enpresa iruindar honek lau hiritan 37 areto ditu eta, beste zenbait enpresekin ikuskizun talde berean elkartuta, zortzi hiritan 80 areto baino gehiago kontrolatzen dituzte.

Golem enpresak uste du zinemak hiria errotuta egon behar duela, eta horregatik hiriko orotariko taldeei zabaldutako jarduerak proposatzen ditu, hala nola emanaldi bereziak, saio monografikoak...

Hastapenetatik, Golem Taldeak garbi eduki du zinema, entretenimendua ez ezik,



*Iruñea. "Príncipe de Viana" Zinema.*

adierazpide eta komunikabide bat ere badela. Horregatik, ihesbidea baino zerbait gehiago eskatzen duten pertsonentzat zinema zailago, artistikoago bat sustatzeko interesa ageri du.

Asmo horrekin, 1986an **Golem Distribución, S.M.** elkartea sortu zen. Konpainia honek Estatu espainiarrean kalitatezko film independenteak banatzen ditu. Hamarkada eta erdi honetan, enpresa banatzaileak kalitatezko filmen alde egin du, sarritan arrisku handia hartuz.

Irizpide horrekin, Golem Taldeak nazioarteko sariak irabazi dituzten hainbat film banatu ditu: Oscar sariak, *La historia oficial* eta *Antonia's Line*; Cannesko Palmak, *Un mundo aparte*, *El odio* eta *Rompiendo las olas*; Berlingo Urrezko Hartzak, *Mifune* eta *Encuentros nocturnos*; Veneziako Urrezko Lehoia, *Hana–Bi*; edo Donostiako Jaialdiko Urrezko Maskorrak, *Las cartas de Alou* eta *Un lugar en el mundo*.

# ■ Gasteizko zinemak

## Azul Zinemak

Izena jatorrizko dekorazioan nagusi zen koloretik datorkie. 1976an inauguratu ziren, Luchino Viscontiren *La caída de los dioses* filmarekin.

Zinema ikusle kopurua murrizten ari zen garai batean negozioak zituen eskakizun berrien arabera eraiki zen. Hau da, tamaina ertaineko zinema (500 eserleku), diseinu dotorekoa, Zaldiaran lorategien plazan aurrez zegoen pabilioi baten gainean jasoa.

Berrikuntza moduan, **Azul** zinema argi halogeno krepuskularrekiko (gradualki areagotu do gutxiagotzen direnak, begia giroaren aldaketara ohitzeko) Gasteizko aurreneko zinema izan zen, eta hormetan plastikozko aurrefabrikatuak nabarmentzen ziren. **Azul** anfiteatro eta oihalik gabe egin zen, "ikusleen buruan zinemak ikuskizun zoragarriaren estimazioa galdu zuenaren seinale", Juan Carlos Centeno adituak zuzen adierazten duen bezala.

Hasieran, Azul zinemak profil baxua izan zuen, bigarren mailako filmak eta berrestreinaldiak eskaintzen zituelarik. 1990ean, Samaniego eta Mikeldi zinemekiko lehiak multizine bihurtzera bultzatu zuen, operazio xume baten bidez: planoan luzerako ebaki bat egin zen, eta hortik bi areto atera ziren, bata 193 eserlekuez eta bestea 288z.

Bederatzi udara geroago, Azul itxi egin zen, sustatzaile berrien esperoan. *Patxo Sans* zinemazale porrokatuak proposamen ausart bat egin zuen: kalitatezko bederatzi film independente jatorrizko bertsioan programatzea. Alabaina, ekimenak ez zuen aurrera egin, eta Azul ostera itxi egin zen, 2001eko urtarrilean.

2002ko hasieratik, lokalaren kudeaketa *Espectáculos y Negocios* enpresak darama, eta honek ere azpitituluekiko jatorrizko bertsioen alde egin du, baina –eta aurrekoarekin honetan bereizten da– Ipar Amerika eta Europako film komertzialak eskainiz. Asmoak iragarriz bezala, Azul Zinemak bi film arrakastatsurekin zabaldu ziren: Alejandro Amenabarren *Los otros* eta Jean-Pierre Jeuneten *Amelie*.

## Florida-Guridi Zinemak

Gasteizen, "kinematografo" izenekoaren lehenengo emanaldi publikoa 1896ko azaroaren 1ean burutu zen, Florida kaleko **Circo Antzokian**. Hogeita hamar urte geroago, suak lokala suntsitu zuen, eta berreraiketan antzerki instalazioak desegin eta zinema bakarrik utzi zen. Horrela jaio zen **Salón General**.

Alabaina, zuzeneko ikuskizunak hartzea komeni zelakoan, Circo Antzokiaaren eszenatoki zaharra birgaitu zen, Salón Generaletik **Florida Antzokia** sortu zelarik, 1949an *Vitoriana de Espectáculos S.A.* enpresak erosi zuena.

1985eko martxoaren 19an, Florida Antzokiak bere azken funtzioa eskaini zuen (halabeharrez, egun horretan bertan Gran Cinema Albéniz itxi zen). Eta 1998an pikatxoiak antzokiaren hormak eraitsi zituen.

2001eko martxoan, orube horretan, **Cines Florida-Guridi Zinemak** izenekoak sortu ziren, guztira 800 eserleku (handienak 240 ditu, eta txikienak 55) hartzen dituzten autore-zineman espezializatutako zazpi areto. Urtean 20 edo 25 film ematen dira, jatorrizko bertsioan.

## Guridi Zinemak

Floridak gehienbat autore-zinema eskaintzen badu, Guridi **VESA** enpresaren zinema komertzialak dira. San Prudentzio kalean, 6, lekututa, aurrekoetatik metro gutxira, garai bateko Príncipe Antzokiaren orubeak hartzen dituzte. 1925an zabaldua, Teatro Guridi moduan, mende erdiz baino gehiagoz Gasteizko kultur, aisi eta gizarte jardueraren gune nagusietako bat izan zen.

**Guridi Zinemak** 1991ko abenduan zabaldu ziren, hiriko

udalarekin luzez negoziatu ostean, azken honek antzoki zaharra eraikin babestua kalifikatu baitzuen. Hiruna aretoko bi gunetan egituratua, diseinuan gaur egungo premietarako egokitzapena antzeman daiteke: funtzionaltasuna kalitatearen kaltetan izan gabe, erosotasuna eta dotorezia, antzoki zaharraren hainbat apaingarriez iragana oroitzen duen abangoardiako estilo baten barruan. 1997an, erabiltzeke zegoen goiko aldean areto berri bat sortu zen, Guridi Zinemen *zazpigarrena*.

## Mikeldi Multiplex Zinemak

*Las cosas cambian.* Mikeldi Zinemek 1989ko apirilean eman zuten lehenengo filmaren izenburuak jakinarazpen bat dirudi. Ezen gure herrian gauzak, hain zuzen ere, aldatzen ari baitziren zinemari lotutako aisialdiaren kontzeptuan. Samaniego zinemen ondoren –Arabako lehen minizineak, 1982an sortuak–, **Mikeldi Multiplex Zinemek** eskaria areagotu zuten, bost areto eta 1.230 eserlekuz. Lurpeko garaje batzuen gainean, pabilioi bateko1.300 m2 -etan jaso ziren, urrun samar dagoen baina sarbide egokiak dituen gune batean, Legution.

Areto hauek bereizgarri duten programazio zainduak eskaria igo zuen, 2000an zinema bost aretotik bederatzira handitu zelarik. Gaur egun, **Mikeldi** zinemek 1.590 pertsona har ditzakete: 4 Aretoak, handienak, 349 eserleku ditu, eta 8 Aretoak, berriz, 67.

## Ster Zinemak

2002ko maiatzean, Hego Afrikako **Ster Century** konpainiak lehen zinema-gune bat ireki zuen Gasteizen, eta egun batzuk geroago beste bat Madrilen.

Wellington etorbideko Lakua Merkataritza Gunean lekutua, multiplex hauek bederatzi areto dituzte, eta guztira 1.830 eserleku. Areto handienak 307 eserlekuko edukiera du, eta txikienak 180koa. Denek dolby digital soinu sistema eta DTS dute. Formatu panoramikoko emanaldietan pantaila mugatzeko errezela duen herrialdeko zinema bakarra da.

## Yelmo Cineplex Gorbeia

Etxabarri-Ibiña errepidean, Zigoitiko herrian, *Gorbeia Merkataritza eta Aisialdi Gunea* dago, non 2001eko amaieratik **Yelmo Cineplex Gorbeia** zinemak lekuturik baitaude. Zinema guneak 14 areto eta 3.000 besaulki ditu, eta irudi eta soinuan teknologia aurreratuenak.

1998an *Yelmo Films* eta *Loews Cineplex International* elkartzetik sortua, Yelmo Cineplex estatuko bigarren zinema katea da, eta Espainia osoan barreiatutako 285 areto kudeatzen ditu.

## Desagertutakoak

***Ideal Cinema edo Gran Cinema Albéniz*** (1925-1985). Zinema emanaldiak bakarrik eskaintzen zituen hiriko lehen eraikina izan zen. 1976ko eraberritzearen ondoren, harrizko begiratokia zuen bere fatxada ederreko idazkuna aldatu zuen, *Ideal Cinema* jartzen zuen lekuan *Gran Cinema Albéniz* jarriz. 749 eserleku zituen.

***Gran Cinema Vesa*** (1951-1982). Vitoriana de Espectáculos enpresak jada zinema sektorearen zatirik handiena kontrolpean zuenean, zinemarako eraikinak jasotzea sustatu zuen. Aurrenekoa "**el Vesa**" izan zen, San Prudentzio eta Foruak kaleen bilgunean; 1.305 eserleku zituen. Primerako akustika eskaintzeko berrikuntza tekniko guztiak zituen arren, pantaila txikiegia zelako luze gabe zaharkituta geratu zen.

***Amaya Antzokia*** (1955-1982). Aurrekoak ez bezala, Amayak bazuen zinema panoramikoa eskaintzeko pantaila erraldoia, eta ia beti haur eta familientzako filmak ematen zituen. Antzokiaren alokairu kontratuak 3-R edo gorgoko filmak eskaintzeko debekua jasotzen zuen. *La ley del silencio* filmarekin zabaldu zen, eta *Veinte pasos para la muerte*rekin itxi.

***Samaniego*** (1959-2001). Mila eserleku inguruko auzoko zinema handia izatetik Gasteizko lehenengo minizinema izatera pasa zen, 4 areto eta 662 eserlekurekin.

***Gran Cine Gasteiz*** (1964-1991). *Cleopatra*ko Elisabeth Taylor ikonikotik *Terminator 2*ko Arnold Schwarzenneger gihartsura 27 urte eta emanaldi ugari pasako dira Gasteiz zineman, bere garaian 70 mm-ko Todd-AO sistema zuen hiriko bakarra.

***Iradier Zinema*** (1966-1982). Auzoko zinema, *reprise*ak eta bigarren mailako estreinaldiak ematera etsia, VESAk Samaniego zinemaren eredua jarraituz eraikia; 992 eserleku zituen.

***Astoria Palace Zinema*** (1966-1986). Zabaldu zenean "EEBBetatik inportatutako ekipamendu klimatizatua", "Perlux Pantaila erraldoia" eta "70 mm-ko Todd-AO instalazio modernoa" iragartzen zituen "zinema moderno" honek ere 900 ikusle har zitzakeen. Iragarkiak honela amaitzen zuen: "¡Un derroche de moderna elegancia!"

***Iris Salón Zinema*** (1976-1990). Principal antzokiko areto-anbiguan arte eta saiakerako emanaldiak eskaintzeko prestatutako areto ñimiñoa. Iris izena hartu zuen, Gasteizko lehen zinemak bezala, eta harena bezala honen bizialdia ere laburra izan zen.

***Mikeldi Cinema*** (1980-2001). 182 eserleku bakarrik, begi zorrotzenentzat bakarrik. Izan ere, Mikeldi *Iñaki Núñez* eta *Araba Films*eko bere bazkideen fruitua izan zen, horiek ekoizle, banatzaile eta emanaldien arduradun lanak egiten zituztelarik, egoitzak Gasteiz eta Bilbon dituen Mikeldi katearen bidez.



*Obra baten horma-irudia Arriaga Antzokian. Zinema eta antzerkia uztartzen dituen aretoaren adibidea. Bilbo.*



# Euskadiko Filmategia




*Euskadiko Filmategia*

*Euskadiko Filmotekaren egoitza eta instalazioak.*

